



# ahantzuratik ateratzen

Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan  
1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan  
gertatutako giza eskubideen urraketei eta bestelako sufrimendu  
bidegabei buruzkoa





# ahantzuratik ateratzen

Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan  
1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan  
gertatutako giza eskubideen urraketei eta bestelako sufrimendu  
bidegabei buruzkoa





*Ezin da sekula nahigabea gutxietsi. Nik nire nahigabea dut eta zuk zurea. Baina ezin dira ez neurtu, ez alderatu. Ezin da esan nork sentitzen duen atsekabe handiagoa. Ama baten nahigabea bere nahigabea da, eta beste ama batek bezain nahigabe handia sentitzen du. Bien nahigabea berdin-berdina da. A.T.M.*

Batzordeak aitorten bat egin nahi die lekukotza aurkeztu zuten biktimei. Haien hitza eta esperientzia memoria partekaturako ekarpen bat ere badira.



**LEHENDAKARITZA**  
Giza Eskubide, Bizikidetz  
eta Lanbaldintzen Lehiakortza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

**PRESIDENCIA**  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

## **ahantzuratik ateratzen**

Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketeki eta bestelako sufrimendu bidegabeei buruzkoa

Argitaratzailea:

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

Lehendakaritza

Eusko Jaurlaritza

Nafarroa, 2

01007 Vitoria-Gasteiz

Koordinazioa eta idaztea: Carlos Martin Beristain

Balorazio Batzordea:

Manuela Carmena Castrillo

Aintzane Ezenarro Egurbide

Alvaro Gil Robles eta Gil Delgado

Monika Hernando Porres

Inés Ibañez de Maeztu Izaguirre

Carlos Martin Beristain

Sabino Ormazabal Elola

Jose Antonio Pérez Pérez

Marian Sánchez Amado

Txema Urkijo Azkarate

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege Gordailua: BI-1002-2017

Inprimatzailea: Gráficas Ingugom

2017

<b>Sarrera</b> .....	<b>11</b>
<b>I. Balorazio-batzordea eta aurkeztutako kasuak</b> .....	<b>17</b>
<b>1. Balorazio Batzordearen lana</b> .....	<b>19</b>
Lege-esparrua	19
Batzordearen lana	20
Biktimen presentzia eta lekukotzak biltzea	22
Irizpenen egitura eta haiei buruzko erabakia	23
Erabakiak hartzerakoan kontuan hartu beharreko datuak eta alderdiak	24
Giza eskubideen urraketen kasuetarako balorazio-irizpideak	25
Eragina balioztatzea	27
Kausalitatearen eta eraginen arteko lotura	28
Erabakiak hartzeko irizpideak	29
<b>2. Batzordeak erregistratutako jazoera- eta kasu-motak</b> .....	<b>31</b>
Estatuko agenteek hildako pertsonak	31
Lesioak eragin zituzten erasoak manifestazioetan	32
Su-armen edo gomazko balen bitartez hildako pertsonak	33
Tratu txarrak eta tortura	33
Bortxaketa eta indarkeria sexuala	34
<b>II. Giza Eskubideen urraketa motak (1960/78)</b> .....	<b>37</b>
Metodologia	39
Jazoeren testuingurua	39
<b>1. Manifestazioen errepresioa. Indarra berezketarik gabe eta gehiegikeriaz erabiltzea</b> .....	<b>43</b>
Langileen borrokengatiko manifestazioak	45
Ingurumen-mobilizazioak	46
Mobilizazioak Burgosko Prozesuaren aurka	48
Heriotza Txiki eta Otaegiren kasuagatiko manifestazioetan	49
Preso politikoentzako amnistiaren aldarrikapena	50
Zigorgabetasunaren hedadura	51
Martxoaren 3ko errepresioa langile-mobilizazioen kontra	53

Beste mobilizazio ekologista batzuk	54
Errepresioagatiko manifestazioen kontra errepresio gehiago	55
Tiroak amnistiaren aldeko manifestazioen eta Perturren desagerpenagatiko manifestazioen ondoren	56
Elizak indarkeria bidez hustea	58
Gomazko balek hildako pertsonak	59
Amnistiaren aldeko bigarren astea eta tiroak su-armekin	60
Germán Rodríguezen heriotzagatiko mobilizazioen aurkako errepresioa	66
Manifestatzaileen aurkako indarkeriak haurrengan izandako eragina	68
<i>Heriotza jazarpenaren erdian</i>	
<i>Tiroak etxebizitzaren kontra langileen manifestazio batean</i>	
<i>Tiroa su-arma batekin neskato bati</i>	
Ondorioak	73
<b>2. Erasoak su-armekin errepide-kontroletan</b>	<b>74</b>
Tentsio- eta zigorgabetasun-testuingurua	74
Boluetako kontrola, 1961	75
Kontrola eta heriotza Apatamonasterion	77
Kontrol bikoitza Donostian	78
Lehendabizi tiro egin eta gero ikertu	79
Jazoeren eta indarkeriazko heriotzaren zentzugabetasuna	80
Zigorgabetasuna eta errua alderantzikatzea	81
Kalte-galerengatiko demandak	83
Susmoak eta mehatxuak	84
Aitorpenaren zentzua	85
<b>3. Su-armak erabiliz egindako polizia-operazioak</b>	<b>86</b>
Bilera bateko kideen aurkako tiroak	87
Operazioa herrian	87
Zaborra jaistean tirokatua	88
Neska baten eta haren mutil-lagunaren heriotza eta zauriak	89
Errepideko beste operazio batzuk	90
Jazarpena baserrian	91



Susmagarriak hiltzea	91
Laburtzeko	92
<b>4. Liskarretako biktimak</b> .....	<b>93</b>
Gertakari horien ezaugarriak	94
Kasuak Batzordearen aurrean	95
Udaltzainek su-armak erabiliz egindako tiroak	98
Berehalako erantzunak eta geroagokoak	99
Laburtzeko	100
<b>5. Bidezko prozesu judizialerako eskubidea urratzea eta heriotza-zigorra</b> .....	<b>101</b>
Fusilamenduen testuingurua	101
Kasuak eta kasuetako pertsonen bizitzak	102
Gertaerak	102
Legezko bermerik gabeko gerra-kontseiluak	103
Epaiketa sumarismoak eta exekuzioak	104
Exekuzio-eguna	105
Kasuen balioespena	106
Ondorengo jazarpenak	107
<b>6. Langileen aurkako errepresioa eta Martxoaren 3ko sarraskia</b> .....	<b>109</b>
Testuingurua	109
Gertaerak	110
Balaz zaurituak Martxoaren 3ko goizean	111
Kolpeak eta jipoiak Martxoaren 3ko goizean	113
Ke-potoak erabiliz eliza barruan egindako erasoak	114
Jasotako kolpeek zaurituak	115
Hildakoak	116
Balaz zaurituak	118
Beste batzuei laguntzen ahalegintzean balaz zauritutakoak	122
Gauean izandako beste zauritu batzuk	124
Hurrengo egunean	124
Ikerketarik ez	125
Ondorioak	126

<b>7. Emakumeen aurkako sexu-indarkeria</b> .....	<b>128</b>
Aurrekariak	128
Bortxaketa etxe baten miaketan	129
Sexu-indarkeria tortura gisa	132
<b>8. Tortura eta tratu txarren kasuak</b> .....	<b>133</b>
Kasuen ikerketa	133
Testuinguru politikoa	136
Batzordean aurkeztutako kasuak	136
Bereizketarik gabeko atxiloketak	140
Tortura eta tratu txarren lekuak	142
Adingabeak	147
Behin eta berriz atxilotzea	149
Isolatze-teknikak, kolperik gabeko tratu txarrak eta tortura	152
Sexu-indarkeria eta umiliazioak	153
Kolpeak burezurrean eta ondorio sentsorialak	154
Falanga eta “zezen-zakila”	155
Tortura eta tratu txarren teknika espezifikoen erabilera	156
Gorpuz-jarrera eta maniobra behartuak	159
Deklarazioak eta beren burua errudun adierazitako deklarazioak sinatzea	161
Tortura eta tratu txar psikologikoak	162
Kolaboratzera behartzea	163
Zigorgabetasun-testuingurua	165
<b>III. Eragina eta erreparazioa</b> .....	<b>171</b>
<b>1. Eraginak eta ondorioak biktimengan</b> .....	<b>173</b>
Kontakizunetik biktimen ondorioetara	173
Mobilizazio emozionala	174
Elkar lotzen diren oroitzapenak	174
Kapsulatutako historiak	176
Beldurraren eragina	176
Justizia bila	177

Ondorioen sarritasuna	179
Ordena publikoko indarrek hildako pertsonak	182
Lesioak eragin zituzten erasoak, manifestazioetan	186
Balaz eta gomazko pilotez zauritutako pertsonak	188
Atxilotutako pertsonak eta tortura-kasuak	193
Bortxaketa eta indarkeria sexuala	201
Martxoaren 3ko gertaeren ondorioak	202
<i>Eragin psikologikoa bizirik atera ziren pertsonengan</i>	
<i>Ondorio fisikoak</i>	
<i>Ondorio sexualak</i>	
<b>2. Aitortzari eta erreparazioari buruzko pertzepzioak</b>	<b>207</b>
Egiaren garrantzia	207
Aitortzaren balioa	209
Kalte-ordainetarako neurriak	210
Belaunaldi berrientzako balioa	211
Torturari buruzko egia	211
Torturaren prebentzioa eta biktimen arreta	212
Egileak nor izan diren jakitea, justizia egitea eta haiei kritika morala egitea	212
Martxoaren 3ko gertaeretako biktimen eta haien ahaide bizien eskaerak	213
<b>IV. Batzordean aurkeztutako kasuen laburpena</b>	<b>217</b>





Sarrera



*ETBk Dekretuaren berri eman zuen; entzun nuenean, hau esan nion neure buruari: nik argitu egin behar dut hau. Kostatu egin zitzaidan, baina egiteko erabakia hartu nuen azkenean. Aurrera egingo dut, J.E.k hau argitzea merezi du-eta, pentsatu nuen. Argitu dadila kasua, behintzat. Eta hemen nago. Gutxienez, entzun gaitzaten eta hutsegite guztiak aitortu daitezten. Hori oso ona izango litzateke. Guztiok aldatzen bagara, guztia aldatu ahalgo da. Niri gertatu zitzaidan, baina edonori gerta zekiokkeen. Hoberena horrelako gauzarik ez gertatzea izango litzateke. Pentsamenduak ere aldatu behar dira, zeren eta egun osoan ari bazara pentsatzen izorratu egin zaituztela eta amorru horrekin, gorroto horrekin geratzen bazara... buruak min handia egiten dizu. Pauso positiboren bat ematen ez bada, mintu egiten zaitu, eta gainerakoei ere min ematen die. J.F.M.*

1978an ustezko errepide-kontrol batean Guardia Zibilak ibilgailu baten kontra egindako tiroetatik bizirik irten zen pertsona batena da lekukotasun hori. Eraso horretan, lekukoaren adiskide bat (16 urtekoa) zauritu eta hil egin zuten. Hitz horiek ondo erakusten dute biktima askorentzat bizitako esperientziak aitortzea oso garrantzitsua dela, bai eta testu honetan Balorazio Batzordeak aurkeztzen digun lana ere. Horrez gainera, etorkizunean indarkeria prebenitzeko balioko lukeen oroimen kolektibo bat sortzeko lanean biktimek egiten dituzten ekarpenak ere nabarmentzen ditu.

Gertakari haietako asko duela 30-40 urte jazo ziren: batzuk, diktaduraren garaian eta, azkenak, Franco hil zenetik Espainiako Konstituzioa onartu zenera arte (1978). Urteek eragina izan dute gertakari horien oroimenetan, eta esperientzia latz horiek egunkari-ebakin batean, etxeko tiradera batean edo bihotzean gorde behar izan dituzte biktimek hainbat urtean. Ahaide askok ez zuten gertatutakoari buruz hitz egin nahi, familia ez kezkatzeko, indartsuak edo aktiboak zirela erakusteko, edo errepresaliarik ez izateko. Kasu gehienetan, esperientziak ez ziren familiatik kanpo kontatu.

Alabaina, gertakarien une nagusien oroimenek oso garbiak izaten jarraitu zuten kasu gehienetan. *Flash oroimen* horien bitartez, adibidez, jazoeraren berri izan zuenean zertan ari ziren, berria nola jaso zuten edo une hartan eragin emozional handia izan zuten egoerak datozkie senideei edo biktimei gogora. Kasu ugarian, ahots-tonua, tokia, giroa edo haiekin zeuden pertsonak deskribatzeko gai izan ziren biktimak. Baita harridura- edo shock-egoera ere.

*Nik ikustera sartu nahi nuen, zaurituta zegoelakoan. Baina ez zidaten sartzen uzten. Lubeko [Bizkaiko motozikleta-enpresa bat] mutil bat iritsi zen eta odola*

*emateko eskaini zuen bere burua; berak ere ez zekien nire senarra hilda zegoela; oso adiskide onak ziren. Orduan, garrasika hasi nintzen. Zerbait entzun nuen, "hilda" edo "ez hilda" edo horrelako zerbait. Eta polizia denetik esaten hasi nintzaion. M.A.*

Txosten horrek Batzordean aurkeztutako kasuak biltzen ditu, ez ditu jasotzen denboraldi horretan gertatuko kasu guztiak. Batzordeak badaki giza eskubideen urraketak bizi zituzten beste pertsona batzuek ez zituztela beren kasuak aurkeztu hainbat arrazoiengatik. Batzuek ez dute biktimatzat hartzen euren burua, borrokalari antifrankistatzat baizik. Beste batzuek, berriz, oso minduta jarraitzen dute bizitakoagatik. Halaber, beste batzuk esperientzia ahazten saiatu dira eta ez dute gertatutakoaz hitz egin nahi. Azkenik, beste batzuk ez zuten sentitu hitz egiteko behar adina konfiantza.

Batzordeak jasotako kasu askotan, gizarteak ahaztuta zituen bizitako istorioak, eta zenbaitetan, familiek isilpean zituzten gordeta. Kasu baterako, Azkoitian su-arma batek emakume bat (M.J.G.A.) zauritu zuen, baina haren gurasoek gertakari hori ahaztu nahi zuten, ez zuten arazo gehiago izan nahi eta, horregatik, salaketarekin eta errekurtsoekin aurrera ez jarraitzea erabaki zuten. Hala eta guztiz ere, M.J.ren amak jazoera horren inguruko dokumentazio guztia gorde zuen harrez geroztik igarotako 38 urteetan. Kasuaren inguruko dokumentazioa gordetzea da, batzuetan, bizitakoa erabat ahaztea galarazten duen gauza bakarra. Jazoera ahaztea edo gogoratzea (edota biktimaren oroitzapena aldarrikatzea) beste baldintza batzuen arabera ere izan zen, hala nola ingurune sozialaren eta politikoaren inplikazioaren arabera. Hots, sindikatu, alderdi edo elkarte jakin batzuetakoak ziren biktimak, oro har, gehiago gogoratu edo aldarrikatu ohi dira. Ezein alderdi edo sindikaturekin zerikusirik ez zuten biktimak, aldiz, bizkorrago ahaztu ziren.

Bildutako istorioen, min partekatuen, Balorazio Batzordean aurkeztutako dokumentazioaren eta 1960-1978 denboraldiari buruz aurkeztutako kasu-motetan Batzordeak egindako azterketaren berri ematen da txosten honetan. Batzordeak badaki hemen jasotako antzeko beste kasu batzuk (Gerra Zibilaren amaieratik 1960ra bitarte gertatuak) ere badaudela, baina adierazitako dekretuan ezarritakoari lotzen zaio txosten honetako lana. Lehen zatian Batzordearen lanaren eta Batzordean aurkeztutako kasu-moten ikuspegi orokor bat ematen da. Horren ondoren, kasuak aztertzen dira, gertakari-motaren arabera multzokatuta: fusilamenduak, manifestazioak, errepide-kontrolak, polizia-operazioak, istiluak, martxoaren 3ko gertakariak, sexu-indarkeria, tortura, etab. Heriotzak edota zauriak eragin zituzten giza eskubideen urraketan sailkapen horretan, mota



bakoitza aztertzen da. Pertsona horien istorioen bitartez, esperientzia komunak berritu eta testuinguruan ipin daitezke eta izan zuten eragina uler dezakegu, biktimei eta haien ahaideei balioa emateaz gain.

Hirugarren atalean, gertakariak eragindako eta Batzordeak dokumentatutako ondorenak aztertzen dira. Ondoren horiek lagungarriak dira indarkeria-mota horien eraginak eta biktimengan, bizirik atera zirenengan eta senideengan izandako ondorioak ulertzeko, baita horrelako kasuetan aplikatzeko lege-esparruak seinalatutako irizpideak aplikatzean haien esperientziak kontuan izateko ere. Aitorpenari eta erreparazioari buruzko ondorioen eta ikuspegiak azterketa bat ere egiten da, biktimen eta ahaideen kontakizunetan oinarrituta. Azkenik, Batzordean aurkeztutako kasu guztien laburpenak ageri dira txostenean.

Batzordeak aitorpen bat egin nahi die lekukotza aurkeztu zuten biktimei. Haien hitza eta esperientzia memoria partekaturako ekarpen bat ere badira. Pribatutasun-arrazoiak direla-eta, biktimen izen osoak ez dira ageri, haien izenen eta kasuen inzialak baizik. Gertakariaren gainerako xehetasunak bere horretan daude bilduta, Batzordeak aztertu zituen bezalaxe.





## I. Balorazio-batzordea eta aurkeztutako kasuak



## 1. Balorazio-batzordearen lana

### Lege-esparrua

2011ko martxoaren 31n, Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruzko 61/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak. Proposamen horren bitartez, Legebiltzarrak horrelako biktimak aitortzeko eta haien sufrimendua erreparatzeko neurriak eta jardunak abiaraztera presatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Kontuan hartu behar da hori baino lehen biktima horiek aitorten- eta erreparazio-legeetatik kanpo zeudela.

Eskakizun hori betearazte aldera, Jaurlaritzak ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua onartu zuen (107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa).

Balorazio Batzordea (hemendik aurrera, BB) *Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak emateko ekainaren 12ko Dekretuaren*<sup>1</sup> 6.8 artikulua araberatu zen, dekretu horren babesean aurkeztutako eskabideak izapidetzeko eta balioesteko agindua betetze aldera; halaber, Idazkaritza Tekniko bat ere sortu zen.

Batzordea 2012ko uztailaren 20an eratu zen formalki, eta kideek zegozkien izendapenak onetsi zituzten. Geroago, irailaren 13an, aho batez onetsi zen BBren barne-funtzionamendua arautzeko erregelamendua.

---

1 119. EHAA, 2012ko ekainaren 19koa.

## **Batzordearen lana**

BBren jarduera hiru urte eta erdiko denboraldian egin zen (tarte horretan EAEko bi gobernu egon ziren); bere horretan eutsi zitzaion BBri denbora guztian, funtzionario edo aholkulari batzuk aldatu baziren ere, eta parte-hartzaileen hasierako oinarrizko mamiak berdin jarraitu zuen (lanaren jarraitutasunari eutsi ahal izan zitzaion horrela). Batzordearen funtzionamendua aldi behingo bileretan oinarrituta egon zen, hiru zeregin nagusi gauzatze aldera:

1. Kasuaren hasierako ebaluazioa, dekretuan bildutako kasuetan txerta daitekeen edo ez erabakitzeko.
2. Kasuak aurkeztu zituzten biktimen lekukotzak jasotzea eta biktimei harrera egitea.
3. Kasuak ebaluatzea, eta haiei buruzko irizpenak idaztea, eztabaidatzea eta, hala badagokio, onestea.

Funtzionamendu kolektibo horretaz gain, Batzordeko kideek erantzukizun zehatzak ere hartu zituzten beren gain aurretiko lanetan edo elaborazio-lanetan, hala nola kasuen testuinguruaren aztertzea, ebaluazio medikoak eta psikologikoak egitea, gertakariei edo biktimei buruzko bestelako informazio dokumentala biltzea, epaitegi zibil edo militarretako artxiboak berrikustea, edo irizpen-proposamenak idaztea.

Dekretuaren 9.5 artikuluari jarraikiz, BBk, Idazkaritza Teknikoaren bitartez, informazioa ematera presatu ditu hainbat erakunde (judizialak, polizialak, administrazio-alorrekoak, eta/edo ospitale-arlokoak), alegatutako jazoerak edo datuak egiaztatzeko, nahiz eta kasu askotan ez zegoen dokumentaziorik. Kasu askotan, zenbait erantzunen bitartez ondoren laburtzen den bezala, hainbat erakundetatik informazioa lortzen saiatu zen Batzordea. Kasu horietako askotan, zoritxarrez, ezin izan zen biktimei buruzko informaziorik lortu, zehazki, ez zegoelako informazio horri buruzko dokumentaziorik.

*Getxoko udal-agiritegietan ez ageri heriotza horrengatik zehapen-espediteren, diziplina-espediteren edo ondare-erantzukizuneko espediteren bat egon zenik noizbait. Udaltzaingoaren espeditente pertsonalean [heriotzaren egilea udaltzain bat izan zen] ez da ageri gertakizun horien erreferentziarik. F.A.M.*

*Gaur egun, epaitegietan ez dago horri buruzko ezer ere. E.P.B.*

Erakunde publikoei edo instituzioei eskatutako dokumentazioa lortzeko oztopoek edo berandutzeek nabarmen zaildu zioten Batzordeari dokumentazio horren bilaketa aktiborako laguntza lortzea. Askotan, ez zegoen jazoerei buruzko dokumentazio ofizialik, epaitegietako agiritegietan egindako garbiketak zirela-eta, suntsitu egin baitzituzten bere garaian.

*Ez dago Burgoseko presondegian egon nintzela edo gerra kontseiluan agertu nintzela egiaztatzen duen inolako agiririk. Hau izan da erantzuna: 'Ez dago interesdunaren aurrekaririk'. Ez Burgoseko espetxean (2001ean), ez Agiritegi Nagusian (2004an), ez Auzitegi Militarrean, ez Defentsa Ministerioan (2010ean). A.E.M.ri buruzko irizpena.*

Beste batzuetan, ez ziren dokumentuak eman, segurtasun-arrazoiak argudiatuta, diktaduraren garaian gertatutako giza eskubideen urraketari buruzkoak baziren ere eta batzorde ofizial batek eskatu bazizkien ere.

*Zure eskabideari dagokionez, jakinarazten dizugu gure agiritegietan ez dela ageri gertakizun horri buruzko inolako kausarik; badaude, aitzitik, aurretiko eginbide batzuk (18/69), eta San Sebastián plazan bideratu ziren; halere, ezin dugu haien kopia osorik eman, pertsonen segurtasunean, ohorean, intimitatean eta irudian eragina izan dezaketen datuak baitituzte, alde batera utzi gabe oraindik ez direla igaro berrogeita hamar urte prozedura amaitu zenez geroztik (...).Laugarren Lurralde Epaitegi Militarra. A Coruña". J.M.G.G.ren kasua.*

Horrekin batera, Batzordeak Idazkaritza Teknikoaren administrazio-lana eta laguntza ere izan zuen, dela biktimekin harremanetan jartzeko eta aurretiko dokumentazio-bilketa gauzatzeko zereginetarako, dela derrigorrezko deialdiak egiteko, gai-zerrenda ezartzeko eta aktak egiteko.

Dagokion lan-metodologiari jarraikiz, Batzordeak osoko bilkurak egin zituen lekukotzak biltzeko, eta biktimei eskatu zien bilkura horien erregistro bideografikoan parte hartzeko (batek izan ezik, biktima guztiek hartu zuten parte erregistro horretan). Lekukoen ikus-entzunezko erregistroak egiteko, Giza Eskubideen Zuzendaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearen zerbitzuak kontratatu zituen, sozietate horrek beste esparru batzuetan frankismoaren biktimekin izandako esperientzia antzekoa eta positiboa izan zela iritzita. Grabazio

horiek bi arrazoiengatik egin ziren: batetik, erregistro bat edukitzea, geroago kasuak aztertzeke eta dagozkien irizpenak emateko; bestetik, lekukotza horiek Batzordearen lanaren Oroimenaren Funts batean jasota uztea, Oroimenaren Institutuan txertatzeko, biktimen esperientzia bertan bilduta gera dadin.

Batzorde hau zuzentzen duten jardun-printzipioei jarraikiz, biktimekin hitz egiteko prozesua zenbait irizpideren arabera egin da: batetik, haien etxebizitzatik gertu biltzen saiatu gara; bereziki zaindu dugu harrera-tokiko ingurumen-baldintzak egokiak izan zitezen; gainera, gertutasun pertsonala izaten saiatu gara, bai deialdiak egitean eta hitzorduak finkatzean (deialdia eta hitzorduak pertsonalak izan dira, bana-banakoak) bai lekukotzak jasotzean.

## **Biktimen presentzia eta lekukotzak biltzea**

Lekukotzak biltzeari dagokionez, hitzorduak pertsonalak eta bana-banakoak izan ziren, eta biktimei aukera eman zitzairen saioan gertuko norbaitekin egoteko, betiere gertuko pertsona haiekin/harekin esperientzia traumatikoa partekatu badu (ahal izan duen neurrian).

*Benetan pozgarria izan da niretzat hitzordura etortzea. Asko gustatu zait unetxo batez guri entzutea eta arreta ematea. Ondo sentitzen zara barrena hustu ondoren. M.E.F.R.*

Saioan, Batzordeko kide guztiak aurkeztu eta saioa deskribatu ondoren, Batzordeko kide batek lekukotzaren bilketa zuzentzeko eta dinamizatzeko ardurua hartzen zuen bere gain, aurretiaz onetsitako lan-dokumentuan oinarrituta, prozedura-gida moduan; azkenik, saioaren amaieran, gainerako kideek galderak egiten zizkieten biktimari, egokitzen joz gero.

Biktimei entzuteko eta harrera egiteko ariketa funtsezkoa izan zen Batzordearen lana eta biktimaren eta haren ahaideen ongizatea bermatzeko. Kontuan izan behar dugu biktima askoren kasuan erakunde bat istorio eta kontakizun hura entzutera gerturatzen zitzairen lehen aldia zela, gerora ebaluazio bat egiteko eta aitortpena edo, hala bazegokion, erreparazio ekonomikoa emateko. Horretaz gain, ez dugu ahaztu behar giza eskubideen urraketa larriak –lau edo bost hamarkada lehenago gertatutakoak– izan zirela istorio horiek, eta urraketa horietan estatuko agenteak tartean zeudela sartuta; horregatik guztiagatik,



biktima gehienek oso garrantzitsutzat jo zuten espazio hori, bai eta beren lekukotzari emandako garrantzia ere.

*Jada ez genuen espero inolako erakunde-aitorpenik. S.U.S.*

*Nire kasua ahaztuta zegoen, orain arte. Argi eta garbi. Batzorde hau lagungarri izan daiteke guretzat. I.S.P.*

*Dekretua ikusi nuenean, pentsatu nuen azkenean nagusitu zela sen ona. Nire ustez, horrelako batzordeak gailendu egin behar dira, horrelako jazoera gehiago gerta ez daitezen. J.G.A.*

*Hemen nago eta nire hitzak entzutea nahi dut; gainera, nire aitari zor diot. Borroka egin zuten guztiei eskertzeko modu bat da. 'Aita: irabazi egin dut azkenean, zure etxean egin zuten mina aitortzea lortu dut'. Beraiek oso nekatuta amaitu zuten eta erabaki zuten nahikoa izan zutela. Baina gaur egun egoera oso desberdina da. A.L.B.L.*

*Orain arte, inor ere ez zen arduratu gure arazoaz. J.I.O.*

## **Irizpenen egitura eta haiei buruzko erabakia**

Batzordeak erabaki zuen bere lana adostasunaren bitartez egitea eta, ahal zela, irizpenak aho batez onestea. Funtzionatzeko modu horrek oso esperientzia positiboa sortu zuen eta erabaki sendoagoak hartzea ahalbidetu zuen, irizpide komunitan oinarrituta eta lanak kohesio eta koherentzia handiagoa duela (denbora eta saio gehiago eskatzen baditu ere).

Batzordeak erabaki zuen irizpenaren egiturak hauek bildu behar zituela: a) kasuari buruzko datuak eta aurkeztutako dokumentazioa; b) lehen zati bat, aztergai diren gertakarien denboraldiaren testuinguru soziopolitikoak laburtzen duena; c) gertakarien kontakizunari eta haien ondorenei (frogatutzat jotzen direnei) buruzkoa izan d azterketa; d) Batzordeak kasuari buruz ateratako ondorioak; eta e) Batzordearen aitoren- eta erabaki-akordioa.

Irizpen guztiak osoko bilkuran landu ziren, hala bazegokion, aldatu egin ziren, eta ia guztiak onartu ziren (erabakia ados jarrita hartu zen).

## **Erabakiak hartzerakoan kontuan hartu beharreko datuak eta alderdiak**

Batzordeak aztergai zituen kasuak finkatzera eta kalte-ordainak ezartzeko irizpideak aplikatzera bideratu zen bileretarako eta erabakiak hartzeko denboraren zati bat. Dekretuak zenbait irizpide finkatzen bazituen ere, Batzordeak kasuen azterketa erabaki edo doitu behar izan zuten, praktikan oso argiak ez ziren eta kasuaren ebaluazioa eskatzen zuten zenbait alderdiri dagokienez.

Batzordearen xedea ordena publikoko indarrek gauzatutako “motibazio politikoko indarkeriako” eta “sufrimendu bidegabeko” gertakarietara zegoen, eta gertakari haietako zenbaitzuk xehetasun handiagoz ebaluatu behar izan ziren. Gertakarien inguruko beste alderdi bat ere eztabaidatu zen: gertakarien egileak, hain zuzen; izan ere, urraketaren eragilea segurtasun-gorputz gisa identifikatze hutsa baino korapilatsuagoa da horrelako jazoeren kasuistika. Kasu gehienetan urraketaren egilea oso argi bazegoen ere, bi kasutan urraketak “kontrolik gabeko talde” gisa jokatzeko zuten uniformerik gabeko agenteek egin zituzten, ustez. Kasuetako batean, ez zegoen batere argi egileak nor ziren eta, horregatik, Barne Arazoetako Ministerioaren bulegora deribatu zen kasua, gertakarien protagonista “terrorismoaren biktima” izan zela iritzi baitzuen Batzordeak, legeak jasotakoari jarraikiz.

107/2012 Dekretuaren bidez esleitutako kalte-ordainen bateragarritasunari dagokionez, hura aldatzen duen urriaren 16ko 426/2013 Dekretuan ezarritakoa hartu zuen kontuan Batzordeak; 426/2013 Dekretuaren arabera, oroimen historikoari edo terrorismoaren biktimei buruzko legeriaren eremuan, biktimek, gertakari berengatik jaso dituzten edo jaso ditzaketen laguntzekin bakarrik dira bateraezinak dekretu horretan ezarritako diruzko konpentsazioak. Dena den, dekretu horretan aurreikusitako diruzko konpentsazioa baino txikiagoa jaso bada gertakari horientatik, jasotako zenbateko horren eta dekretu horretan aurreikusitakoaren arteko aldea ordaindu zitzaien onuradunari, oroimen historikoari buruzko legeak aplikatuz.

1976ko martxoaren 3an Gasteizen gertatutako sarraskian egondako biktimen kasuan, administrazio-prozedura berezi baten onuradun izan ziren Arabako Aldundiaren bitartez eta, horregatik, prozedura horren bidez emandako zenbatekoa kendu zitzaien Batzordeak proposatutako kalte-ordainetatik, betiere Batzordeak proposatutako zenbatekoa hura baino handiagoa bazen.

Azkenik, dekretu horretan ezarritako baremoen aplikagarritasuna eta giza eskubideen urraketen ondorenak zehazteko modua finkatzeko lan handia egin zen Batzordean. Esate baterako, kasu askotan irizpide horiek oso mugatuak zirela seinalatu behar izan zitzairen zegozkion agintariei. Izan ere, istripuetarako ezarrita dauden irizpideak dira, nahiz eta nahita egindako ekintzak izan, estatuko agenteen erantzukizunekoak, ahaztu gabe kasu gehienetan biktimek ez dutela jaso ez aitorpenik ez diru-laguntzarik eta, halaber, erakundeen zigorgabetasuna eta ahaztea pairatu behar izan zutela hainbat hamarkadan.

## **Giza eskubideen urraketen kasuetarako balorazio-irizpideak**

Giza eskubideen urraketen kasuak baloratzeko, zuzenbidean funtsezkoak diren hiru froga-elementu hauek baliatzen dira: 1) lekukotza, kasu honetan, zuzeneko biktimarena edo haren ahaideena eta/edo lekukoen lekukotzak; 2) gertakariak; eta 3) froga teknikoa.

Hiru elementu horiek oinarritzkoak dira biktimek jasandako kalteak edo lesioak balioesterakoan. Euskadin sortutako lege-esparruan, 107/2012 Dekretutik aurrera ulertzen da bi irizpide hauek hartu behar direla kontuan: 1) jazoera (bizitako jazoerak edo biktimei buruzko xehetasunak) benetan gertatu zela erakustea eta biktimaren nortasuna, adina eta abar frogatzea; eta 2) giza eskubideak urratu zitzaizkiola eta urraketa horrek ondoren fisiko edo psikosozial negatiboak eragin zizkiola adieraztea.

Legediaren edo programaren arabera, kalte-ordainak eragiten dituzten ondorenak identifikatzeko baremo edo irizpide jakin batzuk erabiltzen dira (tipikotasunaren ikuspegi judiziala, kontraesanaren printzipioarekin eta adituen txostenekin), edo bestela, froga-estandar txikiagoa (eta horrenbestez, kalte-ordain txikiagoak) duten administrazio-programak, gehiago erabiltzen direnak munduko beste herrialde batzuetako Egiaren Batzordearen ondorengo programetan edo administrazio-erreparazio-programetan.

Jazoerak benetan gertatu zirela frogatzeko, biktimaren lekukotza ez ezik (zuzenekoa edo zeharkakoa), lekukoak ere baliatzen dira, jazoerak frogatzeko agiri edo dokumenturik ez dagoenean. Mekanismo hori askotan erabili izan da munduko erreparazio-programa ugaritan. 107/2012 Dekretuaren bidez

## Ahanturatik ateratzen

babestutako kasuetako askoren ezaugarriak zirela eta, haiek balioztatzea nabarmen zaila izan zen:

- a) 1960tik 1978ra bitarteko jazoerak dira; hots, dekretua onartu baino 34-52 urte lehenago gertatu ziren.
- b) kasu gehienetan ez zen haiei buruzko ikerketa ofizialik egin,
- c) prozesuren bat izan zuten kasuei dagokienez, zaila zen haiei buruzko epai-txostenak eskuratzea, eta kasu askotan agiriak garbitu egin zirenez, balio handiko dokumentazioa galdua zegoen.

Erregistrorik ez zegoenean, biktimaren lekukotzaz gainera, une hartako beste kazetaritza-datu batzuk baliatu ziren (jazoerei buruz prentsan atera ziren albisteak edo kasua jasotzen zuten aurretiko ikerketak) froga-elementu gisa. Eta, hala bazegokion, lekuko fidagarriak ere froga-elementu gisa balio izan zuten, betiere haien hitzak biktimaren jazoerekin eta kontakizunarekin bat bazetozen.

Halako kasuetan, hartutako erabakiak baterakoak izan ohi dira eta froga, dokumentu eta lekukotza denak balioztatu ohi dira, eta ez haietako bakar bat solte. Informazio dena batera hartu eta multzo hori sendoa izateak ematen dio sinesgarritasuna kasuari. Biktimaren aldeko irizpidea kontuan hartu behar da giza eskubideen urraketetan, urraketarik gertatu ez zelako probak ez dauden bitartean. Zigorgabetasun-mekanismoen eraginez, kasu askotan biktimek ezin dituzte jazoerak frogatu, hala nola diktaduraren garaian gertatutako urraketan kasuan eta, beraz, behin jazoera zehaztuta dagoela, ezin zaie biktimei eman frogan karga osoa.

Iritzi zen gertakariaren existentzia hutsak berezko eragina zuela. Horretarako, aztergai ziren jazoeren aurrekariak, garai hartako egoera edo ereduak agerian uzten zituzten testuinguru-azterlanetan oinarritu zen Batzordea. Esate baterako, diktaduraren garaian, jardunbide orokor gisa tortura baliatzen zen denboraldietan egindako atxiloketak. Bestalde, lekukotzaren barnekoherentzia (lekukotzak berez duen koherentzia) eta kanpo-koherentzia (beste kasu askotan frogatutako jardun-ereduarekiko koherentzia) ere erabiltzen dira kasuak baloratzean.

Txosten psikologikoak edo medikoak erabiltzen diren kasuetan, txosten horiek jazoerak gertatu eta hainbeste urte geroago egiteak nabarmen mugatzen ditu

ikerketa-aukerak eta oztopatu egiten du zuzeneko frogak edukitzea (esate baterako, indarkeria sexuala edo torturaren ondorenak); halere, biktimaren lekukotzarekin eta elkarrizketan biktimak jazoerek izandako eraginei buruz esandakoarekin haztatuta aztertu behar dira txosten horiek. 107/2012 Dekretuaren arabera, halako kasuen balioztapena edo balorazioa gaur egun biktimak dituen ondorenen arabera egin behar da, eta eragin-maila honela sailkatu behar da: baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, eta hainbat mailatako ezintasunak (partziala, osoa, absolutua eta handia). Behin jazoeren eragin-maila zehaztuta, maila horren arabera izango da erreparazio ekonomikorako zenbatekoa, aurretik zehaztutako baremo bati jarraikiz.

Kontuan hartuz giza eskubideen urraketa horiek (heriotzak, torturak edo zauriak) nahita gauzatu zirela, haien ondorenak larriago gisa bizi ohi dira; gainera, zigorgabetasun- eta ahazte-testuinguru batean gertatu izanak ere larriagotu egiten ditu, Batzordeak kasu gehienetan zehaztu duen bezala.

## **Eragina balioztatzea**

Txosten honetan aztergai ditugun giza eskubideen urraketek berezko eragina izaten dute biktimengan, esperientzia traumatikoak eta sufrimendu bidegabea sortzen baitituzte, nahita gauzatzen baitira eta estatua erantzulea izan ohi baita; halaber, bizitzaren jarraitutasun-zentzua hausten dute eta sekulako estres negatiboa eragiten dute.

Ondoren fisikoez gain, eragin emozionalak, dolu-prozesu traumatikoak eta erasan emozionalak ere oso ohikoak izaten dira, bizitako jazoeren edo haien ondoriozko desgaitasunaren ondorioz. Beste biktima askoren kasuan, bizi-proiektuan ere eragina izaten dute pairatutako urraketek (esaterako, lan- edo ikasketa-aukerak galtzen dituzte); gainera, familia-dinamikan ere ondoren handiak izan ditzakete (adibidez, gertuko pertsoneri eragiten diete). Bestalde, jazoeren ezaugarriak direla-eta, biktima asko ahaztu egin ziren edota gertatutakoaren erruduntzat jo ziren eta, horregatik, isolamendu sozial eta emozionala jasan behar izan zuten askok.

Azkenik, giza eskubideen urraketek izandako beste eragin bat zigorgabetasuna izan zen: kasu gehienetan, ez zen inolako ikerketa independenterik edo eraginkorrik egin eta, beraz, ez ziren urratzaileak epaitu. Erakundeek ez zuten abiarazi jazoera horien biktimei laguntzeko edo jazoera horiek aitortzeko

politikarik. Urraketa horien eragin guztiak Balorazio Batzordearen eta nazioarteko esperientziaren arabera ikusi behar dira, biktimek eta haien senideek bizitako egoeren multzoa kontuan hartuta. Biktimaren egoera ere aztertu behar izan zuen Batzordeak (ahaztu gabe biktima asko adingabeak zirela).

## **Kausalitatearen eta eraginaren arteko lotura**

Biktimek gaur egun pairatzen dituzten erasanen eta bizitako esperientziaren arteko kausalitate-lotura ezin da ikusi jazoera horiek biktima horiengan izan zituzten ondorioetatik aparte. Gaur egun, ondorio horiek frogatzeko modu bakar bat dago: biktimek jazoerei eta haien ondorioei buruz esandakoak (edo bestela, lekukoak izan ziren gertuko pertsonen hitzak) benetakoak direla frogatzea. Kasu baterako, Istanbuleko Protokoloa –Nazio Batuen Goi Komisarioak babestua, torturaren balioztapenari buruzko adostasun zientifikoan oinarrituta– da torturakasuak balioztatzeako erreferentziatzeko dokumentua. Dokumentu horretan, kontuan hartzen da zer neurritan datorren bat biktimaren kontakizuna ebaluazioan erakutsitako lesioekin edo ondorioekin.

Bai erreparazio-eskubiderako Nazio Batuen Printzipioek<sup>2</sup>, bai Gorte Interamerikarraren<sup>3</sup>, Giza Eskubideen Europako Auzitegia-

- 2 Giza eskubideei buruzko nazioarteko aruwn urraketa nabarmenen biktimek eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsuak aurkezteko eta erreparazioak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipioak eta ildoak. Nazio Batuen printzipio horiek (A/C. 3/60/L. 24 dok.) Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsi zituen, 2005eko abenduaren 16ko A/RES/60/147 ebazpenaren bitartez. Ikus hauek ere: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 8. artikulua; Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 39. artikulua; Delituen eta Botere Abusuen Biktimetzako Oinarritzko Justizia Printzipioen 4. eta 5. printzipioak; Exekuzio legez kanpokoak, arbitrarioak edo sumarioak eraginkortasunez prebenitzeari eta ikertzeari buruzko Printzipioen 4., 16. eta 20. printzipioak; Desagertze Derrigortuen kontra Pertsona Guztiak Babesteari buruzko Aldarrikapenaren 9. artikulua; Desagertze Derrigortuen kontra Pertsona Guztiak Babesteari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren 24. artikuluen 4. eta 5. paragrafoak; eta Tortura eta tratu edo zigor inhumano edo iraingarriak eraginkortasunez ikertzeko eta dokumentatzeko Printzipioen 1. eta 2. printzipioak.
- 3 Ikus Giza Eskubideen Amerikako Aldarrikapenaren 25. eta 63. artikuluen 1. paragrafoa eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren kasu hauek, besteak beste: García Lucero eta beste batzuk v. Txile (2013ko abuztuaren 28ko epaia); Matriza Urrutia v. Guatemala, (2003ko azaroaren 27ko epaia); Bámaca Velásquez eta beste batzuk v. Guatemala (2002ko otsailaren 22ko epaia); eta Loayza Tamayo v. Peru (1998ko azaroaren 27ko epaia).

ren<sup>4</sup>, Nazioarteko Zigor Gortearen<sup>5</sup> eta Batzorde Interamerikarraren<sup>6</sup> jurisprudentziak giza eskubideen urraketengatiko erreparazio-irizpideak ezartzea garrantzitsua dela azpimarratu dute azken 20 urteotan, bai eta arazo horri buruzko jurisprudentzia zabala sortu ere. Nazio Batuetako beste mekanismo batzuek, izan ere, jurisprudentzia horiek baliatu dituzte, hala nola Torturaren aurkako Komiteak<sup>7</sup> edo Giza Eskubideen Komiteak<sup>8</sup>.

Ondorenak balioztatzeko, biktimek pairatutako ondorioen parte diren honako alderdi hauek ere hartu behar dira kontuan: a) zuzenean pairatutako indarkeriaren ondoriozko eragin fisiko edo psikosozialaren ondorenak eta haien bilakaera; b) zigorgabetasunak eta biktimen kontra maiz egindako salaketek gerora eragindako ondorioak eta diktaduraren garaian terroreak izandako eragina.

## **Erabakiak hartzeko irizpideak**

Batzordeak ulermenean oinarrituta eta Dekretuan ezarritako irizpideei jarraikiz balioztatu zituen kasuak; zehazki, Batzordeko kide guztien arteko ekitate- eta adostasun-irizpide bati jarraitu zitzaion, aurkeztutako froga guztiak kontuan hartuta; balorazioa giza eskubideen urraketak ebaluatzen esperientzia duten zenbait pertsonak egin zuten.

---

4 Ikus Giza Eskubideen Europako Hizarmenaren 5. artikulua 5., 13. eta 41. paragrafoak; eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren honako kasu hauek, besteak beste: *Aksoy v. Turkia*, (1996ko abenduaren 18ko epaia, 98. paragrafoa); *Tomasi v. Frantzia*, (1992ko abuztuaren 27ko epaia, 121.-122. paragrafoak); *Aslakhanova et al. v. Errusia*, (2012ko abenduaren 18ko epaia); *Orhan v. Turkia*, (2002ko ekainaren 18ko epaia); eta *Ipek v. Turkia*, (2004ko 17ko epaia).

5 Ikus Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuaren 68., 75. eta 79. artikulua.

6 Besteak beste, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren dokumentu hauek: 61/01 txostena, 11. 771 kasua, *Samuel Alfonso Catalán Lincoleo* (Txile), 2001eko apirilaren 16a, 96. paragrafoa; eta 54/01 txostena, 12. 051 kasua, *María Da Penha Maia Fernandes* (Brasil), 2001eko apirilaren 16a, 61. paragrafoa.

7 Ikus Torturaren eta tratu edo zigor inhumano, krudel edo iraingarrien aurkako Hitzarmenaren 13. eta 14. artikulua; Torturaren aurkako Komitearen 3. Ohar Orokorra (CAT/C/GC/3 dokumentua, 2013ko abenduaren 13koa; eta *Hajrizi Dzemajil et al. v. Jugoslavia* kasua (2002ko abenduaren 2ko erabakia, 11. erabakia).

8 Ikus Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren 2. (3), 9. (5) eta 14. (6) artikulua; eta Giza Eskubideen Komitearen kasu hauek, besteak beste: *Almeida de Quinteros v. Uruguai*, (1983ko ekainaren 21eko oharrak); eta *Sarma v. Sri Lanka* (2003ko uztailaren 31ko oharrak).

Ez dugu ahaztu behar zigorgabetasuna hainbat urtean luzatu dela eta erakundeek ez dietela aitorpenik eman biktimei, kontuan hartuz horrelako kasuak bereziki garrantzitsuak direla, estatuko agenteak baitzeuden sartuta tartean. Horren ondorioz, biktimizazio-maila larriagotu egin da zenbait kasutan. Diktaduraren garaian estatuko agenteek zuten zigorgabetasun hori ez zetzan soilik justiziarik ezean; horrez gainera, sistema osoak erabateko berme-falta ere bazuen, eta horrek eragin handia izan zuen biktimen egoeran. Jazoerez bestalde, zigorgabetasunak beste urraketa-multzo bat dakar, eta pairatutako urraketetan eragin traumatikoa areagotzen du urraketa-multzo horrek.

Nazioarteko zuzenbidearen arabera, erreparazioak hauek hartzen ditu barnean: lehengoratzea, kalte-ordain ekonomikoak, birgaitzea, beharrak asetzea eta errepikatuko ez dela bermatzea. Erreparazio ekonomikoak pairatutako kalteagatiko konpentsazioa dakar berekin, eta estatuak gainerako neurriak ez baditu abiarazi eta ez badie aitortu urraketak biktimei, erreparazioa hezurmamitzeko esanahi sinbolikoa du.

Nolanahi ere, balioztapen horiek zer baldintzatan egin behar diren, irizpenek zer izaera izan behar duten eta zer elementu eduki behar dituzten zehaztu behar dute Dekretuaren esparruko irizpideek, baina ez dute polemikoak izan behar, iritzi politikoei eta lege-esparruan finkatutako irizpideez bestelako balioztapenei dagokienez. Batzordeak kasu bakoitzean onetsitako txostenetan eta irizpenetan, bi hauek jasotzen dira: batetik, jazoeren testuingurua; eta bestetik, Batzordeak gertatutakoari buruzko frogak eta lekukotzak aztertu ondoren frogatutzat jotakoa; horien barnean, hauek ere biltzen dira: senideen bizipenak, deskribapen gisa eta eragina dokumentatzeko modu gisa, eta egindako txosten medikoak, epaiak edo eginbideak, biktimek eta ahaideek aurkeztutako dokumentazio gisa.

Horretan guztian oinarrituta, kasu bakoitzean eman beharreko erreparazio ekonomikorako proposamena zehaztu zuen, etorkizuneko legediak aurreikusi beharko dituen tortura kasuak salbu. Batzordeak, eta oro har, biktimei eta haien familiei aitorpen moral esplizitu bat egitea oso garrantzitsua dela nabarmendu zuen, ostrazismoa, ukapena eta ahantzura nagusi izan diren hainbat hamarkada igaro ondoren.



## 2. Batzordeak erregistratutako jazoera-eta kasu-motak

Guztira, 239 eskabide aurkeztu ziren biktimatzat aitortzeko, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuari jarraikiz, eta horietako 187 biktima-kondizio hori aitortuta ebatzi dira; gainerako 52ak, berriz, ezetsi egin dira, hainbat arrazoi direla eta. Horrek esan nahi du kasu guztien % 78 biktimatzat aitortu zirela, eta gainerako % 22a, ordea, ezetsitako eskabideak izan zirela.

Bai jazoeren existentzia bai pairatutako giza eskubideen urraketen ondorenen azterketa Dekretuan kasuak balioztatzeko seinalatutako elementuen parte dira. Atal honetan Batzordeak onartu zituen eta Batzordearen irizpena eta ebazpena jaso zuten kasuen tipologia laburtzen da; gainera, ia kasu guztietan biktimentzako aitorten-proposamen bat egin zen, baita kalte-ordainerako proposamen bat ere, ezarritako irizpideen eta identifikatutako ondoren-moten arabera.

### Estatuko agenteek hildako pertsonak

Estatuko agenteek gauzatutako giza eskubideen urraketen ondorioz hildako 34 pertsonaren kasuak jaso zituen Batzordeak. 34 kasu horietako lau adingabeei buruzkoak ziren (14, 15, 16 eta 17 urte), eta beste bi kasu, berriz, adineko pertsonen buruzkoak (67 eta 78 urte).

Kasu denak kontuan hartuz, heriotzak testuinguru hauetan gertatu ziren:

- 15 kasutan, Guardia Zibilak edo Polizia Armatuak manifestazioren bat desegiteko egindako tiroen eraginez hil ziren pertsonak. Kasu gehienetan, su-armen eraginez hil ziren, eta zenbait kasutan, gomazko piloten edo bestelakoen eraginez; nolana ere, indarraren gehiegizko erabileraren eta bizitzaren aurkako arrisku larrien testuinguruan gertatu ziren heriotza guztiak, ordena publikoko indarren ekintza zela eta. Kasu askotan, hildakoak manifestazioren batean ari ziren parte hartzen, baina beste kasu askotan, ordea, pertsona horiek manifestazioa egiten ari zen tokian zeuden, besterik gabe, mobilizazio horietan zuzenean parte hartu gabe.
- Hiru kasutan, errepideko polizia-kontrol batean Guardia Zibilaren tiroengatik hil ziren pertsonak eta, zuzeneko lekukoaren hitzetan, kontrol horiek ez zeuden seinaleztatuta.

- Lau kasutan, eztabaida partikularren edo gatazka-egoeraren batean Guardia Zibileko agenteek egindako tiroengatik hil ziren pertsonak, betiere botere-abusuaren testuinguru batean, eta agintaritzek ez zituzten jazoerak ikertu, ezta jazoera horien egileak zigortu ere.
- Bost kasutan, eguneroko bizitzako jardueraren bat egiten ari zirela Guardia Zibilaren tiro bereizi gabeengatik edota Guardia Zibilak susmagarritzat jotako egoeraren batean zeudela haien tiroengatik hil ziren pertsonak.
- Bi kasutan, pertsonen heriotza-zigorra ezarri zitzaienten eta exekutatu egin zituzten erregimen frankistaren azken egunetan, 1975eko irailaren 27an, behar bezalako defentsa-bermerik gabeko gerra-kontseilua egin ondoren. Batzordeak kasu horiek onartu egin zituen biktimek behar bezalako defentsa-bermerik ez zutelako izan, prozesua ez zelako behar bezalakoa izan, egoerak salbuespenezkoak izan zirelako, eta sufrimenduak bidegabeak izan zirelako, estatuko polizia-indarren edo -agenteen ekintza normalaz bestelakoak.
- Hiru kasutan, ETAko edo Komando Autonomo Antikapitalistetakoen kideen kontrako jazarpenetan harrapatuta geratu eta su-armen tiroengatik hil ziren pertsonak, Guardia Zibila su-armak erabiltzen ari zela, zuzeneko enfrontamendurik gabe, eta jendea bizi zen tokietan, biktimak eguneroko jardueraren bat egiten ari zirela.
- Kasu batean, 14 urteko mutiko bat polizia-jazarpen baten ondoren hil zen, bihotz-krisi batek jota.
- Kasu batean, pertsona bat manifestazio batean astindu zuten, 3 urteko alaba eskutik helduta zeramala, eta egun batzuk geroago, salaketa bat aurkeztu eta epaitegitik irteten ari zela, kale-jantzian zeuden polizia-agente batzuek hertsatu eta pattar eta errizino-olio asko edatera behartu zuten; horren ondorioz, egun batzuk geroago hil egin zen.

## Lesioak eragin zituzten erasoak manifestazioetan

Kasu guztietako 16tan, Polizia Armatuko edo Guardia Zibileko agenteek larriki eraso zieten biktimei, borrak, ke-potoak edo gomazko pilotak erabiltuta, eta eraso horiek ondoren larriki eragin zituzten biktimei. Jazoerak gertatu zirenean, bi biktimak 14 urte zituzten, beste batek 16, eta beste batek 17. Kasu asko-

tan, erasoak jasan zuten pertsonak manifestazioetan parte hartzen ari ziren, eta beste batzuetan, ordea, halaberrez zeuden biktimak bertan. 12 kasutan, erasoak zuzeneko kolpeen bitartez gauzatu ziren, borra, su-armaren kulata edo antzeko objektu bat erabili. Gainerako kasuetan (4), kolpeak ke-potoen bitartez eman ziren.

### **Su-armen edo gomazko balen bitartez hildako pertsonak**

Batzordean aurkeztutako 66 kasu balaz zauritutako pertsonen buruzkoak ziren (su-armak, batzuk bala lehergarrienak, eta gomazko balak). 66 kasu horien % 83,3 (55 pertsona) balaz zauritu zituzten.

Gainera, kasu guztietako 12tan biktimak adingabeak izan ziren: 12 urteko bat, 14 urteko bi, 16 urteko bat, eta 17 urteko zortzi. Datu horiek agerian uzten dute horrelako erasoak oso zabaldua zaudela eta herritarren aurka bereizi gabe erabili ohi zela indarra kontrolatzen, manifestazioetan edo eguneroko bizitzako bestelako egoeretan, baita su-armak oso maiz erabili ere.

Lesionatutako pertsonetako 38 manifestazio, bilera edo grebaren batean ari ziren parte hartzen, eta beste 14, berriz, manifestazio, bilera edo grebaren bat egiten ari zen tokian zeuden, baina ez ziren parte hartzen ari.

Sei kasutan, tiroak Polizia Armatuaren edo Guardia Zibilaren errepide-kontrolatzen gertatu ziren, eta zuzeneko lekukoaren hitzetan, kontrol horiek ez zeuden seinaleztatuta. Beste zortzi kasutan, biktimak bestelako egoeretan zeuden (hala nola bilduta, etxean edota pintadak egiten).

### **Tratu txarrak eta tortura**

Batzordean onartutako kasuetako 72 (guztizkoaren % 38,5) atxilotutako pertsonen buruzkoak dira. Zehazki, 51 kasutan, pertsona behin bakarrik atxilotu zuten (14ri lesio fisiko iraunkorrak eragin zizkieten, eta beste bi adingabeak ziren, 17 eta 16 urtekoak); lau kasutako batean (hots, 13 kasutan), behin baino gehiago

atxilotu zituzten pertsonak (lehen atxiloketan, batek 14 urte zituen, eta besteak, berriz, 15). Nabarmendu beharrekoa da behin baino gehiagotan atxilotu zituzten pertsonen artean ondoren fisiko larriak eragin zizkietela biktima askori.

Atxilotutako 64 pertsonen artean, 10etik 9 (57) tratu txarren eta torturen biktimak izan ziren, eta horrek agerian uzten du garai hartan orokorrak izan zirela ahalko jardunbideak.

## **Bortxaketa eta indarkeria sexuala**

Indarkeria sexualeko kasuek ikusezin bihurtzera jotzen badute ere (halako delituengatiko salaketak jartzea zaila da testuinguru jakin batzuetan eta, gainera, gaur egun oraindik ere bortxaketa sexualarekin lotutako estigma bat dago gizartean), Batzordeak bereziki nahi du azpimarratu oso ausartak izan zirela bizitakoari buruz eta bizitakoak izandako ondorioei buruz irekitasunez hitz egin zuten emakumeak; bereziki larriak izan ziren biktima baten abusuak izandako ondorioak. Batzordean indarkeria sexuala jasan zuten bi emakumeren kasuak aurkeztu ziren, nahiz eta askok ukitzeak ere pairatu zituzten eta zenbait gizoni ere tortura sexuala eragin zioten. Kasu horietako batean, indarkeria sexuala tortura gisa eragin zitzaion biktimari. Bestea, berriz, Guardia Zibilaren zenbait agente emakume baten etxea miatzera joan eta bortxatu egin zuten.







## II. Giza Eskubideen urraketa motak (1960/78)





## **Metodologia**

Bigarren atal honetan, eta Batzordeak kasuak aztertzeko eta ebazteko baliatu zituen irizpideak azaldu ondoren, txosten hau egiteko zer metodo erabili den azaltzen da, oso laburki, eta kasu bakoitzaren nolakotasunak kontuan hartuz.

Txostenak barnean hartzen dituen urteetan gertatutakoaren ikuspegi global bat izateko, Batzordean hitz egin zuten pertsonak kontatutako jazoeren testuinguru historikoa eta soziala azaldu behar dugu lehenik eta behin. Kasu-mota bakoitzak testuinguru jakin bat badu ere, esparru historiko orokor hori lagungarria da 1960-78 denboraldiaren ezaugarriak ulertzeko.

Orobat, Batzordearen ustez, txosten honen irakurleengan pentsatuta, egokiena ez zen bertan bildutako kasu guztiak besterik gabe kronologikoki zerrendatzea; ahal izan dugun neurrian, atal zabaletan multzokatu ditugu, hobeki uler daitezten motibazio politikoko indarkeriarekin loturik garai hartan gauzatu ziren giza eskubideen urraketen eta bestelako sufrimendu bidegabeen ezaugarriak. Gainera, Batzordeari enkargatutako lana zabala eta zaila izan dela ere atzeman ahalko dute irakurleek.

Atal honetan aztertutako kasu gehienak kontuan hartzen saiatu bagara ere, kasu guztiak zerrendatuta ageri dira txostenaren azken zatian, Batzordean aurkeztutako espedienteen arabera.

## **Jazoeren testuingurua**

Garrantzitsua da Batzordera iritsi ziren kasuen azterketa, analisia eta ebazpena testuinguruan jartzea, kasu zehatz bakoitzean egin dugun bezala, diktadura frankistaren azken urteetan eta trantsizioaren hasieran Euskadin bizitako testuingurua kontuan hartuz. Zehazki, 107/2012 Dekretuak barnean hartzen duen garaiko urraketak aztertu ditu Batzordeak; hots 1960tik Espainiako konstituzioa onartu zenera bitartekoak (1960-1978).

Euskadin izugarriko indarkeria bizi zen garai horretan, eta diktadura frankistaren errepresioa nabarmen gaizkiagotu zen. Euskadin indarkeria politikoaren adierazpen guztiek izan zuten irismena ulertzeko, ezinbestean deskribatu behar dugu orduko testuinguru historikoa, jazoera horiek zer jokalekutan eta

zer garaitan gertatu ziren hobeki ulertzeko, batez ere, protagonistak ordena publikoko indarretako agenteak izan ziren kasuei dagokienez.

Diktadura frankista osoan erabateko askatasun-falta egon zen. Gerra Zibila amaitu zenean, armen bitartez inposatutako estatu berriak errepresio-sare korapilatsu bat abiarazi zuen, erregimenaren aurkakotzat eta subertsibotzat jotako jarduera oro jazartzeko eta zigortzeko. Horren ondorioz, oinarritzko giza eskubideak behin eta berriz urratu zituen erregimenak. Errepresioak hildako ugari sortu zituen garai bakoitzean. Gerra amaitu eta zenbait astean edo hilabeteetan, errepresioaren biktima asko *erakutsi*, erail eta, azkenik, hobi komunetan lurperatu zituzten. Beste pertsona asko sistema judizial arbitrario baten bitartez epaitu zituzten, kausadunei inolako prozesu-bermerik eman gabe; gerora, epaitutako pertsona horiek exekutatu egin zituzten. Biktima haietako gehienek loturak zituzten Errepublikako legezketasunaren eta Eusko Jaurlaritzaren erakundeen aldeko erakunde politikoekin eta sindikatuekin. Beste biktima asko langileen batailoietan sartu zituzten, eta han eman zituzten hainbat urte, bortxazko lanak egitera behartuta. Beste askok, bestalde, kartzela-zigor luzeak bete zituzten.

Erregimen frankistaren lehen hamarkada haietan, ordena publikoko indarrek eta armadak bortizki jazarri zuten erregimenaren aurkako jarrera edo oposizio oro eta, batzuetan, metodo bizkorragoak erabiltzeaz gain, behin eta berriz urratu zituzten giza eskubide oinarritzkoenak. Erregimen frankistak berrogeiko hamarkadan inposatutako terroreari eta kontrol sozial eta politikoari esker, oposizio antolatuko azken hondarrak ia erabat deuseztatu ahal izan zituen erregimenak.

Hala eta guztiz ere, egoera aldatzen hasi zen berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik aurrera, batik bat, Euskadin, gizarte-eraldaketako prozesu bizi bat hasi baitzen hemen. Erregimenak politika ekonomiko berri bat hartu zuenean bere gain, bigarren industrializazio-prozesu bat gertatu zen Euskadin eta, horren eraginez, Espainiako estatuko beste lurralde batzuetatik hamar milaka langile hasi ziren etortzen, bizitza hobeari baten bila. Testuinguru horretan hasi ziren sortzen, hain zuzen ere, erakunde politiko eta sindikal berriak eta, apurka-apurka, tradizio historiko luzea zuten beste erakunde batzuk berregin ziren.

Alor horretan, nobedaderik garrantzitsuena 1958an gertatu zen, ETA erakundea sortu zenean; hirurogeita hamarreko hamarkadan bilakaera bizkorra izan zuen ETAk eta hainbat zatiketa ere izan zituen. Horrez gainera, batez ere lan-esparruan, beste erakunde berri bat ere sortu zen, 1962ko udaberrian egin ziren langile-greben ondoren, eta handik oso gutxira, erakunde berri hori Comisiones

Obreras bihurtu zen. Hori guztia eraldaketa handiko testuinguru batean gertatu zen, gatazka politiko eta sindikal handien eta ikasle-mugimendu hazkor baten eraginez, eta hamarkada oso bat markatuko zuen.

Erakunde berri horiek, gehienak Gerra Zibila bizi ez zuten gaztez osatuak, beste alderdi batzuk (hala nola EAJ, PSOE eta PCE) eta beste sindikatu batzuk (esaterako, UGT, ELA eta CNT) egiten ari ziren borrokarekin bat egin zuten; izan ere, aipaturiko alderdi politikoek eta sindikatuek hainbat greba eta protesta egin zituzten gerraostean (kasu baterako, 1947an, 1951n eta 1956an).

Baina hirurogeiko hamarkadaren hasieratik gertatzen ari ziren gatazka haiek oso zitalak ziren, eta zitalkeria horrek errotik aldatu zuen egoera. Erregimenak handiagotu egin zuen protesta eta oposizio politiko eta sindikal ororen aurkako errepresioa. Halere, jada ezin zuen errepresio hori gauzatu ordura arte baliatutako erremintekin. Nazioarteak Julián Grimau lider komunistaren epaiketa eta exekuzioa kondenatu izanak eta nazioarteko aitortpena lortzeko erregimenak hain irudi bortitza ez eman beharrak errepresio-tresna berri bat abiaraztera bultzatu zuen erregimen frankista: Ordena Publikoko Auzitegia. Ordena Publikoko Auzitegia (TOP) 1963an sortu zuten, erregimenari aurka egitearekin lotutako delituak jazartzeko eta zigortzeko, eta gerra-kontseilu sumarisimoekin batera, diktadurako errepresio-mekanismoak garrantzitsuenetako bat izan zen.

Baina erregimen frankistak abiarazitako errepresioa eta tresna berriak gorabehera, eta garai hartan pertsona asko hil bazituzten ere, erregimen frankistak ez zuen lortu protesta haiek guztiak menderatzea, eta gero eta indar handiagoa hartzen hasi ziren. Halaber, ETAk 1968tik aurrera egindako jauzi kualitatiboak egoera hori asaldatu zuen, urte horretan atentatu hilgarriak egiten hasi baitzen. Horretaz guztiaz gain, Gipuzkoan eta Bizkaian gero eta greba gehiago ari ziren egiten eta, horregatik, diktadurak errepresioa areagotu zuen protesta eta oposizio politiko ororen kontra, baita indarkeriarik erabiltzen ez zuten mugimendu, alderdi eta sindikatuen kontra ere: auzo-mugimenduak, ikasleen mugimenduak, ingurumen-alorreko mugimenduak eta mugimendu feministak (hasiberriak garai hartan, eta hirurogeita hamarreko hamarkadan sendotuko zirenak).

Salbuespen-egoerak ezarri ziren zenbait denboraldi luzetarako, eta erregimen frankistak aitortutako askatasun bakantetako batzuk ezabatu zituen horrek. 1970ko abenduan, ETako hamasei militanten aurkako epaiketa bat egin zen Burgosen, eta tentsioa areagotzeaz gain, solidaritate-samalda bat piztu zuen epaiketa horrek, bai Euskadin bai Euskaditik kanpo. Erregimenak ez

zuen erreakzio hori espero. Horren ondorioz, erregimen frankistaren aurkako oposizioko kide asko atxilotu zituzten Euskadin.

Hortik aurrera, protesta politikoak eta sozialak zabaldu egin ziren, eta erregimen frankistaren azkeneko urteen hasiera markatu zuen horrek. Izan ere, horrek ez zuen galarazi protesta gehiago egotea, ezta ETAREN atentatu bortitzenak orduan gertatzea ere.

Erregimen frankistak salbuespen-egoera bat deklaratu zuen 1975eko apirilaren 25ean. Neurri horren ezarpenari esker, errepresio-aldra handi bat zabaldu zen. Errepresio-aldra hura talde nazionalisten eta ezkerreko ideologia zuten taldeen aurka bideratu zen berez, baina bereizi gabea izan zen kasu askotan.

Giza eskubideen urraketen kopuruek izugarritzko hoztasunez hitz egiten dute, eta argitu gabeko kasuak daude oraindik ere. Txosten honek barnean hartzen duen denbora-tartean, ETA politiko-militarrak, ETA militarrek eta Komando Autonomo Antikapitalistek 136 pertsona hil zituzten. BVE, Triple A eta Guerrilleros de Cristo Rey taldeek, bestalde, 8 pertsona garbitu zituzten. Poliziak eta Guardia Zibilak, berriz, 44 pertsona akabatu zituzten, hainbat esparru, jokaleku eta testuingurutan eta 2 fusilatua izan ziren. Horrez aparte, ez dugu ahaztu behar ehunka pertsona zauritu zituela poliziaren indarkeriak manifestazioetan, eta ehunka pertsona atxilotu eta torturatu zituztela segurtasun-indarrek, eta biziarteko lesio fisiko eta psikikoak eragin zizkietela tratu txar horiek biktimei.

Gainera, garai hartako ultraeskuineko talde terroristek ere giza eskubideak urratu zituzten; izan ere, zenbait kasutan erabateko zigorgabetasunez jokatu zuten talde horiek, estatuaren errepresio-aparatuen inpunitearekin: ezkerreko erakundeetako eta erakunde abertzaleetako kideekin edo erakunde haien aldeko pertsonekin lotutako interesen eta pertsonen kontrako eraso ugari egin zituzten.

Baina Francoren heriotzak eta sistema demokratiko bateranzko trantsizioak ez zuten ekarri indarkeriaren amaiera Euskadin. Alderantziz, hurrengo urteetan indarkeriak gora egin zuen gure lurraldean, eta giza eskubideen urraketa ugari gertatu ziren. 1976an, ekonomiaren funtsezko zenbait sektoretan eragina izaten hasi zen krisialdi ekonomikoaren lehen sintomak hasi ziren eta, horregatik, lan-alorreko protestak zabaldu egin ziren. Horrez gainera, frankismoko preso politikoentzako amnistia erreklamatzeko mobilizazioak ere hasi ziren. 1976ko martxoaren hiruan Gasteizen gertatutako jazoerek bost hildako eragin zituzten (Polizia Armatuak bost langile hil zituen langileen batzar batean), eta horrek

Euskadiko gizartea nabarmen hunkitu zuen, preso politikoen askatasuna eskatzeko manifestazioetan eragindako heriotzekin gertatu zen bezala. Bereziki odoltsua izan zen 1977ko maiatzean amnistiaren alde antolatutako bigarren astea, poliziak esku hartu eta hainbat pertsona hil baitzituen. Baina Amnistiaren Legea aldarrikatu eta azkeneko presoak kaleratu zirenean ere poliziaren indarkeria ez zen amaitu.

Paradoxikoki, hirurogeita hamarreko hamarkadaren azken urteetan gertatu zen hori guztia, politika zorrozten ari zen eta erreforma politikoari edo haustura demokratikoari buruzko eztabaida kaleratu zen garai batean, Espainiako estatuan sistema demokratiko berri bat eta Euskadin autogobernurako sistema bat sortzeko oinarriak ezartzen ari zirela. Hori zen, labur-labur azalduta, giza eskubide funtsezkoenen urraketak gertatu ziren urte lazgarri haien testuinguru historikoa.

## 1. Manifestazioen errepresioa. Indarra berezketarik gabe eta gehiegikeriaz erabiltzea

*Erreparazio publikoren bat egon behar du. Esan egin behar da. Argitara atera egin behar da. Hau gertatu da, baina beste hori ere bai. Eta denok dakigu hori, eta ez dugu ezkutatu. Hau dena berandu iritsi da. Gurasoei zor nien. Aita eta ama oso eskertuta egongo ziren bizirik zeuden garaian gertatu izan balitz; oso gaizki pasa zuten. Historia gauza guztiekin idatzi behar da. A.T.M.*

Manifestazio-eskubidea gauzatzeko baldintzak oso mugatuta egon ziren; lehenik eta behin, diktaturako lege-esparrua oso murriztailea izan zelako eta, horregatik, manifestazio-eskubidea legedi frankistak mugatzen zuelako eskubide hori; bestetik, hainbat salbuespen-egoera dekretatu zirelako eta salbuespen-egoera horietan adierazpen- eta manifestazio-eskubideak eta atxilotuen lege-bermeak are mugatuagoak zirelako. Baita manifestazioen aurkako abusu- eta indarkeria-jardunbideak protesta sozialak saihesten saiatzeko erabiltzen zirelako ere.

Garai horretan, erregimen frankistak hainbat salbuespen-egoera dekretatu zituen, halako mobilizazioak murrizteko asmoz. Garai hartan aldarrikapen-mugimendu boteretsuak hedatu ziren, dela unibertsiteetan dela fabriketan eta lantokietan. Diktaturak, mugimendu horiei aurka egiteko (erregimeneko

agintarien hitzetan, *bakeari eusteko*), salbuespen-egoera ezarri zuen 1969ko urtarrilaren 25ean, eta horren bidez, Espainolen Foruaren 12. 14., 15., 16. eta 18. artikulua indargabetu zituen. Artikulu haien bidez, zenbait askatasun aitortzen zituen erregimenak, formalki bazen ere. Horri esker, Poliziak eta Guardia Zibilak atxiloketa arbitrarioak eta justifikatu gabeko espetxeratzeak egin zituzketen, hainbat pertsona erasotzeaz eta biktima ugari sortzeaz aparte.

Mobilizazioek gatazka sozial eta politikoen hainbat esparrurekin zerikusia izan zuten, eta errepresio-modu berberak aplikatu ziren esparru horietan. Batzordeak aztertutako kasuak askotarikoak dira oso, baina segurtasun-indarrek manifestazioetan, grebetan edo aldarrikapen-ekitaldietan egindako jardunek eredu jakin bat izan zutela ikusi du Batzordeak. Hala, Batzordearen irizpenen arabera, giza eskubideen urraketak egiten zituzten halako esku-hartzeetan, indarra bereizketarik gabe eta gehiegikeriaz erabili ohi zuten eta, horren ondorioz, oso ondoren handiko zaurituak eta hildakoak egon ohi ziren, biktima askoren bizitza oso larriki okerragotu zela.

Kaleko manifestazioetan egon zen errepresioaren ondorioz hildako edo zauritutako pertsonen 89 kasu aurkeztu ziren (8 emakume eta 81 gizon) Batzordean. Polizia Armatuak eta, beste kasu batzuetan, Guardia Zibilak garai hartan jokatzeko zuen modua bortizkeriako ekintzetan oinarrituta egon zen: manifestatzaileen aurka gomazko pilotak edo/eta su-armak erabili ohi zituzten eta, horretaz gain, pertsona babesgabeen aurka indarra gehiegikeriaz ere erabiltzen zuten, borren edo bestelako armen bidez, ondorio larriak eraginda. Oro har, bereizketarik gabe, neurrigabekeriak eta askotariko mobilizazio sozialak eta aldarrikapen politikoak erreprimitzeko gauzatzen ziren halako ekintzak.

Eredu horri eutsi zitzaion, bere horretan, 1960tik 1978ra bitarteko garai guztietako kasu guztietan (Batzordeak aztertu dituenetan), eta hainbat motibaziotako manifestazioetan (ingurumen-arazoak, langileekin lotutako arazoak, erregimenaren aurkako aldarrikapen politikoak, edo diktadurako preso politikoentzako amnistia). 1976ko martxoaren 3an, Txikiren eta Otaegiren heriotza-zigorrak ezarri zituen Burgosko Prozesuaren aurkako langile-mobilizazioak eta amnistiaren aldeko asteak (1977) oso gertaera garrantzitsuak izan ziren garai hartako mobilizazio sozialen barnean; izan ere, mobilizazio horietako biktima askoren eta bizirik atera ziren pertsona askoren kasuak aurkeztu ziren Batzordean.

Batzordeak manifestazioetan gertatutako errepresioari buruz bildutako kasuak 1969tik (lehenengoa gertatu zen urtea) 1978ra (azkenekoak gertatu ziren urtea) bitartekoak dira. Urte horietan manifestatzaileen artean su-armek edo gomazko pilotek heriotza eta zauri larriak eragin zituztelako froga ugari egoteak agerian uzten du Polizia Armatuaren eta Guardia Zibilaren jarduteko modua ez zela aldatu.

### **Langileen borrokengatiko manifestazioak**

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, lan-alorreko eta politika-alorreko gatazkak hazten hasi ziren Espainiako estatu osoan, eta hori agerian geratu zen lan-eskubide gehiago eta askatasun handiagoa erreklamatzeko manifestazioen kopuruak gora egin zuenean; halaber, euskal nortasun nazionala errespetatzeko aldarrikapen-manifestazio gehiago hasi ziren egiten.

Hirurogeiko hamarkadaren hasieratik hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaierara bitarte (hots, diktadura frankistaren azken urteetatik demokraziarako trantsizioaren lehen urteetara bitarte), kaleko manifestazioak eta grebak nabarmen ugairitu ziren, bereziki, egun edo denboraldi jakin batzuetan. Kasu baterako, hauek dira bereziki nabarmengarriak: 1962ko udaberrian Etxebarriko *Laminaciones de Bandas en Frio* enpresan gertatutako gatazka; 1966an eta 1967an; 1974ko abenduaren 11ko greba orokorra; 1976ko martxoaren 3an Gasteizen gertatutako sarraski tamalgarria eragin zuen prozesu osoa.

1974ko abenduaren 11n, garai hartako greba orokorrik garrantzitsuenetako bat gertatu zen. Egundako baina lehen, hainbat lanuzte partzialetara deitu zituzten ezkerreko erakunde politiko eta sindikal batzuek langileak hilabete haren bigarren eta hirugarren egunetan. Hasiera batean aldarrikapenak lanekoak eta ekonomikoak baziren ere (besterik ez), gerora askatasun demokratikoak eskatzen hasi ziren grebalariak, eta hori guztia, giro antifrankista aho betean agertzen zela erregimenaren aurka. Horrela, protestak zabaltzen hasi ziren, baita ordura arte gatazka garrantzitsuetan parte hartu ez zuten sektoreetara ere. Greba-deitzaileentzat, erantzun horrek agerian utzi zuen deialdia arrakastatsua izan zela. Gutxi gorabehera, berrehun mila pertsonak lanuztea egin eta deialdian parte hartu zuten. Bizkaietan eta Gipuzkoan egon ziren langileak, neurri handienez, grebaren alde. Greba-egun osoan gatazka asko egon ziren Poliziaren eta manifestatzaile-taldearen artean.

Egun hartan, J.M.I., Cintas Adhesivas Ulises enpresako 22 urteko langilea, Hernanin bizi zena, bere etxera zihoan eta Trafikoko Guardia Zibileko bi agente atzetik jarraitzen ari zitzaizkiola ikusi zuen. Beldurra sentitu zuen, aurretik horri buruz ohartarazi baitzioten, eta korrika egiten hasi zen. Orduantxe hasi zitzaion agente bat, hain zuzen ere, tiroka. Bi balak eman zioten, batek eskuineko eskumuturrean, eta besteak, bizkarrean. Lurrean etzanda geratu zen biktima. Zauri larriak eragin zizkiotenez, Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzara (gaur egungo Arantzazu Ospitalera) eramán zuten anbulantziaz, eta presazko ebakuntza bat egin zioten.

## Ingurumen-mobilizazioak

Beste kasu batzuetan, manifestazioen kausak sozialak ziren. Kasu baterako, Bilbo Handiaren inguruan kutsadura atmosferiko handia zegoen, industrializazio estentsiboa zela-eta oso fabrika kutsakor ugari pilatu baitziren, herritarren osasunerako inolako bermerik gabe. 1969ko udaren bukaeran, Erandion (Bizkaia) eta Bilboko itsasadarraren inguruko beste hainbat udalerritan izugarritzko kutsadura atmosferikoa zegoen, bertako fabrika ugarietan kontrolik gabe gertatu ohi ziren gas-emanazioen eraginez. Bertakoek urte eta erdi zeramaten mobilizatzen, agintariekin negoziatu nahian baina inolako erantzunik jaso gabe, eta errepide-mozketak antolatzen ere iritsi ziren.

Erandion, emakumeak eta haurrak izan ziren lehenengo mobilizazio haien buruak. Irailaren 3an, kutsadura atmosferikoa izugarri altua zen, eta egoera jasangaitza eragin zuen horrek: kosta egiten zen arnasa hartzea, batik bat, Alzaga eta Astrabudua auzoetan. Hainbat erakunderekin bilera ugari egin zituzten bertakoek, baina egindako eskakizunek ez zuten erantzunik jaso. Beraz, Erandioko plazan bilerak eta kontzentrazioak egitea eta 15 minutuan errepidea moztea erabaki zuten, egoera horrengatik protestatzeko. Urriaren 6an, emanazio gehiago gertatu ziren, eta manifestazio gehiago egitera bultzatu zuen horrek jendea; udalerriko bi mila pertsona inguru biltzera ere iritsi ziren manifestazio haiek. Poliziak indarkeriaz hartu zuen esku, eta zenbait zauritu erregistratu ziren. Egoera hori eta kontzentrazioan parte hartu zutenek adierazitako jarrera irmoa ikusirik, Erandiora joan behar izan zuen José María Dermít Saralegui alkateordeak, Polizia Armatuko agente-talde batekin.

Istilu larriaretan (urriaren amaieran) Erandioko bi bizilagun hil zituzten polizia-agenteez, A.F.E. eta J.M.I., hainbat pertsona balaz zauritzeaz gain. 1969ko



urriaren 28an, A.F.E. etxera iritsi berria zen, eta kalean ingurumen-kutsaduraren aurka egiten ari ziren protestei begira zegoela bere etxeko balkoian, Polizia Armatuaren bala batek buruan jo zion (bertakoen manifestazio bat indarkeriaren bitartez desegiten saiatzen ari ziren Polizia Armatuko agenteak). Oso zauri larriak eragin zizkion bala hark, eta Basurtuko Ospitale Zibilera eraman behar izan zuten.

*Jasanezina zen. Gasa botatzen zutenean ezin zen arnasa hartu. Nire alaba alergikoa zen, asma zeukan eta ezin zuen arnasa hartu. Batzuetan manifestazioak egunez egiten ziren, baina gauzez helduak baino ez ginen joaten. Egun hartan, aitarekin lanetik etxera itzultzean, zera esan nion aitari: begira zer ari den gertatzen. Burua barandaren eta balkoiaren artean sartu zuen eta esan zuen: tiroak dira. Polizia batek behetik tiro egin zuen. Bala bekokitik sartu zitzaion. Korrika irten nintzen medikuaren bila, tiroen artean. C.F.M.*

Gobernu Zibilak ordena publikoko arazo bat izango balitz bezala planteatu zuen ospitaleko egonaldia, eta polizia-agente ugari jarri zituzten ospitalean. Hurrengo egunak estutasun, harridura eta beldur handiko egunak izan ziren A.F.E.ren familiarentzat, zauriak oso larriak baitziren eta jazoerek hunkipen izugarria eragin baitzuten. Ospitalean bertan polizia-guardia bat zegoen, ZIUrako sarreran. Azkenean, A. ospitalean hil zen 1969ko azaroaren 12an.

*Sutan jartzen nintzen ni. Ez dakit gaizki begiratzen nien edo ez. 15 egun eman genituen ospitalean, poliziaren zaintzapean. Etxetik joan behar izan nuen nik, lehengusu baten etxera, telefonotik deika ari baitziren denbora guztian. Gainera, etxe azpian polizia zegoen denbora guztian. Ezin nuen leihoa ireki. Etxetik irteten nintzen bakoitzean atzetik bat etortzen zitzaidan: "Nora zoaz?" Grisak ziren. C.F.M.*

Jazoera horietan, bizilagunen batzordeak poliziarekin negoziatzea erabaki zuela, polizia su egiten hasi zen. Manifestazioan zeuden beste pertsona batzuk su-armaz zauritu zituzten. M.C.P. trenbide-pasaguneko barrerarantz zihoan, eta ikusi zuen Polizia Armatuko agente bat bere atzetik korrika ari zela. 200 metroan jarraitu zion eta pistolarekin tiro egin zion, eta ezkerreko hankan zauritu zuen, izterrean. D.V.G. barreren gunera zihoan eta bala bat sartu zitzaion eskuineko gluteoan. R.B.C. barreretan zegoen eta bere lagun D. zaurituta eta lurrean etzanda zegoela ikusi zuen. Laguntzera joan eta gluteoan bala bat sartu zitzaiola sentitu zuen; ondoren, erremina sentitu zuen.

Zauritutako pertsonak Basurtuko Ospitalera eraman zituzten eta ebakuntza bat egin zieten balak ateratzeko; zortzi egun eman zituzten bertan, eta elkarrekin egon ziren ospitalean. Poliziaren zaintzapean egon ziren denbora guztian: polizia egunez eta gauez egoten zen gelan, eta medikuak sartzen zirenean baino ez ziren ateratzen agenteak. Lekukotzen arabera, ospitaleko zaurituetoako hiru kriminalak izango balira bezala sentitu ziren, eta ospitalean egon ziren bitartean presio psikologiko handia izan zuten eta poliziaren etengabeko zaintza pairatu behar izan zuten; izan ere, zenbait unetan ohera bilurto zituzten, eta gerra kontseilu bat egingo zitzaielako mehatxuak ere izan zituzten. Azkenean, gerra kontseilu bat egin zitzaien Bilboko Garellano kuartelean. A.F.E.ren kasuarengatik protestatzeko manifestazioaren ondoren, hilaren 29an poliziak berriz ere hartu zuen esku, eta bizilagunaren heriotzarengatik protestatzeko kalean bildu zirenen kontra egin zuten tiro agenteek. Bala batek manifestatzaile bati eman zion eta hil egin zuen.

## **Mobilizazioak Burgosko Prozesuaren aurka**

1969ko udaberrian, diktadurak dekretatutako salbuespen-egoeretako bat amaitu eta gero, garai hartan ETArekin kontra abiarazitako polizia-operazioerik garrantzitsuenetako bat egin den. Apirilaren 9an, erakunde hartako hiru kide atxilotu zituzten Bilbon. Bi egun geroago, poliziak beste operazio bat jarri zuen martxan, eta Mogrovejon (Kantabria) ETako beste lau arduradun harrapatu zituzten eta horren ondorioz beste ehun pertsona atxilotu zituzten.

Atxiloketa horien ondoren, ETArekin zuzendaritza ia erabat desegin zuten, eta ETako hamasei kide epaiketa militar batean auzipetu zituzten. *Burgosko Prozesu* izenez da ezaguna epaiketa hori. Epaiketa horrek nabarmen areagotu zuen Euskadiko tentsio politikoa, eta solidaritate-samalda bat piztu zuen bai Euskadin bai Euskaditik kanpo. Erregimenak ez zuen espero hainbesterako mobilizazioa. Urte hartako abenduan, frankismoaren aurkako oposizioaren erakunde aktiboek protesta eta manifestazio ugari bultzatu zituzten herrialde osoan, egoera hori salatzen. Euskadiko ordena publikoko indarren esku-hartzeak bereziki irmoak izan ziren egun haietan. Izan ere, izugarri neurrigabeak izan ziren haien jardunak eta, jardun neurrigabe horien ondorioz, hainbat zauritu egon ziren, pertsona ugari atxilotu zituzten, eta Eibarren pertsona bat hil zuten. Polizia Armatuaren tiroek Burgosko prozesuaren kontrako manifestazio batean: R.P.J., PCE (i) alderdi komunistako kidea.

R.P.J.k 22 urte zituen eta Ingeniaritza ikasten ari zen Terrassan hil zutenean. Aste horretan bi manifestazio egin ziren Eibarren: bat gorabeherarik gabekoa izan

zen; bestea, berriz, 1970eko abenduaren 4an egin zen, eta Polizia Armatuak su-armak erabili zituen tiro egiteko. Bala batek gibela suntsitu zion R.P.J.ri, eta ospitalean hil zen lau egun geroago.

Beste kasu askotan bezala, ordena publikoko indarrek kontrolatu zituzten Poliziaren edo Guardia Zibilaren ekintzengatiko dolu-manifestazioak. R.P.J.ren kasuan, ehorzketa zibil bat egin zitzaion, baina ehorzketa hori egiten ari zela, Eibarrerako sarbide guztiak moztu egin ziren eta, horregatik, hildakoaren ahaideek eta adiskideek menditik baino ezin zuten joan bertara. Ehorzketa Eibarko hilerrian egin zen, eta tentsio handiko uneak egon ziren, milaka pertsona baitzeuden kalean.

*Poliziak ez zuen uzten zeremonia zibilera joaten, errepide-sarbideetan eta kale-sarbideetan kontrol zorrotzak egin baitzituen. Zenbait pertsona menditik joan zen, kontrolak saihesteko. J.P.J.*

Euskadiko beste hainbat lekutan ere egin ziren Burgosko Prozesuaren kontrako manifestazioak. Esate baterako, Batzordean aurkeztutako kasuetako beste batean hau gertatu zen: 1970eko abenduaren 5ean, 17 urteko J.M.A.k lan egiten zuen enpresako langileek greban parte hartzea eta Lasartetik Hernaniraino joatea erabaki zuten, manifestazio batean, beste enpresa batzuetako langileekin batera.

Hernanira iristean, tentsioak areagotu egin ziren manifestazioan, bi guardia zibil baitzeuden bertan, eta haietako batek tiro egin zuen. Manifestatzaileak Guardia Zibilaren kuartelera protestatzera zihoazela, beste agente batek tiro egin zion J.M.ri, oso gertutik, kuarteleko atera gerturatzen ari zenean. Parte medikoaren arabera, bala eskuineko sorbaldan sartu zitzaion eta lepoko 2. eta 3. ornoak lesionatu zizkion. Ibilgailu partikular bidez eraman zuten Osasun Egoitzara, eta ondoren, Donostiako Clínica del Perpetuo Socorro zentroko kirurgia ortopedikoko zerbitzura. Hiru aste eman zituen bertan, 1970eko abenduaren 24ra arte. Beste ebakuntza bat egin zioten, eta ospitalean egon zen 1971ko urtarrilaren 26tik otsailaren 5era. Geroago, beste ebakuntza bat ere egin behar izan zioten ondorenak konpontzeko.

## **Heriotza Txiki eta Otaegiren kasuagatiko manifestazioetan**

Diktadura desagertzeaz zegoela, gerra-kontseilu summarisimoak egin ziren J.P.M.ren eta A.O.E.ren aurka, berehala aplikatu zitzaizen heriotza-zigorra, eta

gerora, exekuzio sumario baten bidez hil zituzten. Jazoera horrek mobilizazio sozial handia eragin zuen, baita protesta-manifestazio ugari ere 1975ean.

Manifestazio haietako batean, J.G.R. (23 urtekoa) tiroka hil zuen poliziak. EMK Euskadiko Mugimendu Komunistako kidea zen. 1975eko abuztuaren 31n, heriotza-zigor horiek eman baino lehen, Donostian egin zen manifestazio batean parte hartu zuen J.G.R.k. Manifestazio horren bidez, Garmendia eta Otaegiren kontrako prozesuan (gerora, Paredes Manot "Txiki" ere sartu zuten prozesu horretan) heriotza-zigorra aplikatu zitzaien kondenatuen indultua eskatzen zuten manifestatzaileek. Kale-jantzian zeuden zenbait polizia manifestatzaile batzuegana gerturatu ziren eta gertutik tirokatu zuten J.G.R., atzean geratu baitzen. Geroago, manifestatzaile batzuek ezagutu egin zuten tiro haiek egin zituen polizia, baina ez zen inolako ikerketarik egin. Zauritua Ospitale Militarera eraman zuten. Familiaren arabera, gaixoak ez zuen behar zuen arreta medikoa jaso, ez baitzeuden behar beste langile, eta ikustera joan zirenean, jada hil zen eta hilerrira eraman zuten.

Beste kasu batzuetan, manifestatzaileen aurkako errepresioa manifestazioez haraindi joan zen, manifestazioak jada amaituta zeudela ere jazarpena jasaten jarraitu baitzuten. M.J.G. (22 urte), Azkoitian zegoen eta, Txikiren eta Otaegiren fusilamenduagatiko manifestazioa amaitu ondoren, gertuko etxe baten atarian eta eskaileretan ezkutatu behar izan zuen adiskide batzuekin, Guardia Zibila manifestatzaile-talde baten atzetik baitzebilien. Atarian zegoela, ezkerreko izterrean bala bat sartu zitzaion. Agenteek etxea joateko ohartarazi zioten, zaurituta bazegoen ere. Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzara (gaur egungo Arantzazu Ospitalera) eraman zuten, eta hamar egun eman zituen bertan. Bala izterrearen atzeko aldetik sartu eta belauaren azpitik irten zitzaion.

## **Preso politikoentzako amnistiaren aldarrikapena**

Diktaduraren azken urteetako errepresioa zela eta, askatasuna eta preso politikoan amnistia eskatzeko aldarrikapenak ere egin ziren. Grebetan eta gatazketan sartutako langile eta sindikatuetakoa lider asko atxilotu zituzten, eta horrek solidaritate-ekintza eta manifestazio asko eragin zituen. Manifestazio eta solidaritate-ekintza horietan, poliziak oso bortizki jokatu zuen, indarkeria neurrigabea erabili zuten, eta pertsona asko atxilotu zituzten.

Beste batzuetan, agintariek debekatutako egun sinboliko batzuk (hala nola Maiatzaren 1a edo Aberri Eguna) oroitzeko egin ziren manifestazioak, eta atxiloketak, torturak, tratu txarrak, deportazioak eta prozesamenduak gertatu ziren.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Aberri Eguna izan zen babes handiena eragin zuen oroipenetako bat. Horretaz aparte, beste mota bateko mobilizazioak ere bortizki debekatu eta erreprimitu zituzten polizia-endarrek. Besteak beste, nabarmentzekoak dira Euskadiko apaizek egindako erromeriak eta ekitaldiak ikurrinak erakutsita, itxialdiak elizetan eta euskal folkloreko kultura-ekitaldiak.

Diktaduraren amaierak ez zien Poliziari eta Guardia Zibilarri galarazi horrelako esku-hartze bereizi gabeak eta neurrigabeak egiten jarraitzea. Demokraziaranzko trantsizioaren lehen urteetan, giza eskubideen urraketa oso larriak egon ziren hainbat arrazoiengatik egin ziren mobilizazio haietan, batez ere, diktadurako azken preso politikoen amnistia aldarrikatzeko egin zirenetan.

*Donostiako Boulevard zumardiko autobus-geltoki batean amnistiaren aldeko manifestazioan parte hartu gabe nengoela, Polizia Armatuko ke-poto batek ezkerreko orkatilan jo zidan eta, bota altuak baneramatzan ere, tibiaren eta peronearen heren distala hautsi zitzaidan. Haustura irekia eta zati anitzekoa izan zen. Gurutze Gorriaren Ospitalean egon nintzen lau hilabetean, eta eskuairak erabili behar izan zituen sei hilabetean, ezin bainuen hanka lurrean jarri. A.I.B.G.*

## **Zigorgabetasunaren hedadura**

Batzordera iritsi ziren zenbait kasutan, segurtasun-endarretako agenteek pribatuan egindako erasotzat har daitezkeen jazoerak gertatu ziren. Gertakari haien egileek zigorgabetasuna izateak eta biktimek salaketa aurkeztu ondoren mehatxuak jaso izanak agerian uzten du erregimen frankistak erabat lotu zituela segurtasun-indariak edozein mobilizazio sozialekin eta segurtasun-endarren ekintzen kontrako salaketa ororekin.

Horren adibide da, esate baterako, 17 urteko K.S.R.ri gertatu zitzaiona. Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzan (Donostian) egiten zuen lan K.S.R.k.

1976ko irailaren 17an, eskaladako eta espeleologiako bere taldearekin bildu ondoren, manifestazio batekin egin zuen topo. Hortik zebilela, kolpe bat sentitu zuen buruan: norbaitek loreontzi bat jaurti zion etxebizitza batetik. Zenbait manifestatzailek etxebizitza hori norena zen identifikatu zuten: Polizia Armatuko agente baten etxea zen.

Lehendabizi, sorospen-gelara eraman zuten K.S. baina, lesioa larria zenez, Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzara aldatu behar izan zuten. Ondorioz, 3 egun eman zituen eritegian garezur-garunetako traumatismoarekin eta 11 sutura-puntu behar izan zituen zauri batekin. Infekzio baten eraginez, bilakaera klinikoa konplikatu egin zen, eta sendaketa ugari egin behar izan zizkioten hilabetean. Laneko baja hartu behar izan zuen lehengoratzeko. Ospitalean zegoela, auzitegiko mediku bat joan zitzaion aztertzerara. Medikuak gaixoari buruzko txosten bat egin zuen, eta aurretiatzko 1185/76 eginbideetan jaso zen txosten hori.

Eraso horren ondoren, biktimaren aitak demanda bat aurkeztu zuen loreontzia jaurti zuen Polizia Armatuko agentearen aurka, eta lekukoak ere bazituen. Salaketa horren eraginez, demandatuaren deiak jasotzen hasi zen. Hasieran, negoziatzeko asmoz deitzen zuen poliziak baina mehatxu-deiak egiten hasi zitzaion geroago.

Espedientearen barneko salaketan, K.S.k Donostiako 1 zenbakiko instrukzioko epaitegian adierazi zuen loreontzia bota zuten etxebizitzako jabeak “hainbat telefono-dei egin zizkiola” “azkeneko egunetan”. Gainera, konturatu zen beste dei bat ere egin ziola bere burua izen batekin eta bi abizenekin identifikatu zuen pertsona batek (egoitza judizialeko idazkian eta Batzorde honetako idazkian ageri dira izen-abizen horiek); pertsona hori Polizia Armatuari atxikitako pertsona bat zen (zehazki, Aldapetako kuartelera atxikitako norbait). Hau izan zen M.ren lekukotza, hitzez hitz: “Elkarrizketa osoa salaketak harentzat izan zitzakeen ondorioei buruzkoa izan zen: atxiloketa, Gorputzetik ateratzea, eta abar”. Geroago, elkarrizketa bat egitera behartzen saiatu zen, baina elkarrizketa hori ez zen sekula gertatu.

Lehen demanda aurkeztu eta handik bederatzai egunera, M.S.Z.k beste idazki bat aurkeztu zuen Donostiako epaitegi berean. Idazki horretan, urriaren 15eko egunsentian beste dei bat jaso zuela adierazi zuen. Demandatzaileak idazki horretan adierazi zuenez, dei horretan ohartarazi zioten bere semeari kontuz ibiltzea komeni zitzaiola, ondo baitzekiten Alderdi Komunistakoa zela.

Demandatzaileak esan zionean bere semea ez zela militantea, deitu zuen pertsonak hau erantzun zion: "...hobe du erne ibiltzea, hil egingo baitugu; estatuko indar armatuen ohartarazpena da". Heriotza-mehatxu horrek trauma handia ekarri zion K.S.R.ri. Beldur kontrolaezina sentitu zuen eta, horregatik, bere amarekin itzultzen hasi zen lanetik; egoera horrek urtebete iraun zuen, gutxienez. Azkenean, familiak amore eman eta aurkeztutako salaketak bertan behera uztea arabaki zuen. Epaitegiak ez zuen ofizios jarraitu ikertzen, eta salatutako jazoerei buruzko erantzukizuna behar bezala argitzea galarazi zuen horrek.

*Bizitza aldatu zitzaidan. Beldurrez bizi nintzen, edozein unetan hilko nindutela uste nuelako. Ikara handia izaten nuen Guardia Zibilaren kontroletan. Izu-ikara. Tratu iraingarria. Irainak. Laidoak. Eta ikara hura gorroto bihurtu zen. Ikara handia eta gorroto handia. Horregatik kendu zuen nire familiak salaketa, eta handik aurrera, mehatxu-deiak amaitu ziren. K.S.R.*

## **Martxoaren 3ko errepresioa langile-mobilizazioen kontra**

1976ko martxoaren 3an Gasteizen gertatutako jazoerek ezin hobeki uzten dute agerian erregimenak langile-mobilizazioen kontra gauzatutako errepresioa latza izan zela: errepresio bereizi gabe eta bortitz hark sarraski bat eragin zuen Gasteizen. 1975. urtearen amaieratik aurrera, hiriko zenbait enpresari eragin zien lan-gatazka bat piztu zen: Mevosa, Forjas Alavesas, Areitio, Aranzabal, Ugo, Gabilondo, Olazábal y Huarte, Industrias Galycas, Cablenor, Tuboplax, eta abar. Enpresa horietako langileek hainbat hilabeteko greba bat hasi zuten, gauza asko aldarrikatzeko.

Garai hartan, Espainiako estatuan ez zegoen onartuta greba egiteko eskubidea, eta ez zeuden zuzenbidezko estatuaren bermeak. Horregatik, langileek elkartzeko eta adierazteko zituzten legezko baliabide urriak erabiltzen zituzten: elizetan elkartzan ziren beren proposamenak eztabaidatzeko eta mobilizazioak prestatzeko.

Greba ia mugagabea nagusi zen egoera horretan, erabateko lan-geldialdia egiteko deialdia egin zen 1976ko martxoaren 3rako, gatazkan sartuta zeuden eta 1975eko abendutik diru-sarrerarik ez zuten langileentzat herritarren elkartasuna lortzeko. Ezaugarri horiekin deitzen zen hirugarren protesta-eguna zen, eta gizartean eragin handiena izan zuena. Arratsalde horretan, informazio-bilkura

batera deitu zuten Gasteizko Zaramaga auzoko Asisko San Frantziskoren parrokian.

Une jakin batean, eliza husteko agindua jaso zuen poliziak, eta ke-potoak eta gas negar-eragileko potoak jaurtitzen hasi zen. Potoek beirateak hautsi zituzten eta elizan bildu ziren milaka pertsonak ezin zuten arnasa hartu. Elizako irteera segada bat izan zen, poliziak guztia inguratuta baitzuen, eta ateratzen zirenak poliziaren kontrolpeko lekutik igarotzera behartzen baitzituen. Horren ondorioz, bost langile hil ziren poliziak tiro eginda, eta ehunen bat zauritu zituzten, horietako asko larri. Batzordean aurkeztu ziren biktima guztietako 47 (zauritutako hiru emakume barnean hartuta) jazoera horretako biktimak dira. Jazoera hartatik bizirik ateratako pertsona bat, V.A.F., Basaurin hil zen egun batzuk geroago, martxoaren 3ko jazoerekiko solidaritatea adierazteko manifestazio batean, Guardia Zibilak egindako tiro batzuen ondorioz. Kasu hori bereziki larria da, mota askotako indarkeriak hartzen baititu barnean eta, horregatik, aurrerago aztertzen da, dagokion atalean, kasu espezifiko gisa.

## **Beste mobilizazio ekologista batzuk**

Ingurumen-arazoengatik manifestazioen kontrako errepresio bortitza aurrerago ere gertatu zen. Batzordean aurkeztutako kasuetako batean, Barakaldoko kaleetan manifestazio bat egiten ari ziren, Sefanitro enpresak eragindako kutsaduraren kontra protestatzeko. Esku-hartze horietako asko behin manifestazioa amaitu zela eta manifestatzaileak sakabanatzen ari zirela gertatu ziren. Are gehiago: askotan, halako manifestazioekin zerikusirik ez zuten pertsonak ere gorabeheretan nahasten zituzten edo poliziaren biktima bihurtzen ziren. Hori gertatu zen, adibidez, 1976ko irailean udalerrri industrial hartan.

Irailaren 13an, E.P.B., 27 urtekoa, lanetik irten zen eta lankide batzuekin bildu zen. Gaueko bederlatziak inguruan, bere adiskideekin hizketan zegoela, Polizia Armatuaren istiluen aurkako furgoi batzuk agertu ziren. Hainbat agente jaitsi ziren furgoi hartatik eta gomazko pilotak jaurtitzen eta lagun-taldeari jotzen hasi ziren, bereizketarik gabe. Sakabanatzen ari zirela, kolpe bat sentitu zuen E.P.B.k hankan, eta lurrera erori zen. Su-armaz tiro egin zioten eta eskuineko hankan sartu zitzaion bala. Atari batera eraman zuten eta, geroago, iluntzean, Gurutzetako Ospitalera. Tiroaren ondorioz, tibiaren eta peronearen haustura irekia izan zuen. Ospitalean zegoela, jazoera berean zauritutako beste bi gazte topatu zituen. E.ri ebakuntza bat egin behar izan zioten eskuineko hankan



euskailu metaliko bat jartzeko. Hiru hilabete eman zituen ospitalean, eta alta eman ziotenean, sei hilabete gehiago eman zituen euskailu harekin. Apurka-apurka berreskuratu zuen mugitzeko gaitasuna, baina makuluekin baino ez eta oso nekez.

*Niri tokatu zitzaidan, eta kito. Urtebete eman nuen ospitalera joaten, eta denbora-tarte horretan baja hartu behar izan nuen, ezin bainuen lan egin. Hipoteka ordaindu behar nuen, baina ezin nuen. Salaketa jartzeko ideia baztertu nuen Guardia Zibilean esan zidatenean prozesua militarra izango zela. E.P.B.*

## Errepresioagatiko manifestazioen kontra errepresio gehiago

Manifestazioekin lotutako aurkeztutako kasuen artean, zenbaitzuk lehenagoko polizia-indarkeriagatik egin ziren manifestazioei buruzkoak dira. Horrek oso agerian uzten du mobilizazioetan sumindura handia adierazten zutela protestatzaileek, eta halako manifestazioak isilarazten saiatzeko bortizki erantzuten zutela polizia-indarrek. Beste modu batean esanda, erreprimitutako manifestazioen ondoren, askotan gertatzen zen beste mobilizazio batzuk egitea eta mobilizazio haiek ere erreprimitzea.

Batzordean aurkeztutako kasu batean, biktimari eraso eta gomazko bala batek aurpegian jo zion. 1976ko irailaren 13an, I.S., 22 urteko gazte bat, lanera joan zen, egunero bezala, Leioa eta Erandio arteko bere lantokira. Bilera baten ondoren, grebara bertaratzea erabaki zuten, Bizkaiko beste hainbat enpresatako langileek bezala, irailaren 8an Hondarrbian egin ziren manifestazioen aurkako errepresioarengatik protestatzeko (J.Z. hil egin zen manifestazio haietako batean, Guardia Zibilak tiro egin ziolako). Aste horretan, enpresa askok hartu zuten parte greba hartan. Portugaleten zegoela, polizia Bizkaiko Labe Garaietako langileak sakabanatzen saiatzen ari zela ikusi zuen I.S.k. Oso gertutik eztanda izugarria entzun ondoren, gomazko bala batek aurpegian jo zion, eta koman egon zen lau egunean Gurutzetako Ospitalean.

Gomazko balak aurpegia txikitu zion: aurpegiko garezur-sistemaren eta sinu maxilarren erabateko haustura izan zuen, hortzak galdu zituen eta eskuineko begi-globoa lehertu zitzaion. Irailaren 13an ospitaleratu zuten lehen aldiz, eta bi ebakuntza egin zizkieten. Bi ebakuntza haietako lehenengoa 1976ko irailaren 16an egin zioten: hausturak murriztu zizkieten, osteosintesi anizkoitzak egin

zizkioten, sinu maxilarrak itxi zizkioten eta eskuineko begia erauzi zioten. Harrez geroztik, kristalezko protesi bat darama. Lau egun geroago, beste ebakuntza bat egin zitzaion, eta ia hilabete geroago (urriaren 8an) hartu zuen ospitaleko alta; horren ondoren, kanpoko kontsultetan tratamendua jaso behar izan zuen bi urtean. Geroago, kirurgia konpontzailea ere behar izan du hondar-lesio larriak konpontzeko, eta arazo ugari izan ditu haien ondorioz.

### **Tiroak amnistiaren aldeko manifestazioen eta Perturren desagergenagatiko manifestazioen ondoren**

---

Batzordeak jasotako kasu ugaritan, manifestatzaileen kontrako tiroak amnistiaren aldeko manifestazioak eta eragin handia izan zuten bestelako manifestazioak amaitzean gertatu ziren. Horietako bat Eduardo Moreno Bergaretxeren (*Pertur*) desagergenagatiko manifestazioa izan zen. Kasu batean, kale-jantzian zegoen agente batek egin zituen tiroak, manifestazioa zaintzen ari zela. Beste kasu batean, berriz, manifestazio bat desegin zuten eta ondoren, herri-jai batean zegoen jendeari eraso zioten. Gaur egun, aho batez onartuta dago manifestazio baketsu bat desegiteko su-armak erabiltzea indarraren erabileraren proportzionaltasunaren kontrakoa dela erabat, baina garai hartan, diktadura amaitu berri zela eta trantsizioa orduantxe hasi zela, maiz jokatzeko zuten polizia-indarrek horrela, urte haietan hainbeste biktima egon izanak frogatzen duen bezala.

1976ko irailaren hasieran, Donostiako estropadak (Kontxako Bandera) izan ziren aldarrikapen horien jokalekuetako bat. Irailaren 5ean (igandea), eguerdiko ordu batak eta erdian, amnistiaren aldeko manifestazio bat egin zen; hainbat kolektibo sozial eta politikok manifestazio horretara deitu zuten jendea, eta manifestatzaileak Donostia osoko kaleetan ibili ziren. Martxa hasi baino lehen, komunikatu bat irakurri zuten: “preso eta erbesteratu politiko guztien erabateko amnistia eskatzeko ez ezik, Perturren bahiketa argitzera eta hura berehala askatzera presatzeko ere bai”.

Manifestazio horretan, A.C.M. larriki zauritu zuten hanka batean, behin manifestazioa amaitu zela eta gizon bati lurretik jaikitzen laguntzen ari zitzaiola, kale-jantzian zegoen guardia zibil batek tiro egin ziolako. Beste manifestazio batean, Hondarribian, Comisiones Obreras sindikatuko kide J.M.Z.E. (24 urtekoa) hil zuten. Berrehun bat pertsonak martxa baketsu bat abiarazi zuten eta esaldi hauek ozen esaten hasi ziren: “Pertur Askatu”, “Presoak Kalera” eta

“Amnistia”. Martxa jai-giroan ari zen igarotzen eta, halako batean, Guardia Zibilak esku hartu zuen: borrekin kolpeak ematen eta gomazko pilotekin, gas negar-eragileko potoekin eta su-armekin tiroak egiten hasi ziren. Izu handia sortu zen eta jendea sakabanatu egin zen, babes bila. Guardia zibiletako batek su-arma batekin egin zion tiro bizkarrean J.M.Z.E.ri, eta hil egin zen. Hildakoa Osasun Egoitzara eraman zuten, eta autopsia egin zioten mediku militarrek gorputzari, baina auzitegiko medikuei debekatu egin zitzaizen sartzea.

Amnistia eskatzeko presio horri erantzuteko, 1976ko uztailaren 30ean amnistia partzial bat dekretatu zen, eta horri esker, 287 preso politiko kaleratu zituzten, nahiz eta horrek ez zituen aurreikusten “terrorismo” akusazioaren barnean sartutako delituak. Horregatik, neurri horrek ez zuen eraginik izan halakotzat hartutako preso gehienengan, ETArekin eta antzeko erakundeekin ustezko edo benetako lotura zutelako. Horregatik, erabateko amnistia eskatzeko manifestazioetarako deialdiak egiten jarraitu ziren. Mobilizazio haietan, polizia bortizki hartu zuen esku, eta manifestatzaileen aurkako errepresio hartan talde ultraeskuindarrek eta parapolizialek ere parte hartu zuten. Horrelako gertakariak Euskaditik kanpo ere gertatu ziren. 1977ko urtarrilaren 23an, Madrilen Arturo Ruiz gaztea hil zuen Guerrilleros de Cristo Rey taldeak; Ruiz manifestazio haietako batean ari zen parte hartzen hil zutenean, beste talde ultraeskuindar batek Atocha kaleko sarraskian bost abokatu hil baino apur bat lehenago. Kontuan izan behar da polizia jada torturatu eta hil zituela hainbat pertsona; kasu baterako, 1969ko urtarrilaren 20an, Enrique Ruano gaztea zazpigarren solairu batetik erori zen, Madrilen, Brigada Politiko Sozialeko hiru agente zaintzen ari zitzaizkion bitartean, eta hil egin zen.

Gainera, manifestazioetan ez zeuden hainbat pertsonari ere eraso zien polizia, indarra gehiegikeriaz erabiliz eta gomazko pilotak jaurtiz. Donostian, 1976ko azaroaren 11n, manifestazio bat amaitu ondoren, J.Z.Z. eta haren bi adiskide taberna beterantz zihoazen bazkaltzeko asmoz eta, halako batean, manifestatzaile-talde baten eta Polizia Armatuko kide batzuen arteko liskar batek harrapatu zituen. Hiru lagunak sakabanatu egin ziren, bakoitza norabide batean korrika joan zen, eta liskarra amaitu zela ikusi zuenean, taberna hartara joan zen J.Z.Z. Tabernan sartu zen eta adiskideak han ez zeudela ikusi zuenean, atera joan zen; halako batean, gomazko pilota batek ahoan jo zion. Odol ugari botatzen hasi eta lurrera erori zen. Lokalaren jabeek berehala deitu zuten anbulantzia bat eskatzeko, ospitalera eraman zezaten.

Parte zaharretik ateratzean, Polizia Armatuak polizia-kontrol bat prestatuta zeukan kanpoan, eta agenteetako bat anbulantzian igo zen eta zaurituarekin

joan zen Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzaraino, armarekin apuntatzeari utzi gabe. Egoitzan sartu zenean, hasierako diagnosa masailezur-haustura eta sei hortz-piezaren galera izan zen. Hiru egun geroago, alta eman zioten. Baina ahoaren oklusio ona ez zuenez lortzen, gerora ebakuntza bat egin behar izan zioten, medikuaren txostenaren arabera, “beheko ebaki bestibularra eta hausturen murriztapena eta osteosintesia irekita eta alanbrearekin”. 15 egun eman zituen, guztira, ospitalean.

Beste kasu batean, Guardia Zibilak J.M.B.S. larriki zauritu zuen 1977ko urtarrilaren 8ko arratsaldean, Portugaleteko Pinillos taberna indarkeriaren bitartez hustu zutenean; biktima adiskide batzuekin zegoen taberna horretan. Justu kanpoan amnistiaren aldeko manifestazio bat udalerriko alde zaharreko Santa Maria kaletik jaisten ari zen. Une jakin batean, Guardia Zibilaren Brigada Bereziatiko ofizial edo ofizialorde bat agertu zen tabernan, eta lokala hustu behar zutela ohartarazi zien tabernan zeuden bezero ugari (larunbat arratsaldetan beteta egon ohi ziren gune horretako lokalak). Guardia tabernako pertsoneri erasotzen hasi zitzairen borra batekin, eta jendea tropelean hasi zen ateratzen, izuaren izuz. Irteeran zeuden guardiek fusilen kulatarekin jotzen zituzten irten nahi zuten bezeroak. Guardia batek buruan jo zuen J.M.B.S. fusilarekin. Ondorioz, erori egin zen, eta lurrean zegoela, berriz ere jo zuten kulatarekin ahoan. 20 minutu baino gehiago eman zituen lurrean konorterik gabe; aurpegiaren ezkerreko aldean eta goiko ezpainean odola zerion zauri bat egin zioten, bi hortz galdu zituen, beste hortz-pieza batzuk erasanda zituen, eta ezkerreko belarrian entzumen-galera traumatikoa izan zuen.

## Elizak indarkeria bidez hustea

Amnistiaren aldeko lehen astea 1977ko otsailaren 26an eta martxoaren 6an egin zen Euskadin. Garai hartan, amnistia eta ikurrinaren legalizazioa ziren frankismoaren aurka borrokatzen zuten sektore politiko eta sozialen aldarrikapen zabalduenetako bi. Poliziaren errepresio gogorraren ondorioz, pertsona asko zauritu zituzten, eta hurrengo astean, poliziak bi pertsona hil zituen tiroka.

Garai hartan, bilerak edo aldarrikapen-itxialdiak egiteko toki bihurtzen ziren elizak askotan. Toki babestuak eta erlijiosoak zirenez, poliziak ezin zuen zuzenean sartu apezpikuaren baimenik gabe; horregatik, aldarrikapen soziopolitikoetan oinarritutako protesta baketsuak, baruak eta topaketak

egiteko babestoki gisa erabili ohi ziren tenpluak, barruan kanpoko errepresiotik babestuta egoteko leku gisa.

Hala eta guztiz ere, ordena publikoko indarrak sartu egiten ziren elizetan, eta bertan bilduta zeuden pertsonak bortizki jotzen zituzten. Esate baterako, amnistiaren aldeko lehen astean horrelako kasu bat gertatu zen: 1977ko otsailaren 27an, 03:00etan, A.T. larriki zauritu zuen Guardia Zibilak Lekeitioko Andre Mariaren eliza indarkeriaren bidez husten eta preso politikoen erabateko amnistia eskatzeko tenplu horretan itxialdian zeuden berrehun pertsonak (gutxi gorabehera) bortizki ateratzen ari zela.

*Lekeitioko Elizan itxialdi bat egitera deitu zen jendea; diktadurako presoak espetxeetatik ateratzeko eta amnistiatzeko eskatu nahi zen itxialdi horren bidez. Geroago, amnistiaren aldeko beste aste bat egin zen, eta aste horren bukaeran, Lekeitioko elizan itxialdi bat egingo zen, aurrekoan bezalaxe. Otsailaren 26ko gaua zen. 18 urtetik 70 bat urtera bitarteko 200 pertsona inguru joan ginen elizara. Gaueko ordu batak edo ordu biak inguruan, apaiza etorri zitzaigun eta Guardia Zibilak eliza inguratuta zuela esan zigun, irten egin behar genuela esan ziotela. Ez dut beste ezer ere gogoratzen. Justu orduan sartu ziren. A.T.*

Pertsona askok ikusi zuten guardia zibil batzuk A.T.rekin grinatu zirela, eta eraso gelditzen saiatu ziren. Bien bitartean, beste hogeit hamar pertsonari lagundu egin behar izan zitzairen, zauritu egin zituztelako, batzuk larriki. Biktimak ondoren larriki izan zituen aurpegian: aurpegiko hezurretan haustura ugari eragin zituzteten, kolpeka, eta hainbat urtean ebakuntza asko egin behar izan zituzteten aurpegiko eta begiko lesio haiek konpontzeko. Eraso horren ondoren fisikoek iraunkorrak izaten jarraitzen dute gaur egun, eta nabarmen mugatu zuten A.T.ren bizi-proiektua, sufrimendu izugarria eragiteaz gain.

## **Gomazko balek hildako pertsonak**

Amnistiaren aldeko lehen aste horren ondoren, polizia-erasoen ondorioz bi pertsona hil ziren manifestazioetan, Batzorde honetan aurkeztutako kasuen artean. 1977ko martxoaren bigarren astean manifestazio ugari egin ziren, batzuk Guardia Zibilak Ezkio-Itsason (Gipuzkoa) ETAko kide batzuk tiroka hil izanagatik protestatzeko; manifestazio horietako batean, poliziak tiratutako gomazko balek bi pertsona hil zituzten.

Jazoerak Donostian gertatu ziren. 1977ko martxoaren 12an, 67 urteko I.S.A.ri sorbaldan eta toraxean eman zion Polizia Armatuak manifestatzaileei jaurtitako gomazko pilota batek. Gurutze Gorriaren klinikan tratatu zizkioten hasiera batean arinak ziruditen lesioak, eta espezialista batengana joatea gomendatu zioten, egoera balora ziezaioten. Lau egun geroago, martxoaren 16an, Gurutze Gorriaren Ospitalean, eta azterketa erradiologiko baten ondoren, ezkerreko klabikula hautsi zitzaiola eta ezkerreko hemitoraxean hematoma handi bat zuela ikusi zuten. Horregatik, ospitaleratu egin zuten. Martxoaren 22an, klabikulako haustura sendatzeko ebakuntza bat egin zioten, baina gaixoaren egoerak okerrera egin zuen toraxeko traumatismoarengatik, eta martxoaren 29an hil egin zen. 1 zenbakiko epaitegiko medikuaren txostenean jaso zen heriotzaren kausa “ezkerreko hemitoraxeko goiko hereneko traumatismoa” izan zela.

Halaber, 1977ko martxoaren 12an, Donostian, Guardia Zibilaren eta manifestatzaileen arteko beste hainbat istilu ere gertatu ziren martxoaren 8an Ezkio-ltsason (Gipuzkoa) Guardia Zibilarekin izandako enfrentamendu batean ETAko kide batzuk hil izanagatik protestatzeko manifestazioan. J.L.A.L. Donostiako Parte Zaharrera zihoan adiskide batekin, 21:30 inguruan, eta istiluak ikusi ondoren, Hernanira joatea erabaki zuten. Halako batean, hainbat polizia mutil gazte baten atzetik zebiltzala ikusi zuten; azkenean, harrapatu egin zuten eta kolpeka hasi zitzaizkion. J.L.A.L. eta bere adiskidea haiei begira geratu ziren. Polizia batek gomazko pilota bat jaurti zien, pilota autoaren leihatilatik sartu zen eta J.L.ri lokian eman zion. Larriki zauritu zuen pilotak. Ospitalera eraman zuten, baina bi egun geroago hil zen, jasotako kolpe izugarriaren ondorioz.

## **Amnistiaren aldeko bigarren astea eta tiroak su-armekin**

Amnistiaren aldeko protesta-mugimenduak aldarrikapen horren inguruko kolektibo politiko eta sozial ugari biltzea lortu zuen garai hartan. Amnistiaren aldeko bigarren aste hartarako deitutako protesten eta manifestazioen ziklo berri batean, 1977ko maiatzaren bigarren astean, balantzea lazarria izan zen. Zazpi lagun hil ziren eta zauritu asko egon ziren, haietako asko ordena publikoko indarrek su-armak erabili zituztelako. R.G.J., 78 urtekoa, Guardia Zibilak tiroka hil zuten hilaren 12an (osteguna) Errenterian; J.L.C.P., 28 urtekoa, Iruñean hil zuten hilaren 13an, tiro batez, Polizia Armatuko zenbait kide jipoitzen ari zitzaizkiola; egun berean, C.C.I. ibilgailu batek harrapatuta hil zen, Guardia Zibila A-8 Autopistako barrkada bat (Errenteria aldean) kentzera derrigortzen ari zitzaiola; L.S.M., 72 urtekoa, bihotzekoak jota hil zen Iruñean, manifestatzaileen eta polizien arteko liskarrei begira ari zitzaieela etxetik; G.M.A. larriki zauritu zuten

su-armaz Erreterian, kaleko iskanbilak ikusten ari zela (geroago hil zen, zaurien ondorioz); M.F.M., Comisiones Obreraseko sindikalista, Ortuellan hil zuen Guardia Zibilak bizkarrean tirokatu ondoren.

1977ko maiatzaren 12ko protestarako deialdiak oihartzun handia izan zuen Gipuzkoan; izan ere, Gipuzkoan ia orokorra izan zen greba. Erreteria izan zen langabeziak gehien jotako udalerrietako bat. Bilera jendetsu baten ondoren, manifestazio bat egitea adostu zen, eta 21 urteko J.M.S.k parte hartu zuen manifestazio hartan.

Guardia Zibilaren hiru jeepek ziztu bizian zeharkatu zuten martxa, eta gomazko pilotaz tirokatu zituzten manifestatzaileak. Orduan, parte-hartzaileak Guardia Zibilaren Erreteriarako kuartelerantz joan ziren, atxilotuen askapena eskatzera, eta Guardia Zibilaren beste esku-hartze bat eragin zuen horrek. Istiluen aurkako materiala eta su-armak erabiltzen hasi ziren guardia zibilak. Guardia Zibilaren esku-hartze haren ondorioz, J.M.S. eta beste hainbat manifestatzaile balaz zauritu zituzten: J.A.S.M., J.M.T., A.V., P.V. eta R.G.J., 78 urtekoa (bala-zaurien eraginez hil zen handik gutxira).

Jaurtigaiak (bala lehergarri bat) eskuineko hanka suntsitu zion J.M.S.ri. Ia odolustuta hil zen, eta ospitalera eraman behar izan zuten: shock hipobolemikoan zegoen, jaurtigaiak eskuineko hankan sartzean eta irtetean zauriak eragin zizkion (zati bigunak eta larruazala suntsituta zituen), tibia eta peronearen burua hautsita zituen, lesio baskularra eta nerbiosoa zuen, eta nerbio ziatikoa deseginda zeukan. Lehen hamar egunak zainketa intentsiboetan eman zituen. Geroago, zazpi hilabete eman behar izan zituen immobilizatuta, 1977ko azaroaren 22ra arte, eta ospitalean egon zen 1978ko martxoaren 17ra arte (jazoerak gertatu eta hamar hilabete geroago). Horren ondoren, etxera bidali zuten, tratamendu ambulatorioarekin jarraitzeko, baina zenbait arazo izan zituen eta ospitaleratu egin behar izan zuten berriz ere. Gerora, urteak igaro ahala, beste zazpi ebakuntza egin behar izan dizkio, eta eragin larria izan zuen horrek biktimaren lan-bizitzan. Biktimaren lan-bizitzako azken urteak bereziki gogorrak izan ziren, osteomielitis-koadro ugari izan zituelako eta urtean behin edo bitan ospitaleratu behar izan zutelako horregatik. 1999az geroztik (44 urte zituela) erretiratuta dago eta ezintasun iraunkor osoa du aitortuta.

Egun berean, Erreterian, J.C.B.F. larriki zauritu zuten. J.C.B. bere amarekin joan zen J.L.C.ren hiletara (bi egun lehenago hil zuen tiroka Guardia Zibilak J.L.C., Iruñean). Hileta amaitzean, manifestazio bat egin zuten. Polizia Armatua

ke-potoak jaurtitzen hasi zen, eta poto batek sudurrean eman zion J.C.B.ri. Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzan sudurreko hezurren haustura konpontzeko ebakuntza bat egin zioten, eta hilabete eman behar izan zuen bajaran. Ondorenak geratu zitzaizkion: ikusmen bikoitza eta betazal-erorketa. Halaber, trauma ondoko tatuajea ere geratu zitzaion bi begien artean, ke-potoak jo zion tokian. Urtebete geroago, J.L.C.ri beste ebakuntza bat egin behar izan zioten. Duela hamahiru urte mieloma anizkoitz bat atzeman zioten ke-potoak jo zion tokian, baina ez dago kausa-efektu harremanaren frogarik ke-potoaren kolpearen eta gerora atera zitzaion mielomaren artean. Nolanahi ere, mieloma desagertu egin zitzaion gerora. Horretaz gainera, hainbat urtean arnas gaixotasunak izan ditu J.L.C.k, ke-potoak sudurrean jo ziolako; horregatik, 2005ean beste ebakuntza bat egin behar izan zioten, arnas gaixotasun gutxiago har zitzan.

J.M.A. ere egun berean zauritu zuten su-arma batekin. Pasai Antxoko eskola batean zuen lanpostura zihoala, irakasleak bildu egin ziren eta aho batez erabaki zuten egun horretarako deitutako greban parte hartzea. Garai hartan, oso maiz egiten zituzten bilkurak zenbait udalerritan, eta ia naturalki egin ohi ziren haietarako deialdiak, aurretiko programaziorik egin gabe. Bilera hartan manifestazio bat egitea erabaki zuten. Manifestatzen ari zirela, J.M.A.ri tiro bat eman zioten hankan su-armaz. Horren ondorioz, zati bigunak nabarmen kaltetu zitzaizkion eta hiru aste eman behar izan zituen ospitalean, 1977ko ekainaren 7ra arte. Egun hartatik aurrera, tratamendu anbulatorioan egon zen, eta urte hartako uztailaren 1ean eman zioten behin betiko alta. Hiru hilabetez ezin izan zuen lanera itzuli.

Beste kasu batean, biktimak, C.P.F.k, 17 urte zituen eta Erreterian bizi zen. C.P.F.ren arreba, 14 urtekoa, ez zen etxera itzuli oraindik, eta horregatik, C.P.F. kalera irten zen bere bila eta Herriko plazaraino iritsi zen; Guardia Zibilak ia erabat inguratuta zeukan plaza, eta agenteak manifestatzaileei tiroka ari zitzaizkien. C.ri bala batek eman zion eta birika zeharkatu zion. Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzako larrialdietako aldera eraman zuten eta 20 egun eman zituen han; geroago, lau hilabeteko errehabilitazioa egin behar izan zuen besoa lehengoratzeko. C.ren lan-bizitza gelditu egin zen denboraldi baterako, besoa oso ahul geratu baitzitzaion eta haren indarra berreskuratu zuen arte ezin izan baitzuen lanera itzuli. Tiroaren ondorioz, zenbait ondoren geratu zaizkio; esaterako, birika-edukieraren murrizketa; disnea eragiten dio horrek, ahalegin txikiak egitean.



Jazoerak gertatu eta handik denbora jakin batera, Loiolako kuartel militarra deklaratzera joateko zitazio bat jaso zuen, baina ez zioten jakinarazi zen gertatu zen diligenzietekin. Familiak ez zuen salaketarik aurkeztu, errepresalien beldurra baitzuten. Gurasoek kezka handiz bizi zuten gertatutakoa, eta beldurra ematen zien semea kalera irtetea.

Egun bat geroago, 1977ko maiatzaren 13an, M.L.Y., Lazkaokoa, manifestazio batera joan zen lagun batzuekin; Beasaingo kaleetan ibili zen manifestazio hori. Manifestazioa San Miguel Klinikari amaitu zen, bertan baitzegoen B.A.A., Komando Autonomoetako ustezko kide bat. Klinikaren barruan bi polizia zeuden leihotetan zelatan jarrita. Manifestazioa jada amaitu zela, M.L.Y. adiskide batzuekin berriketan ari zen, klinikatik 100 bat metrora; halako batean, kolpe bortitz bat eman zioten bizkarrean eta arnasarik gabe geratu zen. Guardia Zibilak su-armaz tirokatu zuen, eta balak ezkerreko besoa eta ezkerreko birikaren lobulua zeharkatu zizkion (besoko hezurra kaltetu gabe); bala bizkarretik atera zitzaion. Konortea galdu zuen. Hasiera batean, San Miguel Klinikara eraman zuten (bertatik egin zuten tiro agenteek), eta gero, Arantzazu Egoitzara.

Bi ebakuntza egin zizkieten, balak hemopneumotoraxa eragin ziolako ezkerreko birikan. Birika-parenkimaren erresektzioa egin zioten. 13 gun eman zituen ospitalean, baina horren ondoren, hainbat hilabete eman zituen etxetik atera gabe, atsedean hartzen, lehengoratu arte.

*Nire senideek ez zuten salaketarik aurkeztu nahi izan, errepresalien beldur zirelako. Arazoa gehiago ez mugitzea erabaki zuten, garai hartan nirekin zeuden pertsonak tartean ez sartzeko. Inork ez zituen gertakariak ikertu. Zigorgabetasuna dago, iragana ez da itxi, eta orain ari gara horren ordaina jasotzen. Harrez geroztik ez naiz ia manifestazio batera ere joan. M.L.Y.*

Egun haietan, manifestazio bat desegin ondoren eta manifestatzaileak poliziarengandik ihes egiten ari zirela, T.A.B., 29 urtekoa, Eibarko kaleetan zebilen eta gomazko pilota batek jo zuen; ondoren larriak eragin zizkion gibelean, hausturez aparte. Pilotak toraxaren beheko aldean jo zion, izugarriko mina eragin zion eta larruazala ere erre zion; Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzara eraman zuten berehala, eta hau diagnostikatu zioten: makardura eskuineko hemotoraxarean, zortzigarren saihetseko hausturarekin, gomazko pilota baten kolpe baten eraginez. Egun batzuk geroago, 1977ko maiatzaren 24an, min zorrotza sentitu zuen eta berriz ere ospitaleratu zuten; hesteetan intentsitate ertaineko hemorragia eta konjuntibako ikterizia zituen eta,

horregatik, ebakuntza bat egin behar izan zioten pilota-kolpearen ondoriozko behazunbideen buxadura eta gibelako hematoma sendatzeko. Pairatutako traumatismoagatik konplikazioak izaten jarraitu zuen, eta bederatzi hilabete geroago (1978ko otsailaren 2an) beste ebakuntza bat egin behar izan zioten, abzesu subhepatiko batengatik. Horren ondoren, anemia handiak izan zituen eta ezin izan zuen lan egin zortzi hilabetean. Egun hartan eragin zizkieten lesioen ondoren fisikoak izaten jarraitzen du T.A.k oraindik ere: hiatoko hernia eta ultzera baten eraginez, hainbat digestio-arazo ditu, hala nola dispepsia eta gastralgia.

Batzordean aurkeztutako beste kasu batzuetan, jazoerak Bizkaian gertatu ziren, lurralde hartan ere amnistiaren aldeko mobilizazio ugari egin baitziren. 1977ko maiatzaren 15ean, J.G.M. Barakaldora joan zen arratsaldea pasatzera. Egun horretan amnistiaren eta demokraziaren aldeko manifestazio batera deitua zegoen jendea; gobernadore zibilaren baimena zuen manifestazio horrek, eta PSOE eta EAJ alderdiak ziren haren buruak. Barakaldoko hainbat kale zeharkatu zituzten manifestatzaileek, eta azkenean, Herriko plazan amaitu zen manifestazioa. Tren-geltokirantz joan ondoren, J.G. plaza hartatik pasa zen eta ikusi zuen alderdi politiko haietako ordezkariak musika-kioskora igo zirela eta pankartak erakusten hasi zirela. Hori ikusirik, polizia manifestatzaileei jotzen eta gomazko pilotak jaurtitzen hasi zen.

Gorabehera haiek ikusita, toki hartatik alde egitea erabaki zuen J.G.M.k, baina aurrean zuen polizia-talde batek su-armaz tirokatu zuen, kapitainak aginduta, eta zauritu egin zuten. Bala ukondoan sartu zitzaion eta besaurreko aurreko aldetik atera zitzaion. Ezezagun batek Gurutzetako Ospitalera eraman zuen furgoneta partikular batean. Balak nerbio kubitalari eragin zion, eta hiru aste eman behar izan zituen ospitalean; morfina eman behar izan zioten sentitzen zuen min izugarria arintzeko. Besoan ebakuntza ugari egin behar izan dizkiote. Ondoren latzena da harrez geroztik min kroniko izugarria sentitzen duela besoan; potentzia handiko analgesikoak hartu behar ditu min hori jasateko.

*Ez zen inolako borroka fisikorik egon; poliziak jendeari eraso zion, besterik gabe. Bizirik egote hutsagatik zorionekoa naiz, baina bizitza erabat aldatu zitzaidan; ezin izan nuen ikasten jarraitu. Besoko lesioak erabat baldintzatu du nire bizitza. Izan nituen lanpostu asko galdu egin nituen, behar bezalako errendimendua ez nuelako. 1984az geroztik ezintasun iraunkor absolutua dut. Oraindik beldurra sentitzen dut. Ez dut ongi lo egiten. Abokatuak? Inor ez zen ausartzen Poliziaren kontra joatera eta kalte-ordaina erreklamatzera, errepresaliei beldur handia baikenien biktimek. Azkenean erreklamatu nuen,*

*baina delitua jada preskribatu da. Eginbideak abiatu ziren eta auzibide militar bihurtu zen. Azkenean, poliziaren kontrako irainak leporatu zizkidaten. J.G.M.*

Egun berean, Bilbon egin zen manifestazio baten ondoren, J.O.S. eta haren lehengusu I.S. atari baterantz joan ziren babes bila. Polizia Armatuaren furgoietakoa bat zitzu bizian iritsi zen eta barrikada batekin tupustu egin zuen. Agenteak furgoiatik jaitsi ziren eta gomazko pilotak jaurtitzeko hasi ziren. Etxebizitza batzuen sarreraren zegoela, gomazko pilota batek aurpegian bortizki jo ziola sentitu zuen J.O.S.ek. I.S.k lagundu egin zion eta, beste pertsona batzuek lagunduta, Deustuko 18 de Julio Klinikara eraman zuten auto partikular batean. Lesioa oso larria zenez, Basurtuko Ospitale Zibilerara eraman behar izan zuten. Gomazko pilotak eman zion kolpearen ondorioz, J.O.S.ek haustura ugari izan zituen aurpegian, masailalbo-hezurra (hezur zigomatikoa edo malarra) hautsi zitzaion (zati anitzeko haustura) eta begi-globo bat galdu zuen. 1977ko maiatzaren 16an, oftalmologia-zerbitzuak ebakuntza bat egin zion, eta maiatzaren 23an beste ebakuntza bat egin zioten, aurpegi-masailetakoa kirurgiako. Jazoeren ondoren zirela eta, hainbat ebakuntza egin behar izan zizkieten, begietako bat galdu zuen eta protesi bat ipini behar izan zioten, horrekin loturiko arazo kroniko ugari izateaz aparte.

*Nire amak histeria-krisi bat izan zuen ez zidatelako artatu nahi ospitalean, eta mediku partikular batengana eramatea erabaki zuten. Oso gogorra izan zen, nire familiak diru gutxi zuelako eta ebakuntzagatiko gastuak ez ezik, sendaketengatiko eta ebakuntza osteko kontsultengatiko gastuak ere izan genituelako, medikuak agindutako sendaketetarako klinikara egunero joateko taxiagatiko gastuak barnean hartuta. Urte asko igaro dira baina oraindik ez da prozesua amaitu. 2012an izan nuen azken ebakuntza. J.O.S.*

Egun bat geroago, 1977ko maiatzaren 16an, amnistiaren aldeko mobilizazioen ondoren, J.E.I. lagun batzuekin irten zen lantegitik, eta Deustuko Rafaela Ibarra kalearen parean, Polizia Armatuko agente-talde bat autobus batetik irten zen eta lagun-taldeari erasotzen hasi zitzaion. J.E.I.ren bi anaiek ihes egitea lortu zuten, baina polizia batek kalezulo batean harrapatu zuen J.E.I., eta jipoitu egin zuen borrarekin. Kolpe haien ondoren, etxera bere kabuz iristea lortu zuen, eta ospitalera eramaten lagundu zioten. Hau diagnostikatu zion medikuak J.E.ri: sorbaldako giltzadurako lokadura eta humeroaren goiko muturraren haustura. Sei orduko ebakuntza bat egin zioten eta sorbaldan muskulu-masa galdu zuen; horregatik, transplante bat egin behar izan zioten. Medikuen txostenaren arabera, artikulazio eskapulo-humeralean gerta daitekeen lesiorik larriena izan zuen J.E.k. Beso-euskarri bat behar izan zuen sei hilabetean, eta errehabilitazio-

ariketak egin behar ditu harrez geroztik, sorbaldaren mugikortasuna eta indarra % 20ra murriztuta geratu baitzitzaizkion.

## **Germán Rodríguezen heriotzagatiko mobilizazioen aurkako errepresioa**

1978an, Iruñeko San Ferminetan, hiri hartako zezen-plaza inguruan tirokatu eta hil zuen Germán Rodríguez gaztea Polizia Armatuak; egun horretarako programatuta zegoen korridaren amaieran, amnistiaren aldeko aldarrikapen-ekitaldi bat egin zen, eta ekitaldi horretan gertatu zen, hain zuzen, tiroketa. Hildako horrez aparte, ehun eta berrogeia hamar pertsona zauritu zituen poliziak, haietako hamaika, tiroka.

Alabaina, jazoerak ez ziren plazan amaitu. Polizia-kargak eta istiluak zezen-plazaren ingurura eta gertuko kaleetara ere zabaldu ziren, eta bertan ere erabili zituen Polizia Armatuak su-arnak. Rodolfo Martín Villa ministroak gerora egindako balantzearen arabera, mota guztietako 7.000 tiro egin ziren, eta haietako 130 bala-tiroak izan ziren<sup>9</sup>.

Esku-hartze haietako batean, Germán Rodríguez gazteari tiro bat eman zioten buruan, eta hil egin zen. Heriotza horrek astindu sozial ikaragarria eragin zuen. Jazoera haiek gaitzespen-mobilizazioak eragin zituzten Euskadiko hainbat tokitan.

Uztailaren 9an, M.L.A. donostiarra Iruñera joan zen adiskide batzuekin. Autoa azoka-eremuaren inguruan aparkatu zuten eta alde zaharrera joan ziren zerbait

---

9 García de Leániz Moncada, Rocío; Jiménez Ramos, María; Marrodán Ciordia, Javier; Araluce Martín, Gonzalo: *Relatos de Plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*. Nafarroako Gobernua, 2013, 134. Baita lan hauetan ere: *Castigo a los culpables. Erredunei zigorra* (Madril, 1978; egilea: Iturbe, Francico Javier; Meoqui, José Antonio; González, Jesús); eta *San Fermín 78. Así fue* (1978ko abuztua, 58. orrialdea; Comisión Investigadora de las Peñas de Mozos de Pamplona); horien arabera, gomazko 5.000 pilota, 1.000 ke-poto, gas negar-eragileko 1.000 poto, 9 mm-ko 100 Parabellum jaurtigailu eta 9 mm-ko 50 jaurtigailu labur jaurti zituzten (Poliziak erabilitakoak); bi iturriak datu ofizialetan oinarritzen dira.

hartzera. Azoka-eremuan sartu zirenean, ikusi zuten istilu asko ari zirela gertatzen, eta norabide desberdinetan sakabanatu zen taldea.

M.L.A.k ahal zuena egin zuen toki hartatik irteteko eta istilurik gabeko lekuren batera joateko, baina Polizia Armatuak eremu osoa inguratu zuen. Erabat beldurtuta eta nahigabetuta zegoen, eta halako batean, gomazko pilota batek eskuineko begian jo zion. Talka bortitz horren eraginez, ikusmena zeharo galdu zuen eta lurrera erori zen. Orduan, Polizia Armatuko agente batzuk gerturatu zitzaizkion eta ostikoak eta kulata-kolpeak ematen eta irainak oihukatzen hasi zitzaizkion.

Poliziak lurrean utzi eta alde egin zuen eta bi aita-alabak Nafarroako Probintzia Ospitalera eraman zuten. Ospitaleratu zutenean, diagnostiko hau egin zioten: *“Zauri ebakidun eta makatua eskuineko begiaren goiko betazalean; sindrome traumatikoa bi begietan eta katarata traumatikoa kristalino-subluxazioarekin eskuineko begian. Gainera, “heren nasaleko goiko orbita-arkuko haustura” ere bazuen. Horregatik guztiagatik, sudurrean ebakuntza bat egin behar izan zioten, kristalinoa kentzeaz gain. Ia hilabete geroago, 1978ko abuztuaren 5ean, ospitaleko alta eman zioten, baina geroago berriz ere ospitaleratu behar izan zuten, eskuineko begiko kataratan ebakuntza bat egiteko.*

*Arazo bakarra ez da sufrimendua eta bi ebakuntzak; gastu ekonomiko handia ekarri zidan horrek: abokatuaren joan-etorriak (Iruñean du bulegoa); lanean galdutako ordu guztiak; begi bakar bat edukitzeak dakarren errendimendugalera lanean, etab. M.L.A.*

Bi egun geroago, 1978ko uztailaren 11n, jazoera haiengatik protestatzeko mobilizatzen jarraitu zuen jendeak Donostian, eta barrikada bat osatu zuten. Polizia Armatua ke-potoak eta gomazko pilotak jaurtitzen ari zen eta, halako batean, jeep batetik agente bat jaitsi zen eta tiro-segida bat egin zuen bere metrailetarekin. Tiro haien ondorioz, J.I.B.U. zauritu egin zuten eta, berehala eraman bazuten ere Arantzazuko Andra Mari Osasun Egoitzara, jada hilda zegoen ospitalera sartu zenean. Egin zitzaion autopsiak seinalatzen duenez, balak bihotza eta birika zeharkatu zizkion eta su-armak eragindako zauriagatik hil zen.

J.H.C.k 17 urte zituen jazoerak gertatu zirenean, eta Erreterian bizi zen, bere gurasoen etxean, bere bost anai-arrebekin. 1978 uztailaren 12ko arratsaldean, J.H.C. Beraun auzora joan zen adiskide batzuekin eta bere anaiarekin, hirigunean

gertatzen ari ziren istiluetatik ihes egin nahian. Une horretan, A8 autopista (auzo horren azpiko aldetik igarotzen da) moztuta zegoen, istilu ugari baitzeuden udalerrian, eta gaztetxoak San Marko kalera iritsi zirenean (autopistatik 200 bat metrora), pertsona-talde bat haiengana korrika ari zirela ikusi zuten. Begira geratu ziren jakin nahian zer ari zen gertatzen eta, halako batean, ikusi zuten autopistako zubiaren aldameneko muino batean guardia zibil bat kalera apuntatzen ari zela arma batekin. Guardia tiroka hasi zen, eta J.H.C.k segituan atzeman zuen bala batek besoan jo ziola. Besoa erabat geldo geratu zitzaion, eta odol-jario izugarria hasi zitzaion. Beste eskuarekin heldu zuen besoa, eta korrika atera zen bere anaiarekin batera. Errenteriako Gurutze Gorrira eraman zuten lehendabizi, baina oso zauri larriak zituenez, Arantzazuko Andra Mari Erresidentziara eraman zuten, Donostiara.

*J. ospitalean sartu zenean, “ezkerreko besaurrean traumatismo larria” zuen “su-armak eragindako zauriagatik”, baita eta “kubituaren eta erradioaren erdiko herenean zati anitzeko haustura” ere, “substantzia-galera handiarekin, muskulu-atrizio nabarmenarekin, eta jaurtigailuaren sarrerako eta irteerako zuloekin, larruazalean urradura handia izanik”. Horrez aparte, shock traumatiko izugarria ere bazuen.*

*% 41eko minusbaliotasuna dut. Iraunkorra. Bala hedakor bat zen. Oso gaizki pasa nuen. Neska-lagunak utzi egin ninduen. Nire egungo emaztearen gurasoek ez zuten nahi nirekin ezkontzea ‘ez nindutelako mantendu nahi’, arazoak izan baintuen lanean pisurik ezin nuelako kargatu. Baina nik baino okerrago pasa zuten nire gurasoek. J.H.C.*

## **Manifestatzaileen aurkako indarkeriak haurrengan izandako eragina**

Manifestatzaileen errepresio bortitzak haurren artean ere izan zituen biktimak. Ondoren, Batzordean aurkeztutako hiru kasu bildu ditugu, bakoitza bere inguruabarrekin; batean, biktima hil egin zen; beste batean, biktimak ondoren fisiko handiak izan zituen; beste batean, azkenik, haurrak ondoren psikologiko larriak izan zituen. Haurren kontrako indarkeriak agerian uzten du halako ekintzetako asko berezi gabeak izan zirela, herritarrek ezin baitzuten babestu, eta pertsonak ahulezia-egoeran zeudela (askotan, gainera, ez ziren protestetan parte hartzen ari).

- *Heriotza jazarpenaren erdian*

Kasu honetan, 15 urteko mutiko bat hil zen: jazoerak gertatu zirenean, izuaren mende zegoen, sinkope begetatiboan aurrekari frogatuak dituen, medikuak kontrolatuta zeukan, eta sintoma haiek ez zuten haurraren bizitza arriskuan jartzen. Alabaina, polizia-jazarpenaren eraginez izuak eta estresak mendean hartu zutela, ihes egiteko ahalegin handia egiten ari zenean hil zen J.M.I.S. Jazoerak gertatu zirenean, 15 urte zituen, eta Barakaldoko maisutza-eskolan ari zen ikasten. 1977ko urtarrilaren 9an, Sestaon amnistiaren aldeko manifestazio bat egin berri zuten, eta 5.000 bat pertsonak hartu zuten parte manifestazio horretan. Amaierako komunikatua irakurtzear zaudela, Guardia Zibileko eta Polizia Armatuko hainbat agente-taldek esku hartu zuten eta manifestazioa indarkeriaren bitartez desegiten hasi ziren. Une hartan, futbolin-lokal batean jolasean ari zen J.M.; halako batean, ordena publikoko indarrek lokala hustu zuten. Beldurrak hartuta erabat, J.M. lokaletik irten zen, horma batean gora joan zen, eta barne-patio batera salto egin zuen; aurkitu zutenean, jada hilda zegoen.

Kasuaren dokumentazio medikoa aztertu ondoren, Batzordeak hau ondorioztatu zuen: J.M.ren kontrako zuzeneko indarkeria ez zen izan heriotzaren kausa, baina indarkeria horrek gutxiegitasun kardiobaskular bat eragin zion, eta gutxiegitasun horrengatik hil zen mutikoa: poliziaren esetsaldiak eta jazarpenak ahalegin fisiko handia egitera, estres negatiboa izatera eta izu-egoeran egotera bultzatu zuten J.M., eta horrek hil zuen; haurraren inguruabarrak kontuan hartuz, beste ezerk ezin izan zion eragin heriotza.

J.M. biktimatzat aitortzea oso garrantzitsua da, oraindik ere, haren gurasoentzat. Ez dago estatusik zuzeneko indarkeria fisikoak heriotza eragin ez zuen baina heriotza indarkeria fisikoaren ondorioengatik gertatu zen kasuetarako. Batzordearen aburuz, polizia-ekintzak (baita polizia-ekintzaren zeharkako ondorioek ere) seme bati eragindako bat-bateko heriotza ere ezinbestean aitortu behar da, indarkeria bereizi gabea baita egoeraren eragilea, eta ez ausazko edo bestelako inguruabarrak. Bestalde, jazoera horrek izugarriko sumindura sortu zuen Barakaldon eta ezkerreko marjina osoan; hiletaren eta manifestazioaren ondoren, polizia-karga bortitz gehiago gertatu ziren. Poliziaren jardunak heriotza-espinal bat sortu zuen: hiletetan biktimgatikoko dolua adierazten zen eta biktimak edota egileen erantzukizuna aldarrikatzen zen, eta poliziak manifestazio horiek erreprimitzen zituen, berriz ere. Hori izan zen dolurako leku edo erlijio-zeremonia haietako askoren ezaugarri nagusia, eta are eragin handiagoa izan zuen horrek biktimen senideengan.

• *Tiroak etxebizitzaren kontra langileen manifestazio batean*

Diktadura frankistaren amaieratik, krisialdi ekonomiko larria zegoelako zeinu nabarmenak zeuden. Baina erregimena ahulduta zegoen eta beldur zen ez ote zitzaizkion oposizio-fronte berriak irekiko; horregatik, egoera horri aurre egiteko beharrezko neurriak abiarazi zituen. 1976a eta 1977a bereziki nahasiak izan ziren lan-gatazkei eta manifestazioen kontrako erantzun bortitzei zegokienez. Lan-grebak eta -gatazkak ugaritu egin ziren, inflazio gogorra zegoelako eta enpresetan lehen krisi-espeditenteak aurkezten hasi zirelako. Diktaduraren azken urteetan, sindikatuek izan zuten erregimen haren aurkako oposizioaren pisua hein handi batean eta, gerora, trantsizioan, langileen mobilizazioaren buru izan ziren. Lan-gatazka haietako asko kaleetara eraman ziren: lanuzteak, protestak, manifestazioak, errepede-mozketak eta beste hainbat ekintza egin ziren, eta polizia bortizki erreprimitu zituen. Poliziak istiluen aurkako materiala baliatzen zuen (zenbaitetan, benetako sua ere erabili zuten istiluen kontra), eta hainbat pertsona hil edo larriki zauritu zituzten horrela, bai langileen mobilizazioetan bai mobilizazio politikoetan.

Erregimen frankista amaitzen ari zela, laneko protesta ugari antolatzen ziren; A.L.B. izeneko neskatok larriki zauritu zuten testuinguru horretan gertatutako jazoera batean. 1977an, A.L.B.k 12 urte zituen et OHOk 6. urtea amaitzen ari zen. 1977ko maiatzaren 13an, arratsaldean, lan-alorreko manifestazio bat ari ziren egiten Basaurin. Une jakin batean, leihorantz joan zen A.L.B., bere aita manifestazioan ote zegoen ikustera; halako batean, poliziak jaurtitako gomazko pilota batek aurpegian jo zion. Ospitalera eraman zuten, ikusi zuten ezkerreko kopeta-erregioan zauri bat, ezkerreko begiaren beheko betazalean beste zauri bat eta ezkerreko begi-globoan alterazioak zituela, eta tratatu egin zuten; barneko ganberan hemorragia bat zuen, ezkerreko begi-ninian midriasi ertaina zeukan, eta begi barnean ere beste hemorragia bat zuen. Sei hilabete geroago, 1977ko urriaren 11n, begi-globoaren barneko eta kristalinoko lesioak konpontzeko ebakuntza bat egin zioten. 1978ko uztailaren 5ean, gomazko pilotaren talkagatiko haustura koroidalek eragindako orbain-lesioak diagnostikatu zizkieten erretinan; haietako batek makulari ere eragin zion. Eraso berezi gabe horrek ondoren eta lesioak ekarri zizkion neskatokari, eta bizitza nabarmen markatu zioten ondoren eta lesio haiek baina, gainerako kasuetan bezala, A.L.B.L.ri ez zioten inolako erakunde-aitorpenik egin.

*Eskolan ez nuen ikusten ezkerrean zer nuen. Errepikatu egin behar izan nuen. 'Antidisturbios' izengoitia jarri zidaten. 'Hori da begia gaizki duen neska'... Sekula ez dut kuadrillarik izan, garai hartan hasten baitzen jendea kuadrillak*



*sortzen; gaztaroa galdu nuen, ez bainekien jendearekin erlazionatzen. Baina egun batean lotsa baztertzea erabaki nuen, eta orbana erakusten hasi nintzen. Asko kostatu zitzaidan, negar asko egin nuen, oso bakarrik sentitzen nintzen, gorrotatu nahi nuen, baina ez gorrotatzea lortu nuen. Psikiatra baten kontsultara joan behar izan nuen, eta emozio horren kontra borrokatzen ikasten lagundu zidan psikiatra horrek. Bost ebakuntza egin dizkirate jada eta oraindik ez zait ikusmena lehengoratu. A.L.B.L.*

- **Tiroa su-arma batekin neskato bati**

L.A.S., 14 urteko neskato bat, Villabonan bizi zen amaiarekin 1978ko ekainaren 11n, ama lau hilabete lehenago hil baitzitzaien zirkulazio-istripu batean. L.k Tolosan eman zuen eguna lagun batekin film bat ikusten, Tolosan ordu hartan egin berri zen manifestazioarekin zerikusirik izan gabe.

Gaueko bederlatziak inguruan, autoz Villabonara itzultzekoa zen gizon batekin topo egin zuten L.A.k eta bere adiskideak, eta gizonak eramango zituela esan zien. Tolosako irteeran, ibilgailuaren gidaria gelditu egin zen, ezagun bat agurtu nahi baitzuen. Halakoren batean, manifestazioa desegiten egon ziren poliziak iritsi ziren, eta ibilgailutik ateratzera eta paretaren kontra jartzera behartu zituzten. Une hartan, beldurra airean, biktimak jipoitzen eta iraintzen hasi ziren. Agenteetako batek bizkarrean tirokatu zuen L.A., eta polizia-furgoiak berehala egin zuen hanka handik, biktima bertan behera utzita, lagundu gabe; L.A. lurrean geratu zen, larri zaurituta. Lagunek eraman zuten L.A. Tolosako Asunción Klinikara, eta hamabi egun eman behar izan zituen bertan.

Oso ondoren larriak izan zituen jazoera horrek L.A.ren bizitzan. Denbora gutxi behar izan zuen fisikoki lehengoratzeko, bala ez baitzen heldu ezein bizi-organotara, baina kontuan izan behar dugu ama galdu berri zuela eta haurra zela gertakari latz hori gertatu zitzaionean; inolaz ere, jazoera hark izandako eragin psikologiko izugarriak bere burua isolatzera eraman zuen L.A. hainbat urtean; heldu arte ez zuen lortu bere bizitza berregitea.

*Bi urte eman nituen asteburuetan irten gabe, eta ezin izan nuen aisialdiaz gozatu kontrolek izua ematen zidatelako, beldur menderaezina. Jaietan irtetea erabaki nuen egunean kontrol batean geldiarazi gintuzten. Horrek izugarri eragin zidan, eta berriz asteburuetan irtetera ausartu nintzenean 18 urte nituen jada. Familiaren ostalaritza-establezimendu batean erretiratuta egon nintzen. Loaren nahasmenduak, sabeleko mina, paranoiak eta pentsamendu*

*obsesiboak izan nituen 15 urtean. Beste fase batean, gertatutakoaren erruduna ni nintzela pentsatzen nuen. L.A.S.*

• *Erasoa polizia-furgoi batean*

Polizia Armatuak A.B.F. atxilotu zuen eta, polizia-furgoi batean sartu ondoren, bortizki jipoitu zuten. 1978ko urriaren 28an, bi manifestazio handi egin ziren Bilbon. Horietako bat EAJk deituta egin zen, “Euzkadi askatu ta paketsu baten alde” goiburuarekin; bestea, berriz, Amnistiaren Aldeko Batzordeak erakundeak eta Herri Batasuna koalizioak antolatua, EAJek deitutako manifestazioari erantzuteko egina eta baimenik gabea, “Atzoko eta gaurko gudarien alde” goiburuarekin. Poliziak nabarmen areagotu zuen kontrola; izan ere, Polizia Armatuak erreserbako 1.000 agente baino gehiago jarri zituen (bezperatik joan ziren agente haiek guztiak Bilbora), garai hartan Bilbon jada destinatuta zeuden 1.500 agenteez aparte. Ezker abertzaleko lider nabarmenetako batzuk harremanetan jarri ziren polizia arduradunekin. Manifestazioa berehala deuseztatzeko eskatzen zuen Polizia Armatuak. Manifestatzaileak sakabanatzen hasi zenean, Poliziak esku hartu zuen eta istilu larriak gertatzen hasi ziren; istilu horietan pertsona asko zauritu zituzten; besteak beste, ezker abertzaleko hainbat lider. B.F. (14 urte baino ez zituen garai hartan) zauritu egin zuten. Hurrengo egunean prentsak jaso zuenez, garezur-garunetako traumatismoa, garuneko kommozioa eta urradura arinak zituen. Beste hogeit hamar pertsona ere ospitaleratu zituzten Gurutzetako Ospitalean eta Basurtuko Ospitalean.

Polizia-furgoiaren barruan, fusilaren kulatarekin buruan jo zuten adingabea, eta konortea galdu zuen. Ezezagun batzuek lagundu egin zioten eta Urazurrutiako sorospen-gelara eraman zuten; gerora, Gurutzetako Ospitalean sartu zen. Erasoren ondorioz, garezur-garunetako traumatismoa eta garuneko kommozioa diagnostikatu zizkieten. Kontusio orokorrez aparte, zauri bat zuen kopeta-erregioan, eta zazpi sutura-puntu eman behar izan zizkieten. Beste hainbat biktimari gertatu zitzaizen bezala (eta haurren kasuan, are gehiago), ondoren larriak izan zituen adingabearen bizitzan jazoera hark, LH2ko ikasketak bi hilabetean gelditu behar izan baitzituen eta, horren ondorioz, ikasturte oso bat galdu baitzuen. Jasandako eraso hartatik aurrera, kontzentrazio-arazo larriak izan zituen, eta hurrengo urtean ikasketak bertan behera utzi zituen. Halaber, zenbait egoeratan beldurra izaten hasi zen; esate baterako, ez da sekula beste manifestazio batera joan, eta ez da gai ezein agintarekin tratu normal bat izateko.

## Ondorioak

Manifestazioen aurkako errepresio orokorraren ondorioz zauritutako edo hildako pertsonak Batzordean aurkeztutako % 40 baino gehiago izan ziren. Atal honetan 1960tik 1978ra bitarteko garai guztietan gertatutako kasu eta egoera batzuk laburtu dira. Martxoaren 3ko jazoerei buruzkoak (Batzordean aurkeztutako kasuetako 47) aurrerago aztertu eta bildu dira.

Jazoera horiek ageri-agerian uzten dute diktaduran autoritarismoa nagusi zela eta Franco hil ondorengo trantsizioaren lehenengo urteetan agintariak manifestazio publikoen, adierazpen-askatasunaren eta, bereziki, elkartzeko askatasunaren aurka erresistentziaz jokatu zutela, eta jende asko bortizki hiltzeaz eta ehunka pertsona zauritzeaz gain, pertsona askoren bizitza arriskuan jarri zutela gehiegizko indarkeriaren bitartez.

Askotan, ordena publikoko indarrek manifestazioen aurka gauzatutako errepresioa, manifestatzaileak ez ezik, bertan kasualitatez zeuden pertsonak, saltokietako bezeroak eta manifestazioekin zerikusirik ez zuten herritarrak ere ukitu zituzten, bereizi gabeko ekintzak izan zirela agerian utzita. Orobat, garai hartan oso maiz husten zituzten manifestazioetatik gertuko saltokiak, manifestatzaileak bertara babes bila joan zirelakoan, eta askotan, une horretan saltoki haietan zeuden bezeroak jipoitzen edo atxilotzen zituzten. Zauritutako eta Batzordeari lekukotza emandako pertsona asko hiltzeko arriskuan egon ziren gorputzeko bizi-organoetan bereizketarik gabe tirokatu zituztelako. Besoa, bihotza edo birika ukitu izana kasualitate hutsa izan zen. Manifestatzaileen aurka su-armak erabiltzea giza eskubideen urraketa larria da eta biktimia asko betiereko ondorenak izan zituzten horren ondorioz.

Jazoera haietan zauritu zituzten eta Batzordean lekukotza eman zuten pertsonak beren bizitza berregitea lortu bazuten ere, beste batzuk hil egin ziren eta senideek eman zuten lekukotza. Ondorio fisikoak askotarikoak izan dira biktimengan: gaitasun- eta funtzionaltasun-galera, oinaze kronikoa eta mugikortasun- edo sentsibilitate-mugak, besteak beste. Oro har, astebetetik hiru astera bitarteko ospitale-arreta behar izan zuten biktimek, eta askotan, baita hainbat hilabeteko errehabilitazioa ere, osatzeko. Maiz, ondorenak biziartekoak izan dira, eta biktimen gorputzetan gertatutako ondorio txar horiek, gainera, betiko gogoraraziko diete bidegabetasun latza pairatu zutela eta bidegabetasun hark eragin handia izan duela beren bizitzan. Poliziaren ankerkeria horrek bereziki ukitu zituen haurrak: haurren babesgabetasuna

askoz ere nabarmenagoa denez, ondoren bereziki larriak pairatu ohi dituzte, epe luzean, halako indarkeriaren biktimak direnean.

## 2. Erasoak su-armekin errepide-kontrolatan

*Ez dut gorrotorik sentitzen. Baina zaila izan da!*

60ko hamarkadan, eta bereziki, hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, Poliziak eta Guardia Zibilak kontrol ugari ezartzen eta egiten zituzten, sistematikoki, errepideetan, eta horrelako kontrolatan, maiz, su-armak erabiltzen zituzten, bereizketarik gabe, pertsonen kontra; eraso horiek heriotzak eta lesio larriak eragin zituzten. Agenteek gelditzeko agindua ematen zieten autoei, eta ibilgailuetan zeuden pertsonen jarrera susmagarria iruditzen bazitzairen, tiro egiten zieten. Kontrol horietako asko gaizki seinaleztatuta zeuden, eta gaez egiten zirenez, ikusbidea zailtzen zuten. Zenbait kasutan, kontrolak ez zeuden ez behar bezala adierazita ez seinaleztatuta agenteek tiroak egin zituztenean.

Tentsio politiko handia zegoenez, eta halako ekintzek erabateko zigorgabetasuna zutenez (errudunak ez ziren zigortu eta biktimei ez zitzairen justiziarik eman), horrelako jokabideak ohikoak izan ziren garai hartan. 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, segurtasun-indarren jokabidea aldatu egin zen, eta horrelako kasuak jada ez ziren frankismoaren azken urteetan eta trantsizio politikoaren lehenengo urteetan bezain ohikoak. Biktima askorentzat, horrelako ekintzak gauzatzeak eta benetako ikerketarik ez egiteak bistan utzi zuten jazoera haiek ez zirela "hanka-sartze" soilak, agintariek adierazten zuten bezala, baizik eta agenteek *kakoa erraz sakatzeko* ohitura zutela eta segurtasun-indarrak eta agintariak bat eginda zeudela justizia oztopatzeko eta biktimen demandei ez erantzuteko. Laburbilduz, agerian geratu zen horrelako kasuetan erabateko zigorgabetasunez jokatu zutela polizia-agenteek.

### **Tentsio- eta zigorgabetasun-testuingurua**

Bereziki 70eko hamarkadan, polizia-kontrolak izan ziren giza eskubideen urraketa larrien jokalekuetako bat: bereizketarik gabeko eraso asko egin ziren, su-armen bitartez, ibilgailuetan zebiltzan pertsonen kontra.

Guardia Zibilak egiten zituen kontrol gehienak, eta askok garai hartako Euskadiko gizarteko sektore ugarian beldurra zabaldu zuten, batez ere, gazteen artean; etengabe egiten ziren erregistroak, eta Guardia Zibilak erregistro horietan larderiazko eta abusuzko tratua ematen zuela agerian utzi zuen, berealdiko indarkeria politikoak markatutako urte haietan. Kontrol haiek gauez eta seinalerik ipini gabe egiten ziren, eta ondorio dramatikoak izan zuen horrek konturatu gabe kontrol horiei jaramonik egiten ez zieten pertsonengan. Beste kasu batzuetan, horrelako kontrolak ez ziren benetakoak izan, baizik eta, gauez eta inolako seinalerik ipini gabe, errepideen ertzean uniformez jantzita zeuden agenteek hainbat pertsona hil zituzten tiroka.

Beste batzuetan, ordena publikoko indarren kontrako atentatuak (gehienak, ETAk eginak, baina Komando Autonomoek ere bai) gertatu eta minutu gutxi batzuetara ezarri ziren kontrolak, presaka, atentatuen egileak atzematen eta atxilotzen saiatzeko. Alabaina, ez zuten kontrolik egiten talde ultraeskuindarren atentatuak gertatzen zirenean; horrelako taldeek mugitzeko askatasuna izan zuten urte haietan, oro har. Horren ondorioz, presazko eta abusuzko ekintzak gauzatu zituzten ordena-indarrek, eta geldiarazitako autoetako pertsonen bizia arrisku larrian ipini zuten ekintza haiek. Batzordeak aztertutako kasuetan, bereizketarik gabe tirokatu zituzten biktimak, eta hildako eta zauritu asko egon ziren.

Beste batzuetan, ordea, kontrolak kontu handiz antolatuta zeuden, hala nola 1961eko martxoan Bilbon egin zen kontrola: hiru pertsona armak zituen talde batekin nahasi zituzten hainbat polizia-gorputzek, eta autoa geldiarazi ondoren, balaz josi zituzten; haietako bat hil egin zen eta beste bati zauri larriak eragin zizkieten.

## **Boluetako kontrola, 1961**

1961eko martxoaren 13an, Bilbora sartzeko errepideetako batean, Bolueta auzoan, F.J.B.E. bere ibilgailu partikularrean ari zen bidaiatzen, J.A.M.B.rekin eta F.L.M.rekin. Hirurak Gasteiztik itzultzen ari ziren, firma komertzial baten likidazioa egin ondoren, eta talde armatu batekin "nahasi" zituzten.

Ordena publikoko indarrez osatutako polizia-talde batek automobila geldiarazi zuen eta ibilgailuko bidaiariak behin eta berriz tirokatu zituzten. Polizia Kidego Nagusiko hainbat inspektorek, hainbat guardia zibilek eta Polizia Armatuko hainbat agentek parte hartu zuten operazio horretan. Dirudienez, operazio hori

aldez aurretik prestatuta zegoen. F.J.B.E.ri gelditzeko agindua eman ziotenean, autotik irten eta balaz josi zuten operazioa osatzen zuten hainbat agentek, hitz bat bera ere esan gabe. Haren alargun M.A.G.k adierazi zuenez, jazoerak gertatu ondoren, biktimak tiro asko jaso zituelako lekuko izan zen bertako emakume bat. Horretaz gain, biktimaren semeak Batzordean adierazi zuen duela gutxi pertsona batek adierazi ziola jazoeren lekuko izan zela eta alde zurretik prestatu zutela polizia-operazio hori, kontrola kokatu zen tokian foku handiak ipinita.

*Haren lekukotzaren arabera, gertaerak baino bi ordu inguru lehenago, polizia eremuan barrena ibili zen, jendeari esaten pertsianak jaisteko eta argi guztiak itzaltzeko. Bi argi-foku muntatu zituzten alboetan, eta polizia armatu asko zeuden gasolindegia inguruan. Fokuak piztu zituzten, eta ibilgailua gelditu zenean tiroka hasi ziren. F.J.B.G.*

J.B.E. hil egin zen; J.A.M.B.ri, berriz, hainbat tiro eman zizkieten, bala haiek oso zauri larriak eragin zizkieten, eta paralitiko geratu zen horren ondorioz. F.L.M., ibilgailuko beste bidaiaria, osorik atera zen, eserlekuen atzean ezkutatu baitzen, baina lekukoek eta bere alabak Batzordean adierazitakoaren arabera, ondoren psikologiko ugari eragin zizkion jazoera hark.

*Aitak ezin zuen lo egin, gaez oihuka hasten zen, negar egiten zuen, eta beti gauza bera esaten zuen: "autoko atea ireki zuten eta B. lurrera erori zen; polizia altxatzeko esan zion, eta B.k erantzun zion ezin zuela, zaurituta zegoela; bizkarrean tirokatu zuten: 'orain bai. Orain zurituta zaude eta ezin duzu altxatu', esan zioten". Aita autotik irtetera eta lurrera botatzera derrigortu zuten; Boluetako gasolindegiko beste alderantz arrastaka joan behar izan zuen, eta auto gorri batean sartu zuten han. E.L.*

J.B.E.ren gorputzak tiro ugari zituen. Jazoera horiei buruz, Bizkaiko gobernadore zibil Antonio Ibáñez Freirek hau adierazi zuen: "ibilgailuaren hutsegitea dela-eta, tiro batek ihes egin du, eta hildako bat eta zuritu bat daude, zoritxarrez". Jasotako lekukotzen arabera, lekukoak, ahaideak eta zaurituak kikildu eta ezer ere ez esatera bultzatu zituzten, baina gertatutakoaren epaiketa bat egin zen. Epaitegi militar batek Brigada Politiko Sozialaren lau inspektore eta bi inspektoreorde, Polizia Armatuko bi agente eta Guardia Zibileko bi kide auzipetu zituen jazoera haiengatik. Alabaina, auzitegia justizia arruntaren alde inhibitu zen azkenean. 1963ko martxoaren 27an, Bilboko Auzitegiak agente guztiak absolbitu zituen. Fiskaltzak Auzitegi Gorenean errekurritu zuen epaia, eta Guardia Zibileko agente bat baino ez zuen akusatu, baina 1965eko ekainean epai hori berretsi zuen Auzitegi Gorenak.

## Kontrola eta heriotza Apatamonasterion

1978an hainbat gorabehera erregistratu ziren polizia-kontrolatan: ordena publikoko indarrek errepede-kontrolak egin zituzten (arestian adierazitakoen antzekoak), susmagarritzat hartutako zenbait ibilgailuren kontra esku hartu zuten, eta hiru pertsona hil eta hainbat pertsona zauritu zituzten tiroka, inolako bereizketarik gabe. Halako kontrolek (sarritan, gauez egiten ziren eta gaizki seinaleztatuta zeuden), ondorio dramatikoak izan zituzten. Kontrol horietako batean, J.E.F.P. nafar adingabea (16 urte zituen eta Meanokoa zen) hil zuten eta beste bi lagun zauritu zituzten: J.F.M.M. (16 urtekoa) eta M.L.C.M. (64 urtekoa).

1978ko ekainaren 24an, J.E.F.P.k eta haren bi lagunek auto-stopez Durangotik Elorriora joatea erabaki zuten. M.L.C.k, auzokide ezagun batek, bere autoan hartu zituen. Bidaiarietako bat jazoerak gertatu baino lehen jaitsi zen ibilgailutik, bere baserrian. C-6322 eskualde-errepedean, Apatamonasterion, Guardia Zibilak metrailatu egin zituzten, abisatu gabe. Gidariaren eta zauritutako beste bidaiariaren hitzetan, ez zuten inolako seinalerik ikusi. Tiroak entzun zituenean, J.F.M.M. (bizirik irten zen biktimetako bat) makurtu egin zen eta bala batek besoan eman ziola sentitu zen. Autoak oso motel zirkulatu zuen ibilbide osoan, eta bazterbidean gelditu zen. J.E.F.P. gaztea J.F.ren gainera erori zen eta haren magalean hil zen.

*Oso motel ari ginen zirkulatzen eta, halako batean, tiroak entzun genituen gelditu gabe. J.E.F.P. nigana etzan zen, arnasa sakon hartu zuen, eta uste dut une hartan hil zela. Autotik irten eta "lagundu, mesedez" oihukatzen hasi nintzen. Bi guardia zibil gugana hurbildu eta esan zuten: "ederra egin dugu". Ez zen beste guardia zibilik agertu. J.F.M.M.*

Baina, garai hartako beste hainbat kasutan ere gertatu zen bezala, jazoeren bertsio ofizialaren arabera, M.L.C. izan zen jazoeren erruduna, kontrolean gelditu gabe aurrera egin zuelako. Gidariaren eta ibilgailuko beste bidaiariaren arabera, kontrolik bazegoen, ez zegoen seinaleztatuta. Elorrioko beste bizilagun batek bertsio hori berretsi zuen. Beste ibilgailu batean ari zen zirkulatzen eta, jazoeren tokira iristean, Guardia Zibila tokia seinaleztatzen ikusi zuen, tiroak egin ondoren. Elorrioko harakin bat ari zen gidatzen ibilgailua, eta zer gertatu zen ikusi zuenean, buelta eman zuen eta zauritutako pertsonak Durangoko anbulatoriora eraman zituen. Handik Basurtuko Ospitalera eraman zituzten, eta polizia-kontrol izugarria instalatu zen bertan.

*Paretari kolpeka hasi nintzaion (negar egiten hasi da). Injekzioen bat eman zidaten, lasaigarriren bat, eta Bilbora eraman ninduten. Nire adiskidea agertu zen, gidariaren semea, eta hau esan zidan: "poliziaz beteta dago hau".*  
J.F.M.M.

Gorputegira eraman zuten J.E.F.P. Gorpua ikusi zutenen hitzetan, bala-zauri ugari zituen bularrean, baina ez zioten autopsiarik egin, Batzordean jasotako lekukotzaren arabera. J.F.M.M.k, bestalde, hiru bala-zauri zituen eskuineko besaurrean eta belaunean, sarrera- eta irteera-zuloekin. 3 aste igaro ondoren, alta eman zioten. M.L.C. ospitalean geratu zen, su-armak eragindako zauri larri bat baitzuen, "substanzia-galerarekin eskuineko hankaren atzeko aldean, eta larruazalpeko zelula-ehunen eta muskulu bikien erasanarekin". Hilabete eman zuen ospitalean, eta uztailearen 19an alta eman zioten, baina beste lau edo bost hilabetean errehabilitazio-tratamendua eta -saioak jaso zituen. Hortik aurrera, makila behar izan zuen ibiltzeko. M.L.C.ri hanka bat suntsituta geratu zitzaion bala lehegarri batek jo ziolako.

## **Kontrol bikoitza Donostian**

M.S.U., 21 urtekoa, Itsasoko Gizarte Institutuko langilea, hil egin zen Guardia Zibilaren patruila batek 1974ko abenduaren 17tik 18rako goiztirian egindako errepide-kontrol batean gertatutako tiroengatik. Polizia Armatuak edo Guardia Zibilak kontroletan egindako beste eraso batzuetan bezala, inguruabarrak desberdinak ziren kasu bakoitzean, baina jardun-eredu bera izan zuten: tiroak su-armekin ibilgailuen kontra, bereizketarik gabe, bidaiariak aurretik eraso ez zietela, biktimak ahulezia-egoeran zeudela, gaeuz, ikusbide-falta eta arriskua zeudela.

Garai hartan, tentsio politiko eta sozial handia zegoen poliziaren errepresioaren eta ETAren atentatuen eraginez eta, horretaz aparte, pertsona asko hiltzen eta zauritzen ziren manifestazioetan eta segurtasun-bermerik gabe egin ohi ziren poliziaren kontroletan. Horregatik, oso arriskutsuak izan ziren halako ekintzak urte haietan. Aztergai dugun kasuan, Guardia Zibilak M.S.U. tiroka hil baino lehen, ETAko komando batek Guardia Zibileko bi agente hil zituen. Azken atentatuaren ondoren, Guardia Zibilak atentatu haien errudunak lokalizatzen zenbait kontrol egin zituen. Horren ondorioz, zenbait kasutan oso kalte larriak eragin zitzaizkien pertsona errugabeei.



Horixe gertatu zitzairen, hain zuzen ere, hiru autotan bidaiatzen ari ziren lagun batzuei; lagun haietako zenbaitzuk Itsasoko Gizarte Institutuak deitutako oposizio batzuk gainditu berri zituzten, eta hori ospatetik zetozen jazoerak gertatu zirenean. Azken ibilgailua apur bat atzean geratu zen. Lehenengo bi ibilgailuak Guardia Zibilak geldiarazi zituen, Donostiako Errekalde auzoan egiten ari ziren kontrol batean. Ibilgailu haietan bidaiatzen ari ziren pertsonak Guardia Zibileko agenteei adierazi zieten atzetik beste ibilgailu bat zetorrela lagun batzuekin, eta kontrolera iristear zeudela, baina agenteek geldiarazteko seinalea egin zietenean, gidaria ez zen konturatu, ikusbide eskasa zegoelako, aurrera segitu zuen eta tirokatu egin zituzten.

Horren ondorioz, M.S.U. larriki zauritu zuten, eta lagunek ospitalerantz eraman zuten, oraindik bizirik zegoela. Hilzorian zegoen biktima zeraman autoa zirkulatzen ari zen autoa beste kontrol batek geldiarazi zuen; oraingoan, Polizia Armatuarena zen kontrola, eta are gehiago atzeratu zuen zaurituaren ospitaleratzea. Ospitalera iristean, M.S. jada hilda zegoen; 18 bala zituen gorputzean.

Batzordeak aztertutako kasuen artean, horrek eragin politiko handia izan zuen. Hainbat orduan, ahaideei ez zitzairen esan non zegoen gorpua; azkenean, Polloeko hilerrian (Donostia) lokalizatu zuten. 1978an Guardia Zibilak Apatamonasterion kontrol batean tiroz hildako J.E.F. gaztearen kasuan bezala, hileta polizia-agentez inguratuta egin zen. Hilobiratzean, Polizia Armatuko agenteek bortizki eraso zieten zeremoniara joan zirenei; besteak beste, M.aren amari (M.L.U) eta biktimaren hainbat laguni. Poliziek dozenaka pertsona zauritu zituzten; gainera, pertsona asko atxilotuta eraman zituzten.

*Santa Maria elizatik irtetea izugarria izan zen. Polizia Armatuak inguratuta zuen eliza, eta lehen ilaran ultraeskuineko zibilak zeuden, armekin. Jipoitu egin gintuzten. Amari jotzen hasi zitzaizkion, eta haren adiskide bat laguntzera joan zitzaionean, hari ere jo egin zioten. Haurdun zegoen eta haurra galdu egin zuen. Beste ezagun batek begi bat galdu zuen. I.N. eta M.S.*

## **Lehendabizi tiro egin eta gero ikertu**

Apatamonasterion gertatu zen bezala, Zarautz eta Zestoa artean egin zen ustezko kontrola ere oraindik ez zuten instalatu, eta ez zuten ez seinalerik ez argirik ipini errepede-kontrol horren berri emateko. 1976ko apirilaren 10ean, F.S.D. Seat 124 bat gidatzen ari zen eta F.S.D. ere autoan zihoan; Zestoarantz

zihoazen Meagaseko gainetik, eta ibilgailuari metraileta-sorta batek heldu zion. F.S.D. larriki zauritu zuten eta handik bi egunera hil zen Donostiako Gurutze Gorrian; F.A., berriz, eskuineko besoan zauritu zuten balaz.

Bertsio ofizialean, autoa “ez zen gelditu” eta instalatutako kontrola “pasatzean” eta “ez geratzean” Guardia Zibilak “ibilgailuaren kontra egin zuen tiro; zauri larriak eragin zizkion gidariari eta zauri arinak harekin zihoan pertsonari”. F.A.O.ren senideek Batzordeari adierazitakoaren arabera, ez zuten ezein errepide-kontrolen seinalerik edo argirik ikusi, nahiz eta gauez ari ziren zirkulatzen. Tiroak izan ziren apirileko egun tragiko horretako bidaiaria hartan sumatu zuten lehenengo gauza.

F.S.D. Leónen jaio zen eta Correos y Telégrafos enpresak Zestoan zuen bulegoko burua zen; Herrera del Pisuerga (Palentzia) udalerriko bulegora joatear zegoen, eta familia han zuen zain. F.A. Ciudad Realekoa zen eta Zestoan bizi zen; igeltseroa zen eta bi alaba eta seme bat zituen jazoerak gertatu zirenean. Batzordean, F.A. jada hilda zegoela, egia, justizia eta erreparazioa eskatu zituen haren familiak bi biktimentzat.

*Han ez zegoen kontrolik. Hainbat hilabetean, F.rengana joan ziren, kontrola jada instalatuta zegoela esatera bultzatu nahian. Hori esatea nahi zuten, kontrola zegoela, eta F.k erantzuten zien ez zegoela kontrolik. Baina ez zuten bakean uzten. Ez dago F.S.i buruzko informaziorik Zestoako Udalean. Correos y Telégrafos enpresak Zestoan zuen bulegoko burua zen, baina ez dugu pertsona horri buruzko ezer ere aurkitu Zestoan. Gurutze Gorrian ere ezer ez. F.A.O.ren alarguna eta seme-alabak.*

## **Jazoeren eta indarkeriazko heriotzaren zentzugabetasuna**

Poliziaren kontroletan gertatutako heriotzek eragin handia izan zuten hildako jendearen ahaideen eta adiskideen artean. Gertuko pertsonen galera traumatikoaz aparte (hildako pertsona horietako asko, gainera, oso gazteak ziren), jazoera haiek zentzugabeak izan ziren, bereizketarik gabe egiten zieten tiro agenteek errepideetan zeuden ibilgailuei, “hutsegiteak” izan zirela adierazten zuten agintariek, eta biktimak erruduntzat jo nahi izan izaten zituzten (ibilgailuen gidariak ez zirela gelditu eta ez ikusiarena egin zutela azalduta, edota ETako kideak zirelako zurrumurrua zabalduta).

*Gure aita urte batzuk geroago hil zen, izugarriko nahigabearekin eta justiziarik egin zen zelako sentsazioarekin. Bere semea, politikarekin zerikusirik gabeko haur bat ia, hil egin zen eta inork ez zuen erantzukizunik hartu bere gain. Semea delinkuente gisa tratatu zutelako bihozminez hil zen. Semea delinkuentea edo hiltzailea ez zela aitortu zezaten nahi zuen. Bizitza osoan izan zuen min hori. F., T. eta F.J.F.*

Horrek guztiak nabarmen galarazi zien familiei gertuko pertsonaren heriotzari aurre egitea edo heriotza horretaz mintzatzea. Kasu bakoitzean pairatutako lazgarrikeriaren xehetasunek zaildu egiten dute gertatutakoaz hitz egitea eta biktimaren oroimena berreskuratzea. Askotan, familien barnean jazoerei buruz erabilitako bertsioek agerian uzten dute esperientzia onartzeko zailtasuna izan zutela eta, horretaz aparte, oroimenaren alderdi mingarrienetatik aldentzen edo beste senide batzuk babesten saiatu zirela.

*Etxean ez genuen sekula ezer ere esan. Jazoeren xehetasun mingarriei buruzko ezer ere ez. Adibidez, aurpegiaren erdia baino ez zegoen ukigabe. Zuk duela gutxi kontatu zenizkidan horrelako gauzak [bere ama M.V.G.O.ri esan dio]. Baina niri esan zidaten bi tiro baino ez zizkiotela eman, bat buruan eta beste bat hankan. F.J.B.*

Kasu batzuetan, denbora asko igaro zenez jazoerak gertatu zirenetik, zuzeneko ahaideak hil egin ziren, eta horregatik, biktimen ondorengorik, anai-arrebarik edota zuzeneko seniderik ez zen gertatzen lekukotzak biltzerakoan eta dekretuaren terminoak aplikatzerakoan. Halaber, horrek familia-historiaren zati bat galtzea ere badakar; horregatik, zenbait kasu ezin izan ziren behar bezala dokumentatu, hala nola J.M.A.ren heriotza 1970eko ekainaren 15ean, Guardia Zibilak Donostian egindako kontrol batean, Guardia Zibilak egindako tiroengatik. Egun hartan, J.M.A.k bere autoa hartu zuen Beratik Donostiara joateko, eta helmugatik gertu zegoela, trafiko-istripu batean nahasi zen. Haren ilobak emandako lekukotasunaren arabera, eztabaidan aritu zen guardia zibil batekin eta agenteak tiroka hil zuen J.M.A.E. Horrelako kasuetan ere, aitorten-moduren bat egitea da garrantzitsuena senideentzat: “*gertakariak aitortzea, zerbait gaizki egin zela, zerbait bidegabea eta legez kontrakoa egin zela*”.

## **Zigorgabetasuna eta errua alderantzikatzea**

Batzordean aurkeztutako kasuetako ezeinetan ez zuten erabaki agintariak urraketan egileak jazoeren erantzuleak zirenik. Izan ere, zenbait kasutan,

ahaideek salaketak aurkeztu zituzten, baina ibilgailuetan zihoazen pertsonak erantzuleak zirela adierazi zitzairen.

M.S. hil zuen erasoaren ikerketan, kasu baterako, salaketa penal bat bideratu zen, baina ez tiroak egin zituzten agenteen kontra, poliziak tirokatutako ibilgailua gidatzen ari zen pertsonaren kontra baizik (R.L.T.ren kontra); R.L.T. epaiketa militar batean sartu eta indar armatuari desobeditu izanaz akusatu zuten; sei hilabete geroago, akusazio horretatik absolbitu zuten. Beste modu batean esanda, jazoerengatiko errua alderantzikatu egin zen: erasoan egileen ordeztu, biktimak hartu ohi ziren erruduntzat, kasu horretan, ibilgailuaren gidaria (bereizketarik gabeko eraso baten zuzeneko biktima, osorik irten bazen ere).

Apatamonasterioko kasuan, pertsona bat hil eta beste bat larriki zauritu zuten; eginbideak abiatu ziren; Bilboko 1 zenbakiko behin-behineko epaitegi militarrean gauzatu ziren azkenean eginbide horiek. Familiak adierazi zuenez, gauzatutako eginbideetan irregulartasun ugari egon ziren, eta gezurrak ere esan ziren. Adibidez, norbaitek erantzukizun zibilak izatekotan M.L.C. gidariak izango litzukeela esan zutenean eta jazoeren erruduna, hortaz, gidaria zela iradoki zutenean.

*Olgeta hutsa izan zen. Okerreko eguna aipatu zuten, eta autoaren norabidea ere ez zetorren bat benetakoarekin. Hau da, ez zitzairen inola ere justizia egitea interesatzen. F., T. eta F.J.F.*

M.L.C.k behin baino gehiagotan joan behar izan zuen Garellanoko kuartelera deklaratzera, eta aurretiazko eginbideak ere abiatu zitzaizkion Bilboko 1 zenbakiko behin-behineko epaitegi militarrean, “agintariei desobeditzeagatik”; edonola ere, azkenean artxibatu egin ziren eginbide horiek. Auto horretan bertan, hau deklaratu zen: “zehaztu gabeko pertsona baten kontra ustezko homizidio-eta lesio-delituagatik abiatutako eginbideak artxibatzea, legezko eginbehar bat egiteko justifikazioa izanagatik”.

Beste biktimetako baten kasuan (J.F.M., 16 urtekoa), zuzeneko biktima izatearekin eta zaurien ondorenekin bakarrik ez du zerikusia jazoeren eraginak; hori baino urrutiago doa. “Minak biziartean dirau. Nik justizia nahi nuen”. Salaketaren ondoren, deklarazioa jazoeren bertsio ofizialera egokitzen bultzatu zituzten biktimak.

*Zer gertatu zen galdetzen hasi zitzaizkidan. Baina gizona gertatu ez ziren gauzak esatera derrigortzen ari zitzaidan: argi asko zegoela, kontrolari jaramonik ez*

*geniola egin, seinale asko zeudela, etab. Hau da, gauza asko asmatu zituzten eta hori sinatzera derrigortzen hasi zitzaizkidan. Beldur handia nuen eta babesik ez nuela iruditzen zitzaidan. Bakarrik nengoen, ez nuen abokaturik eta gurasoak ez zeuden nirekin. Espetxean sartuko nindutela ere pentsatu nuen. Beldurtu nahi ninduten, gertatutako guztia da beldurgarria. J.F.M.*

Geroago, jazoerak gertatu eta handik bi urtera, kasua jada itxita zegoela, militar batek berriz ere kuartelera joatera deitu zituen; amarekin joan zen biktima, eta eskatu zion “gorrotorik ez izateko, bere horretan uzteko. Niretzat, hori beste zartadako bat izan zen: ezabatu gertatu zena eta kito”.

## **Kalte-galerengatiko demandak**

M.S.ren heriotzaren kasuan, biktimaren amak erreklamazio bat aurkeztu zuen Gobernazio Ministerioan, kalte-galerengatik, baina erreklamazio hori “administrazio-isiltasunagatik” ukatu zen, ez baitzioten inolako erantzunik eman. Ukapen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zen, Iruñeko Lurralde Auzitegiak aldeko ebazpena eman zion errekurtso horri, eta Auzitegi Gorenaren 1984ko martxoaren 6ko Epaiaren bidez berretsi zen. Lehen kalte-ordaina eman zitzaien biktimei epai horren bitartez; hau da, jazoerak gertatu eta 10 urtera. Batzordean aurkeztutako kasuetan, biktimek gutxitan lortu zuten demanda zibiletan auzitegiek ebazpen positiboa ematea, eta arestian aipatutakoa da kasu bakan haietako bat. Halere, auzitegi jakin batzuetan baino ez zen gertatu, urte ugari igaro ondoren, eta kudeaketa, gastu eta salaketa asko egin eta abokatu-zerbitzuak kontratatu eta gero; horregatik, kalte-ordainen zati handi bat prozesuagatiko gastuak ordaintzeko erabili behar izan zuten biktimek.

Beste biktima batzuk ere saiatu ziren justizia eta aitortpena lortzen, baina beste modu batzuetan. Apatamonasterioko kontrolaren kasuan, M.L.C.k ere aurkeztu zuen idazki bat Gobernazio Ministerioan, berari eta bere ondareari eragindako kalte-galerengatiko kalte-ordaina erreklamatzeko, autoa zeharo suntsituta geratu baitzitzaion. Baina ez zuen ez kalte-ordainik ez aitortpenik lortu. Jazoera horiek gertatu zirenez geroztik, gertatutakoagatik erabat nahigabetuta bizi zen, batez ere J.E. gaztea bera gidatzen ari zen autoan hil izanagatik. Objektiboki, M.L.C. ez zen J.E.ren heriotzaren errudun, baina gazteak autoan hartu izanagatik errua bere buruari leporatzen zion hein batean, jazoeren bertsio ofizialagatik eta zigorgabetasun-testuinguruagatik. Horrek ondoren psikologiko handia eragin eta izaera aldatu zion. M.L.C. nahigabez beteta hil zela diote haren senideek.

J.B.ren eta haren ibilgailuko bidaiarien kontrako erasoaren kasuan, biktimek ezin izan zuten errekurtsorik aurkeztu eta ez ziren jazoerak ikertu. Halere, zenbait segurtasun-indarretako agente batzuek adierazi zuten besteak hasi zirela tiroka, baina sekula ez zen erantzukizunik ezarri.

*Niri ez zait inor etorri ezer esatera, barkamena eskatzera. Agintariek ez zidaten inoiz ere esan nor egin zuten erasoak. Geroago, esan zidaten Indautxuko komisarian pasaporteak egiten zituen polizia bat izan zela. J.B.G.*

## Susmoak eta mehatxuak

Gizarte-alorrean, biktimak susmagarritzat jotzeak eta garai hartako komunikabideetan halako gertakariei eta geroagoko mobilizazioei buruzko berriak hedatzeak nahaste handiagoa eragin zuten, errudunak eta biktimak identifikatzeari zegokionez.

*Aitarentzat oso garrantzitsua zen bera errugabea zela frogatzea. Nafarroara joaten ginenean, Madrilgo lagun batzuk etortzen zitzaizkigun eta hau galdetzen ziguten: “Eta nola sartu zen ETAn?” “Baina zertaz ari zara?”, esaten nien nik. Eta beste hainbat lekutan bezala, seguru asko hau esaten zuten: “Eta bat gutxiago”. F.J.F.*

Bizirik atera ziren biktimen bizian erasoak eragin handia izan zuten, baina hori ez ezik, zenbait komunikabideetan gertatutakoari buruz argitaratu zenak sumindura ere eragin zuten, ez baitzen egia.

J.E.F.ren ahaideen kasuan, jazoeren ondoren polizia zelatan izan zuten eta telefono bidezko mehatxuak izan zituzten. Senide batek hau adierazi zuen Batzordean: “Hainbat aldiz deitu ziguten etxea erreko zigutela esanez”. Are gehiago, handik zenbait urtera, Polizia Nazionalak anaia bat atxilotu zuten, eta Elorrioko presoek buruzko galderak egin zituzten. Kasu horietan eta beste hainbatetan, batez ere herrietan, jazoeren ondoren jazarpena pairatu zutela adierazi zuten zenbait lekukok: *Egun batean, taberna batean geundela, Guardia Zibileko sarjentu batek (erabat mozkor) pistola bat jarri zidan bularrean.*

M.S.ren senideek ere mehatxuak izan zituzten, eragin handia izan zuten eta tartean salaketak eta mobilizazioak egon ziren beste hainbat kasutan bezala.

Behin batean, kasu baterako, M.ren eskela bat jaso genuen etxeko postontzian; gorotzez zikinduta zegoen eta “*Txerri bat gutxiago*” jartzen zuen. Adibide horiek oso agerian uzten dute jazoera haiengatik salaketak ipini zitzaizkeen pertsonak susmagarriak zirela eta mehatxuak jasotzen zituztela; horrela, demandak geldiarazten edo kasuak isilarazten lortzen saiatzen ziren.

### Manifestazio bihurtutako hiletak eta urraketa gehiago

Jende askok gaitzetsi egiten zituen bereizketarik gabeko jazoera horiek eta egileen zigorgabetasuna; horregatik, hildako biktimen hiletak egoera horiek salatzekeko gune bihurtzen ziren maiz. Askotan, segurtasun-indarrek kontrolatu egiten zituzten hiletak horiek eta, horregatik, giza eskubideen urraketen jokaleku berri bihurtzen ziren. Kasu batzuetan, hildako biktimen senideak jipoitu eta mehatxatu egiten zituzten, eta salaketak aurkezten bazituzten ere, kasuan ez ziren ikertzen eta ez zen errudunik bilatzen.

Bestalde, M.S.ren ama M.L.U.E.k, bere semearen hiletan gertatutako jazoeren ondoren, 1975ean salaketa bat aurkeztu zuen polizia-kargaren arduradunen kontra, 1974ko abenduaren 20an bere semearen hiletan jasandako lesioengatik, hertsapenagatik, irainengatik eta mehatxuengatik (Donostiako 4 zenbakiko instrukzioko epaitegia, 887/74 salaketa), eta kereila popular bat aurkeztu zen. Baina ikerketa horiek artxibatu egin ziren.

## Aitorpenaren zentzua

Bere garaian txikiagotutako edota “hutsegitetzat” edo zoritxarreko “istripuztat” jotako gertakariak izan zirenez, agintariak errudunak nor izan ziren argitzea eta errudunak zigorgabetasunez jokatu zutela aitortzea garrantzitsua dela nabarmentzen dute haien biktimek.

Aitorpen-eskarietan zauri bat irekita geratu zaie, agintariak baztertu eta bertan behera utzi zituztelako eta, horregatik, biktima ikusezin edo hutsal bihurtu direlako; horrenbestez, bidegabekeria tratatu dituztela eta nabarmen iraindu dituztela sentitzen dute, beste biktima batzuek azken urteotan izan duten aitorpenarekin alderatuta. Kotsiderazio hori lotuta dago jazoeren egia aitortzearekin, eta ez jazoerak “hutsegitetzat” gutxiestearekin; horretaz gain, zuzeneko biktimaren duintasuna eta haren ahaideen sufrimendua aitortzearekin ere erlazionatuta dago.

*Niretzat, J.E. biktimatzat aitortu izana da garrantzitsuena. Eta J.E.ren izen ona, hori da garrantzitsuena. Oso pertsona jatorra zen, beti zegoen edonori laguntzeko prest. Horrela hiltzea eta inor ere ez gogoratzea orain arte... F., T. eta F.J.F.*

Beste kasu batzuetan, zuzeneko biktimak gazteak ziren, eta haien anai-arrebek eta beste senide batzuek Batzordean kontaktu zuten haien gurasoek nahigabe sakona sentitu zutela bizitza osoan. Egoerari laguntzarik gabe aurre egin behar izana, sentimenduak gorde izana nahigabeari aurre egiten saiatzeko eta, aldi berean, besteei ez kutsatzeko, eta oroitzapenek berriz ere galera gogorarazten zuten bakoitzean adierazitako nahigabea ere badira aitorten horren zentzurako erreferentzia. Era berean, ahaide askok adierazi zuten gurasoentzat ere balio handia duela aitorten horrek. *Asko poztuko naiz, amarengatik, egunen batean ebazpen positiboa ematen bazaio kasuari. 90 urte ditu dagoeneko, baina guztiaz konturatzen da oraindik, eta aitak zuen atsekabea berak du osorik orain.* F.J.F.

Askorentzat, dekretuaren abiarazpena, gauzatutako prozesua eta Batzordearekin egindako elkarriketa izan ziren horrelako kasuei erakunde-aitorpena emateko eta horrelako kasuengatik interesa erakusteko lehen espazioa. Aitorpena oso garrantzitsua dela agerian uzten dute elementu horiek, baita oroimen horiek gizartearen parte izatea eta erakunde-aitorpena izatea garrantzizkoak zirela ere.

*Hainbeste urte igaro badira ere, inor ez da gogoratu egunkarian ezer ere ipintzeaz edo jazotakoa aitortzeaz... Ez dakit, zerbait! Oroitzapen bat! 50 urte geroago, Anasagastik idatzi egin zuen horrelako biktimei buruz. Hori izan zen horren gainean jendaurrean norbaitek hitz egin zuen lehen aldia. Elkarte bat ere jarri zen gurekin harremanetan dekretua argitaratu zenean.*

### **3. Su-armak erabiliz egindako polizia-operazioak**

Ordena publikoko indarrek egindako giza eskubideen urraketaren biktimamultzoko bat pertsona susmagarriak bilatzeko polizia-operazioek eragin zuten, bai eta bilerek edo, besterik gabe, segurtasun-indarrek edozein enfrentamendu-egoerarekin zerikusirik gabe eta defentsarik gabeko pertsonen aurka indarra neurritz kanpo erabiliz jokatu zutenean gertatutako egoerek ere.



## Bilera bateko kideen aurkako tiroak

1969ko martxoaren 12an, J.O.G. bilera politiko batera joan zen Deustuko Unibertsitateko ikaskideekin, han ikasten baitzuen Zuzenbideko laugarren maila. Bileran oposizio antifrankistarekin lotutako zenbait pertsonak parte hartu zuten; taberna batean egitekoa zen bilera, baina, J.O.G. hara iritsi zenerako, kalez jantzitako polizia-agenteeek ikaskideak atxilotu zituzten. Iritsi eta polizia-agenteeak taberna aurrean ikusi zituenean, korrika atera zen. Polizia-agenteeak haren atzetik joan ziren eta tiro egin zioten. Zauritu egin zutenez, poliziek harrapatu egin zuten, eta indarrean sartu zuten automobil batean, Basurtoko Ospitalera eramateko.

Basurtoko Ospitalean su-armaz egindako bi zauri diagnostikatu zizkioten, bata eskumuturrean eta bestea ezkerreko ipurmasailean, biak ere sarrera- eta irteera-zuloekin. Zauriek haustura eragin zioten ezkerreko eskumuturreko hezur semilunarrean, piramidalean eta pisiformean, eta eskasia nerbio kubitalaren adar palmarrean.

Zauri horien ondorioz, gaur egun eskuan eta eskumuturrean ezgaitasun funtzional garrantzitsua du, eta horrek muga funtzional eta operatiboa ekartzen dio, bai eta lesioek eragindako mina ere.

*Gorputzaren erdialdean egin zioten tiro (eskua eta ipurmasailaren goiko alde), eta horrek adierazten du polizia-agenteeek nabarmen mespretxatzen zutela atxilotu nahi zuten pertsonaren bizia. Familian, ekintza horren egileen inpunitatearen eta egile horiek ez epaitzearen ondorioak jasan genituen, gertaera delitu eztabidaezina izan arren. J.O.G.*

Dirudienez, bai J.O., bai atxilotutako gainerako ikasleak ETAko kideen talde batekin nahastu zituzten; guztiak geratu ziren aske inolako prozesamendurik gabe.

## Operazioa herrian

Hori gertatu baino pixka bat geroago, 58 urteko S.U.P. Guardia Zibilak tiroz hil zuen. S.U.P. emaztearekin eta lau seme-alabarekin bizi zen familiaren etxean, eta nekazaritza-lanak egiten zituen. 1969ko maiatzaren 15ean, bere etxean zegoela, Guardia Zibileko bi kidek atea jo zuten eta auzo-alkateaz galdetu zioten. Alboko

etxean bizi zela adierazi ondoren, herriko elizako kanpaiak jotzera joan zen, eta Estatuko segurtasun-indarretako kide batek lagundu zion. Une horretan, guardia zibil baten su-armaren tiroak hil zuen.

Berehala, ordena publikoko indarrek S.U.ren familiaren etxea miatu zuten, eta ez zuten garrantziko ezer topatu. Gertatutakoaz azalpenik eman ez zutenez, semea (A.U.) inguruko zentro askotara joan zen bere aitari buruz galdetzera, haren gorpua Gasteizko Ospitalean aurkitu zuen arte, Guardia Zibilak berak eraman baitzuen hara. Batzordeak jasotako kasuen artean, honetan baino ez zuen gobernadore zibilak adierazpen bat argitaratu. Adierazpen horrek zioen biktimak ez zuela aurrekari politikorik, eta, errugabea izateaz gain, Mugimenduko kide zela. Hileta-egunean, poliziak elizaren ingurua hartu zuen, segurtasun-indarrek hildako guztiekin egiten zuten bezala; bertaratutako batzuk miatu egin zituzten, eta dokumentazioa eskatu zieten. Egun batzuk geroago, Donostian bizi ziren familiako kide batzuek eskatuta, Artzain Onaren katedralean meza bat eman zen, eta han ere ordena publikoko indarrek zainduta egon ziren bertaratuak.

*Aita hil zigutenean, lau seme-alabetatik hiruk herritik joan behar izan genuen, ogibidea bilatzera. E.U.S.*

## **Zaborra jaistean tirokatua**

Batzordean aurkeztu den beste kasu bat 1975eko abuztuaren 28an gertatu zen. *Txiki* eta *Otaegiren* heriotza-zigorren aurkako mobilizazioen testuinguruan, gazte batzuk gerra-kontseiluari buruzko propaganda banatzen ari ziren Donostian. Brigada Politiko Sozialeko kideek ikusi zituztenez, polizia atzetik joan zitzairen. E.F.R. emakume gazteak (27 urte) etxeko zaborra jaitsi zuen iluntze hartako hamarretan.

Itzultzean, mutil batzuk hitz egiten hasi zitzaizkiola entzun zuen. Harekin sartuko ziren beldur, bebarrurantz joan zen korrika. Barruan zegoela, bi polizia hurbildu zitzaizkion: atea irekitzera behartu zuten, eta dokumentazioa eskatu zioten; bietako batek pistolaren kanoia emakumearen bularrera zuzendu zuen. Minutu batzuk igaro ondoren, beste polizia bat sartu zen, eta polizia-kideei emakumeari bakean uzteko esan zien. Ordurako, E.ren senarra, bere emaztea luzatzen zela eta oihuak entzuten zirela ikusita, haren bila jaitsi zen. Biak eskaileran gora zihoazela, E. konturatu zen bebarruan sartzen ari zenean bizkarrean tiro egin ziotela.

*Oraindik ere balaren marka bebarruan dago, erdi-parean. Ez ziguten ateratzen utzi anbulantzia etorri zen arte. E.F.R.*

Ospitalean eskapula-zauria diagnostikatu zioten, eta bala toraxean geratu zela adierazi zuten. Jaurtigaia atera zioten, eta sei egunez egon zen ospitaleratuta. Horren ondoren, nahitako alta eskatu zuen; izan ere, Batzordeari kontatu zionez, *“beldurtuta zegoen eta izua ematen zion gauak ospitalean igarotzeak, beste eraso bat izan zezakeela etengabe pentsatzen”*. Gertaera horren antzekoek erakusten dute eguneroko bizitzako gertakariak erraz bihur zitezkeela arrisku-egoerak, mobilizazioak edo polizia-operazioak gertatzen ziren egunetan; herritarren aurka su-armak bereizketarik gabe erabiltzen zirela ere nabarmen geratzen da.

## **Neska baten eta haren mutil-lagunaren heriotza eta zauriak**

Indarkeria politikoa bereizgarri zuen testuinguru batean, zenbait polizia-operazio hedatu izanak(batez ere ETako kideak edo haren jarraitzaileak atxilotzekoak) hainbat hildako eragin zituen; Guardia Zibilaren kontrol batzuetan gertatuak, esaterako. Beste kasu batzuetan, ordena publikoko indarrek susmagarriak iruditzen zitzaizkien pertsonak identifikatu eta atxilotu zituzten, edo haiei tiro egitera ere heldu ziren.

Hori gertatu zitzaien Beasaingo garaje baten aurrean aparkatutako beren autoan zeuden neska bati eta haren mutil-lagunari, 1975eko abenduaren 31ko arratsaldeko 8etan. Bi gizon hurbildu ziren ibilgailura, eta bietako batek pistola bat gerturatu zuen automobilaren leihora; neska-mutilengana zuzendu zuen kanoia, aurretik bere burua identifikatu gabe. P.J.T.k autoa martxan jarri zuen, baina abiatu aurretik, heriotza eragin zion tiro bat jaso zuen. M.R.A.ri besaurrean egin zioten tiro, eta bala ukondoan geratu zitzaion.

Une hura erabat ezabatu zen M.R.ren burutik, eta San Miguel Klinikian esnatu zela baino ez du gogoratzen, han artatu baitzuten. Emakume psikologo baten laguntza ere izan zuen: lehen unetik esan zion haren mutil-laguna hilda zegoela, eta kalez jantzitako guardia zibilek egin ziotela tiro. Ondoren, ebakuntza egin zioten, eta bala atera zioten ukondotik. Hamarren bat egun egon zen klinikian ospitaleratuta, eta, jarraian, sendaketa anbulatorioak behar izan zituen. Alta eman ziotenean, Guardia Zibilaren kuartelean deklaratu behar izan zuen.

Tratamendu psikologikoa jaso zuen urtebetez, lo egiteko arazoak zituela-eta, eta trauma ondoko estresa tratatzeko farmakoak hartu behar izan zituen urte horretan.

EEgindako ekintzen guztiz jakitun ziren agintariak, baina, horrelako beste kasuetan bezala, beren erantzukizuna ezerezean uzten ahalegindu ziren, bai eta gertakariak biktimaren jokoerari egozten ere. Zenbait guardia zibil joan ziren P.J.ren gurasoen etxera albistearen berri ematera, gaueko hamabietan. Gorputzaren identifikazioa Beasaingo gorputegian egin zen, polizia inguratuta. Hurrengo egunean, familiari Loiolako kuartel militarra deitu zioten, eta han Guardia Zibileko teniente batekin bilera izan zuten. Lekukoek diotenez, tenientea gertatua azaltzen ahalegindu zen, P.J.T. ihes egiten saiatu zela esanez, eta horregatik ikusi zutela beren burua tiro egitera behartuta guardia zibilek.

## **Errepideko beste operazio batzuk**

Beste kasu batzuetan, ekintza horiek eraso justifika zezakeen inolako testuingururik gabe gertatu ziren, festa batetik itzultzen ari ziren pertsonak bihurtu baitzituzten su-armak erabiliz tiro egiteko susmagarri. M.F.M.k 32 urte zituen, Gallartan bizi zen, eta Langile Komisioetako oso kide aktiboa zen. Gertakariak izan ziren gauean, 1977ko maiatzaren 14an, ezkondu aurreko agur batera joan zen M.F., Ortuellako beste lagun batzuekin. Afaria amaitu eta jatetxetik atera ondoren, konturatu ziren Guardia Zibilaren jeep batzuk atzetik segika zituztela, argiak itzalita. Ibilgailu horietako batetik Guardia Zibileko zenbait kide jaitsi ziren, eta bidea itxi zieten atzeko aldetik; horrekin batera, haietako batek oihu egin zien: “ea, hasi korrika egiten”. Une horretan, M.F.M. Guardia Zibilaren tiro batek harrapatu zuen, eta berehala hil zen. Gertakari horiek amnistiaren aldeko II. astean gertatu ziren, eta, aste hartan, adierazi den bezala, ordena publikoko indarren esku-hartzeak zenbait pertsonaren heriotza ekarri zuen.

Lagun askok lagundu zioten familiari hildakoaren agurrean, eta hilkutxa herri osoan zehar eraman zuten, elizara eta hilerrira iritsi arte. Hileta oso hunkigarria izan zen, eta tentsio handia egon zen, une oro egon baitziren bertaratuak poliziek inguratuta. M.F.M.ren neska-laguna, E.G.S, erabat lur jota geratu zen. Haurdun zegoen, zazpi hilabeteko, eta egoerari aurre egiteko baliabide ekonomikorik gabe. Inoiz ez zuen laguntzarik jaso erakundeetatik; bizilagunek eta M.F.M.ren lagunek baino ez zioten lagundu. Gertaerak sekula ez ziren salatu. Izan ere, hildakoaren anaietako batek eta aitak, bai eta gertakarien lekukoek ere,

mehatxuak jaso zituzten: salaketa aurkezten bazuten, biktimak bezala bukatuko zutela esan zieten. Horrenbestez, ez salatzea erabaki zuten.

*M.F.M.ren neska-laguna bere buruaz beste egiten ahalegindu zen. Besteak beste, ikastolak garbitzen, kale-garbitzaile eta etxe-zerbitzari aritu zen lanean, alaba aurrera ateratzeko; mutil-laguna hil baino bi hilabete geroago jaio zen alaba. Gaur egun, alabarengan sentimendu kontraesankorrek bizirik jarraitzen dute. M.F.M.ri buruzko irizpena.*

## **Jazarpena baserrian**

ETAren aurkako poliziaren eta Guardia Zibilaren operazioak oinarri abertzale eta/edo ezkertiarreko edozein talde klandestinoren aurka ere hedatu ziren, ugari baitziren asaldura politikoko garai hartan.

Epaitzen ari ziren ETAko kideei elkartasuna adierazteko propaganda baino ez zuten egin gaztez osatutako talde horietako batzuek; beste batzuek babesa adierazi zieten, besterik gabe. L.J.L.G.ren heriotza ekarri zuten gertakariak testuinguru horretan kokatu behar dira. L.J.L.G.k 18 urte zituen, eta Beasainen bizi zen. Auzoko lagunekin batera, pintada bat egin zuen institutuan. Guardia Zibilak atxilotuko zituen beldur, hiru lagun hiruretako baten baserrira joan ziren, Beasaingo Matxinbenta auzora. Baserri horretan astebete inguru egon ziren; tarte horretan, Guardia Zibilak zenbait miaketa egin zituen L.J.L.G.ren etxean, eta ez zuen ezer aurkitu.

1975eko abenduaren 2an, baserrirako bidetik Guardia Zibilaren jeep bat zetorrela ikusi zuten. Atzeko atetik ateratzea erabaki zuten, eta atetik agertzearekin batera, aurreko abisurik gabe eta “geldi” egoteko agindurik gabe, Guardia Zibilak tiro-sorta batzuk bota zituen. L.J.L.G. hil egin zuten, lepoan harrapatu zuen su-arma baten tiroaren ondorioz, eta taldeko gainerako kideek ihes egitea lortu zuten, Guardia Zibilaren kontrol-operazio bat zegoen arren.

## **Susmagarriak hiltzea**

Kakoa erraz sakatzeko eta polizia-operazioetan bereizketarik gabe tiro egiteko ekintza hauek tentsio handieneko garaietan gertatu ziren, eta su-armak erabiltzeko inpunitatea nagusi zen testuinguru batean. Franco hil eta egun batzuetara, ETAK

Oiartzunen herriko alkatea, Antonio Etxeberria Albisu, hil zuen, eta handik gutxira Guardia Zibilak A.E.B. hil zuen operazio batean. 1975eko azaroaren 25ean, A.E.B. bere bidaietako batetik itzultzen ari zen. Autostop egiteko ohitura zuen, eta horrela zetorren Madrildik, baina ibilgailuaren gidaria Bergarara zihoanez, Legutiora doan errepidearen bidegurutzean utzi zuen, A.E.B.k Bilborainoko bere biderekin jarrai zezan.

Ibilgailutik jaitsi zenean, beste pertsona batekin (D.G.M.) topo egin zuen, eta elkarrekin abiatu ziren oinez Legutioraino. Denbora-tarte horretan, dirudienez, Guardia Zibileko kideek ETAko ustezko kide batekin nahasi eta A.E.B.ren aurka egin zuten tiro; bat-batean hil zen. ETAko kide batekin nahasi izana ez da nahikoa arrazoi ekintza bat justifikatzeko, tiroa bizkarretik bota baitzitzaion, eta ihes egiten ari zela. Garai hartako komunikabideetan, horrelakoetan ohikoa zen bezala, Guardia Zibilak gelditzeko agindu ziola esan zuten; ondoren, A.E.B. korrika hasi zela, eta horrek eragin zuela guardia zibilek tiro egitea. A.E.B.ren familiari ez zioten eman gertatutakoaren berri hurrengo eguneko eguerdira arte: Guardia Zibilak deitu eta adierazi zien A.E.B.k istripu bat izan zuela, eta larri zegoela Gasteizko Santiago Ospitalean.

Familiaren lagun batek –Gasteizko udaltzaina zen– esan zien Guardia Zibilak egindako zenbait tiroren ondorioz hil zela, guardia zibilek Oiartzungo alkatearen aurkako atentatu hilgarriaren egilearekin nahasi zutelako. Izan ere, familiako kide baten lekukotzaren arabera, familiak gorpua ikustera sartzeko zain egon behar izan zuen, Oiartzungo alkatearen alarguna A.E.B.k haren senarra hil zuen begiratzen ari baitzen; alargunak aukera hori baztertu egin zuen.

Kasuaren irregulartasunek beste funtzionario batzuei ere eragin zieten, batzorde judizialaren gorpua altxatzeko aktan hau irakurtzen baita: “gorpuan, su-arma baten jaurtigaiaren sarrera-zuloa ikusten da ezkerreko saiheitsarteko aldean, eta beste irteera-zulo bat eskuineko saiheitsarteko aldean”. Hilda ikusi zuten familiakoek, berriz, esan zuten metrailletaz botatako tiro-sorta bat zuela, gorputza zeharkatzen ziona.

## Laburtzeko

Ordena publikoko indarrek su-armak bereizketarik gabe erabilitako kasu batzuetan gertatu zen bezala, beste operazio-mota askotan ere polizia-ekintzek hildakoak edo zaurituak eragin zituzten; atal honetan agertzen direnetan,

esaterako. Gertaerei buruzko bertsioek gehienetan “akatsak” aipatu zituzten, edo “hutsegiteak” zenbaitetan; beste batzuetan, biktimei errua egozten ahalegindu ziren, eta hiletetan edo ehorzketetan polizien esku-hartzea pairatu behar izan zen. Aitorpenik eza eta inpunitatea nagusi den testuinguru bat izan da hori guztia biktima horietako askorentzat eta haien familiakoentzat, eta horrek galeraren edo zaurien eragina handitu egin du.

Esate baterako, A.E.B.ri buruz (Guardia Zibilak egindako tiroek hil zuten) garai hartako zenbait komunikabidetan gertakariari buruzko aipamen alderdikoia egin zuten; gaizkilea eta aurrekari penalak zituen lapurra zela esan zuten, Guardia Zibilaren jokaera justifikatzeko, nahiz eta aurrekaririk ez zuen eta ez zuten inoiz auzipetu. Haren aldeko hileta Diman egin zen, eta jendetza joan zen; biktimaren aldeko adierazpen ugari ere izan ziren. Familia erabat hunkitu zuten gertakariak, bai eta maite zuten pertsona galtzeak haiengan izandakoeraginak ere. A.E.B.ren ohorea ere zalantzan geratu zen. Familia-bizitzan eragindako hunkipena hain handia izan zen, A.ren ama –47 urte zituen garai hartan– depresioan murgildu baitzen, eta ezin izan baitzuen gainditu. Arreba handik gutxira hil zen, artean ere bere anaiaren heriotzak hunkituta. A.E.B.k ez zuen batere garrantzi politikorik, eta sekula ez du jaso, orain arte, erakundeen inolako aitortzarik.

*Familiak haren izena garbi gera dadila eskatzen du, eta aitor dadila polizia-gehiegikerien biktima bat izan zela. Haren izena ez dadila garaiko prentsan agertutakoarekin lotuta geratu, ez baitzen gaizkilea izan. A.E.B.ri buruzko irizpena.*

## 4. Liskarretako biktimak

Espainiako diktadurako azken urteak bereziki korapilatsuak izan ziren Euskal Herrian: indarkeria politikoa eta errepresioa izan ziren giro haren ezaugarri nagusiak. Testuinguru horretan gertatu ziren ordena publikoko indarrek egindako giza eskubideen urratze hauek; izan ere, sarritan su-armak neurritz kanpo erabiltzen zituzten zerbitzuan zeudenean, eta zerbitzuan ez zeudenean ere bai.

Ekintza onartezinak izan ziren, testuinguru jakin batean gertatuak. Testuinguru horretan, ordena publikoko indarrek beren agintariak emandako aginpidea eta babesa zituzten, eta horrek inpunitate handiarekin aritzen uzten

zien hemen aipatzen diren kasuen antzekoetan, non su-armen erabilera gehiegizkoa, neurritz kanpoko eta kriminala ere egin zuten zerbitzutik kanpo zeudenean, eta, gainera, erabilera horrek ondorio penal handirik ez zuen izan. Ohikoa zen indar horietako kide batzuek nagusikeriaz jokatzeari beren jokabide pribatuetan, inpunitatea izateak horretarako aukera ematen baitzien. Horrela, izaera politiko zuzenik gabeko eztabaidak edo liskarrak nahiz eztabaida eta liskar pribatuak askotan polizia-agenteei indarra legez kontra erabilia amaitzen ziren; hau da, su-armekin tiro eginda eta heriotzak eraginda. Nagusikeria eta inpunitate hori testuinguruaren osagaietako bat zen; erregimenaren aurkako mugimendu gero eta handiagoa politikoki zapaltzeko testuinguruarena, alegia.

## **Gertakari horien ezaugarriak**

Batzordeak jasotako kasuak Estatuko polizia-agenteei egindako eraso hilgarriak buruzkoak dira. Leku askotan errepikatu ziren erasook Espainiako trantsizioko lehen urte horietan, garai hartan praktika hori oso ohikoa baitzen.

Kasu horietan, Estatuaren erantzuna ukazioa izan zen, edo egoerari edo polizia-agenteei nahiz armadakoek jasan behar zuten tentsioari egotzi zizkieten gertaerak; jazoera isolatuak eta sarritan pribatuak zirela esanez justifikatu zituzten. Hala ere, indarkeria politikoarekin zuten lotura gertaeren maiztasunaren, jokatzeko moduen eta bizitzako beste egoera batzuetan segurtasun-agenteei zabaldu zuten beldurraren bitartez egiaztatzen da, bai eta inpunitatearen, ikerketarik ez egitearen eta biktimei nahiz senitartekoei egindako mehatxuen bitartez ere.

Erakundearen erantzun falta horrek biktimei eskubideak behin eta berriz ukatzea ekarri du, gertaera gehienak ez baitziren aitortu, edo erakundearen erantzukizuna ia ezerezean geratu baitzen. Horrez gain, samin eta oinaze horren estatus falta ere gertatu da, babesa edo aitortpena emango dien arrazoi politikoekin ere ez baitira lotu.

Ezin dugu ahaztu pertsonen oinarrizko eskubideen artean bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea daudela. Eskubide horiek pertsonaren babeserako funtsezko edukia osatzen dute; horrez gain, berez dira gutxieneko komun demokratikoa eta gure gizartearen babeserako



esparru eztabidaezina eta intenporala, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean jasotzen den bezala eta 107/2012 Dekretuaren beraren Zioen Azalpenak gogorazten digun bezala.

## **Kasuak Batzordearen aurrean**

1975eko ekainaren 15ean, A.S.Z., 24 urtekoa eta bost hilabeteko neskato baten aita, koadrilako lagun baten ezkondu aurreko agurra ospatzen ari zen Mungian. Afariaren ondoren Zigor diskotekara joan ziren, eta, atean zeudela, istilu bat gertatu zen bi pertsonaren artean. Liskar hori konpontzen ahalegintzeko, gazteak esku hartu zuen. Esku-hartze horren emaitza heriotza izan zen. A.S.Z.k kalez jantzitako guardia zibil baten tiroa jaso zuen, eta han zeuden beste guardia zibil batzuek ez zioten inori utzi gazteari osasun-laguntzarik ematen, lurrean etzanda, artean bizirik, egon zen ordubetez zehar. Azkenean hil egin zen, inork ezin izan baitzuen ospitale batera eraman. Gogoan izan behar da A.S.Z.ren heriotza ekarri zuten gertaerak 1975eko apirilaren 26an ezarritako salbuespen-egoeran gertatu zirela; egoera hartan, Guardia Zibileko kideek hainbat gehiegikeria egin zituzten Gernikan eta Mungian, eta indar handiz desegin zituzten edozein motatako bilerak, bai eta ordena publikoaren nahasmenak ere.

Gertaerak ez ziren sekula argitu, eta zenbait komunikabidek diskoteka baten ateetan lagun-koadrila batek sortutako istiluez hitz egin zuten, Guardia Zibileko kideek egindako tiroaren justifikazio moduan.

Gertaeraren eragina murrizteko ahaleginek gorpua ezkutatzea, ikerketa zailtzea eta dolua bera ez errespetatzea ere eragin zituzten. Kalez jantzitako bi guardia zibil hildakoaren etxera joan ziren goizeko seietan, emazteari bere senarra Guardia zibilaren kuartelean atxilotuta zegoela eta hara joan behar zuela esatera. Bere koinatuak, berriz, zera esan zion M.A.V.ri: A.ri "tiro egin diote eta hilda dago". M.A.ri ezinezkoa egin zitzaion albistea asimilatzea, eta nerbio-krisia izan zuen; hori dela eta, klinikan ospitaleratu behar izan zuten hamar egunez, eta orain egun horiei buruzko amnesia du. Familiako inork ezin izan zuen A.S.Z.ren gorpua ikusi, hilerria eraman baitzuten zuzenean, autopsiarik egin gabe. Hiletaren egunean, Plentzia Guardia Zibilak inguratuta egon zen. A.ren giltzak ez zituzten topatu haren gauzen artean; gainera, haren familiaren etxean indarrez sartu ziren, eta barrukoa hankaz gora jarri zuten.

Urtebete geroago, 1976ko ekainaren 11n, A.S.M.k (32 urtekoa, ezkondua, hiru seme-alabaren aita, eta berbenetan eta jaialdian jotzen zuen talde bateko kidea) Eibarko Jai Alai dantzalekuan jo zuen. Aretotik ateratzean, goizaldean, ikusi zuen bere taldekideetako bat beste pertsona batekin eztabaidatzen ari zela, azken horren ibilgailuak musika-tresnak ibilgailuan sartzen oztopatzen ziolako. Bat-batean, pertsona horrek pistola bat atera zuen eta A.S.M.ren taldekidearengana zuzendu zuen kanoia. A.S. eztabaida lasaitzen ahalegindu zen, eta ezezagunak –kalez jantzitako Guardia Zibileko kide bat zen, egiaz– lurrera tiro egin zuen. Jarraian, guardia zibil horrek bere armaren ipurdiarekin A.S.ren lokia kolpatu zuen, eta, erori zenean, sabelean tiro egin zion. Guardia zibil berak eraman zuen biktima ospitale batera, eta han hilda ospitaleratu zuten.

A.S.M.ren familia heriotzagatik lur jota geratu zen, eta, gainera, egoera ekonomiko oso gogorrari egin behar izan zion aurre: alargunak bere gurasoen etxera joan behar izan zuen seme-alabekin, biziraun ahal izateko. Gertaerak prozedura judizial bat ekarri zuen, eta hari buruzko informaziorik ez zitzaion eman familiari. Prozedura horretan, Guardia Zibileko kidea milioi bat pezeta ordaintzera zigortu zuten, eta kopuru horren zati bat baino ez zen ordaindu. Dirua ez zuen eskura ordaindu, soldatetik kentzen joan baitzitzaizkion urteetan zehar. Horretarako, A.S.M.ren alargunak aldizka Loiolako kuartera (Donostia) joan behar izaten zuen, eta han, berriro biktima bihurtzen zuten zenbait egoera jasan behar izan zituen. Beste kasu batzuetan bezala (J.G.R.rena, esaterako), familiak ezin jarri izan zuen eskela bat.

*Familiakooi ez ziguten utzi eskela bat jartzen ere. Hainbestekoa zen inpunitate-giroa, prozedura judizial bat ireki eta familiari ez baitzitzaion hari buruzko informaziorik eman. Erakunde bat bera ere ez zitzaigun hurbildu. Erakundeek erantzunik eman ez izanak gure eskubideak behin eta berriz ukatzea ekarri du, eta horrek oinazea areagotu du urte hauetan zehar. Gainera, erakundeen sinesgarritasun-galera ere ekarri du erantzun falta horrek, bai eta oroimenaren eskubidea eta hildako biktimaren aitortpena urratu izanaren sentimendua ere. I.G.M. eta C.S., A.ren alarguna eta semea.*

### Erasoa eta heriotza, salaketaren ondoren

F.N.F.k 38 urte zituen eta Bilbon bizi zen. Matematikako irakasle partikular gisa egiten zuen lan, eta ez zuen parte-hartze politiko edo sozial garrantzitsurik. 1977ko maiatzaren 15ean, etxetik irten zenean, polizia bortizki desegindako amnistiaren aldeko manifestazio bat aurkitu zuen F.N.k. Une horretan, etxeko bebarruan babesten ahalegintzen ari zela, Polizia Armatuko kideek F.N. kolpatu zuten, bere alaba I.ren eta lekuko izan ziren hainbat bizilagunen aurrean. Maiatzaren 17an, artean kolpeen eraginpean zegoela eta hematoma handiak zituela, jasandako gertaerengatik salaketa jartzera joan zen Bilboko epaitegira. Salaketa egitetik ateratzen ari zela, kalez jantzita eta armatuta zihoazen bi gizon gerturatu zitzaizkion. Ibilgailu batean sartu zuten, eta han pattar eta errizino-olio kantitate handiak edatera behartu zuten inbutu baten bidez, hark aurka egin arren. Bere garaian biktimak familiari esan zionez, aipatu nahi izan ez zituen beste eraso batzuk ere jasan zituen: shock egoera gogorrean zegoen, eta familiaren aurkako errepresaliekkin mehatxatu zutela adierazi zuen.

Horren ondorioz, ospitaleratu egin behar izan zuten hurrengo egunean, odol-botaka larriak zituela eta. Kontua da F.N.F.k gibekeko zirrosia zuela; gaixotasun hori medikuen kontrolpean eta egonkor zegoen, gertaeren unea arte. Ospitaleratuta egon zen bitartean, etengabe egon zen bi gizon ezezagunek zainduta. F.N.F. asaldatuta zegoen, beldurrak eta antsietateak jota, baina zer egin zioten kontatu ahal izan zuen. Ospitaleratuta hamahiru egun egon ondoren, Basurtoko Ospitalean hil zen, behartuta irentsitako alkohol eta errizino-olio kantitate handiek eragindako odoljarioen ondorioz, esofago-barizeak lehertu baitzizkioten.

Bilboko Kristo Erregeren elizan egindako hiletara jendetza joan zen, eta, hiletak iraun zuen bitartean, polizia asko egon zen, bai eliza barruan, bai kanpoan. Gainera, familiako kideek eta lagunek kalez jantzitako gizon batzuegandik mehatxuak jaso zituztela esan zuten. Harriduraren eta doluaren erdian, hildakoaren emaztea, C.M., Bizkaiko Gobernu Zibilera joan zen handik hilabetera, bere alabaren hezkuntzarako laguntza bat eskatzera, baina haren eskaerari ezetz erantzun zioten. Pixka bat geroago, pertsona bat haren etxera joan zen poliziako kide zela eta Gobernuaren izenean zihoala esanez. Milioi bat eta hirurehun mila pezeta eskaini zizkion C.M.ri, eta hark eskaintza horri uko egin zion, oso haserretuta eta minduta. Egun horietan Bilboko poliziako buru nagusiak egunkari bati adierazi zion *“ez zirela jazo hildakoaren familiak aipatzen zituen gertaerak”*. Gainera, 2000. urtean, biktima-izaera aitoren ziezaioten eskaera aurkeztu eta gero, telefonoz dei mehatxatzaileak jaso zituen.

## Udaltzainek su-armak erabiliz egindako tiroak

Oso larri zauritutako biktimei buruzkoak dira Batzordeak jasotako bi kasu, eta hildako bati buruzkoa beste bat, hirurak ere udaltzainek su-armak erabiliz egindako tiroen ondorioz. Udaltzaingoak ez zuen ordena publikoa mantentzeko eginkizunik, baina zenbaitetan kontrol-ekintzetan parte hartzen zuen, eta esku-hartzeak zituen eguneroko bizitzako egoeretan (festak eta gatazkak, esaterako); goian aipatutako hiru kasuetan, esaterako, herriko pertsonen aurkako indarkeria larria izan zuten ondorio. Kontuan izan behar da tokiko agintariak ere Mugimendukoak zirela; hau da, erregimen frankistaren oinarri politikokoak. Gainera, udaltzainak sarritan ordena publikoko indarrekin koordinatuta aritzen ziren, eta udal-agintariak beren ekintzak Gobernuarekin koordinatzen zituzten.

1969ko abuztuaren 2ko goizaldean, Getxoko Erromo auzoko festak ospatzen zirela, F.A.M., 20 urtekoa, lagun-koadrila batekin zegoen Vega tabernaren, Areetako lehengo tren-geltokiaren aurrean, abesten. Auzokide batek – Udalbatzako kidea, dirudienez– udaltzainei deitu zien, eta haiek leku hartara joan ziren; hori dela eta, gazteek alde egitea erabaki zuten. Ondoren, ibilgailua hartzera joan zirenean, udaltzain batek geldiarazi zituen, eta F.A.M.rekin zihoan gazte bati pistola batekin apuntatu zion. Gazte horren eta udaltzainaren arteko borroka baten ondoren (udaltzainak bi aldiz egin zuen tiro borrokatzen ari zirela), gaztea atxilotu eta udaltzainen autoan sartu zuten, eta handik gazteak beste tiro bat entzun zuen. Nahasmena aprobeztatuz, ihes egin zuen handik. Lau egun geroago, gaztea atxilotu egin zuten, eta hilabete egon zen Basauriko espetxean.

Haren aurka egindako epaiketan, espetxean sei hilabete igarotzera zigortu zuten, baina ez zituen bete, espetxealdi txikiko zigorra zela eta. Gau hartan gertatutakoaren lekuko izan zirenek diotenez, gazte horrek entzun zuen tiroak F.A.M. hil zuen. Horren arabera, atxilotua ibilgailuan zegoela, udaltzainak arma F.ren bularrean jarri, berbertatik tiro egin eta berehala hil zuen.

Antzeko beste kasu batzuetan bezala, gertakariak eragindako haserreak hiletara jendetza joatea eragin zuen, eta hiletan zehar polizia asko ibili ziren inguruan: Guardia Zibila eta Polizia Armatua zaldi gainean. Hilabete batzuk geroago, Getxoko Udalak, “Udaleko langileek egitez edo ez-egitez eragindako ondarekalteen erantzule subsidiario gisa”, 450.000 pezetako kalte-ordaina onartu zuen, baina familiak *“akusazio partikularra erretiratzeko konpromiso formal eta ezeztazina”* onartzeko baldintzapean. Galera traumatiko eta bortitz horretaz gain, egilearekin bizi behar izateak sufrimendu handia eragin zion familiari, udaltzaina ez baitzuten lanpostutik bota.

Beste kasu bat 1976ko Aberri Eguneko (Franco hil ondoren ospatutako lehena) giro aldarrikatzailean gertatu zen. Hasiera batean, Euskal Herriko indar politiko antifrankistak elkarrekin prestatzen ari ziren Aberri Eguna, eta Iruñea aukeratu zen sinbolikoki ospakizun hori egiteko leku gisa. Hala ere, Ángel Berzadi enpresaria ETApn-ren Komandu Bereziek hil izanak deialdia zatitu zuen. Alde batetik, Euskadiko batzar demokratikoko alderdiak zeuden (Eusko Jaurlaritza, EAJ, ANV, PSOE, UGT, ELA eta PCE); bestetik, ETA VI, ORT, EHAS, LAIA, LAB eta LAK.

Testuinguru horretan, J.M.T.D. Sestaoko udaltzainek larri zauritu zuten. 21 urte zituen eta 1976ko apirilaren 12ko gauean beste gazte batzuekin pintada bat egiten ari zen herrian. Pintadak honako hau zioen: "Askatasuna, Amnistia, Autonomia Estatutua, guztiok Iruñera. ORT". Pintada amaitu ondoren, zenbait udaltzain agertu ziren. Haiak agertzearekin batera, gazteek korrika alde egin zuten, sakabanatzeko. Udaltzainetako bat J.M.T.D.ren atzetik joan zen, eta identifikatzeko eskatu zion.

Horren ondoren, atzera egiten ari zela, udaltzainak atzetik tiro egin zion, eta zauritu egin zuen: errain-hezurraren eta gerrialdearen eremutik sartu zitzaion bala, eta pubis gaineko eremutik atera. Ospitalera bere aitaren lagun batzuen ibilgailuan eraman zuten. Ospitaleratu zutenean, gaztea oso larri zegoen: hiru litro odoleko hemoperitoneoa, heste meharra eta lodia toki askotatik zulatuta, eta haustura (ezker muturreko zain iliakoa guztiz urratuta) zituen. Hilabete geroago eman zioten alta, 1976ko maiatzaren 15ean, eta, ondoren, bi hilabete egin zituen errehabilitazio anbulatorioan, 1976ko uztailaren 27ra arte, ezkerreko hankako trauma ondoko edema tratatzeko.

*Tiro egin zuenari urtebeteko zigorra ezarri zioten, eta epaiketaren kostua ordaintzera behartu zuten, baina Amnistia Legearekin amnistia eman zitzaion. Orain arte egindako eskaera guztiei ezetza eman zaie, garaiz kanpokoak izateagatik (Oroimen Historikoaren Legea). Irizpena.*

## **Berehalako erantzunak eta geroagokoak**

Kasu hauetan ere, erregimen frankistan zehar ordena publikoko indarren ekintzen ondoren ohikoak ziren kontrol- eta beldur-egoerak gertatu ziren, baina, horrekin batera, auzotarren erantzuna oso garrantzitsua izan zen. Segurtasun-indarren erantzukizunpeko antzeko beste kasu batzuetan bezala, gertaerengatiko haserreak F.A.M.ren hiletara jendetza joatea eragin zuen, baina, aldi berean,

polizia askok kontrolatuta egotea ere bai (Guardia Zibila eta Polizia Armatua zaldi gainean).

J.M.T.D.ri udaltzain baten tiroek egindako zauri larrien kasuan, Sestaoko herriak gaitzespena adierazi zuen manifestazioen eta beste ekintza batzuen bitartez. Herriko familien elkarteak berak ere arbuio-idazki bat bidali zuen Udalera, gertatutakoaren gaitzespen sendo eta erabatekoa adierazteko. Lau urte geroago, lehen hauteskunde demokratikoen ondoren, 1980ko martxoan, Sestaoko Udaltzainak gertatutakoa aitortu zuen, eta, beste neurri batzuen artean, J.M.T.D.ri udalekopertsonalean lanpostu bat eskaini zion. Kasu honetan, 80/76 Sumarioa izapidetu zen, eta, haren bitartez, tiro egin zuen udaltzainari zigorra ezarri zitzaion. Hain zuzen, horrelako erantzuna eman zitzaion kasu bakarra da hori, Batzordera aurkeztutako guztien artean.

## Laburtzeko

Kasu horietan ikusten den jarduera-ereduan, polizia-indarkeria eguneroko bizitzako beste egoera batzuetara zabaldu zen. Eredu horretan, ordena publikoko indarrekin harremana izatea arriskutsua zen. Heriotza eragin zuten hiru kasu horien ezaugarriak arbitrariotasuna eta polizia-agente edo guardia zibil horien biztanleen gaineko erabateko boterea izan ziren. Gainera, ikerketa independenterik ez egoteak eta gertaerek zehapenik ez izateak marjinazioa eta ondorio larriagoak eragin zituzten familiakoengan. Erasoei gehienetan garrantzia kendu zitzaion, defendatzeko erantzunak zirela argudiatuz, edo ez zen haietaz hitz egin, besterik gabe. Hasieran “izaera politikoa zuten gertakaritzat” hartu ez bazituzten ere, ordena publikoko indarrek gertaeretan izandako parte-hartzeak izaera hori zuen, eta hori hiletetan parte hartzeko oztupoetan eta ondorengo inpunitatean ere ikusi zen. Kasuak inoiz ez zituzten zehapen penalak ezartzeko ikertu; haietako batean baino ez zen eman zehapen administratibo mugatu bat.

Udaltzainek ere batzuetan bereizketarik gabeko jokaerak izan zituzten biztanleen aurka, ordena publikoko indarrak ez izan arren. Ekintza horiek, horrelako kasuetan, festa- eta aldarrikapen-testuinguruetan izan ziren, eta heriotzak eta zauri larriak ekarri zituzten. Jendea beldurrak zegoen arren, biktimak gertukoak izateak eta erantzukizuna udal-arlokoa izateak, bai eta auzokideek elkar ezagutzeak ere, errazago egin zuten kasu horietan salaketak eta presioa egitea udal-agintariei.

## 5. Bidezko prozesu judizialerako eskubidea urratzea eta heriotza-zigorra

Juan Paredes Manot eta Anjel Otaegi Etxeberria (*Txiki* eta *Otaegi* esan ohi zaie) ETA politiko-militarreko kideen fusilamenduak frankismoaren azken garaia bereizgarri dira Euskadin, eta oroimen kolektiboan ere eragin handia izan zuten. Heriotza-zigor horien aurkako mobilizazio sozialek eta heriotza-zigorrekin zigortutako alde egiteko atzerriko enbaxadoreen esku-hartzeak (Vatikanoarena barne) erabaki horren legitimotasunik eza erakutsi zuten, eta erreakzio sozial eta politiko indartsua ekarri zuten; erreakzio hori, geroago, frankismoaren aurkako borrokaren sinbolo bihurtu zen. Kasu horretan, bidezko prozesua izateko eskubidea urratu zen, eta, urratze horren ondorioz, biei heriotza-zigorra ezarri zieten eta exekutatu egin zituzten.

### Fusilamenduen testuingurua

1973tik aurrera, erregimen frankistan krisi larria izan zen, eta krisi hori zenbait faktorek areagotu zuten: Franco jeneralaren osasunak okerrera egiteak, Eliza katolikoko hierarkiaren zenbait sektoreekin frankistek izandako liskarrek, gatazka soziopolitikoek eta, batez ere, zenbait erakunde armaturen jardueraren areagotzeak. Azken horien artean zeuden Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Patriotikoa (FRAP), Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistak (GRAPO) eta Euskadi ta Askatasuna (ETA).

ETAk 1973ko abenduaren 20an Luis Carrero Blanco almirante eta Gobernuko presidentea hil zuen. Atentatu horrek eta 1974an gertatu ziren beste batzuek (Madrilgo Correo kalean izandakoa, esaterako, non hamahiru pertsona hil zituzten) ETAko kideak errepresioaren lehentasunezko helburu bihurtu zituen diktadura frankistaren bukaeran. Testuinguru horretan, indarkeria politikoa gogortu egin zen Euskal Herrian. ETAk beste hamalau pertsona hil zituen 1975ean zehar, Batallón Vasco Españolak edo antzekoek bi pertsona, eta Estatuko segurtasun-indarrek 10 pertsona (guztiak zibilak), polizia-operazioetan hil zituzten ETAko bost kidez eta aipatutako bi fusilatuz gain.

ETAren eta erakunde politiko eta sindikalen aurkako borrokaren babesean, ordena publikoko indarrek hainbatetan eta etengabe urratu zituzten giza eskubideak, atxiloteta masiboak eta bereizketarik gabeak eginez. Horiekin

batera, tortura-salaketa ugari izan ziren. Hori guztia salbuespenezko neurriak ezartzeak erraztu zuen; esaterako, 1975eko salbuespen-egoera promulgatzeak. Salbuespen-egoera horrek mugatu egin zituen ordurako jadanik murriztuta zeuden adierazpen- eta bilera-askatasunak, eta areagotu egin zituen atxiloteten arbitrariotasuna, inkomunikazio-denbora eta segurtasun-indarren boterea, atxilotutako pertsonak inolako bermerik ez zuten testuinguru batean. Poliziak eta Guardia Zibilak hildako zazpi pertsonaren familiakoen testigantza jaso zen Batzordean.

## **Kasuak eta kasuetako pertsonen bizitzak**

Batzordean bi fusilamendu-kasu aurkeztu ziren, Juan Paredes Manotena eta Anjel Otaegi Etxeberriarena (*Txiki* eta *Otaegi* esaten zitzairen). Biak ere enblematikoak izan ziren trantsizio politikoaren eta borroka antifrankistaren oroimenaren testuinguruan. Kontuan izan behar da fusilamendu horiek ez gertatzeko izandako erantzuna heriotza-zigor horien aurkakomobilizazio sozial indartsua izan zela. Beste alde batetik, heriotza-zigorak eta fusilamenduek erregimenaren erantzun bortitza adierazten zuten sinbolikoki. Edozein begiruneren gainetik, eredugarri gertatzeko eta boterea erakusteko egin ziren.

Anjel Otaegi Etxeberriak 33 urte zituen eta Azpeitiko Maria Otaegiren seme bakarra zen. Anjel hil eta urte gutxira hil zen ama. Anjel haztea izebaren esku egon zen neurri handi batean, eta izebak, hain zuzen, eman zuen testigantza Batzordean. Juan Paredes Manot, 20 urtekoa, Extremaduratik Zarautzera emigratutako langile-familia baten zazpi seme-alabetan bigarrena zen. Altzari-enpresa batean egiten zuen lan, eta bere garaian Juanen amak eta anai-arrebetako bik eman zuten testigantza. Familiakoek ez zuten jakin ETA politiko-militarreko kide zela atxilotu baino pixka bat lehenagora arte.

## **Gertaerak**

Anjel Otaegi Etxeberria 1974ko azaroaren 18an atxilotu zuten bere etxean. 74/74 ohiko sumarioan epaitu zuen jurisdikzio militarrek, Jose Antonio Garmendia Artolarekin batera. Guardia Zibileko informazio-zerbitzuko Gregorio Posadas Zurrón kabua 1974ko apirilaren 3an Azpeitian hiltzea egotzi zieten. Anjel Otaegi hilketa-gaizkide gisa prozesatu zuten, eta Jose Antonio Garmendia, berriz, atentatu horren egile gisa. Otaegiren familiakoen arabera, Anjelek aurpegia



handituta zuen eta torturak jasan izanaren zantzuak zituen, atxiloketaren ondoren argitaratu zen argazkian ikusten zen bezala.

Bestalde, Juan Paredes Manot (*Txiki*) Kataluniara joan berria zen Iñaki Pérez Beotegirekin (*Wilson* ezizenez) batera, eta uztailaren 30ean poliziak biak atxilotu zituen. Polizia Armatuko Ovidio Díaz López kabu lehena hil izana leporatu zioten, Bartzelonako Banco de Santanderren bulego batean 1975eko ekainaren 6an egindako lapurreta batean. Bost egunez egon zen hiri horretako polizia-etxe nagusian, non tratu txarrak eta torturak egin zizkioten galdeketetan. Ondoren, Bartzelonako Modelo espetxean sartu zuten, eta Marc Palmés eta Magda Oranich haren abokatuak ez zuten *Txikirekin* hitz egiterik izan abuztuaren 21era arte.

### **Legezko bermerik gabeko gerra-kontseiluak**

Diktadura frankistako gerra-kontseiluek ez zuten eskaintzen, egiaz, legezko defentsa izateko aukerarik. Kasu horietan eta beste batzuetan, akusatuek beren abokatuak izenda zitzaketen, baina gutxieneko legezko defentsa bat izateko baldintzak gauzatzea ezinezkoa zen. Esate baterako, *Txiki* eta *Otaegiren* aurkako salaketak aldatu egin ziren denboran zehar. Anjel Otaegiren aurkako gerra-kontseilua 1975eko abuztuaren 28an egin zen: hasieran, guardia zibil baten hilketaren gaizkide izatea leporatu zioten, eta guardia zibilaren jarraipena egitea egotzi zioten; baina gerra-kontseiluan, ezustean, hilketaren egile izatea leporatu zioten, “ezinbesteko laguntza eman zuelako”; horrek esan nahi zuen haren esku-hartzerik gabe hilketa ezin egin izango zela. Akusazio berri hori gerra-kontseiluan bertan egin izanak behar bezalako defentsa egitea ezinezko bihurtu zuen.

Otaegiren eta Garmendiaren abokatuak garrantzi handiagoa eman zioten bigarrenaren defentsari, akusazioaren larritasuna handiagoa zela eta; izan ere, juridikoki ezin zen aurreikusi Anjel Otaegiri heriotza-zigorra ezarriko ziotenik, ezta garai haiek eta parametro haiek kontuan izanda ere. Anjel Otaegiren aurkako akusazioa aldatzeak gerra-kontseilua etetea ekarri behar zuen, abokatuak haren defentsa behar bezala presta zezaten, baina ez zen hori gertatu. Familiakoei ez zitzaien epaiketan egoten utzi.

Bestalde, *Txikiren* kasuan, atxilotu eta hiru hilabetera, abuztuaren 22an, 141/4/75 auziaren prozesatze-autoa jakinarazi zitzaion, eta hartan beste

pertsona batzuekin zenbait ekintza egitea egotzi zioten. Prozesua arbitrarioki azkartu zen, eta defentsa prestatzeko denborarik ez zen egon, testuinguru hartan gerra-kontseilu horiek egiteko erabaki politikoa hartu baitzen, legezko bermeen formaltasunik gabe izanik ere. Irailaren 15ean, agintari militarrek 141/4/75 auzia banakatu egin zuen, eta beste bat ireki zuen, 100/4/75 auzia, alegia; auzi horretan, Juan Paredes Manot soilik auzipetu zuen. Abokatuek lau ordu besterik ez zuten izan auzia aztertzeko eta behin-behineko ondorioen idazkia aurkezteko. Familiakoak han zeuden, eta epaiketaren arbitrariotasunaren lekuko izan ziren.

## Epaiaketa summarisimoak eta exekuzioak

Bi exekuzio sumarioak egun berean eta ordu berean gertatu ziren, bata Burgosen eta bestea Bartzelonan. 1975eko irailaren 26an, Gobernuak Jose Antonio Garmendiaren heriotza-zigorra kommutatu zuen (atxilotzeko unean buruan eman zioten tiroaren ondorioz, burmuinean zauri larriekin geratu baitzen), eta *Otaegiren* zigorrari eutsi egin zion. Azkenik, nahiz eta zenbait pertsona ezagunek egindako gestio ugari eta mobilizazioak izan ziren, Anjel Otaegi jauna 1975eko irailaren 27an fusilatu zuten Burgosen, goizeko 8:30ean.

Juan Paredes, bere aldetik, gerra-kontseilu summarisimo batean epaitu zuten azkenean, 1975eko irailaren 19an. Epaiaketa, Juan Paredes (beti ukatu zuen egozten ziotena egin izana), lapurretan ari zela, Ovidio Díez López Polizia Armatuko kabua hiltzeagatik kondenatu zuten. Irailaren 26ko ministro-kontseiluak Juan Paredesen heriotza-zigorra berretsi zuen. Azkenik, Bartzelonako epaiaketa baino astebete geroago fusilatu zuten; hau da, 1975eko irailaren 27ko goizeko 8:30ean hura ere. Juanen anaiak Batzordean testigantza eman zuen, eta honela gogoratzen zituen une haiek:

*Ez dakit zer egingo zioten, baina lur jota zegoen epaiaketa. "Ez didazue musu bat ematen utziko?", esan nien. Musu eman nion eta gorputza nola zuen ikusi nuen. Ubelduta zegoen gorputza, belztuta. Bi txanodun sartu ziren eta esan zioten: "estremadurar euskalduna, gogorra izan behar da benetan, zuk bezala, ezer ez esateko". - "Baina nik ez nuen ezer esateko!", erantzun zien. Hori ez lukete inorekin egin behar.*

## Exekuzio-eguna

Maria Otaegi andrea, Anjelen ama, shock emozionalean zegoela-eta, ez zen gerra-kontseilura joan. Otaegiren izeba, Mercedes andrea, joan zen, eta azkenean ez zioten utzi epaiketa-gelan sartzen. Ondoren ere ez zioten bisitatzeko baimenik eman, ez eta Anjeli exekuzioaren aurreko gauean konpainia egiteko ere. Gau horretan, agintari militarrek amari (Maria andrea) baino ez zioten sartzen utzi, eta hark izan zuen agurtzeko aukera.

*Kapitainak hau esan zigun: "Esaiozu bihar goizeko 8:30ean hilko dutela, eta etortzeko ikustera". Lasaigarri bat eman zioten. Besotik heldu zioten, baina arrastaka eraman zuten barrura. Amak elkar agurtu zutela esan zidan: "Nik ez dut inor hil, baina ni hil egin behar naute. Agur, ama". "Agur, Anjel". Gorpua jasotzeko geratu nintzen. Ezin ikusi izan nuen. "Ausartuko zinateke Anjelen gorputzarekin joaten? 4:30ean". Hara joan ginen, baina zera esan zigun: "joan ehorztetxera". Kapitainak, exekuzioaren bezperan, 50.000 pezeta eskatu zizkion amari, lekualdatzea ordaintzeko. Nondik atera behar zuen dirua? Herriko jendeak dirua bildu zuen, eta iritsi zenean ordaindu zuen lekualdatzea.*

Mikel Paredesek, Txikiren anaiak, bere anaiari exekuzioaren aurreko gauean konpainia egin zion.

*Aurreko egunean joan nintzen ikustera, Modelo espetxera. Ezin da azaldu, esan arren. Zure anaia ikusten duzu hor, eta zergatik dagoen hor. Hark esan zidan ez zuela ekintza horretan parte hartu, Perpinyànen zegoela une hartan. "Uste dut ezingo ditudala bizitzan egin nahi ditudanak egin. Abokatuei garrotea erabiliz ez hiltzeko eskatu behar diet, nahiago dut fusilatzea", esan zidan. Hura ni animatzen ahalegintzen zen: "hau ezin da izan, ezin da izan". Ondoren, "Bihar ni hiltzen naizenean..." poema idatzi zuen, eta esan zidan: "eutsi goiari, Mikel, bizitzak aurrera jarraitzen du. Egunen batean semeren bat baduzu, jar iezaiozu Jon"... "ez horrelakorik esan...", esan nion nik, baina gero horrela gertatu zen.*

Coronado kapitainak, anaiaren arabera, errukia eskatu zuen eta exekuzioaren aurkako errekurtsioa jarri zuen: "militarra zen, baina ahal zuen guztia egin zuen".

*Cerdanyolara eraman gintuzten. Aldapa bat egin zuten hondeatzaile batekin; zelaigune baten moduko zerbait zegoen, eta zuhaixka pila bat. Eremu militar*

*bat zen. Han zegoen anbulantzia. Zuhaitz handi samar bat zegoen, eta gune nahiko irekia. Tripode baten antzeko zerbait atera zuten. Ordurako zutoinean lotuta zuten. Guardia zibilen sorbalden artean ikusi nuen, eta hark ni ikusi ninduen. Nik garaipen-seinalea egin nion, eta hura Eusko Gudariak abesten hasi, eta lurrera erori zen...Zer esatea nahi duzu... ez du azalpenik, 20 urteko mutil bat.*

Egun horretan bertan, Manzanarezen (Madril) FRAPeko beste hiru kide hil zituzten: José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz. Heriotza-zigorra ezarri zieten irailaren 11n, 12an eta 18an egindako epaiketetan, El Golosoko (Madril) bulego militarretan. Lucio Rodríguez Polizia Armadako kidea eta Antonio Pose Rodríguez Guardia Zibileko kidea hiltzeagatik epaitu zituzten.

## Kasuen balioespena

Anjel Otaegiren prozesua, epaia eta exekuzioa agintari frankistek adostutako politika errepresiboaren testuinguruan gertatu ziren. Bidezko prozesu batek bete beharreko printzipioak urratzen zituen prozesu horrek, betiere giza eskubideak babesteko nazioarteko tresnetan ezarritakoaren arabera. Zibilak aginpide militarrek epaitzea politika errepresibo horren osagai bat zen, eta, ordurako, azken urteetan heriotza-zigorrek ezartzeko eta zenbait militante antifrankista exekutatzeke balio izan zuen. 47/74 sumarioko material dokumentalaren elementu asko falta dira, baina haren azterketak argi uzten du, alde batetik, froga objektiboak falta zirela (haien ordez ustezko erruztatzeak erabili ziren, torturapean lortutakoak, seguruenik), eta, bestetik, komunikazio zuzena (espedientean bertan “ezkutukoa” dela adierazten da) izan zela agintari judizial militarren eta Armadako Ministroaren beraren artean. Interkomunikazio horrek nabarmen uzten du Gobernu frankistak esku-hartze zuzena izan zuela A.O. exekuziora eraman zuten ebazpen judizialean.

J.P.M.en epaiketa, bere aldetik, irregularitasun prozesalez beteta egon zen:

- Epaiketa egiteko erabili zen prozedura ez zegoen indarrean hura zigortzeko gertaerak jazo zirenean.
- Juan Paredes jaunak torturapean deklaratu zuela adierazi zuen, eta haren abokatuek hori salatu zuten Bartzelonako Instrukzioko Epaitegietan.

- Abokatuek ez zuten izan, ez nahikoa denbora, ez nahikoa baliabide, akusazioaren arrazoia behar bezala ezagutzeko.
- Auzitegiak abokatuek eskatutako errekurtsio eta froga tekniko guztiak ukatu zituen, bai eta lekuko-froga batzuk ere.
- Akusazioak abokatuentzat erabat ezezagunak ziren lekuko desegokiak aurkeztu zituen.
- Epaia epaiketa egin zen egun berean eman zen, eta epaiketa amaitzearekin batera. Gainera, zigorra eragin zuen ekintza ez zegoen indibidualizatuta epaian, eta ez zen objektiboki balioesten inola ere zergatik gogortu zen muturreraino zigorra, ez eta zergatik eman zitzaion heriotza-zigorra *“akusatuaren gaiztakeria bereziagatik”* ere.

Irregularitasun horiek nazioarteko erakunde eta giza eskubideen aldeko elkarte batzuek eta zenbait pertsona ospetsuk salatu zituzten; Christian Grobet abokatu suitzarrak, besteak beste. Abokatu hori Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioaren eta Giza Eskubideen aldeko Liga Suitzarraren izenean joan zen gerra-kontseilura, eta honela zioen irailaren 19ko txostenean: *Espainiako prozesu politikoaren jarraipena egiten ari denetik, inoiz ez du hau sinatzen duenak prozesu baten simulazioaren aurrean egotearen hain irudipen nabarmena izan; hau da, iruzur maltzur baten aurrean, akusatuei zer etorkizun datorkien pentsatzen une batean jartzen bagara”*.

## **Ondorengo jazarpenak**

Anjel Otaegiren familiak ez zuen jaso mehatxurik eta presiorik. Dena dela, hilerrian egiten ziren urteurrenetan poliziak egoten zirela adierazi dute, eta hurrengo egunean familiak eramandako loreak desagertzen zirela. Aitzitik, Juan Paredesen familiakoek (amak eta anai-arrebak) exekuzioaren ondorengo hilabeteetan era guztietako irainei, presioei eta mehatxuei aurre egin behar izan zieten. Alde batetik, zailtasunak izan zituzten gorpua Bartzelonatik Zarauzko hilerria eramateko; bestetik, bai familiakoek, bai hiletako meza eman zuen apaizak, bai abokatuek, erregimen frankistaren gertuko taldeen erasoak eta irainak jaso zituzten. Hain zuzen, azken horiek, apaizez mozorrotuta, hiletako meza eman zuen apaiza eraso zuten: *“jendea indarkeriak indarkeria dakarrela konturatzen ez den bitartean, ez dago ezer egiterik; hori eragotzi behar da”*.

Familiari, gainera, Zarautzen zegoela, bere etxean atentatu bat egin zion *Guerrilleros de Cristo Rey* izeneko taldeak. Atentatu horretan, ama, alabetako bat eta familiaren lagun bat zauritu zituzten. Kolpatu egin zituzten, eta zauriak egin zizkieten buruan; gainera, immobilizatu egin zituzten eta su-armekin apuntatu zieten. Abokatuei ere hainbat mehatxu egin zizkieten gertaeren ondorengo egunetan: *“abokaturia eskuinekoa zen, baina jokaera oso ona izan zuen, eta ondorio asko jasan behar izan zituen”*. Gertaera horiek errepikatu egin ziren, eta familiak etxez aldatu behar izan zuen aldi baterako, behin baino gehiagotan sarraila behartu baitzieten. Halaber, polizia-agenteeek Mikel Paredes jauna eta Guadalupe Paredes andrea atxilotu eta torturatu zituzten inolako justifikaziorik gabe. Guadalupe Paredesengan gertaera horiek ondorioak izan zituzten.

### Ondorioak

1) Azaldutako guztiagatik, egiaztatuzat ematen da Anjel Otaegi Etxeberriari eta Juan Paredes Manoti gerra-kontseilu batean ezarri zietela heriotza-zigorra, eta horren ondorioz exekutatu zituztela, bidezko defentsa-bermerik gabe; halaber, egiaztatuzat ematen da gertaera horiek agintari politikoek urte haietan inposatutako errepresio politikoaren adierazgarri direla. Heriotza-zigor horiek gauzatzea bizitzeko eskubidea urratzea izan zen.

2) Gizakiaren bizitzeko eskubidea urratze hori, gainera, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak (10. art.) eta Eskubide Sozialen eta Politikoen Itunak (14. art.) aitortzen zituzten printzipio guztiak hausten zituen testuinguru prozesal batean gertatu ziren.

3º) Egiaztatutako giza eskubideen urratzeak 107/2012 Dekretuaren 2.3. artikuluan aipatzen dira: *“Bizitzaren aurkako indarkeria larria eragin duten sufrimendutzat eta aldi berean giza eskubideen urraketa onduko ondoriozkatuz joko dira egiaztatu egiten diren sufrimenduak, nahiz eta bere garaian ez ziren horrelakotzat jo, betiere gertatutako heriotzak bizitzeko eskubidea urratu badu; izan ere, 1978ko Konstituzioan aitortzen da eskubide hori”*. Espainiako Konstituzioak 15. artikuluan bizitzeko eskubidea aitortzen du, eta heriotza-zigorra debekatzen du.

## 6. Langileen aurkako errepresioa eta Martxoaren 3ko sarraskia

*Hura infernu bat bihurtuta zegoen.* M.A.O.U.

Manifestazioen eta protesta baketsuen aurkako polizia-indarkeria hedatzen joan zen Francoren heriotzaren ondorengo lehen urteetan. 1977ko erreforma politikoaren aurreko urteak bereziki dramatikoak izan ziren, eta manifestazioen aurkako errepresioak gora egin zuen; horrek, besteak beste, 1976ko martxoaren 3ko gertaerak deritzenak (edo Martxoaren 3a, besterik gabe) ekarri zituen. Izatez langile-protesta baten aurkako bereizketarik gabeko eraso zena sarraski bihurtu zen: bost hildako eta ehunka zauritu izan ziren egun horietan eta hurrengoetan, poliziaren bortizkeria horren aurkako beste manifestazio batzuk izan baitziren. Poliziaren indarkeriaren asmoak eta indarkeria hori gauzatzeko immunitateak haserretu egin zuen euskal gizartearen gehiengoa, eta haserre horrek beste mobilizazio eta protesta batzuk ekarri zituen.<sup>10</sup>

### Testuingurua

Gasteizen, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren azken urteetatik aurrera, industrializazio-prozesua izan zen. Gizarte- eta lan-egituran aldaketa sakonak gertatu ziren, baina, hala ere, urte horietan ez zen lan-gatazka garrantzitsurik gertatu, kasu jakin batzuetan izan ezik, hala nola 1972an Michelin enpresaren lantegian gertatutakoa. Dena dela, guztia aldatu zen diktaduraren amaieran; izan ere, garai hartan, lan-hitzarmenen eskariek eta erregimenaren beraren aldaketek mota guztietako aldarrikapen politikoak eta lan-aldarrikapenak hedatzen lagundu

---

<sup>10</sup> Martxoaren 3an, Polizia Armatuak izandako hainbat ekarriketa grabatu ziren, eta grabazio haiek FM irriaren bitartez eman zituzten (grabazio haiek existitzen dira oraindik ere); grabazio haiek agerian uzten dute goizean ordena publikoko indarrek istiluen aurkako materialaren zati handi bat agortu zutela eta su-armekin tiro asko egin zituztela hortik aurrera; erabateko zehaztasunez ez bazekiten ere zenbat tiro egin zituzten, Polizia Armatuak berak adierazi zuen mila “detonazio” baino gehiago izan zirela. Hau adierazi zuten, hitzez hitz: «*Historiako jipoirik handienez parte hartu dugu (...).Sarraskia izan da benetan (...)*»; horrela deskribatu zuten egun hartako polizia-jarduna. 1976ko martxoaren 3an Gasteizen gertatutako jazoerei buruzko irizpen historikoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Valentín Foronda Gizarte Historiarako Unibertsitate Institutuak egina.

zuten. 1976ko lehen hiruhilekoan soilik, 18.000 greba izan ziren Estatuan, aurreko urtean baino ia sei aldiz gehiago, eta greban egindako ordu-kopurua hamar aldiz handiagoa izan zen. Gasteizen indar izugarriarekin bizi izan zen garai hori.

1975. urtearen amaieratik aurrera, hiriko enpresa batzuei eragin zien lan-gatazka bat piztu zen: Mevosa, Forjas Alavesas, Areitio, Aranzabal, Ugo, Gabilondo, Olazabal eta Huarte, Industrias Galycas, Cablenor, Tuboplax... Enpresa horietako langileek greba egin zuten zenbait lan-aldarrikapen eskatzeko, horien artean hitzarmen kolektibo berrien eskaera. Gatazkak hainbat hilabete iraun zuen.

Une horretan ez zegoen guztiz onartuta greba egiteko eskubidea, eta ez zegoen zuzenbidezko estatuaren bermerik Espainian. Elkartzeko eta adierazteko uzten zizkieten legezko baliabide urriak erabiltzen zituzten garai hartan langileek: Elizaren jauretxeak eta aretoak, 1953an Vatikanoko Hiriko Estatuarekin sinatutako konkordatuak babesten baitzituen eraikin horiek une hartan. Baina ekintza horiek, oro har, legeak ez zituen babesten. 1976. urtearen hasieratik, Gasteizko langile-mugimendua lantegi-batzarren, komisioko-ordetzakien koordinakunde baten eta borrokan ari ziren lantegien baterako batzarren bitartez antolatzen hasi zen. Gainera, lantegietatik atera egiten zen greba, eta hirian zehar hedatzen zen ekintza kolektiboaren bitartez, hala nola emakume- eta auzo-batzarren bitartez. Langileak elizetan elkartzen ziren beren proposamenak eztabaidatzeko eta mobilizazioak prestatzeko.

Greba ia mugagabea nagusi zen; eta testuinguru horretan, hain zuzen, erabateko lan-geldialdia egiteko deialdia egin zen 1976ko martxoaren 3rako, gatazkan sartuta zeuden eta 1975eko abendutik diru-sarrerarik ez zuten langileentzat herritarren elkartasuna lortzeko. Ezaugarri horiekin deitzen zen hirugarren protesta-eguna zen (gizartean eragin handiena izan zuena).

## **Gertaerak**

Martxoaren 3rako greba orokorra zegoen deituta. Goizean manifestazio bat egin zen. Goizeko orduetan, hainbat zauritu izan ziren Polizia Armatuak manifestarien aurka edo inguru haietan zeuden pertsonen aurka egindako ekintzetan. Eta arratsaldeko 17:00etarako batzar bat deitu zuten Gasteizko Zaramaga auzoko Asisko San Frantziskoren parrokan. Deialdi irekia zen, eta, egun hartarako deitutako greba orokorrak izan zuen arrakasta handia ikusita, batzarrera jende asko joan zen.



Eliza jendez gainezka zegoela, eliza barrura sartzea jende gehiagori debekatzen hasi zen polizia; horrenbestez, barruan adina jende biltzen hasi zen eliza kanpoan. Gobernadore zibilak eliza husteko agindua eman zuen, baina elizaren sarreran bilduta zeuden polizia-indarren arduradunek Elizaren baimena behar zuten elizara sartzeko. Hala ere, baimenik ez egonda ere, polizia-indarrek (ordurako eliza inguratuta zuten) barruan bildutakoei elizatik ateratzeko agindu zieten.

Jendeak uko egin zion erlijio-eraikinetik irteteari, eta biltzeko eskubidea erabiltzen jarraitu zuen modu baketsuan. Une horretan, Polizia Armatua ke-potoak botatzen hasi zen elizako beirateetatik. Gas negar-eragileek giroa ezin arnastuzko bihurtu zuten eliza barruan, eta horrek jendetzak lehenbailehen lekua utzi nahi izatea eragin zuen. Elizaren irteera segada bat izan zen, poliziak guztia inguratuta baitzuen, eta ateratzen zirenak nahi zuten lekutik igarotzera behartzen baitzituen poliziak. Horren ondorioz, bost langile hil ziren poliziak tiro eginda, eta ehunen bat zauritu zituzten; horietako asko, larri.

Langileen aurkako gertaerak leku bat baino gehiagotan jazo ziren. Batzordeak martxoaren 3ko goizean balaz zauritutako pertsonen lekukotzak jaso zituen. Ondoren, eliza barruan, zaurituak izan ziren, esparru itxian egiten ari ziren batzarrean poliziak ke-potoekin esku-hartu zuenean; beste pertsona-talde bat elizaren irteeran zauritu zuten su-armaz, jendea izututa ateratzen ari zenean. Martxoaren 4an ere izan ziren zaurituak.

### **Balaz zaurituak Martxoaren 3ko goizean**

Batzordeak martxoaren 3ko goizean balaz zauritutako biktima zuzenen zazpi testigantza eta gomazko pilota batekin zauritutako batena jaso zituen: testigantza batzuk manifestaziokoak ziren, eta beste batzuk goizeko beste une eta leku batzuetakoak.

I.B.F., Heraclio Fournier enpresako 22 urteko neska bat, enpresara joan zen gainerako langileekin elkartzeko eta manifestaziora joateko. Manifestazioa normaltasun osoz igaro zen, plazara iritsi ziren arte; han poliziaren zenbait ibilgailu zeuden zain. Manifestazioa Dato kalerantz bira egiten ari zenean, I.k gomazko pilota baten kolpea jaso zuen zerbikaletan, eta lurrera erorarazi zuen konorterik gabe. Bere onera etorri zenean, Santiago Ospitaleko korridoreetan zegoen.

M.A.O.U.B. 17 urteko gazte bat zen. Eguerdiko 12ak aldean, Gasteiz Hiribidean zegoela, polizia-agente batek polizia-ibilgailutik tiro egin zion. Beste pertsona batzuek farmazia batera eraman zuten, eta, ordubete igaro ondoren, auto partikular batean eraman zuten Santiago Ospitalera. Han, larrialdiko sendaketa bat egin zioten eta Gizarte Segurantzaren "Ortiz de Zarate" Osasun Egoitzara bideratu zuten. Santiago Ospitalean zegoela, kalez jantzitako polizia batzuek jaso zuen tiroari buruzko galdeketa egin zioten. Hasierako diagnosis hau izan zen: su-armak egindako zauria eskuineko izterrean, sarrera- eta irteera-zuloekin. Astebete egon zen ospitaleratuta.

1976ko martxoaren 3an, leku berean eta ordu berean, A.G.P.k, 20 urteko neska batek, galdutako bala bat jaso zuen eskuineko sorbaldan, eguerdiko 12ak aldean Gasteiz Hiribidean oinez zihoala. Santiago Ospitalera eraman zuten, eta han ospitaleratu egin zuten: su-armak egindako zauri bat zuen (alde bereko sarrera- eta irteera-zuloa, deltoide aldean). Ospitaleratu zuten egun berean, zauriaren garbiketa kirurgikoa egin zioten anestesia orokorra jarrita, eta drainatze bat jarri zioten.

Goiz horretan bertan, F.J.M.B. Gasteiz Hiribidean zegoen, eta istiluak gertatzen hasi ziren. Espaloian oinez zihoala, polizia batzuk furgoi batetik atera ziren eta tiro egiten hasi ziren. Bala baten inpaktua jaso zuen, konortea galdu zuen eta lurtean egon zen denbora dezente. 12:00ak aldera, Osasun Egoitzan ospitaleratu zuten, eskrotoan bala batek eragindako zauri zorrotz batekin, irteera-zulorik gabe (tratamendu kirurgikoa behar izan zuen). Zauriarekin batera, hematoma handi bat zuen. 15 egun egin zituen ospitaleratuta, eta 7 hilabetez lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran.

Asisko San Frantziskoren parrokiak arratsaldean langileen batzarra hartzekoa zuen, eta eliza hori ere poliziak hartuta zegoen. 11:00k ingurua ziren, eta J.M.O.k eta Villarrealeko Atera zihoazen beste lagun batzuek barrikada asko aurkitu zituzten; polizia batzuk haien aurka zihoazela ikusi zuten. Ihes egiteko, korrika hasi ziren, eta bebarru batean babestu ziren. J.M.O. atea ixteko itzuli zenean, polizia batek pistola batekin tiro egin ziola ikusi zuen. Poliziak bebarrua utzi zuenean, auzoko bati laguntza eskatu zioten, eta hark bere etxean sartzen utzi zien; ondoren, Santiago Ospitalera eraman zuten zauritua. Zauri oso larria zuen aurpegian, eta ia heriotza ere eragin zion. Garuneko kommozio arina, masailalbo-hezurreko haustura irekia eta irteera-zulorik gabeko aurpegiko zauria diagnostikatu zituzten. Jaurtigaia eskuineko masailalbo-hezurrean jota sartu zen, sudur-trenkada zeharkatu zion, beheerantz jarraitu zuen, eta eskuineko amigdalan jo eta bertan geratu zen.

L.L.P.k ere manifestazioan parte hartu zuen; Badaia kalean zegoen, San Mateo elizatik gertu, 13:00ak aldera gutxi gorabehera, eta etxera joateko asmoa zuen. Une horretan, Polizia Armatuko kide bat ibilgailu batetik tiro egiten ari zela ikusi zuen; tiro haietako batek L.L.P.ren eskuineko hankan jo zuen, eta haustura irekia eta hemorragia handia eragin zizkion. Santiago Ospitalera eraman zuten, eta han, jasotako tiroaren ondorioz, eskuineko femurraren kondilo gainaren eta eskuineko kanpo nerbio ziatiko popliteoaren haustura diagnostikatu zioten. Gertaeretatik bi hilabete baino gehiagora eman zioten alta, 1976ko maiatzaren 7an, eta, ondoren, zaurien ondorio ugari izan zituen.

J.C.C., 33 urtekoa, bere aldetik, lan egiten zuen enpresan batzar bat egin eta gero, 11:30ak inguruan, Gasteizko kaleetan egiten ari zen manifestazio batean zegoen; une horretan polizia-karga bat izan zen, eta su-arma baten tiroak jo zuen eskuineko hankan. Hasieran, Santiago Ospitalera eraman zuten, eta han ospitaleratu zenean, diagnostiko hau egin zioten: “ebakia, kontusioa eta zapaltze-lesioa dituen zauria, hematoma eta eskuineko hankako ehunen urratua”. Etxera bidali zuten. Zortzi egun geroago, haren egoerak okerrera egin zuela-eta, Gizarte Segurantzako “Ortiz de Zarate” Osasun Egoitzan ospitaleratu zuten, eta han tibiaren atzean zegoen bala bat atera zioten.

Bereizketarik gabeko su-armen tiroak gertuko etxebizitzetaraino heldu ziren. Egun horretako goizean, C.L.F. lan egiten ari zela, bala batek sukaldeko kristala zeharkatu zuen, eta, ondoren, hura jo zuen sorbaldan. Santiago Ospitalera eraman zuten, eta han su-armak eragindako eskuineko akromionaren haustura irekiarekin ospitaleratu zuten: sarrera-zuloa zuen deltoidearen parean, eta ez zegoen irteera-zulorik. Bala atera ziotenean, ospitaleratuta egon zen 1976ko martxoaren 10era arte, eta, ondoren, sendaketak egin behar izan zizkioten min hartutako lekuan; lanerako ezintasuna izan zuen 8 hilabete igaro ziren arte.

### **Kolpeak eta jipoiak Martxoaren 3ko goizean**

Goiz hartan ez ziren balaz edo gomazko pilotaz zaurituak soilik izan. Poliziak modu larrian kolpatutako hiru pertsonaren kasuak jaso zituen Batzordeak: osasun-laguntza behar izan zuten, eta kolpeen ondorioekin geratu ziren. Eguerdian, manifestazioan, poliziak esku hartu zuen Domingo Beltrán kalean, trafikoa mozteko. Lagun-talde bat bebarru batean babestu zen, eta, horren ondoren, polizia iritsi zen eta haiek kolpatzen hasi zen. Jipoitu egin zituzten, eta kalera atera zituzten arte jarraitu zuen jipoiak. Gero polizia aldentu egin zen.

G.C.M. zauritu egin zuten, eta Santiago Ospitalera eraman zuten. Jipoiaren ondoren, lesio larriak zituen aurpegian: aldebiko orbita-traumatismoa betazal-hematomekin (handiena, ezkerreko begian), eta ezkerreko orbitaren beheko ertzeko fisura; sudurreko hemorragia eta sudur-hezurretako traumatismoak, eta zauri ebakiduna ezkerreko eskumuturrean. Ebakuntza egin behar izan zioten, sudur-hezurak finkatu behar izan zizkieten, eta tratamendua eman zioten ezkerreko begiko lesiorako; ondoren, maiatzean, anestesia orokorrarekin ebakuntza egin behar izan zioten, jipoiaren ondoren ebaki zitzaion besoko nerbio medianoan. Aldi baterako laneko ezintasun-egoeran egon zen lau hilabetez zehar, eta begiko ondorioek gaur egun arte iraun diote.

J.I.I., 39 urtekoa, goizeko lehen orduko batzarraren ondoren, greban parte hartzen ari zen, eta Polizia Armatuko polizia-agenteeek eraso zioten. Poliziaren autobus bat geratu zen, poliziako kideak jaitsi ziren, eta grebalariak borraz kolpatzen hasi ziren. Poliziak lekua utzi zuenean, J.I.ri inguruko auzotar batek lagundu zion, eta Santiago Ospitalera eraman zuen. Ereku okzipitalean zauri irekia eta bizkarrean kontusio bat (ubeldura handi batekin) zituela iritsi zen. Ez zuen ospitaleratzetik behar izan, baina 25 egun egin zituen suspertzeko, eta tarte horretan lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran egon zen.

Orain arte adierazi diren kasuak Batzordera 1976ko martxoaren 3ko goizari buruz iritsitakoak dira. Baina egun horretako zauritu eta hildako gehienak arratsaldean gertatu ziren, Zaramaga auzoko Asisko San Frantziskoren parrokiaren arratsaldeko 5etarako deituta zegoen batzarrean.

## **Ke-potoak erabiliz eliza barruan egindako erasoak**

Esan dugun bezala, batzarra hasi zenean, Polizia Armatuak eliza inguratua zuen, eta husteko agindua eman zuen. Jendeak uko egin zion erlijio-esparru itxitik irteteari, eta biltzeko eskubidea erabiltzen jarraitu zuen modu baketsuan. Une horretan, Polizia Armata eliza barrura ke-potoak botatzen eta han batzartuta zegoen jendea jotzen hasi zen.

Batzarrean parte hartzen ari zenetako bat, P.O.B., korura joan zen, babestuago egoteko. Ke-potoekin giroa ezin arnastuzkoa egin zen; horregatik, txamarra kendu zuen, eta buruan jarri zuen, arnasa hartu ahal izateko. Gehiago ezin zuenean, zutik zegoela, ke-poto baten talka jaso zuen barrabiletan. Lagun

batek eraman zuen zaurituaren Zaramagako etxera, eta, azkenean, Gizarte Segurantzaren "Ortiz de Zarate" Osasun Egoitzan artatu zuten: hematoma handi bat zuen eskrotoan, istiluen kontrako poliziak botatako ke-potoaren talkaren ondorioz, eta 14 egun egon zen ospitaleratuta. Ondoren, hilabete egon zen lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran, eta gaur egun gertaeraren ondorio asko ditu.

Bizirik atera zirenek nahasmen eta indarkeria handiko uneak izan zirela kontatu zuten. S.D.F.k, eliza kanpoan egiten ari ziren errepresio masiboa ikusirik, sakristia barruan egotea erabaki zuen; han, ehunka pertsona zeuden bilduta. Azkenean, arnasa hartzeko aire faltagatik luzaroago iraun ezin zuela-eta, kanpora ateratzea erabaki zuen. S.D.F.k konortea galdu zuen, eta, esnatu zenean, inguruko auzotar baten etxean zegoen. Suspertu zenean, oinez joan zen etxera. Hurrengo egunean, bizilagun batek Gizarte Segurantzaren "Ortiz de Zarate" Osasun Egoitzara eraman zuen, ondorez handia baitzuen, eta kolpeak gorputz osoan. Ospitaleratuta egon behar izan zuen martxoaren 9ra arte. Gas negar-eragileak arnasteagatik pneumonia diagnostikatu zioten, eta ondorioak utzi dizkio gaur egunera arte. Komeni da adieraztea ke-potoak leku itxi eta jendetsu batean erabiltzeak (elizak ezaugarri horiek zituen) egun hartan eragindako kalteak baino handiagoak eta biktima gehiago ekar zitzakeela, egoeraren arriskua zela-eta.

## **Jasotako kolpeek zaurituak**

Bestalde, irtetean, pertsona asko kolpatu zituzten borraz eta armaz. I.V.R. atzeko atetik atera zen, eta hiru polizia aurkitu zituen alde bakoitzean: ateratzen zirenak kolpatzen zituzten igaro ahala. Korrika atera zenean, polizietako batek zango traba egin zion, eta lurrera erori zen. Altxatu orduko, min handia antzeman zuen besoan; horregatik, anbulantzia baten bila joan zen, eta hark Santiago Ospitalera eraman zuen. I.V.R. ospitaleratu zutenean, ezkerreko eskumuturreko erradioaren eta kubitua mutur distaletako haustura itxia zuen. Ebakuntza egin zioten, hausturak erreduzitu zizkieten, eta besoa igeltsuz immobilizatu eta finkatu zioten. Ebakuntza ondoko bilakaera normala izan zen, eta bi egun egon zen ospitaleratuta. Hausturak bi hilabeteren buruan sendotu ziren, eta, ondoren, I. beste bi hilabete eta erdi egun zen errehabilitazio-tratamenduan.

P.S.R., 19 urtekoa, eta haren lagun bat eliza barruan zeuden. Nahasmena tarteko, lagunagandik aldendu zen. Elizatik atera zenean (orain ez du oso ondo

gogoratzen nondik irten zen), polizia bat borra batekin jotzen hasi zitzaion, eta eskuineko begian jo zuen. Santiago Ospitaleko larrialdi-zerbitzura joan zen oinez, eta handik Gasteizko Ospitale Militarrean bideratu zuten, soldadutza egiten ari baitzen. Ospitale Militarrean 1976ko martxoaren 12ra arte egon zen ospitaleratuta, eta data horretan Burgosera bidali zuten. Diagnostiko hau egin zioten: eskuineko begiko kontusioa, aurreko ganberako hemorragiarekin; eskuineko orbitako kontusioa, betazaleko ubeldurarekin eta konjuntibako hemorragiarekin; konjuntiba azpiko ubeldura eta eskuineko betazal aldeko kontusioa, higadurekin.

*“Ondo” jo ninduen...Egun hartan edozein jotzen zuten, berdin zitzaion gizon edo emakume izan, gazte edo adineko...Hiriaren aurkako bidegabekeria izan zen, hiriak aldarrikatzen baitzuten askatasunak eta benetako aldaketa.*  
P.S.R.

## Hildakoak

Poliziaren esku-hartzearen ondorioz, hiru pertsona hil ziren martxoaren 3an, Zaramaga auzoko Asisko San Frantzisko elizaren inguruan. Batzordeak gertaera horien testigantzak jaso ahal izan zituen, hildakoen familiakoek emanak.

Poliziaren tiroek hildako lehena P.M.O. izan zen, 27 urtekoa eta Forjas Alavesas enpresako langilea. Elizatik atera eta bere burua babesten ahalegintzen ari zela hil zuten. Ezkerreko saihetsean harrapatu zuen bala batek. Haren odola erabiliz, hildakoaren lagunek “Justizia” hitza idatzi zuten hilda erori zen lekuan.

F.A.C., Zaramaga auzoko bizilaguna, 17 urtekoa, ikasten eta okindegi batean lan egiten ari zen aldi berean. Tiro batek jo zuen buruan, P.M.O. hil zuten lekutik oso hurbil. Biak zihoazen korrika, lekukoaren arabera, handik ihes egitearren. F.A.C. balaz zauritutako beste batekin batera, A.L.A.rekin, sartu zuten automobil batean, eta San Jose Poliklinikara bidean hil zen.

Zertxobait lehenago, Agrator enpresako R.B.C. langilea, 19 urtekoa, Polizia Armatuak bertatik bertara botatako tiro batek harrapatu zuen, elizatik irtetzean. Larri zaurituta, zainketa intentsiboen unitatean (ZIU) ospitaleratu zuten, baina martxoaren 3ko 23:00etan hil zen. Berandu zenez eta R. etxera (Errekaleor

auzoan bizi zen, familiarekin) iristen ez zenez, aita, urduri, semearen bila joan zen, susmo txarrenak zituela. Ospitale guztietara joan zen, eta, azkenean, gorputegian aurkitu zuen.

Egun hartan, bazkaldu ondoren, B.P.M.k -31 urtekoa eta Grupos Diferenciales enpresako langilea- ez zuen San Frantzisko parrokiako batzarrera joateko asmorik. Baina Nafarroako Errege-erreginen kaletik eliza barruan zeuden pertsonen oihuak entzuten hasi zen. Kale horretan bizi zen B.P.M., elizatik berrehunen bat metrora. Azkenean, oihuka ari ziren pertsoneri laguntzeko hurbildu zen hara. Nahasmen handiko une horretan, zenbait bala-inpaktu jaso zituen, bata oinean eta bestea bizkarrezurrean. Lurrera erori ondoren, polizia-talde batek kolpeak eta ostikoak eman zizkion.

Familiakoak Santiago Ospitalera iritsi zirenean, B.P.M. oso egoera larrian aurkitu zuten. Erabat ubelduta zegoen, eta hesgailuak jarrita zituen gorputz osoan; bala bat zuen bizkarrezurrean eta beste bat oinean, baina, hala ere, ez zuen konortea galdu.

Hurrengo bi egunetan haren emazte M.C.k gaizki pasatu zuen, semea etxean baitzegoen eta ez baitzuen etxera, haurra zaintzera, itzuli beste aukerarik; gainera, aldi berean, M.C. bere segurtasunaren beldur ere bazen, Polizia Armatuak zelatatzen eta zaintzen baitzuen. Oso hilabete gogorra izan zen: B.P.M. poliki-poliki itzaltzen joan zen, eta medikuek ezin izan zuten ezer egin haren bizitza salbatzeko; azkenean, 1976ko apirilaren 8an, hil egin zen.

Emaztearentzat eta hildakoen beste familiako batzuentzat bakardade handiko uneak izan ziren, une horietan gurasoen eta ahizpen laguntza besterik ez baitzuen izan. Egoera ekonomiko oso larrian bizi zen; izan ere, M.C.k ez zuen inolako diru-sarrerarik edo laguntzarik jaso, zenbait hilabete igaro eta alarguntasun-pentsioa onartu zioten arte; hori gutxi ez, eta semeak osasun-arazo larriak zituen.

J.C.G. ere, 32 urtekoa eta Basa enpresako langilea, B.rekin batera hil zuten. Inguruan aparkatuta zuen autoa urruntzeko asmoarekin jaitsi zen kalera. Automobil berria zuen, eta poliziaren esku-hartzeen ondoriozko gertakariak autoari kalte egingo zioten beldur zen. Dirudienez, eliza inguruan B. eta D.P. aurkitu zituen, biak ere ezagunak; gertaerak nola jazo ziren ez dakigu oso ondo, baina kontua da bai J.C., bai B.P. indar polizialek bereizketarik gabe botatako tiroek harrapatu zituztela. J.C. oso larri ospitaleratu zuten, eta, azkenean, martxoaren 7an hil zen.

## Balaz zaurituak

Batzordera etorri ziren biktima gehienak su-armaz zauritu zituzten, eliza jendez behartuta hustu ondoren. Polizia Armatuak bereizketarik gabe egin zuen tiro elizatik ateratzen ari zen pertsona-uholdearen aurka, eliza barrura ke-potoak bota eta gero. Eraso hori egiteko moduak erakusten du biktima asko eragiteko prestatuta zegoela, su-armekin tiro egiten baitzuten izututa ihes egiten zutenen aurka. Gainera, su-armaz zauritutako asko polizia-agenteeek kolpatu zituzten ondoren, lurrean zeudela. Batzordeak su-armaz zauritutako 33 kasuren berri jaso zuen, hildako bost pertsonak kontuan izan gabe.

J.S.U.C.k 19 urte zituen, eta Sansomendiko enpresa txiki batean egiten zuen lan. Enpresaren neurria zela-eta, hango langileek ez zuten normalean batzarretan eta grebetan parte hartzen, baina 1976ko martxoaren 3 hartan parte hartu zuten. Nagusiari etxera lagundu ondoren, arkupe batzuetan oinez zihoala, metrailletaz egindako tiro-sorta bat entzun zuen. Haren aurretik zihoan pertsona bat atzeraka erori zen, kopetan tiro bat zuela. Handik oso gutxira, hark ere tiro bat jaso zuen hankan, eta beste bat besoan. Lurrean zegoela, zenbait polizia-agente hura kolpatzen hasi ziren, eta sudurra hautsi zioten. Auzotar batek lehen solairura igo zuen, eta han tornikete bat egin zioten hankan. Ospitalera eraman zutenerako, pare bat ordu igarota zeuden, eta berehala egin zioten ebakuntza. Hankako zauriak bala-sarrera eta -irteera zituen, eta tibiari eragin zion. Besoko zauriak ez zion eragin inongo hezurri.

L.M.S.I.A. eliza barruan zegoen, eta, sortu zen nahasmen ikaragarria tarteko, bere neska-lagunagandik aldendu zen. L.M. leiho batetik atera zen, eta Polizia Armatuko polizia-agenteen bi ilara aurkitu zituen jendearen zain. Saihestea lortu zuen, eta, ondoren, polizia-furgoi batekin topo egin zuen; handik polizia-agente batek tiro-sorta bat bota zuen. L.M.k bala-inpaktu bat jaso zuen ezker belaunean, konortea galdu zuen eta norbaitek etxebizitza batera eraman zuen. Etxebizitzaren jabeak hesgailu bat jarri zion hemorragia eteteko, eta han egon zen 3 edo 4 ordu igaro ziren arte. Orduan, ambulantiak iristen hasi ziren; L.M. ohatila batean jasotzera igo ziren, eta Clínica de la Esperanzara eraman zuten. Handik Gizarte Segurantzako "Ortiz de Zarate" Osasun Egoitzara eraman zuten: su-armak egindako zauri bat zuen, ezkerreko belaunaren parean sarrera- eta irteera-zuloak zituen, eta fisura bat errotulan.

N.M.D. elizako atean zegoen, gainerako pertsoneri irteten laguntzen, eta arranpa bat sentitu zuen eskuineko besoan; hasieran, gomazko pilota bat zela



pentsatu zuen. N.M.D. jauna su-armak eskuineko besoaren erdiko herenean egindako zauri batekin ospitaleratu zuten: sarrera- eta irteera-zuloak zituen zauriak atzeko barnealdean. Ospitaleratuta egon zen 1976ko martxoaren 6ra arte, eta lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran 24 egunean. Izandako zauriez gain, lankide bat martxoaren 3an hildako baten aita izateak psikologikoki eragin zion.

Elizatik ateratzen ari zela, J.M.F.L.k bala-inpaktu bat jaso zuen lepauztaiaren inguruan, eta Osasun Egoitzara eraman behar izan zuten. Bala eskuineko erdi-toraxaren lepauztaiaren azpiko aldean sartu zen, eta lepoko eskuineko tiroidearen alboko aldetik atera zitzaion. F.G.M.k ere bala-inpaktua jaso zuen, eta bat-batean eraman zuten Santiago Ospitalera. Zauri bat zuen toraxean: sarrera-zuloa, lepauztaiaren erdiko lerroaren eskuineko aldean, eta irteera-zuloa, eskuineko saihetsean. Beste sarrera-zulo bat zuen eskuineko besoko bizepsaren aldean, eta irteera-zuloa eskuineko ukondoan.

Beste biktima batzuk ez ziren elizara sartu, eta inguruan geratu ziren. J.O.D. atzeko aldean geratu zen, udal-hiltegiko hesiaren alboan. Eliza barruan zegoen jendearen oihuak entzuten hasi zen, eta leihoetako batera hurbildu zen, jendeari irteten laguntzeko. J.k kolpe bat jaso zuen hankan, eta une oro pentsatu zuen gomazko pilota baten talka izan zela; 20:00 orduak izango ziren gutxi gorabehera bala-inpaktu bat jaso zuela konturatu zenean. Osasun Egoitzan ospitaleratu zuten: pronostiko larriko femurraren haustura zuen, eta bala-zauri bat ezkerreko izterrean. Soldadutza egiten ari zenez, Gasteizko Ospitale Militarrena eraman zuten. Han ebakuntza egin zioten, eta femurrean zuen bala atera zuten. 69 egun egon zen ospitalean, preso; familiakoen eta lagunuen bisitarik hartzen ez zioten utzi, eta edozein motatako baimenak debekatu zizkieten. Ondoren, ospitalean alta eman zioten, baina lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran egon zen 222 egunez.

C.T.G.k, bere aldetik, elizatik irtetea eta handik 300en bat metro aldentzea lortu zuenean, bala-inpaktu bat jaso zuen eskuineko hankan, eta lurrera erori zen. Polizia Armatuko kide batzuk hurbildu zitzaizkion eta jipoi bat eman zioten. Poliziak lurrian botata utzi zuenean, Osasun Egoitzara eraman behar izan zuten. Eskuineko hankako erdiko herenean bala-inpaktua eta atzeko aldean irteera-zuloa izateagatik ospitaleratu zuten. 2. mailako erredura ere bazuen eskuineko eskuko lehen, hirugarren eta laugarren hatzetan. Tratamendu kirurgikoa behar izan zuen, eta ospitaleratuta egon zen martxoaren 10era arte.

Bestalde, J.M.O.G.k elizatik irtetea erabaki zuenean, polizia-lerro bat aurkitu zuen; lerro horretako poliziak benetako tiroak botatzen ari ziren. Une horretan, oso gertutik, eskuineko hankan tiro egin zioten. Hasieran, J.M. ez zen konturatu tiro batek jo zuela; korrika atera zen eta hiltegiako hesitik salto egin zuen. Zauritu egin zutela eta hankatik odola ateratzen zitzaiola konturatu zenean, lagun batzuek Osasun Egoitzara eraman zuten, eta han ospitaleratu egin zuten. Tiroak hanka zeharkatu zion: zauria garbia zen, eta muskulu-masa galdu zuen. Ez zen ebakuntza egin beharrik izan, baina egun batzuk ospitaleratuta egon zen.

D.A.P.k ere bala-inpaktu bat jaso zuen ezkerreko hankan, ihesean elizatik irteten ari zela, eta lurrera erorazi zuen. Lagun batek bere automobil partikularrean eraman zuen Osasun Egoitzara. Bala ezkerreko izterrean geratuta zegoenez, atera egin zioten, eta bi zulo utzi zizkioten drainatzearekin. Bi zauriek bilakaera oso geldoa zutenez, beste ebakuntza bat egin behar izan zitzaion: hamabost egun egon zen ospitaleratuta, eta hilabete gutxi gorabehera, bajan.

J.A.M.H.k ere polizia-lerroaren aurrean aurkitu zuen bere burua. Poliziak benetako balekin ari ziren tiroka, eta tiro batek ezkerreko torax-erdian harrapatu zuen, irteera-zulorik gabe. Santiago Ospitalean ospitaleratu zuten. Egoera larrian zegoen, balak diafragma eta gibela zulatu baitzizkion: irteera-zuloa gibelaren eskuineko lobuluaren goiko aldean zuen, eta bala eskuineko erdi-toraxaren azalpeko ehunean geratu zitzaion. ZIUn egon zen hasieran; ondoren, 1976ko martxoaren 25era arte egon behar izan zuen ospitaleratuta.

“Hura infernu bat bihurtuta zegoen”. Horrela kontatu zion Batzordeari M.A.O.U.k bizi izandako egoera. Aitarekin zegoen eliza barruan, eta leihoetako batetik atera ahal izan zen kanpora. Orduan, bala-inpaktu bat jaso zuen ezkerreko hankan. Aitak lagunduta, lekutik alde egin ahal izan zuen, eta etxebizitza partikular batean babestu ziren. Azkenik, anbulantzia bat lortu zuten, eta Santiago Ospitaleraino eraman zuten. Ezkerreko tibiaren haustura irekia zuen, su-armaren zauriaren ondorioz. Ospitaleratu zutenean, ebakuntza egin zioten, eta tibiaren buru barnean zegoen bala atera zioten. 10 egunez egon zen ospitaleratuta, eta ondorioak gaur egun arte heldu zaizkio.

Egoera berean, F.A.G. ere, 43 urtekoa, su-armaz zauritu zuten: sarrera-zuloa eskuineko izterrearen atzeko aldean zuen, eta irteera-zuloa aurreko aldean; ebakuntza egin behar izan zioten. Zortzi egunez egon zen ospitaleratuta, eta, ondoren, errehabilitazioa behar izan zuen bi hilabete baino gehiagotan. Gertaera horiek nerbio-krisi sakona eta ondoez larria eragin zizkioten haren neska-lagunari;

hori dela eta, ezin izan zituen seme-alabak zaindu aldi batean, eta familiakoek hartu zituzten.

Zaurituetako batek baino gehiagok adierazi zuen operazioan metrailetak erabili zirela. Tiro-sorta batek J.M.G. harrapatu zuen. Ezin ikusi izan zuen nork egin zituen tiro haiek, ez eta nondik egin zituzten ere; aurpegian inpaktu bat sentitu zuen, baina ez zen lurrera erortzera iritsi. Bi mutilek beren auto partikularrean eraman zuten Santiago Ospitalera. Ospitalean su-armak zaurituta sartu zuten: sarrera-zuloa ezkerreko masailean zuen. Jaurtigaiak goiko eta beheko maxilarrak hautsi zizkion, eta, ondoren, lepoaren multzo nerbio-baskularraren ezkerreko aldean geratu zen; aurretik, hirugarren orno zerbikala jo zuen, hautsi gabe. Ebakuntza egin zioten, eta 14 egun egin zituen ospitaleratuta; lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran egon zen 1977ko irailaren 24ra arte.

S.T.M., bere aldetik, su-armaz egindako tiro batek iztaian harrapatu zuen. Zauria ixten saiatu zen, eta eliza aurrean dauden arkupeetaraino iritsi zen. Han, auzotar batek lagundu zion, eta Osasun Egoitzara eraman zuen automobil partikularrean. Su-armak alde bereko sarrera- eta irteera-zuloa zuen zauri bat egin zion, eta ospitaleratu egin zuten: eskrotoaren eskuineko aldetik sartu zen bala, eta ezkerreko aldetik atera. Ebakuntza egin behar izan zioten. 12 egun egin zituen ospitaleratuta, eta 30 hilabete lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran.

F.A.H.k Batzordeari kontatutako xehetasun batzuek gertaerek eragindako izu-maila eta egileen xedea erakusten dute. Eliza uzten ahalegindu zen leihoetako batetik. Polizia bat hura jotzera joan zen, baina hanka egin zion; ondoren, polizia berak tiro egin zion eta gerialdean harrapatu zuen. F.A.H. lurrera erori zen, baina berehala altxatu zen, eta korrika jarraitu zuen. Odol asko botatzen ari zenez, berehala eraman zuten Osasun Egoitzara. Ospitaleratu zutenean, diagnosi hau zuen: "kontusioa, ubeldurarekin eskuineko besaurrearen erdiko herenean; eta su-armaz egindako zauria, sarrera-zuloa gerialdearen ezkerrean eta irteera-zuloa saihets-sabelen eskuinaldean zituena". 10 egunez egon zen ospitaleratuta, eta, ondoren, 60 egunez egon zen lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran. Une hartan, eragin psikologikoa handia izan zen, sarritan esnatzen baitzen ametsen eta amesgaiztoen ondorioz.

A.L.A.k bi tiro jaso zituen, metrailetaz edo subfusilez egindako tiro-sorta batzuek ezustean harrapatu zutenean: batek eskuineko peronea zeharkatu zion, eta, besteak, eskuineko ipurmasaila. A.L.A.ren ondoan, F.A. hilda erori zen, kopetan bala-inpaktua zuela. A.L.A. gertuen zegoen bebarrura eraman zuten, Errege-

erregina Katolikoan kalean, eta lehen solairura igo zuten. Han bi emakumek torniketean egin zioten. Une batzuk geroago, etxebizitzatik jaitsi zuten, eta auto batean sartu zuten F.A.rekin batera; ordurako F.A. azkenetan zegoen. San Jose Poliklinikarako bidean, Badaia kalearen inguruan, F.A. jauna hil egin zen, A.L.A.ren sorbaldan burua zuela. Azken hori, bere aldetik, ospitaleratu egin zuten, eta urgentziaz egin zioten ebakuntza, zauriak tratatzeko.

Urrunago zeuden beste pertsona batzuei ere bota zizkien tiroak Polizia Armatuak. J.J.R.G. kalearen hasieran zegoen, pixka bat aldenduta, baina babesik gabe zegoela konturatu zenean eta leku seguruago batera joateko bira egin zuenean, bi tiro sentitu zituen: lehena, ezkerreko hankan, eta bigarrena, eskuinekoan. Hasieran, gizon bat hurbildu zitzaion; bizkarretik helduta arrastaka eraman zuen eta babesean jarri zuen. Ondoren, ibilgailu batean eraman zuten San Jose Klinikaraino beste hiru zauriturekin batera. Tiroen ondorioz, klinikan ospitaleratu zutenean, alde berean sarrera- eta irteera-zuloak zituen zauria zuen eskuineko hankan, eta tibiaren eta peronearen zati anitzeko haustura irekia ezkerreko hankaren beheko herenean. Ebakuntza-gelatik igaro ondoren, klinikan egon behar izan zuen hilabetez, hanka immobilizatuta zuela. J.J.R.G. umezurtza zenez, bere osaba batek hartu zuen etxean, eta han egon zen sei hilabetez igeltsatuta, mugitu ezinik. Ondoren, zailtasunak izan zituen ibiltzen hasteko, eta 1978ra arte ez zen hasi bizimodu normal samarra egiten.

## **Beste batzuei laguntzen ahalegintzean balaz zauritutakoak**

J.R.P. jauna ez zen batzarrera joan, baina Asisko San Frantziskoren elizatik oso gertu bizi zen, eta kalean zegoen istiluak ikusten. Hain zuzen, auzotar batekin zegoela, istilu horietan hil zen biktimetako bat haien aurrean erori zen. J.R.P. biktimari laguntzera joan zen, eta makurtzen ari zen unean, erredura bat iruditu zitzaion zerbait sentitu zuen saihetsean. Une horretan ez zuen antzeman tiro batek jo zuela; beste pertsona batek jakinarazi zion odola botatzen ari zela. Automobil partikular batean Gizarte Segurantzaren Osasun Egoitzara eraman zuten. Eritegian, ospitaleratu egin zuten: ezkerreko hutsunean su-armak egindako sarrera-zuloa zuen, eta irteera-zuloa gerriaren ezkerrean. Ebakuntza egin zioten, eta 1976ko martxoaren 12ra arte egon zen ospitaleratuta; gainera, 45 egunez egon zen lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran.

A.O.A. ere beste pertsona bati laguntzen ahalegintzen ari zela zauritu zuten. Elizaren atera iritsi zenean, Polizia Armatuak polizia-agentez betetako autobus

bat aurrean jartzen zela ikusi zuen, eta polizia horiek ilaran jarri eta tiro egiten hasi ziren. Tentsio eta nahasmen handiko une horretan, anaia lurrean etzanda zegoela ikusi zuen. Laguntzera makurtu zenean, bala-inpaktu bat jaso zuen bizkarrean. Santiago Ospitalera eraman zuten, eta han su-armaz egindako zauri baten ondorioz ospitaleratu zuten: gerrialdearen ezkerretik sartu zen bala, eta bizkarretik atera zitzaion, gerriko L2 ornoan jo ondoren. Ebakuntza behar izan zuen gerrialdean, L2-L3 ornoen inguruan. Lanerako ezintasun-egoeran egon zen 30 egunez.

Elizan ez zeuden baina zaurituei laguntzera hurbildu ziren beste pertsona batzuk ere zauritu zituzten. M.S. atsedean hartzen ari zen bere etxean. Dei bat jaso zuen, San Frantzisko elizako jendeari irteten laguntzera joateko. Hara hurbildu zenean, erabateko kaosa aurkitu zuen. Jendeari irteten laguntzen aritu zen, eskuineko eskuan bala-tiro bat jaso zuen arte. Berehala eraman zuten automobil partikular batean Santiago Ospitaleraino, sabelean tiro bat zuen beste mutil batekin batera. Eskuineko laugarren hezur metakarpianoaren haustura irekia zuen: sarrera-zuloa eskuaren atzealdean zuen, irteera-zulorik gabe. Ebakuntza egin behar izan zioten eskuan, eta 117 egunez egon behar izan zuen lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran.

Une horietan, J.I.P.S. ere handik gertu zegoen, irteten ari zen jendeari laguntzen, eta bala-inpaktu bat jaso zuen sabelean. Ez zuen konortetik galdu, eta ez zen lurrera erori. Santiago Ospitalera eraman zuten, eta han ospitaleratu egin zuten: "sabelean bala-inpaktua zuen: sarrera-zuloa ezkerreko hipokondrioan eta irteera-zuloa bizkarrean, gerrialdearen ezkerrean". Diagnostikoa larria zen. Ebakuntza konplexua egin behar izan zioten (transrektala eta zilbor gainekoa). Hamaika egunez egon zen ospitaleratuta, eta hirurogei egun lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran.

J.L.B.Z. ezin sartu izan zen batzarrera, eta polizia elizaren leihoetatik kepotoak eta gas negar-eragileak botatzen ari zela ikusi zuenean, hura ere arnasa hartzeko zailtasunak zituen gazte bati laguntzera hurbildu zen. Une horretan toraxa zeharkatu zion tiro bat jaso zuen. J.L.B.Z. Osasun Egoitzara eraman zuten. Su-armaz egindako zauria zuen: sarrera-zuloa zeukan lepoan, hioidearen behealdean, eta jaurtigaia, eskuineko eskapula aldean. Lesioen larritasunagatik, urgentziatzko trakeotomia egin zitzaion, eta, ondoren, torakotomia eskuineko 7. saihsaren inguruan; hemotoraxa izan zuen (odola xurgatu behar izan zioten), bai eta saihsarteko basoen eta pleura parietalaren haustura ere (eskuineko 4. saihsarteko tartearen mailan, atzealdeko herenean). Jaurtigaia bizkarretik atera zitzaion.

## Gauean izandako beste zauritu batzuk

Elizan egiten ari zen batzarraren aurkako operazioa bukatu ondoren, eta tentsioz betetako lasaitasun baten erdian, grebalarietako batzuk gertatutakoa ikustera atera ziren, eta haiei ere polizia eraso zien. Hori gertatu zitzaion T.V.L.ri; 18 urte zituen eta batzarrera joan zen lagun batzuekin. Istiluetatik zauririk gabe irtetea lortu zuten, eta haietako baten etxera abiatu ziren. Zortziak aldera irtetea erabaki zuten, gertatutakoa ikustera. Arriagako Atearen inguruan zeudela, 3 jeep eta autobus bat igaro ziren poliziaz beteta; ibilgailuetatik jaitsi ziren, haietako hiru inguratu zituzten, eta borraz jotzen hasi zitzaizkien. Teodorok borra-inpaktu bat jaso zuen begian: ikusmena galdu zuen eta lurrean etzanda geratu zen. Azkenean, polizia haiek jipoitzeari utzi zionean, haren lagunek Osasun Egoitzara eraman zuten. Eritegia kolapsatuta zegoenez, lehen artapenak koltxoi batean egin zizkieten, erizainak biltzen ziren gela bateko lurrean. Jasotako jipoia ondorioz, kolpeek eragindako eskuineko orbitako traumatismoa zuen, eta begi-globoa erasanda zuen: aurreko ganberan hemorragia zeukan, eta begi horretako tentsioa igota. Ospitalera joaten jarraitu behar izan zuen 1976ko maiatzaren 6ra arte.

*Hitzik esan gabe eraso ziguten. Identifikatzeko ere ez ziguten eskatu, eta gu jotzen eta iraintzen hasi ziren. Haietako batek honela zioen: "Jo itzazue hil arte". T.V.L.*

Handik gutxira, lagun batzuk beren ibilgailua hartzera joan ziren, Abetxuko auzora joateko, han bizi baitziren. Une horretan, Guardia Zibilaren zenbait ibilgailu igaro ziren, eta gorputz horretako kide batzuk jaitsi egin ziren. A.B.D., bere anaiarekin batera, korrika hasi zen, eta guardia zibilek bizkarretik tiro egin zieten. Bala batek A.B.D. eskuineko hankan jo zuen, eta San Jose Poliklinikara eraman behar izan zuten. Bi ebakuntza egin behar izan zizkieten. 10 egun egin zituen ospitaleratuta, eta 40 hilabetez lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran.

## Hurrengo egunean

Beste pertsona batzuk hurrengo egunean zauritu zituzten, erasoak izan ziren lekuak ikustera joan zirenean. F.Y.P., 26 urtekoa, aurreko egunean Asisko San Frantziskoren parrokiaren izandako istiluen ondoren, lagun batzuekin geratu zen martxoaren 4an, leku hartako inguruak nola geratu ziren ikusteko. Batzordeari kontaktu ziotenez, une hartan ez zegoen inolako istilurik kalean, eta, inolako

probokaziorik gabe, poliziak eraso egin zien. F.Y.P.k hainbat kolpe jaso zituen buruan eta gorputzaren gainerako ataletan, eta, horren ondorioz, Santiago Ospitalera eraman zuten. Garezurreko traumatismoarekin, burmuineko kommozio arinarekin eta zenbait kontusioarekin ospitaleratu zuten. Gertaera horien ondorio gisa, buruko minak, zorabioak eta trauma ondoko estres ertaineko arazoa geratu zitzaizkion.

Martxoaren 4ko arratsaldean, A.T.D., 18 urtekoa, lagun batzuekin geratu zen, eta sarraskiaren lekua inguruak nola geratu ziren ikustera joan ziren. Une horretan ez zegoen liskarrik eta istilurik kalean. Ballester apezpikuaren kalean Polizia Armatuaren jeep bat ikusi zuten etortzen. Poliziak jaitsi eta haien atzetik korrika hasi ziren. A.T.D.k haurtzarotik zuen lesio bat ezkerreko begian, harrikada bat jaso baitzuen, eta, zerbait gertatzeko beldurrez, garaje bateko atera erretiratu eta burua estali zuen. Berehala hurbildu ziren harengana polizia-agenteak, eta bortizkeria handiz kolpatzen hasi zitzaizkion. A.k bere testigantzan adierazi zuen begiko lesioa zuela adierazi ziela, eta, arren, ez zezatela buruan kolpatu eskatu ziela; handik aurrera, jipoia eta buruko kolpeak areagotu besterik ez ziren egin. Besteak beste, Batzordeari kontatu zion bi polizia-agentek eskuetatik heldu ziotela, beste batek borraz jipoitzen zuen bitartean. Kolpeetako batek bete-betean jo zuen eskuineko begian, bere begi osasuntsuan; zorabiatuta utzi zuen kolpe horrek, eta ikusmena galdu zuen. Inguruko bizilagunek Santiago Ospitalera eraman zuten, eta han hilabetez egon zen ospitaleratuta. Begiko ikusmena berreskuratzen ez zuenez, ospitale batetik bestera ibili zen, eta arazoa konpondu ez zioten hainbat ebakuntza egin zituzten. Azkenik, eskuineko begiaren barrua kendu zioten 1986ko ekainean, eta begi barruko protesia jarri zioten.

## Ikerketarik ez

Gertaerak jazo eta hiru egunera, ospitalean zeudela, zaurituek Manuel Fraga Iribarne Gobernazio ministroaren eta Rodolfo Martín Villa Harreman Sindikalen ministroaren bisita izan zuten. Haien han egoteak tentsio handiko uneak eragin zituen berriro ere. Gertaeretatik bizirik atera zirenek Batzordeari kontatu zioten kalez jantzitako poliziak gela guztietatik igaro zirela, geletatik inor ez ateratzeko eta gertatutakoa ez kontatzeko agintzeko.

Gertaeren ondorengo egunak presio handikoak izan ziren, eta familiako eta bizirik atera ziren askok adierazi zuten kalez jantzitako polizia-agenteei zaurituen familiakoak zaintzen zituztela. Esate baterako, kalez jantzitako polizia sekretuko

kide bat J.M.O.G.ren etxera joan zen, eta galdeketa egin zion gertakariari buruz. Batzordean adierazi zuenez, oso une gogorak izan ziren; une horietan J.M.k ez zuen salatu nahi izan, errepresalien beldurrez; izan ere, mehatxatu egin zuten, gertatutakoaz hitz egin ez zezan.

*Polizia batek esan zidan salaketa bat ipintzea pentsatu ere ez egiteko, 'bestela, zure bila joango gara'. Ospitale barruan zeuden kalez jantzitako poliziek gauza bera errepikatu zidaten. Gelaz gela ibiltzen ziren, hau esanez: 'ezta txintik ere, eh!', ezer esan ez genezan. Eta horrela ikaratu ninduten bost urtez nire etxeko atarian, eta behin eta berriz errepikatzen zidaten 'ezta txintik ere', isilik egoteko keinua eginez ahoan. Horregatik ez nintzen joan M-3 elkartera. Beldur hori orokorra izan zen. Familiakoak Gasteiztik aldentutako lekuetan elkartzen ziren hiletak antolatzeko, mendian. Behin nire etxean sartu ziren, ez zidaten ezer lapurtu, baina paper guztiak hankaz gora jarri zizkidaten. Ondorioek iraun egiten dute, jazarpenak, itzal batzuk atzetik jarraika bazenitu bezala, eta, ezkondu nintzenean, nire bizitza aldatzea erabaki nuen; beste herrialde batera joan nintzen bizitzera, eta han bizi naiz gaur egun. J.S.U.C.*

Estatuko polizia-agenteen erantzukizuna gertaeretan nabarmena izan arren, Gobernuako arduradunek ez zuten erantzukizun politikorik onartu, eta polizia-agenteeak edo haien buruzagiak ez zituzten ez ikertu, ez epaitu gertaerengatik. Frogetako asko (balistikoa, esaterako) desagertu egin ziren, eta ikerketarik ez zen egin. Batzorde honek martxoaren 3ko gertaerekin lotuta jasotako testigantzetako asko bat datoz gertatutakoaren egia oraindik ere falta dela esatean.

*Egia zor digute, egindakoaren zergatia; esan dezatela aurretik prestatuta zegoela, ez dezatela gezurrik esan gertatutakoaz, ez dezatela ukatu goizetik tiroak egon izana ere, ebidentzia ukaezina baita... Niri ez zidaten deklaratzeko berriro deitu. J.O.A.*

*Bertsio ofiziala aldatzeko eta inpunitatearekin amaitzeko beharra dugu. Justizia egin diezaguten behar dugu. A.T.D.*

## **Ondorioak**

Lekukoan adierazpenetan eta Batzordeak aztertutako dokumentuetan oinarrituta egindako gertaeren berreraikitzeak ondorioztarazten du erasoak ezaugarri hauek izan zituela: koordinatua eta masiboa izan zen; su-armak erabiliz, gehiegizko



indarrez eta proportzionaltasunik gabe egin zuten; eliza batean bilduta zeuden langile batzuen batzarraren kontra eta pertsonen bizia arriskuan jarrita, jendez betetako lokal batera ke-potoak botata egin zuten; ondoren, su-armak erabiliz eraso masiboa egin zuten, bereizketarik gabe tiro eginez, elizatik ateratzen zirenen edo haiei laguntzen ahalegintzen zirenen aurka.

1976ko martxoaren 3an, Polizia Armatuak 5 langile hil eta 120 pertsona inguru zauritu zituen, bai goiz hartako manifestazioetan, bai aipatu den eliza-irteerako erasoan. Poliziaren jokatzeko modua ikusita (erabat mespretxatzen zuten erasotako langileen bizia), eta tiroen ibilbideak, bala-zaurien larritasuna (aurpegian, lepoan, toraxean edo sabelean, bai eta gorputz-adarretan ere) eta Gasteizko ospitaletan zauritutako askori arreta kirurgikoa eman behar izan zitzaizela aztertuta, hildakoak askoz gehiago ere izan zitezkeela ondorioztatzen da. Eta zauritutako pertsonak, gertaeretatik bizirik atera zirenek, ondorio larriei eta bizitza-aldaketa handiei aurre egin behar izan zieten. Inpunitatearen eragina barne.

### Martxoaren 3arekin lotutako beste biktima batzuk

Martxoaren 3ko errepresio masiboak, halaber, hainbat protesta eta manifestazio ekarri zituen Euskal Herriko lurraldeko beste zenbait lekutara: beste biktima batzuk eta beste kalte batzuk eragin zituen. 1976ko martxoaren 8an, V.A.F., 18 urtekoa, Guardia Zibilaren tiroek hil zuten Basaurin, egindako manifestazio horietako batean. Gertaerek eta galeraren eraginak hunkituta utzi zuten familia, eta makalaldi- eta tristezia-egoeran urte askotan.

Familiakoek berek adierazten duten moduan, *“familian ez zen berriro irribarre bat ikusi”*. V.A.F.ren heriotza gai tabu bat bihurtu zen, eta inoiz ez dute gertatutakoaz argi hitz egin: inhibizioa izan da nagusi oinazeari eta aitoren faltari aurre egitean. Familia urte askotan egon zen sendikoen eta herriko biztanleen babesa besterik ez zuela; herrian urtean behin oroitzen da gertaera.

Biktima hauek ez ziren jaso Batzordearen lanean, baina beste bi pertsona ere hil ziren gertaera horiengatik protesta egiteko ekintzetan. 19 urteko gazte bat, J.G.R.K., Tarragonan hil zen, teilatu batetik erorita poliziatik ihes egitean, Gasteizko gertaerak zirela-eta deitutako elkartasun-protestak egiten ari zirela. M.M., 52 urteko ingeniari bat, martxoaren 14an hil zen, Gasteizko bost hildakoekin elkartasuna adierazteko Erroman egindako manifestazio batera atera zenean.

## 7. Emakumeen aurkako sexu-indarkeria

### Aurrekariak

Diktaduran, II. Errepublikan aitortutako askatasun eta eskubide politiko eta sozial gehienak indargabetu ziren; testuinguru horretan, emakumeek jasandako zigorra bereziki gogorra izan zen, eta errepresioa gizonen baino krudelago bizi izan zuten. Erregimen errepublikanoaren edo Fronte Popularraren aldeko protagonismo handiena izan zuten emakumeek garaileen errepresioa eta mendekua zuzenean pairatu zituzten. Beste kasu batzuetan, militante ezagunen familia zuzena izateagatik (alabak, amak edo arrebak) edo, besterik gabe, legezketasun errepublikanoaren aldeko borrokalariak izateagatik zigortu zituzten.

Gizonen jasan behar izan zituzten errepresio-modu guztiak pairatzeaz gain, emakumeak, sarritan, jazarri, zigortu eta trofeo bat balira bezala erakutsi zituzten beren bizilagunen aurrean. Emakume askori burua larru-arras moztu zieten, errizino-olioa irenstera behartu zituzten eta biluzik paseatu zituzten, zigortzearen. Beste batzuk bortxatu egin zituzten. Gerraren amaierak horrelako zigorrak poliki-poliki bukatzea ekarri zuen, baina sexu-erasoek, jazarpenek eta larderiek denboran iraun zuten ohiko praktika gisa, eta horri erregimenak nazional katolizismoa benetako dotrina politiko eta moral bihurtzeak lagundu zion; izan ere, emakumeak etxeko eremura murrizteko ahal zuen guztia egin zuen frankismoak, eta gizonen agintaritza eztabaidaezinenaren mende jarri zituen.

Espainiako gizarteak berezko bilakaera izan zuen diktaduran zehar, baina, hala ere, emakumeen egoera juridikoa eta jasan behar izan zuten presio soziala kostata aldatu zen. Alderdi funtsezkoenetan, 1978ko Konstituzioa promulgatu arte itxaron behar izan zen gizonen eta emakumeen arteko gero eta berdintasun legal handiagoa lortzen joateko. Izan ere, hirurogeiko hamarkadaren hasieran, emakumeek beren lanpostua utzi behar izaten zuten ezkondu eta gero, sektore jakin batzuetan izan ezik, hala nola irakaskuntza eta osasungintza. Ezin zituzten eragiketa ekonomikoak egin beren aiten edo senarren baimenik gabe, eta gizonei aitortzen zitzaizkien eskubide urriak ere ez zituzten.

Krimen sexistak “pasio-hilketatzat” hartzen ziren, eta krimen horien biktimak hamarkadatan ia ikusezinak izan ziren. Egoera hori are larriagoa izan zen erasoak

eta abusuak, bai eta bortxaketak ere, ordena publikoko indarretako kideek egin zituztenean; izan ere, erregimen frankistan, indar horien agintea eztabaida ezina zen, eta emakumeek gertaera horiek salatzeke gaitasuna, berriz, pentsaezina, kontuan izan behar baitira erasotzaile horien mehatxuak, bai eta gizartean segurtasun-indarrek zuten ospea eta inpunitatea ere.

### Batzordean aurkeztutako kasuak

Batzordean, emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren kasu batzuk aurkeztu zituzten. Lehen kasua Guardia Zibileko kideek etxe baten miaketan egindako bortxaketa izan zen. Batzordean jasotako beste kasuak sexu-indarkeriazkoak dira, atxiloketen testuinguruan indarkeria hori tortura gisa erabiltzearekin lotuak.

## Bortxaketa etxe baten miaketan

Kasu honen ezaugarriek (zenbait praktika eta defentsarik gabeko egoera orokorra) biktimak pairatu zuen esperientziaren baldintzetan arreta berezia jartzea eskatzen dute. Izan ere, arma baten desagerpenari buruzko polizia-ikerketak batek emakume baten aurka haren etxean egindako sexu-erasoa ekarri zuen, beldurra eta Guardia Zibilaren boterea nagusi zen testuinguru batean.

A.M.k graduazio<sup>11</sup> altuko militar baten etxeko etxe-zerbitzuan egiten zuen lan, eta harreman ona zuen militarren familiarekin. Militarra hil ondoren ere lan berdina egiten jarraitu zuen haren emaztearentzat eta semearentzat.

1968ko apirilean, bi guardia zibil militarren neskamearen etxean sartu ziren, plakak erakutsi eta ustezko agindu judizial bat aurkeztu ondoren, ez baitzieten utzi zekarten gutuna irakurtzen. Bakarrik zegoen etxean. Dirudenez, arma bat desagertu zen A.M.k lan egiten zuen militarren etxean, eta susmagarritzat neskamea zeukaten. Etxea miatu zuten, txikizio ugari eginez, eta ez zuten pistola aurkitu.

---

11 Izenei eta beste xehetasun jakin batzuei buruzko datu zehatzak ez dira aipatzen, biktimaren identitatea babesteko.

*Bihurkin batekin moketa jaso zuten, eta linternaz begiratu zuten armairuen barruan. Ondoren, guardia zibiletako batek "utz ezazu" esan zuen, eta besteak "ez noa gustura; hitz egin beharko du, nahi ala ez...". Sukaldean etzan ninduten, eskuak mahaiaren hanketan lotuta, arropa kendu zidan... "Kontuz ibili. Zure senarra etortzen bada eta salatzen banau, haren zain egongo naiz..."*

Galdeketa egin zioten, mehatxatu egin zuten, eskuak mahai baten hanketan lotu zizkioten eta haietako batek bortxatu egin zuen. Bortxaketa amaitu eta gero, berriro mehatxatu zuten: haren senarra espetxean sartuko zutela, erasoari buruz zerbait kontatzen bazuen. Ekintza horien testuinguru politikoak eta sozialak (eta kulturalak ere bai) lagundu egiten du gertaerak eta haien ondorioak ulertzen. Emakume bat bakarrik, Espainiako armadako goi-mailako militar baten etxe-langilea, lapurreta baten susmagarria, eta bere etxea miatzen duten Guardia Zibileko bi kidek bortxatu egiten dute. Gainera, bai A.M.ren familiak, bai haren senarrarenak aurrekariak zituzten, gerra zibilaren ondoren errepresio frankista jasan zutelako.

*Urte haietan etengabeko beldurrean bizi ginen; orain gurasoek neskak babesten dituzte, baina orduan ezin zen horretaz hitz egin. Are beldurtuago nengoen urte asko lehenago gertatutakoagatik, nire aita baserrira etortzen zenean, sabai bikoitz batean ezkututzen baitzen, Guardia Zibila haren atzetik zebilela eta.*

Bortxaketa haren ondorioz, A.M. haurdun geratu zen; depresio sakona izan zuen, eta bere buruaz beste egitean pentsatu zuen hilabetetan; ezkutuan abortatzera behartuta ikusi zuen bere burua, oso baldintza eskasetan eta arriskutsuetan. Haren testigantzaren arabera, Guardia Zibilak berriro ere jazarri zuen, A.M.ren etxean berriro sartzen ahalegindu baitzen; baina ez zien inoiz gehiago atea ireki. Hamarkadatan, drama hori bakardade sakonean bizi izan zuen, jasandako eraso inori kontatu gabe.

*A zer lotsa. Oso gaizki nengoen. Ba al dakizu zer den, hori barruan duzula, bakarrik egotea? Guardia zibil gazteenak gertaera sala ez nezan egindako mehatxu guztia, nire senarra jazartzeko mehatxua. Joan zirenean, lotuta utzi ninduten. Urte askotan zehar, ez nion ezer esan nire senarrari, minik ez emateko, lasai egon zedin. Norbaitek jakiteko beldur nintzen; esate baterako, nire amak norbaitekin hitz egitearen beldur, amari kontatu egin bainion. Hori ospitalean oso gaixorik egon nintzenean gertatu zen; horregatik kontatu nion.*

Gertaera izugarri traumatiko horren ondorio nagusiak psikologikoak izan ziren, eta bortxaketa batekin sarritan gertatzen diren sintoma klinikoekin bat datoz ondorio horiek. Trauma ondoko estresa izan zuen, arazo handiak zituen lo hartzeko; amesgaiztoek esnatzen zutenean, larritasun eta amorru handiak izaten zituen, bai eta lotsa- eta erru- sentipenak ere. Gainera, depresio-aldi luze bat izan zuen, eta bere buruaz beste egitetik gertu egon zen; ordutik tratamenduan egon da (psikofarmakoak hartzen ditu).

*Semea nuelako. Baina bakarrik egon izan banintz, ahal nuen pilula guztiak hartuko nituen, eta agur, bizitza amaituko zen. Hori ezin da jasan. Baina, urte gutxiko nire semeak, zer erru zuen? Nola utziko nuen amarik gabe? Harrezkero, beti hartzen ditut pilulak lo egiteko; hona [Batzordera] etorri aurretik ere bat hartu dut.*

Une hartan aurrera jarraitzera bultzatu zuen bakarra semea izan zen. Bestalde, sexu-arloan ere oso ondorio kaltegarriak izan zituen, eta bizitza osoan iraun dute.

Ondorio horiek bizitza pertsonala guztiz baldintzatu diote, gertatutakoa ez baitzion inori kontatu nahi, ezta bere senarrari ere. Orain dela gutxi, iktus baten ondorioz, ospitaleratu egin behar izan zuten; eta, orduan, buru-nahasmeneko une batean, xehetasun batzuk kontatu zituen. Ondoren, bere onera etorri eta gero, senarrari guztia kontatzea erabaki zuen. A.M.rentzat liberazio handia izan da, 45 urte izan baitira isilpean sufrituz; senarrari, aldiz, izugarri erasan dio kontatu izanak.

Kasu honek garbi erakusten du sexu-indarkeriaren biktimen bizitzetan nagusitu den isiltasun handia. Biktima horietan, zauria eta aitorten falta nabarmentzen dira, eta oso ondorio fisiko eta psikologiko larriak uzten dizkie; gainera, salaketak emakumeei dakarzkien ondorio subjektiboak oztopo izugarria bihurtzen dira emakumeentzat. Halaber, hurbileko familian eta bikotekideagan bortizkeria horrek duen eragina ere ikusten da. Batzordearentzat erronka izan zen kasua eta kasuaren osagai diren iritzi guztiak batera entzutea, eta,aldi berean, kontuan izatea ez zela eraso pribatua izan, baizik eta Guardia Zibileko kideek egindako etxebizitza baten miaketaren testuinguruan gertatua, emakumearen isolamendu- eta izu-testuinguru batean. Emakumeen aurkako indarkeria-modu horiek inguratzen dituen isiltasunak are balio handiagoa ematen dio, neurri batean, A.M.ren testigantzari, arazo hori beste biktima askok ere bizi izan zuten eta.

Gertaera horiek entzute- eta ikerketa-ahalegin handiagoak eskatu zizkioten Batzordeari, bai eta biktimari eta haren bikotekideari eragin psikologiko handiko elkarrizketak bata bestearen atzetik egitea ere, ez baitago, adierazi dugun bezala, ekintza horren inolako erregistrorik, ez eta aurreko salaketarik ere. Hori dela eta, Batzordeak kontuan hartu behar zuen elkarrizketak biktimarengan eta haren familian izango zuen eragin-multzoa.

## **Sexu-indarkeria tortura gisa**

Batzordeak jasotako tortura-kasuen artean, batzuetan soilik adierazten dira sexu-indarkeriaren adierazpenak, baina ezagunak dira emakumeek sexu-indarkeria hori salatzeke dituzten berezko zailtasunak.

Batzordean erregistratutako kasuetako bat A.rena da, gurasoen etxean atxilotutako 18 urteko neska gazte batena. 1976ko apirilaren 3an atxilotu zuten, sei guardia zibil etxean sartu, etxea miatu eta Donostiako Komandantziara atxilotuta eraman zutenean.

Komandantzian, atxilotuaren hitzetan, “erabat harrigarria” izan zen egoera: ia egun guztiak Simca 1200 baten barruan igaro zituen, kuartelaren patioan, eta han galdeketa baten eta bestearen artean lo egiten ahalegintzen zen, lortu gabe. Gauetan, guardia zibiletako bat harengana hurbiltzen zen eta, tonu paternalista erabiliz, artxibo batera eramaten zuen. Han biluzarazi egiten zuen, eta flexioak eta beste gimnasiako ariketa batzuk eginarazten zizkion. Guardia zibil horrek jokaera hori justifikatu egiten zuen, “hura babesteko” eta beste tortura batzuk egin ez ziezazkioten (hala nola bainuontziarena) zela esanez; gainerako atxilotuei egiten ari zitzaizkienak hari ez egiteko, alegia. Behartutako biluzteaz eta bainuontziko torturez gain, A.k mehatxuak, bultzadak eta kolpeak jaso zituen, beti eskuz, eta zenbaitetan ukituak ere egin zizkioten.

Hiru hilabetez egon zen atxilotuta Madrilgo Yaseriasko presondegian; denbora hori igaro zenean, kasua artxibatu egin zen, eta aske utzi zuten. A.k torturaren ondorio psikologikoak ere jasan zituen isilpean, hala nola estutasuna, insomnia eta amesgaiztoak; harekin batera atxilotuta zeuden beste hiru emakume presoren konpainia baino ez zuen izan. Jasandako indarkeria horren ondorioak biktimaren amatasunean eta familiarekiko harremanetan ere nabarmendu ziren.

## 8. Tortura eta tratu txarren kasuak

### Kasuen ikerketa

Tortura-kasuen ikerketa beti da erronka bat kasu gertatu berriak direnean, eta are gehiago “antzinakoak” eta diktaduraren testuinguruan gertatuak direnean. Ordena publikoko indarren kontrolpeko esparru batean gertatu zen tortura, eta ez zen gertaeren ikerketarik izan. Dokumentazioari dagokionez, kasu enblematikoenetan, komunikabideen bitartez emandako informazioa edo salaketa publikoa besterik ez dago.

Testigantzak dira istorio horiek berreskuratzeko funtsezko iturria. Txosten honetan aztertzen den diktadura-garaian, kontuan izan behar da arrazoi politikoengatik atxilotutako pertsona guztiek tratu txarrak eta torturak jasateko arrisku handia zutela; izan ere, erregimen frankistak oposizio politikokoa izateko susmagarri zen edozein pertsonaren aurka bultzatutako praktika sistematikoa zen hori.

Torturaren biktimarentzat, batzorde batera joatea, galdera batzuei aurre egitea eta gertatutakoaren xehetasun mingarri batzuei buruz hitz egitea esperientzia estresagarria izan da. Biktima horien adonearen erakusgarri da, zalantzarik gabe, Batzordera joatea, han eskaera bat egiteko azterketa pasatzea, gertaeren xehetasunei eta bizi izandako sufrimenduari buruz hitz egiteko elkarrizketa bat izatea, eta talde-elkarrizketa bateko galderei eta egin daitezkeen komentarioei erantzutea.

Batzordera etorri diren torturaren eta tratu txarren biktimak, salbuespen batzuetan izan ezik, ez zituen bultzatzen ordain ekonomikoa jasotzeak, baizik eta aitopen moralak. Haien kasuak aurkeztean, adierazteko moduko arrazoi politiko partzialik ere ez zuten, eta era askotako jatorri ideologikoak, politikoak edo sindikalak zituzten. Kasu horietako gehienek ezkutuan iraun dute, eta, torturaren samina dela-eta, sarritan familia-giroan edo gizarte-giroan ere ez zuten haien berri eman.

*Atxiloketaren osteko lehenbiziko urteetan, L.L.L. berriz atxilotuko zuten beldur zen, eta “etengabe jazartzen zutelako sentsazioa” zuen. Etxean ia ez du hitz egin gertatutakoaz, batez ere seme-alabei gorroto- edo ezinikusi-sentsaziorik*

*ez helarazteko. Bizitzan zehar, beti izan ditu bizkarreko minak, eta gaur egun hiru hernia diskal ditu; hirutan egin behar izan diote aldakako ebakuntza, baina L.L.L.k bere deklarazioan ez du esaten osasun-arazo horiek 1968ko tratu txarrekin zerikusirik dutenik. Gertaeretatik 47 urte igaro ondoren, L.L.L.ri bereziki garrantzitsua iruditzen zaio "egia ezagutzea eta egindako gaizkia aitortzea". L.L.L. kasuari buruzko irizpena.*

la testigantza guztiak biktima zuzenek emandakoak dira. Kasu gutxi batzuetan, biktima zuzenak hilda zeuden, denbora, gaixotasunak edo atentatuak zirela eta; horrelakoetan, testigantzak zuzeneko familiako kide batek eman zituen. Batzordeak, gainera, biktimen, familiakoen edo lekukoaren testigantza bi alderditatik aztertu zuen:

- a) barne-koherentzia; hau da, adierazten diren gertaeren, egoeren eta eraginaren arteko koherentzia, horretan laguntzen duten xehetasun esanguratsuak barne, eta
- b) kanpo-koherentzia, hala nola gertaerek testuinguruarekin, gertaeren egoerekin, garai desberdinetako atxiloketen edo torturen tipologiekin eta bigarren mailako beste iturri batzuekin duten zerikusia.

Kontuan izanda tortura egiten den giroan segurtasun-indarrek atxilotutako pertsonaren gaineko erabateko kontrola dutela, eta tortura modu klandestinoan egiten dela (atxiloketa ezaguna izan arren, tortura ez da inoiz onartzen eta ezkutatzeko ahalegina egiten da), erantzun nagusia, sarritan, susmoa edo biktimaren sinesgarritasuna zalantzan jartzea izaten da. Kasu batzuetan, biktimek salaketak jarri zituzten tratu txarreatatik, baina salaketa horietako bat bera ere ez zen izan Batzordean aurkeztu ziren trantsizio politikoaren lehen urteetako bederatzi kasuetakoa. Zenbaitetan, salaketak publikoak izan ziren, eta polizia-etxetik igaro osteko argazkiak ere izan ziren (lesio fisiko nabarmenekin); txosten medikoak ere bai, ondorengo ospitaleratze-kasuak zirela eta.

*Tolosako kuartelean 1976an izandako atxiloketan, A.A.k hainbat umiliazio, tratu txar eta tortura jaso zituen. Biluzarazi egin zuten 8 edo 10 guardia zibilen talde baten aurrean, buzo urdin bat jarri zioten, eta galdeketa egiten hasi zitzaizkion, makila batekin hankazpian kolpatzen zuten bitartean. Behin eta berriz, ur zikinez betetako bainuontzi batean sartu zioten burua: txiza eginda eta zaborra botata zegoen bainuontzi hori. Ileetatik heldu eta tira egin zioten; ile-xerlo handiak kendu, eta hainbat soilgune utzi zizkieten. Ondoren,*



*indarrez kolpatu zuten eskuoihal busti batekin. Torturen ondorioz izandako lesioak oso larriak izan ziren, eta egoera kritikoan egon zen. 8 egunetik 10 egunera egon zen ospitaleratuta: giltzurrun-gutxiegitasun akutua zuen, eta aurpegia eta ipurmasailak ubelduraz beteta. Torturak publiko egin ziren lehen unetik, eta zenbait argazki ere argitaratu ziren egunkari batzuetan. A.A. kasuari buruzko irizpena.*

Dena dela, beste kasu batzuetan dokumentazioa urria zen. Kontuan izan behar da ikerketarik eza eta inpunitea biktima horien esperientziaren osagaiak izan direla. Batzuetan, atxiloketei eta prozesuei buruzko dokumentazioaren espurgoa (garbiketa) gertatu zen Batzordeak informazio gehiago bildu nahi izan zuenean; epaitegietan bildu nahi izan zuenean, esaterako.

Giza eskubideen urraketek eragin handia izan zuten pertsonengan eta familietan, eta haietako askok ondorio fisikoak utzi zizkieten asteetan edo hilabeteetan; ondoren, biktimek luzaroago aurre egin behar izan zieten eragin psikologikoei, eta haietako batzuk gaur egunera arte iritsi dira. Batzordean aurkeztu ziren kasu gutxi batzuetan, torturaren ondorio psikologikoek osasun mentaleko arazo larriak ere sortu zituzten. Beste batzuetan ez dira adierazi ondorio fisiko eta psikiko garrantzitsuak, aipatutako kalteaz gain. Horrek ez du esan nahi, inola ere, biktimak pairatu behar izan zituen torturen larritasuna gutxitzen denik.

*Gasteizen zegoela, 1968ko martxoaren 9an, hitzordu batera joan zen, taberna batera, baina han polizia zuen zain, eta handik ihes egiten saiatu bazen ere, atxilotu eta Bakea kaleko polizia-etxera eraman zuten. Iritsi orduko, erradiadore batean lotu zuten eskuburdinekin, hilko zutela mehatxu egiten zioten bitartean. Mehatxuez, umiliazioez eta irainez gain, torniketeak jarri zizkieten, arkatzak eskuko hatzen gainean jarriz, eta ez zioten komunera joaten utzi atxilotuta egon zen lau egunetan. S.A.B.ren alargun M.M.B.G.ren arabera, "egin zizkieten irainak hain gogorrak egin zitzaizkion, ezin izan baitzituen kontatu aske utzi zutenean". S.A.B. kasuari buruzko irizpena.*

Tortura-kasuen eskabide batzuk 107/2012 Dekretuan ezarritako epetik kanpo aurkeztu ziren, eta uztailearen 28ko 12/2016 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoaren, hirugarren xedapen gehigarriaren babesean aurkeztu ahal izango dira.

## Testuinguru politikoa

XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera, Euskadi irakinaldi politikoko eta sozialeko giro batean sartuta bizi izan zen, eta hurrengo hamarkadan lehertu zen giro hori behin betiko. ETA agertzeak, lan-gatazkek berriro indarra hartzeak eta erakunde politiko eta sindikal antifrankistak berrantolatzeak diktaduraren errepresioa gogortu zuten, edozein motatako protesta eta oposizio politikoren aurka. 1963tik aurrera, Ordena Publikoko Auzitegia diktaduraren tresna errepresibo garrantzitsuenetako bat bihurtu zen, baina ez bakarra. Hain neurri gogorrek (salbuespen-egoerak inposatzea, esaterako), erregimen frankistak uzten zituen askatasun urriak mugatzen zituzten, eta errepresioa gogortzen eta zabaltzen lagundu zuten.

Denbora-tarte horretan zehar, ordena publikoko indarren atxilotetak eta tratu txarrak bereziki gogorrak izan ziren. Hala ere, mota horretako praktikak ez ziren mugatu albuespen-egoeretara.

Ordena publikoko indarrek galdeketetan emandako tratu txarrak eta egindako torturak oso ohikoak izan ziren, batez ere zenbait erakundetako kide (ETAko bi adarrak eta beste batzuk) izateko susmagarriak zirenei egindakoak, baina, Batzorde honek egiaztatu zuen bezala, praktika horiek beste erakunde batzuetako militante askori ere eragin zieten: alderdiak, hala nola Alderdi Komunista, EMK, LKI, EE; sindikatuak, hala nola Langile Komisioak, USO eta abar; beste talde batzuk, hala nola EGI, PNA, ORT, KBUC, PCI-PTE, IASE; independenteak, inongo alderdikoak edo sindikatukoak ez ziren pertsonak... Zenbait sinbolo erakustea (ikurrina, esaterako) atxilotzeko eta polizia-etxean tratu txarrak jasotzeko arrazoi izan zitekeen.

Garai horretan atxilotuekin praktikaturako tratu txarrei buruzko bibliografia ugaria biktimen testigantza askok berretsi dute, eta torturaren praktikaren errealitatera oso hurbilketa onargarria egiteko aukera ematen digute. Dena dela, torturaren ondorioen azterketa gizartean ikusezin bihurtutako alderdien artean dago oraindik, edo biktimen beren esperientziakoak soilik diren alderdien artean.

## Batzordean aurkeztutako kasuak

Batzordean aurkeztu ziren tratu txarren eta torturen kasu gehienak zenbait albuespen-egoeretan egindakoak ziren (1968, 1969, 1970 eta 1975), edo kutsu

politiko handia zuten mobilizazioen ondoren egindakoak, hala nola Burgosko Epaiketa (1970eko abendua), *Txiki* eta *Otaegiren* fusilamenduak (1975eko iraila), sindikalistak atxilotu zituzten grebak (1974koa eta beste batzuk), ETAko beste kide batzuk atxilotzea ekarri zuten atxiloketak (1969, 1975), ETAren atentatuen ondorengo operazioetan egindako bereizketarik gabeko atxiloketak (1961eko uztaila eta abuztua, 1968ko abuztua) edo zenbait gertakari (Aberri Eguna, Maiatzaren 1a edo ikurrinak jartzea). Kasu horietako guztietako tortura-testigantzak iritsi ziren Batzordera. Ikus ditzagun adibide batzuk.

1968ko Aberri Egunaren ospakizuna gertaera ia klandestinoan izan zen, baina haren ondoren hainbat atxiloketa egin ziren. J.V.O. 9-10 egunez atxilotu zuten 1968ko maiatzean, Bermeon ospatutako Aberri Egunean parte hartu ondoren; 1969ko irailaren 10ean berriro atxilotu zuten, 19 urte zituela. Garai hartan, elektrikari izateko ikasten ari zen, baina sekula ez zuen amaitu, atxilotu egin baitzuten. Goizeko ordu biak aldera, Brigada Politiko Soziala, kalez jantzita, bila joan zitzaion baserrira. Sartu bezain azkar, arma bat jarri zieten buruan, hari eta 10 urteko haren anaiari. Ukulura eraman zuten, eta polizia belarra nahasten hasi ziren, armak bilatzeko. Aitzurren eta han zituzten beste tresna batzuen makilekin gorputzean eta buruan jotzen hasi zitzaizkion. Formalki ez zuten atxilotu ere egin.

1968ko Aberri Egun horretan parte hartu zuten beste pertsona batzuk ere atxilotu zituzten, eta tratu txarrak eman zizkieten. Horietako bat J.M.Z.A. izan zen, enpresa batean lan egiten zuen apaiza (apaiz langilea). Eibarko Guardia Zibilarren kuartelera iritsi orduko, jotzen hasi zitzaizkion. Adierazi zuenez, arma-gela baten antzekoan sartu zuten, eta han igaro zuen gau osoa; norbait han sartzen edo handik igarotzen zenean, kolpeak ematen zizkion, ukabilez nahiz armen ipurdiez. Ubeldura ugarirekin amaitu zuen. Hitzezko hainbat umiliazio ere jasan zituen, lagunak oihuak entzuten zituen bitartean. Miguel Castells haren abokatuak gorputz osoko argazkiak atera zizkion. Donostiako gotzaindegian gorde zituzten argazkiok, apezpikuak zer gertatu zitzaizen jakin zezan.

Eibarko kuarteletik Donostiako Itsas Komandantziara eraman zuten, eta handik Martuteneko espetxera. 1970ean, epaiketa militar sumarisimoa izan zuen Loiolako kuartelean, eta, 1970eko urtarrilaren 21eko epaiaren bitartez, lau hilabeteko atzipenaldi handira zigortu zuten desordena-delituagatik, eta gobernu-isun bat ordaintzera, Aberri Eguneke lehen atxiloketagatik.

Artekaleko sarekada izenekoan, ETAko zenbait kide atxilotu zituzten 1969ko martxoan; besteak beste, Mario Onaindia, J.R.G.U.ren nortasun agiria berekin zuela. J.R.k azaldu zuen NANA galdu egin zitzaiola; gertatutakoa argitu zenean, aske utzi zuten eta etxera itzuli ahal izan zen. Egun batzuk igaro ondoren, 1969ko apirilaren 23an, Brigada Politiko Sozialeko zenbait poliziak, kalez jantzita, berriro atxilotu eta Indautxuko polizia-etxera eraman zuten, eta han bi egun egin zituen inkomunikatuta; tratu txarrak eta torturak jasan zituen.

Beste gertaera kolektibo bat Zornotzako Larreako Ama Birjinaren koroaren lapurretarekin lotutakoa izan zen. Atxiloketak 1968ko abenduaren 9an gertatu ziren. Polizia Larreako Ama Birjinaren koroaren bila zebilen; hilabete lehenago lapurtu zuten, apezpikuak koroatu baino lehenago, eta lapurreta apezpikuaren aurkako protestatzat hartu zen. J.L.B. gertaera hori zela-eta atxilotu zuten, eta, ondoren, aske utzi zuten. Baina aurretik sotoetako ziega batean egon zen: lurraren gainean lo egin behar izan zuenez, abenduko hotza sufritu zuen; oinaze-oihuak entzun zituen, eta ateak irekitzeko eta ixteko hotsak; azken horrek beldurtzen zuen gehien, haren bila joango zirela pentsatzen baitzuen, galdeketa egiteko. Polizia txarraren eta onaren funtzioa egiten zuten bi polizia-agentek Larreako Ama Birjinaren koroa non zegoen jakiteko galdeketa egin zioten. Galdera baten eta hurrengoaren artean, kolpatu egiten zuten, eta horrek ubeldura handi bat eragin zion begietako batean. Galdeketak atxilotuta egon zen egun guztietan errepikatu ziren, eta, galderekin batera, beti eman zizkieten tratu txarrak eta egin zizkieten mehatxuak. Artean ez zekien arren, dozena bat atxilotu zeuden Zornotzako leku berean, eta arrazoi bera tarteko. Bilbon hiru egun igaro zituzten, ezin baitziren luzarago atxilotuta egon; ondoren, Donostiara lekualdatu zituzten furgoi batean; izan ere, han salbuespen-egoera onartuta zegoen, eta atxilotze-aldia luza zitekeen.

Beste kasu batzuetan, atxiloketak eta torturak ETAren atentatuen ondoren gertatu ziren. J.A.A., 1974ko irailaren 13ko gauean, soldadutza egiten ari zela, atxilotu eta armadaren kuartelera eraman zuten. ETAko zenbait kideri eta egun horretan bertan Madrilgo Correo kalean gertatutako atentatuari buruzko galdeketa egin zioten. Goizean, Guardia Zibilak Bilbora eraman zuen. Salbeko kuartelean, mahai batean lotu zuten, eskuak eskuburdinekin bizkarrean zituela, oso jarrera deserosoan. Irailaren 11n Bilbon hil zuten Martín Durán Grande guardia zibilaren hiletaren eguna zen, eta gorputz armatuko kideak bereziki haserre zeuden. Kuartelean sartzen ziren heinean, amorruz kolpatzen zuten. Gainera, J.A. oraindik militarrez jantzita zihoan, eta horrek irainak eta umiliazioak eragin zituen. Horrela iraun zuen pare bat ordu gutxi gorabehera, eta ondoren galdekatzera eraman zuten.

Hiru egunez egon zen kuartelean, beti galdeketa-gelan, ziegetara jaitsi gabe. Galdeketetan zehar, gorputzaren zenbait ataletan kolpatu zuten, oinutsik jarrarazi zuten eta hankazprietan kolpatu zuten makila batekin; itoaldi-maniobrak ere egin zizkieten bi aldiz, "poltsaren" bitartez. Tratu txarrak jasotzen zituen bitartean, beste atxilotu baten oihuak entzuten zituen alboko gelan. Beste atxilotu horrek J.A. bere semea zela uste zuen, eta, oker bazegoen ere, semeari bakean uzteko eta bera soilik jotzeko erregutzen zien.

Galderek ETAko kidea izatearekin zerikusia zuten. Izenak emateko esan zioten, baina hark ez zituen ezagutzen; beraz, ezin izan zien bat ere eman. Galdeketak egunez eta gauzez egiten zizkieten; ez zioten inoiz uzten atsedean hartzen. Batzordeari kontatu zion etengabe jasotzen zituela tortura gogorragoak jasateko mehatxuak, bai eta beste leku batera eramatekoak ere, han hiltzeko. Gehien adoregabetsen zuen gauzetako bat kontatzeko ezer ez zuela pentsatzea zen, eta izutu egiten zuen informazio horren bila noraino hel zitezkeen pentsatzeak. Atxiloketa horren ondoren, aitari bonba bat jarri zioten autoan, eta, gogoratzen denez, Guerrilleros de Cristo Rey taldekoak izan ziren.

Beste kasu honetan, torturen biktima EGIko kide bat zen; 1970eko eta 1971ko propaganda-lan baten ondoren, alderdiko kideek adi egoteko esan zioten, Guardia Zibilak atxilotzeko arriskuan zegoela. Egoera horretan, J.G.A.k Euskaditik ateratzea erabaki zuen, eta nabigatzera joan zen bederatzi hilabete eta erdian. Euskadira itzuli zenean, Guardia Zibilak atxilotu zuen, EAJko beste kide batzuekin batera. Atxiloketa Bilbon gertatu zen, 1975eko martxoaren 25ean, ibilgailu batean zenbait propaganda-material zeramanean, hala nola panfletoak, kartelak eta pegatinak: Aberri Eguna ospatzera deitzeko ziren, urte horretako martxoaren 30ean, Gernikan. Horiekin batera, liburu-kaxak, aldizkariak eta zentsura frankistak debekatutako beste argitalpen batzuk zeramatzan. Horrez gain, polizia J.G.A.ren helmuga zen biltegian, Bizkaiko hiriburuko Uribitarte kalean, EAJren material klandestino ugari konfiskatu zuen hurrengo egunean. Lehen atxiloketako tratu txarrek hankan eragin zizkieten arazoak; hori dela eta, Akilesen tendoian ebakuntza egin behar izan zioten; lesio horrek herren txiki iraunkor bat utzi zion. Gainera, ondoren, 1993ko azaroaren 26an, J.G.A. hil egin zen, lau egun lehenago haren aurka ETAK egindako atentatu baten ondoren.

J.M.G.M. 1974ko azaroaren 27an atxilotu zuten; 28 urte zituen, eta Lasarteko lantegi bateko bulegoan lan egiten zuen. Zenbait indar politikok eta sindikalek greba orokorrerako deialdia egin zuten. Eguerdiko hamabiak aldera, Lasarteko beste lagun batzuekin jaitsi zen, eta lantegiko langile batzuekin topo egin

zuten. Guardia Zibilaren zenbait jeep agertu ziren, identifikatu egin zituzten eta Lasarteko kuartelera eraman zituzten. Atxilotu ondoren, grebaren antolaketan sartuta egotea egotzi zitzairen. Orduan, tortura-saioak hasi ziren: gorputzean borraz kolpatuz eta umiliazioak eginez, banan-banan atera zituzten, beste zelda batera eramateko; han kolpeak eman zizkieten. Gaua kuartelean igaroko zutela mehatxatzen zituzten, baina gaueko zortziak aldera aske geratu ziren. J. etxera joan zen, gorputz osoa kolpatuta. Biktimak adierazi zuen garai hartan bizi zen giroa oso bortitza zela, eta, horrenbestez, emaztearekin batera Ingalaterrara aldi baterako bizitzera joatea erabaki zuela.

## **Bereizketarik gabeko atxiloketak**

Beste kasu batzuetan, gazteak izan ziren biktimak. Oso gazteak izan arren eta ikertutako gertaerekin zerikusirik ez izan arren, gertaeren herri berekoak ziren, eta, beraz, informazio-iturri bihur zitezkeen; edo haien ezaugarri batzuek gizarte- edo lan-erakundeetan parte hartzeko susmagarri bihurtzen zituzten.

1969ko apirilean, 18 urte zituela, kalez jantzitako Brigada Politiko Sozialeko zenbait kidek F.M.M. atxilotu zuten, 12 urteko bere lehengusuarekin batera, eta Indautxuko polizia-etxera eraman zuten. Sotoko geletako batean Mario Onaindiarekin batera egon zen. Onaindia ETako buruzagia zen, eta erakunde hartako beste militante batzuekin batera atxilotu zuten egun batzuk lehenago. Torturatu egin zutela adierazi zion F.M.M.ri. Hurrengo bi egunetan, hiru galdeketa egin zizkieten F.M.M.ri: kolpeak eman zizkieten eta ubeldurak egin zizkieten gorputz osoan; hilabeteak iraun zion hantura ere eragin zioten eskuetan.

Indautxuko polizia-etxe nagusian, 1971ko martxoan, M.A.A.C. atxilotu zuten. Harekin batera 30 edo 40 pertsona zeuden atxilotuta. Batzuk zeldetan zeuden, baina hura, beste lagun batzuekin batera, gela batean zegoen, egurrezko apalategi batzuek inguratuta; gelaren erdian, berriz, mahai handi bat zegoen. Batzuetan apalategien bertikaletan lotzen zizkieten eskuburdinak, baina ohikoena hantxe eserita egotea zen, gau eta egun, atxilotuta egon zen 15 egunetan. Lehen egunetan, hura ez zuten galdekatu, baina norbait galdekatu behar zutenean, alboko gelara eramaten zuten, eta oihuak eta kolpeak entzuten ziren. Pertsona horien adierazpenak ere entzuten ziren, eta gelan nola sartzten ziren eta handik nola irteten ziren ere ikusten zuten, galdeketen aurretik eta ondoren. Argiak beti zeuden piztuta, eta ez zieten inoiz etzaten uzten; beraz, ezin zuten lorik

egin. Galdeketara eraman zutenean, galdera oso orokorrak egin zizkieten, eta adierazpena sinatu arte han uztearekin mehatxatu zuten.

“Sarekadak” egitea ohiko praktika izan zen; hau da, atxiloketak egitea – masiboak, sarritan–, atentatu bati edo greba bati erantzuteko. Batzordeak aztertutako kasu batzuetan, pertsona horiek aurretik ere atxilotuta egonda zeuden, eta horregatik bihurtzen ziren susmagarri eta atxilotzen zituzten berriro.

Esate baterako, M.A.A.ren kasuan, atxiloketak hiru egun iraun zuen, eta lehen egunean torturatu zuten. Gainerako bi egunetan ez zuten kolpatu, baina, hitz egiten ez bazuen, berriz torturatuko zutela mehatxu egiten zioten. Orduan, M.A.A.k deklaratu zuen ez zekiela ezer galdetzen ziotenari buruz (bere anaia ETA VIko militantea zen).

Haren ondoren, ez ziren harekin hainbeste sartu, eta handik gutxira aske utzi zituzten, bai hura, bai J.A. haren anaia, ezer sinatu gabe eta inongo epaileren aurretik igaro gabe. Batzordeari kontatu zionez, handik astebetera beste bi pertsona atxilotu zituzten, bietako bat familiakoa, eta, atera ondoren, haiei ere tortura berdinak egin zizkietela kontatu zuten: biluzarazi, zenbait tortura-teknika (bainuontziarena, esaterako), eskuburdinetatik zintzilikatu, eta *kirofanoa*. Atxiloketaren ondoren, ez zuten inolako salaketarik jarri eta ez zuten inolako abokaturekin hitz egin, baina herriko konfiantzazko jendeari kontatu zioten.

### Etengabeko jipoiak

Balorzio Batzordearen aurrean deklaratu zuten pertsonak adierazitako tortura-modu ohikoenak jipoiak izan ziren. Kasu batzuetan, biktimek berek tratu txarrak “guztiei egiten zieten, kolpatu” zirela kontatu zuten. Beste batzuetan, egin zietenaren deskribapen xehatuak eman zituzten: lehenengo aldiz ikurrinak jarzteagatik atxilotu zuten, eta, beste batean, legez kontrako propagandagatik. Ondoren, 1970eko maiatzaren 3an, P.M.A.E. berriro atxilotu zuten; hiru egunez egon zen Indautxuko polizia-etxean, eta han torturatu egin zuten. Eman zizkieten jipoiek kontusio handiak eragin zizkieten, eta, horrekin batera, kopetako eta sudurreko zauriak, sudur-trenkadako lesioak, hemorragiak, eskuineko masailalbo-hezurraren haustura, aldi baterako ikusmen-galera, gorputz osoko ubeldurak eta odola gernuan.

Kokoriko jartzera behartu zuten, eskuak eskuburdinez belauten atzealdean lotuz, eta gelan bueltaka ibilarazi zuten; erortzen zen bakoitzean, zurmailuz jotzen zuten. Galdeketa-saio horietan lau polizia egon ziren, baina batek jotzen zuen, batez ere. Gainean egin zuen txiza, eta odola bota zuen gernuan. Une horretan gorputzeko sentsibilitatea galdu zuen, eta, konturatu gabe, txiza egiten zuen eta libratu egiten zen; bien bitartean, joak ez zuen etenik. Behin komunera joateko baimena eskatu zuen, baina ez zen zutik egoteko gai, eta lurrera erori zen. Ondoren, zutik zegoela, burua hormaren kontra jartzera behartu zuten, eskuak bizkarrean eta hankak irekita eta aldenduta zituela; jarrera horretan egotera behartzen zuten, irristatu eta lurrera erortzen zen arte. Orduan berriro jotzen zuten, eta kopeta hormaren kontra jartzera behartzen zuten berriro ere. Horrela igaro zuen goiz oso bat: aurpegia desitxuratu zioten horren ondorioz, odolez eta zauriz bete baitzitzaion. Egoera larrian zegoen arren, ez zitzaion laguntza medikorik eman.

## **Tortura eta tratu txarren lekuak**

Susmagarrien aurkako lehen erasoak atxilotetaren une berean egin zitezkeen, atxilotuek aurka egin ez arren. Batzuetan, tratu txar horiek udal-lokaletan ere gertatzen ziren, hara eramaten baitzituzten, kuartelera edo polizia-etxera eramango zituen ibilgailuen zain egoteko. Horrela kontatu zuten hainbat atxilotuk; I.G.A.k, esaterako. Ondarroako udaletxera 1969ko apirilaren 4an eraman zutela adierazi zuen, eta “han jipoitu egin ninduten”, Guardia Zibilaren kuartelera eraman aurretik.

I.G.C. ETako ikasle-fronteko kidea zen, eta Guardia Zibileko kideek atxilotu zuten Bilboko Areiltza Doktoarearen kaleko lokal batera bakarrik zihoala. Lokal hartan multikopista “vietnamdar” batzuk zituzten, propaganda inprimatzeko. Aipatutako lokalaren sarreran zeuden langilez mozorrotutako guardia zibil batzuk hurbildu zitzaizkion. Une horretan, bortizki kolpatu zuten buruan, polizia aurka egin gabe edo bestelako arrazoirik gabe. Zorabiatuta geratu zen, eskuineko belarritik aditzen ez zuela, eta Guardia Zibilaren Bilboko Salbe kuartelera eraman zuten. Protagonistak berak kontatutakoaren arabera, “atxilotetaren unean, tinpanoa zulatu zidan kolpe bat eman zidaten eskuineko belarrian”. Kuartel hartan astebetetz egon zen atxilotuta, eta torturak egin zizkieten. M.I. hainbatetan kolpatu zuten buruan, ez zioten lo egiten utzi, eta tratu txar eta tortura asko pairatu zituen, atxilotu gehienek bezala. Espetxean egon zen bitartean, hainbatetan izan



zuen otorrea zornetsua eta kirasduna eskuineko belarrian. Lesio fisikoez gain “*torturaren ondorioak ere banituen, hala nola inor ikusi gabe ahotsak entzutea, zorutzen ari nintzelako ustea, eta espazioaren eta denboraren nozioaren galera*”.

Atxiloketa- eta galdeketa-zentrorako lekualdaketak –automobil kamuflatuetan edo polizia-ibilgailuetan egiten zituzten– ziren atxilotuek poliziaren tratu txarrak pairatzeko beste esparruetako bat.

*M.S. 1974ko urrian atxilotu zuten, 17 urte zituela. Berehala inguratu zuen Guardia Zibileko kideen talde batek: eskuburdinak jarri zizkioten eskuak bizkarrean zituela, eta automobil partikular baten atzeko eserlekuan sartu zuten. Auto barruan, Donostiako Antigu auzoko Guardia Zibilaren Komandantziara zihoazela, ukabilkadak jaso zituen aurpegian, sabelean eta barrabiletan. Antzeko tratu txarrak jaso zituen, eskuburdinak jarrita, Komandantzia horretako soto bateko zelda batean sartzen zuten bitartean; han etengabeko argia izan zuen, gau eta egun. M.S.ri buruzko irizpena.*

Aztertutako kasuetan, zentro askotan (hala nola polizia-etxeak edo kuartelak) jaso zituzten tratu txarrak pertsona atxilotuek. Dena dela, jasotako tortura-kasu gehienetan, bost leku nabarmendu ziren bereziki: Indautxuko eta Gasteizko polizia-etxeak, eta Guardia Zibilaren Salbeko (Bilbo), Antiguoko (Donostia) eta Gernikako kuartelak.

Gainera, haietako batzuetan, torturen arduradunen izenak behin eta berriz errepikatu ziren zenbait atxiloturen adierazpenetan (adostasuna nabaria zen), eta, gainera, berariazko ikerketek ere ikertu dituzte<sup>12</sup>. Gernika aldean iritsi zen errepresioa maila dramatikoenera. Guardia Zibilaren kapitain ezagun baten jarduera zela-eta, gorputz armatu horren kuarteletik ehunka atxilotu igaro ziren garai hartan. Gertaera larrietako batzuk 1975eko apirilko salbuespen-

---

12 Falcón, Lidia: *Memorias políticas, (1959-1999)*. Vindicación Feminista, Bartzelona, 2002.

Álvarez, José Ignacio: *Memoria y trauma en los testimonios de la represión franquista*. Bartzelona, Anthropos, 2007.

Wilhelmi, Gonzalo: *Romper el consenso. La izquierda radical en la transición española*, Madril, Siglo XXI, 2016.

Baby, Sophie: *Le mythe de la transition pacifique. Violence et politique en Espagne, 1975-1982*. Madril, Casa Velazquez, 2012.

“Aixó em va pasar. De tortures i d’impunitats, 1960-1978” erakusketa, El Born CCM, Bartzelona, 2017ko urtarrila.

egoeran jazo ziren. Egun horietan, kapitain horrek zuzendutako Guardia Zibileko kideek zenbait ekintza gauzatu zituzten, eta herria izu-giroan murgildu zuten; ekintza horietako asko ezkutukoak eta eskuin muturreko elementuek babestuak izan ziren. Urte haietan zehar, jazarpenak gertatu ziren, bai eta bereizketarik gabeko atxilotetak, tratu txarrak, torturak, metrailaketak, eta ezkerreko eta euskal alderdi abertzaleetako militante nahiz jarraitzaile ezagunen lokalei eta etxebizitzetara su emateko ekintzak ere.

1975eko irailaren 27an, *Txiki* eta *Otaegi* fusilatu zituzten datan, A.F.L., 28 urte zituela, Guardia Zibilak atxilotu zuen eta Gernikako kuartelera eraman zuen. Kuartel hori Hidalgo kapitainaren agindupean zegoen. Lehen gaua eskuburdinez ohatze baten hankan lotuta igaro zuen, kuartelaren sotoan. Jarrera horretan, hiru edo lau aldiz galdekatu zuten gauean zehar. Pertsona jakin batzuei buruz galdetzen zioten, hankazpian zigor batez kolpatzen zuten bitartean. Hainbatetan kolpatu zuten galdeketetan, edo, besterik gabe, eskuburdinez lotuta zegoen lekutik, eskailera baten alboetik, pasatzen zirenean. Besteak beste, hankazpian eta ipurmasailetan kolpatu zuten, kolpeak eman zizkioten gorputz-enborrean hesola batekin, presioa eta kolpeak jasan zituen barrabiletan, eta erredurak egin zizkioten zigarroekin oinetako behatzetan. Ez zioten utzi lo egiten kuartelean atxilotuta egin zuen denboran. Bi guardia zibilek eskuburdinekin eraman zuten epaitegira; han, A.F.L.k uko egin zion prestatu zuten adierazpena sinatzeari, eta epaileari torturatu egin zutela esan zion.

Leku berean garai ezberdinetan atxilotuta egondako pertsona batzuek tortura-lekuaren antzeko deskribapena egin zioten Batzordeari. J.M.E.M. 1972ko irailaren 5ean atxilotu zuten. Salbe kuartelera iritsi eta pare bat ordura, liburu asko eta mahai bat erdian zuen gela batera eraman zuten, liburutegi baten antzeko leku batera. Zapatak kentzera behartu zuten, belauniko jarri zuten, eta makilatxo baten antzeko zerbaitekin hankazpian jo zuten. Pare bat ordu horrelako kolpeak jasotzen egin eta gero, altxatzera joan zenean, lurrera erori zen, ezin baitzuen mina jasan. Lurrean zegoela, ostikadak jotzen hasi zitzaizkion. Bilerei buruz eta harekin zegoen jendeari buruz galdetzen zioten. Galdeketek bi egun iraun zuten, gutxi gorabehera. Liburutegitik zelda zikin batera jaisten zuten; bi metro bider bat eta erdikoa izango zen gela. Kolpe fisikoez gain, era guztietako umiliazioak eta mehatxuak pairatu zituen; esate baterako, “*neskalaguna atxilotuko ziotela, eta zera egingo ziotela...*”.

Batzordearen aurrean kontatutako kasuetan, pertsona askok adierazi zuten ziegen antzeko leku batzuk zeudela, eta tortura-gela gisa erabiltzen zituztela. Gela horiek sarritan zeregin horretarako bereziki prestatutako lekuak ziren, eta,

beste batzuetan, beste funtzio bat zuten lekuak ziren, hala nola artxiboak edo leku isolatuak.

*J.M.B. artxibo bat eta erdian mahai bat zuen gela batean egon zen. Eskuburdinak jarri zizkioten, eskuak hanken atzean zituela, eta jarrera horretan ibiltzera behartu zuten, ostikadak eta kolpeak ematen zizkioten bitartean. Egun haietan, bi guardia zibilek eta nagusi batek torturatu zuten. Galdeketa-saioetan, une batez geratu egiten ziren, eta berriro galdetzen zioten zer jatorri zuen, zer egin zuen, norekin egon zen eta nor ezagutzen zuen. Galdeketak egunez eta gaez izaten ziren. Aulki batean eserita zegoela ere jarri zizkioten eskuburdinak, eskuak bizkarrean zituela, eta behin baino gehiagotan salto egin zioten eskuburdinen gainera. J.M.B.B.ri buruzko irizpena.*

A.A.E. berriro 1976ko martxoaren 24an atxilotu zuen Guardia Zibilak, etxean, goizaldean; Zumaiako kuartelera eraman zuten, eta handik Donostiara. Gipuzkoako hiriburuan, aroztegi baten antzeko eraikin batean eduki zuten, zerra bati lotuta. Beste tortura batzuk ere egin zizkioten, hala nola “bainuontziarena”, ur zikinetan. Zazpi egunez eduki zuten kuartel batetik bestera eramanez, eta azkenean Basauriko espetxera eraman zuten; han bi hilabete egon zen. Ondoren ez zioten atxiloketa horrekin lotutako epaiketarik egin. Beste atxilotu batzuek ere leku hori Guardia Zibilaren kuarteleko “aroztegi bat” zela aipatu zuten.

Torturak eta galdeketak tartekatzen zituzten saioak zenbait poliziak edo guardia zibilek egiten zituzten; horretarako funtzionamendua koordinatua zen, kolpe- eta mehatxu-saioekin.

*Poliziaren lokaletara iritsi zenean, zelda batera eraman zuten, eta beste atxilotu batekin egon zen han. J.A.A.ri hiru galdeketa egin zizkioten, eta galdeketa horietan guztietan gorputz osoa kolpatu zioten, indarrez, makila batekin. Galdeketak gela txiki batean egiten ziren; gelaren erdian mahai bat zegoen. 3 edo 4 polizia izaten ziren, beti berberak, eta saioek bi edo hiru ordu irauten zuten. Galdeketetan zehar, poliziek une oro mehatxu egiten zioten, mahai ginean zuten pistola batekin hilko zutela esanez. J.A.A.ri buruzko irizpena.*

Batzorde honek ezagututako beste kasu batzuetan, atxiloketa horiek bereizketarik gabeko ekintzak izan ziren, edo zigortzeko moduak ere bai. Poliziak emaitzarik lortzen ez zuela irizten bazion, atxilotuek segurtasun-indarretako zenbait kidek egindako galdeketa- eta tortura-txanda gogorak jasan zitzaizketen.

*1975eko apirilaren 28an B.I.M. atxilotu zuten. Hiru egun ziren salbuespen-egoera ezarri zutela. Poliziak haren mutil-laguna, militante komunista, non zegoen jakin nahi zuten. Salbeko polizia-etxera iritsi zenean, bulego batera eraman zuten. Etxetik hartu zioten materialaren artean, Ibarrolaren grabatu bat, Imanolen disko bat eta mutil-lagunaren erakunde komunistako barne-propaganda zeuden. Imanolen diskoa ikusi zuenean, guardia zibiletako bat "hau, hauxe da mutil-laguna..." esaten hasi zen, eta jo egin zuten; orduan, neska beldurtzen hasi zen. Ondoren, aurreko gela batean sartu zuten: gelaren erdian artxibategi bat zegoen, eta hormak karpeta zabalez beterik zeuden. Neskaren kontakizunaren arabera, gela hartan aurretik egindako torturen arrastoak zeuden, lurlean orbanak ikusten baitziren, eta odolarena eta/edo oka egin izanarena zirudien zikintasuna. Eskuburdinak jarri zizkieten eta apalategietan lotu zuten. Han usta baten antzeko zerbaitekin jotzen hasi zitzaizkion. "Cabito" esaten zioten polizietako batek barre egiten zuen tratu txarrak ematen zizkion bitartean, eta ahal zuen guztia estutzen zizkion eskuburdinak. Esku-ahurretan, izterretan eta ipurmasailetan jo zuten. Eskuen atzealdea moretuta eta izterrak eta ipurmasailak hematomaz beteta edukitzeraz iritsi zen; atxiloketaren 16 egunetan iraun zioten, eta ondoren aske utzi zuten. Mutil-laguna ere ez zuten ez auzipetu, ez atxilotu. B.I.M.ri buruzko irizpena.*

Kasu batzuetan, tortura lokal batean baino gehiagotan egin zen, batez ere Guardia Zibilaren kasuetan. Hasteko, atxilotu zituzten lekuan torturatu zituzten pertsonak, eta, ondoren, eraman zituzten hiriburuetako kuarteletan. Hurrengo kasuan joan-etorriko bidaia bat ere izan zen zenbait kuartelen artean. 1975eko irailaren 29an C.M.B. atxilotu zuten; 4 egun eduki zuten Gernikako kuartelean, eta egun horietan zehar ETako komando batzuei buruzko galdeketak egin zizkieten. Atxiloketak iraun zuen bitartean, etengabe torturatu zutela kontatu zion Batzordeari: "*hasieran eskuz jotzen ninduten, buruan eta gorputzaren gainerako ataletan; gero eskuburdinekin mahaiaren hankan lotu ninduten, belauniko, eta hankazpietan borraz jotzen hasi zitzaizkidan*". Operazio berean lau pertsona atxilotu zituzten. Guardiak uniforme zuzen jantzita zihoazen, eta adierazpena idaztera behartu zuten; polizia baten aurka atentatua egin nahi izatea eta baserri batean lehergaiak edukitzea egotzi zioten. Kolpe fisikoez gain, etengabeko mehatxuak egin zizkieten, batez ere aita eta neska-laguna atxilotuko zizkietela esanez. Egun horietan ez zioten lo egiten utzi.

Gernikatik Bilboko Salbeko kuartelera eraman zuten, eta han, soto batean, berriz torturatu zuten. Salben hainbat ordu egin zituen, eta handik berriro Gernikako kuartelera eraman zuten; bi egun gehiago egin zituen Gernikan, eta handik, azkenean, Basauriko espetxera eraman zuten, non 14 hilabete egin zituen,

1975eko urriaren 5etik 1976ko abenduaren 1era. Data horretan Madrilera eraman zuten deklaratzera, Ordena Publikoko Auzitegiaren aurrera. Azkenean, auzitegi horrek absolbitu egin zuen, haren beste lagunak bezala, fiskalak akusazioa erretiratu egin zuen eta.

Batzordean jasotako kasu batzuetan, Gobernu Zibilaren instalazioak berak bihurtu ziren garai hartan torturak egiteko leku. 1968ko abenduaren 3an, J.I.O. hamahiru egunez egon zen atxilotuta Gipuzkoako Gobernu Zibilean. Hainbat guardia zibilek aurpegian eta gorputzean kolpatu zutela kontatu zuen, eta eskuburdinei behartutako presioa egin ziotela eta zelda txiki eta hotz batean eduki zutela ere bai. Azkenean, idazki bat (bere ustezko adierazpena) sinatu zuen, berriro torturatuko zuten beldur. Martutenetik Iruñeko espetxera eraman –bi urtez egon zen Iruñean preso–, eta ospitaleratu egin zuten, giltzurrun-gutxiegitasuna eta gutxiegitasun kardiakoa zituela eta. 8 urte geroago askatu zuten, amnistia eman baitzizaion 1976ko irailaren 10eko Dekretuaren bitartez.

## Adingabeak

Batzordeari aurkeztu zitzaizkion zenbait tortura-kasu adingabeenak ziren, 27 pertsona guztira. Horietako batzuk behin baino gehiagotan atxilotu zituzten oraindik adin nagusikoak izan gabe. Kontuan izan behar da garai hartan legezko adin-nagusitasuna 21 urterekin lortzen zela; beraz, askoz gehiago izan ziren adin nagusiz izan gabe atxilotutakoak. Torturatutako 27 adingabe horietatik batek 14 urte zituen, beste batek 15 urte zituen, hiruk 16 urte zituzten, eta beste bik, berriz, 17 urte.

M.S.O. 1974an atxilotu zuten lehen aldiz, 17 urte zituela, eta jipoi ugari emanaz torturatu zuten hartan. Berriz atxilotu zuten 1976ko urrian, J.M.A. Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentearen aurkako atentatuaren ondoren. Guardia Zibileko bi agentek zitatu zuten, haren etxera joanda. Etxean aurkitu ez zuten, bere amari esan zioten Antiguako Guardia Zibilaren Komandantziara joan behar zuela, izapide arrunt bat egiteko. Bere borondatez joan zen, amnistiarekin lotutako zerbait izango zelakoan. Komandantzia hartan, berekin batera espetxe berean zigorra betetzen egondako zenbait pertsona zeuden, amnistiatura zeudenak, bera bezala.

Gela batera eraman zuten, kolpeka. Gelan, ur ustelduz eta gonbitoz betetako bainuontzi bat zegoen. Belauniko, bizkarretik eskuburdinak jarrita eta oinutsik,

“bainuontzia” izeneko tortura egin zioten: burua asfixia eragin arte murgildu zioten bainuontzian, eta objektu gogor batekin kolpeak eman zizkieten oin-zoletan aldi berean.

Konortea galdu zuen, eta esnatzean, lurrian etzanda zegoen, egoera penagarrian. Oin-zolak erabat hantuta zituen, eta ia ez zen gauza oinez ibiltzeko. Kalera atera eta bertan botata utzi zuten, Guardia Zibilaren Komandantziaren aurrean. Taxi bat aurkitu ahal izan zuen, etxera eramateko.

Etxean zegoela, pixan odola egiten zuela ohartu zen, eta familiak Donostiako Osasun Egoitzara eraman zuen. Han, lau egun egon zen ospitaleratuta, bere egoera aztertzeko eta behar zuen arreta medikoa jasotzeko. Giltzurrunetako lesio bat diagnostikatu zioten, jasotako kolpeen ondorioz, eta hilabeteko atsedena behar izan zuen etxean, ospitaleko alta jaso ondoren.

### Atxiloketa luzearen bidez utzitako ondorioak administratzea

Hirugarren aldiz atxilotu zutenean, ETAk Melitón Manzanos –frankismoaren errepresioaren ageriko burua zen Gipuzkoan– erail osteko erreakzioaren baitan, J.G.G. berriz torturatu zuten. Torturak bortitzagoak eta teknikoagoak izan ziren: kolpeak eman zizkieten borrekin, oin-zoletan eta belarrietan, eta horrez gain, “bainuontzia” eta “tximeleta” izeneko tortura-teknikak egin zizkieten, konortea ia galdu zuen arte. Batzorde honen eskuetan dagoen kausa sumarisimoan, J.rekin atxilotuta zeudenek deskribatzen dute zer egoeratan ekartzen zuten bueltan tortura-saio bakoitzaren ostean: “gutziz makurtuta, zenbait gorputz-ataletan ubeldurak zituela; Guardia Zibila ere ikaratu zen...” (26/68 prozedura sumarisimoa, Donostiako Ordena Publikoko Epaitegi Militarra).

Oinaze handiak izan zituen eskuineko saiheitsaldean eta eskuineko sorbaldan eta besoan, kokoriko jarrita eta besoak zabal-zabalik irekita egonik liburu batzuei eusten egon behar zuelako eta eskuineko besoa behartu ziotelako. Oinaze horiek luzaroan iraun zuten, eta hurrengo urteetan, luxazioak izan zituen etengabe sorbaldan horretan, eta azkenik, ebakuntza kirurgikoa egin behar izan zioten. Bost egun atxilotuta zeramala, pixan odola egiten hasi zen, jasotako kolpeen ondorioz, eta egoera horretan eduki zuten ia hilabete. Salbuespen-egoera indarrean zegoen eta ez zegoen mugarik atxilotze-egunen aldetik.

Bestalde, polizia-gorputzek, dena delakoagatik, beste deklarazioen bat behar bazuten, batzuetan, lege-amarruak baliatzen zituzten atxilotuak espetxetik aterarazteko, kuarteletik espetxera eraman ondoren, poliziaren egoitzan edo kuartelean galdeketak egiten jarraitzeko. Horrelaxe gertatu zitzairen J.G.G. (1968), L.Z.A. (1969), A.G.L. (1974) eta E.G.B. (1975) atxilotuei. Atxilotutako pertsonari aukera hori aipatzeak baldintzatu egiten zuen epailearen aurreko deklarazioa, eta ia inor ez zen ausartzen tratatu txarrak edo tortura jasan zituenik deklaratzera, berriz ez jasateko.

## **Behin eta berriz atxilotzea**

Batzordeak egiaztatu du pertsona berak behin eta berriz atxilotzearen praktika. Batzuetan, atxiloketak ekintza desberdinetan une desberdinetan parte hartzeagatik izan ziren. Beste batzuetan, atxilotuen militantzia politikoagatik. Beste batzuetan, hasierako susmagarri-multzoan sartu zituztelako, inolako arrazoi zehatzik gabe.

J.M.A.E. zazpi aldiz atxilotu zuten, lehenbizikoa 1964an, 19 urte zituela, Ondarroan ikurrina batzuk jarri izanaz akusatuta. Gero, 1968an, 1969an eta 1971n atxilotu zuten berriz, eta azkeneko bi atxiloketak 1976an izan ziren, Segoviako ihesaren ondoren, ihes egindako bi pertsonari bere etxea utzi izanaz akusatuta. Atxiloketa horietan, torturatu egin zuten zenbaitetan. Atxiloketa horien ondoren, bost aldiz egon zen preso Basauriko espetxean, hiru Burgosko presondegian, bi Carabanchelen eta behin Jaéngo kartzelan.

1970ean, J.A.L.k 20 urte zituela, mobilizazioak zeuden Zornotzan, Burgosko prozesua zela eta, eta haietan parte hartzen zuen. Egun batean, Guardia Zibila bere etxera joan zen eta atxilotuta eraman zuten Zornotzako kuartelera. Han, berarekin mobilizazioetan parte hartzen egon zirenei buruz galdetzen hasi zitzaizkion. Hasieran, J.A.L.k ez zuen izenik esan, baina galdetzen ari zitzaion guardia zibila mehatxuka hasi zitzaion, eta makila batekin jotzen hatz-mamietan, zauriak egin arte. Azkenean, oinazeak gaindituta, pertsona baten izena esan zuen, eta hura ere atxilotu eta kuartelera eraman zuten. Azkenik, aske utzi ondoren, 25.000 pezetako isuna jarri zieten biei.

1972ko irailaren 5ean, Guardia Zibilak berriz atxilotu zuen. Kuartelean, bere deklarazioa idaztera behartu zuten. Idatzi bitartean, kolpe gogorrak eman, eta

galderak egiten zizkioten, EGIko bere militantziari buruz. Bi egun eta gau bat eman zituen La Salveko kuardelean, eta gero, Basauriko espetxera eraman zuten. Bi hilabete geroago, epailearen aurrean agertu zen, eta gero, Carabancheleko espetxera (Madril) eraman zuten. Hamalau hilabete geroago, Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen eta urtebeteko espetxe-zigorra ezarri zioten, zilegi ez zen elkarte bateko kide izateagatik eta legez kanpoko propaganda egiteagatik.

Batzuetan, aurretik izandako atxiloteten ondorioz, atxilotu ohiak lehenengo susmagarrien multzoan sartzen zituzten, eta askotan, tratu txarrak eta torturak jasan izan zituzten berriz ere. Esate baterako, Batzordean aurkeztutako beste kasu batean, T.I.Z. lau aldiz atxilotu zuten: lehenbizikoa, Iparraldera bidaia bat egin ondoren; bigarrena, Bakion, sarekada batean; hirugarrena, Txiki eta Otaegiren heriotza-zigorren aurkako manifestazio baten ondoren; eta laugarrena, Segoviako ihesean (1976) parte hartu zuen txoferraren andregaiia izanaz akusatuta.

Azken horretan, biluzteko esan zioten eta lan-jantzi bat janztera behartu zuten. Mahai luze batean eserita jarri, manta batean bildu, eta lotu egin zuten. Buruz behera etzanda zegoen, burua zintzilik. Mahaiaren ondoan aulki bat jarri zuten, eta haren gainean, urez betetako palankana bat, bere buruaren parean. Galderak egiten zizkioten bitartean, burua uretan sartzen zioten bi edo hiruren artean, itotzen ari zela sentitzen zuten arte. Goizean, torturen ondoren, Bermeoko kuardeletik Mungiako kuartelera eraman zuten, eta handik La Salvera (Bilbo). Ez zioten jakinarazi zer egoeratan zegoen. La Salveko kuardelean, Basauritik ezagutzen zuen beste emakume batekin egin zuen topo. Hari ere “bainuontzia” egin zioten. Bi edo hiru egun beldurrez egon ziren, ea berriro torturatuko zituzten, eta ez zioten begirik kentzen komunean zegoen kubo bati. Ia ez zuten elkarren artean hitzik egin. Atxilotuta egon ziren lekua artxiboa zela esan zieten: armairuak zeuden hormetan, eta altzari bat erdian. Larunbatean, aske zegoela esan zioten. Guardia Zibileko agintari batek Bakiora eraman zuen, auto ofizial batean. Antza, bilatzen ari ziren emakumeak egun batzuk zeraman atxilotuta Bartzelonan, baina ez zuten T.I.Z. askatu egun batzuk geroago arte.

G.U.I.ren kasuan ere, ikusten da pertsonak behin eta berriz atxilotzeko praktika, tortura erabiliz ikertzeko. G.U.I. lau aldiz atxilotu zuten. Lehenbizikoan, 1964an, Brigada Politiko Sozialak atxilotu zuen eta Indautxuko polizia-etxera eraman zuten. Han, lau egun egon zen, eta denbora horretan, poliziaek torturatu egin zuen, eta espetxean lau hilabete eman ondoren, aske utzi zuten kargurik gabe. Zenbait aldiz atxilotu zuten Ondarroan, indarkeria-gertakariak edo istiluak izaten zirenean, eta jipoitu ostean, aske uzten zuten. 1966ko urtarrilean berriz atxilotu



zuten, eta egoera zaila zenez eta ume bat zuenez, Frantziara joan zen. Itzuli zenean, berriz atxilotu zuten, 1972an eta 1973an, eta beste behin, torturak jasan zituen. 1975eko udan eta, berriz, 1977ko martxoan, Brigada Politiko Sozialeko kideak joan zitzaizkion bila etxera, ordu txikitan. Indautxutik Madrilera eraman zuten, Segurtasun Zuzendaritza Nagusira (DGS), eta han hiru egun eduki zuten. Denbora-tarte horretan, berriz jipoitu zuten. Gero, epailearengana eraman zuten, eta betaurrekorik gabe irakurtzeko gai ez zela erakustean, epaileak ez zuen kontuan hartu polizia-etxean sinatu zuen agiria, eta aske utzi zuten kargurik gabe.

Segidan, mediku batengana joan zen, torturak ziurtatzeko, eta publikoki salatu zuen prentsaren aurrean, bai eta epailearen aurrean ere. Horren ondorioz, Indautxuko polizia-etxeko polizia batzuen identifikazio-saioa egin zen, eta bi ezagutu zituen haien artean. Egun batzuk egon zen laneko bajaran, jasotako torturen ondorioz. Oraindik ere, noizean behin arazoak izaten ditu lo hartzeko, eta batzuetan, amesgaiztoak ere izaten ditu. Beldur handia izan zuen, eta oraindik ez du guztiz uxatu.

### **Pertsona baten bizitza suntsitzen duten inpaktuak**

J.M.O.E. Guardia Zibilak atxilotu zuen 1973ko abenduan, Hidalgo kapitainaren agindupean, eta gogor torturatu zuten, bere arrainontzian armak Frantziatik Espainiara garraiatu izanaz akusatuta. Espetxean sartu zenean, J.M.O.E. ezagutzen zuen Ondarroako jendea ez zen gai izan hura fisikoki ezagutzeko, torturetan eragindako lesioen ondorioz. Bestalde, pixan odol egiten egon zen luzaroan. Jipoien eta atxiloketa-denboraren ondorioz, arazoak izan zituen begietan, eta betaurrekoak jarri behar izan zizkioten. Bederatzi hilabete igaro ondoren, Carabanchelera eraman zuten, Ordena Publikoko Auzitegian epaitzeko. 1974ko irailaren 27an, J.M.O.E. absolbitu zuten eta aske utzi zuten. Gauaren erdian askatu zuten, dokumentaziorik eta dirurik gabe eta inori jakinarazi gabe. J.M.O.E. herrira itzuli zen eta itsasoko lanetan jarduten jarraitu zuen, baina esperientzia horrek eragin handia izan zuen bere izaeran, bai jasandako torturengatik, bai espetxeko egonaldiagatik. Bestalde, mehatxuak jaso zituen telefonoz luzaroan, eta horrek eragina izan zuen berarengan eta bere emaztearengan. J.M.O.E.k “bizipoza galdu zuen”, eta zakarrago eta mesfidatiago bihurtu zen. Egoera horrek eragina izan zuen bere emaztearengan ere, haren izaera ere aldatu baitzen, eta kalera irteteari utzi egin baitzion.

## **Isolatze-teknikak, kolperik gabeko tratu txarrak eta tortura**

Sarritan, atxilotuak isolatzen zituzten, eta argia piztuta zuten zeldetan sartzen zituzten, lorik har ez zezaten. Akituta egoteagatik lo hartzen zutenean, polizia-funtzionarioek oihuka esnatzen zituzten eta beste gela batera eramaten zituzten, zaraten eraginpean jartzen zituzten edo musika jartzen zuten, oihuak estaltzeko edo ekintza hori berehala egingo zieten galdeketa batekin erlazionarazteko.

M.O.U. Brigada Politiko Sozialak atxilotu zuen 1972an, eta atxiloaldian, kolpeak jasateaz gain (lehen egunean batik bat), ez zioten apenas eman jaten, eta lehen lau egunetan, ez zioten lorik egiten utzi ere, zutik egotera behartzen zuten, eta esertzen uzten ziotenean, ez zioten lo hartzen uzten. Atxiloaldi guztian Indautxuko polizia-etxeko bulego berean egon zen. Antza, galdeketa-gela moduan erabiltzen zuten. Etengabe mehatxatzen zuten torturatzearekin edo familia eta lagunei min egitearekin. Mehatxuak egiten eta egiten jarraitu zuten, eta azkenean, behea jo, eta deklarazioa sinatu zuen. Bosgarren egun horretan, ikusmena galdu zuen bat-batean, eta kalabozoan utzi eta gero, behin berreskuratu ondoren, epailearen aurrera eraman zuten. Deklaratu aurretik, esan zioten polizia-etxera eramango zutela berriz, epaileari atxiloaldian jasandako tratu txarren berri ematen bazion; beraz, ez zuen ezer esan. Handik, Basauriko espetxera eraman zuten.

1975ean, R.M.B.k 19 urte zituen, aseguru-etxe batean egiten zuen lan, eta sindikalista zen. Urriko goiz batean, Brigada Politiko Sozialeko kalez jantzitako agente batzuk joan zitzaizkion etxera, atxilotu egin zuten eta Gasteizko polizia-etxera eraman zuten. Zenbait tortura egin zizkieten; esaterako, ez zioten lorik hartzen uzten, sabaian foku bat baitzegoen, beti piztuta. Galdeketa edozein ordutan egiten zizkieten, eta galdekatzaileak txandakatu egiten ziren, taldeka. Halaber, buru barruan sartuta geratu zitzaizkion ateen eta morroiloen zaratak, atxilotutako pertsonen garrasiekin nahasita entzuten zituenak. Izan ere, gaur egun, oraindik ikaratu egiten da antzeko soinuak entzutean.

A.E.M. Brigada Politiko Sozialak atxilotu zuen 1970ean, propaganda subertsiboa egiteaz akusatuta, baina azkenean, absolbitu egin zuten. Batzordeari kontatu zion atxilotu ostean ez zutela zuzenean jipoitu, baina ez ziotela esertzen utzi, ezta inon bermatzen ere, ordu batzuek. Galdeketa etengabea zen eta, une oro, pistola bat zegoen gelako mahai errektangular baten gainean, eta agenteak harekin "jolasten" ziren, elkarri pasatuz, galderak egin bitartean. Behin baino gehiagotan, agenteek arma hartu zuten eta garondoan jarri zioten, modu mehatxagarrian.

Exekuzio-itxura ere egin zuten. Halaber, eskura utzi zioten pistola zenbait aldiz. Denbora luzean egon zen eskuburdinak jarrita, hasieran batik bat.

Galdeketek eta deskribatutako egoera horrek atxiloaldiaren azken minutura arte iraun zuten. Galdeketetan, goi-agintari bat sartzen zen, modu probokatzailan, oihuka eta berari errieta eginez. Mehatxuak ere egin zizkion, mahaiian zegoen pistola seinalatuz eta polizia-etxean “ustelduko” zela esanez. Horrez gain, esaten zioten gainerako atxilotuek salatu egin zutela, eta heriotza-mehatxuak egiten zizkieten.

Zeldan zegoenean ere, ez zioten atsedean hartzen uzten, edozein ordutan sartu eta irteten ziren, eta zeldaren eta galdeketa-gelaren arteko etengabeko joan-etorri haietan, gizon-ahotsen garrasiak eta kexak entzun zituen zenbait aldiz, atxiloaldiko azken egunetan batik bat. Unea jakin batean ere, zeldaren horman irudiak ikusten hasi zen, eta ez zekiean ea proiektzioak ziren ala bere irudimenaren emaitza.

Higiene-baldintzak txarrak ziren, eta oraindik polizia-etxean zegoela, hilekoa etorri zitzaion, eta higiene-produktu oro ukatu zioten denbora luzez, horrek emakume bati eragiten dion zikintasun- eta ondoez-sentsazioa sorraraziz.

## **Sexu-indarkeria eta umiliazioak**

Umiliazioen eta iseken testigantza ugari egin ziren Batzordearen aurrean, baina haiei buruzko deskribapenak mugatuagoak izan ziren, horrelakoak dakarten estigmazioagatik. Gerta liteke atxilotuak biluzaraztea, eta kokoriko ibiltzera edo flexioak egitera behartzea, haien borondatea ahultzeko.

*Testuinguru horretan, galdera berdina egiten zizkieten etengabe, eta haiek nahi zutena erantzuten ez bazuen, iraindu egiten zuten eta oihu egiten zioten. Era guztietako irainak esan zizkieten, irain sexualak ere bai, apaiza zela ere baliatuta. Irain horiek larriak eta laidogarriak izanda ere, une hartan, indarkeria fisikoa izan zen gogorra berarentzat. T.E.A.ri buruzko irizpena.*

C.M.B. 1975eko irailean atxilotu zuten, Gernikako kuarteletik Bilboko La Salveko kuartelera eramane zuten, eta han, soto batean, berriz torturatu zuten. Hartan, eskuburdinak jarri zizkieten eskuetan eta sabaitik zintzilikatu zuten soka batez.

Zintzilik zegoela, galtzak eta galtzontzilloak jaitsi zizkieten eta elektrodoak jarri zizkieten genitaletan. Egoera horretan, guardiek edozein aukera baliatzen zuten umiliatzeko.

M.A.A.B. (19 urte) ere biluzik zintzilikatu zuten sabaitik. I.P.B.k (18 urte), berriz, hauxe dio: *“kokoriko jarrita”* bueltak ematera *“behartu ninduten, ostikoak ematen zizkidaten bost edo sei torturatzaileran aurrean”*. Halaber, J.V.O.ri (19 urte) behin eta berriz egiten zizkieten sexu-irainak eta -mehatxuak. 1968an, J.P.B.P.ri, 16 urte betetzeko aste pare bat falta zitzaizkiola, barrabileri heldu eta *“Larrutan egingo dut zure arrebarekin”* edo *“Zure ama urdanga hori hilko dut”* esaten zioten.

Batzordeak 11 emakumeren torturen testigantzak jaso zituen. Haien artean, P.G.G.L.ri (23 urte) *“Ba al dakizu bortxa zaitzakedala?”* xuxurlatzen zioten, lepotik hatza eta eskua pasatzen zizkieten bitartean. R.M.k bost egun eman zituen polizia-etxean 1975eko urrian, 19 urte zituela, eta *“bat nire ondoan esertzen zen, eta eskuak gainetik pasatzen zizkidan”* dio, beste galdekatzaile batek *“pertxa bat sartuko dizugu nonbaitetik”* esaten zion bitartean. A.M.N. 1976ko apirilean atxilotu zuten eta hura ere biluzarazi zuten, gauetan batez ere, eta *“gimnasia egitera behartzen ninduten, lehertu arte, eskukak egiten zizkidaten bitartean”*. 18 urte zituen.

## **Kolpeak burezurrean eta ondorio sentsorialak**

Batzordeak zehaztu ahal izan zituen ondorio sentsorialen artean, kolpe eta gazezur-garunetako traumatismoei buruzkoak daude. L.Z.A. 1968an atxilotu zuten, legez kanpoko propaganda mugaren alde batetik bestera eraman izanaz akusatuta. Buruan jaso zituen kolpeen ondorioz, txistu-hotsak entzuten hasi zen ezkerreko belarrarian, eta geroago, belarri horretako entzumena galdu zuen. Jasan zituen tratatu txarrek eta torturek beste lesio garrantzitsu batzuk ere eragin zizkieten; esaterako, menisko-haustura bat, belaunaren hantura, herrentasun nabarmena eta min handiak. Espetxetik irtetean, bi ebakuntza kirurgiko egin behar izan zizkieten kaltetutako belaunean. Entzumen-galeraren diagnostikoan, egiaztatu zen kolpeek entzumen-nerbioa kaltetu zutela, eta entzumen-galera iraunkorra eragin zutela.

I.G.C.k gazezur-garunetako traumatismo bat jasan zuen 1975ean, propaganda prestatzen ari ziren etxebizitza batera iristen ari zela. Kolpe horien ondorioz, belarri bateko entzumena galdu zuen, eta hori larriagotu egin zen gero, bai atxiloaldian

jasandako torturen ondorioz, bai Yeseriasko espetxean emandako egonaldian zainketarik izan ez zuelako. Gaur egun, higiene pertsonaleko oso zainketa berezi eta zorrotzak egin behar ditu, eta erabat baztertu behar du belarrietan ura edo zikina sartzeko arriskua dakarren jarduerarik egitea. Eskuineko belarriaren erabateko entzumen-galerak izugarritzko eragina izan du bere bizimoduan. Muga handiak ditu gizarte-jarduerak egiteko.

J.M.B.B.ren kasuan, belarrietako kolpeak “telefonoa” izeneko tortura-teknika baten parte ziren. Atzetik, belarrietan jotzen zioten, esku-ahur irekiarekin. Horrela, odoljarria eragin zioten eskuineko belarrian, eta gero, entzumen-galera izan zuen.

### **Falanga eta “zezen-zakila”**

Atxilotutako askok esan zuten oin-zoletan objektu, makila, borra edo usta batekin kolpeak emanez torturatu zituztela. Tortura-teknika horri *falanga* esaten zaio. Min handiak eragiten ditu eta oso lesio larriak eragin ditzake oin-zoletan, eta aste batzuk igaro daitezke berriz normaltasunez ibili ahal izan arte.

1970ean, grebaldi batetik lanera itzuli zenean, Guardia Zibila bere bila zebilela esan zioten lankideek F.E.L.ri, eta kuartelera joan zen. Kuartelean sartu eta berehala, oinetakoak eta galtzerdiak kentzeko agindu zioten, eta paretaren kontra jarri zuten, belauniko eta eskuak bizkarrean lotuta eskuburdinekin. Guardia zibilek usta bat hartu zuten eta oin-zoletan harekin kolpeak ematen hasi zituzkion. Paretaren kontra zegoenez, ezin zuen ikusi zer egiten zuten, baina Batzordeari esan zion oin-zolak ebaki izanaren sentsazioa izan zuela. Ordubetez eman zituzten kolpeak, eta hamabost minutuan behin, sarjentua sartzen zen, ea zerbait aitortu zuen galdezka. Gero, ohatzeetako batean etzateko agindu zioten, eta oinak barretako batean bermatu ondoren, berriz hasi zituzkion oin-zoletan jotzen.

E.G.B. (18 urte) Guardia Zibilak atxilotu zuen 1972ko irailaren 5ean, lanetik etxera itzultzean. Anaiarekin eta lehengusu batekin zihoan, eta haiek ere atxilotu zituzten. Zornotzako kuartelera eraman zituzten, eta orduantxe hasi ziren tratu txarrak. Gero, La Salveko kuartelera eraman zuten, eta han, oinetakoak kentzera behartu zuten eta oin-zoletan kolpeak eman zituzten zigor baten moduko makila txirikordatu batekin, ETAKo kideei buruz galdetzen jarraitzen zuten bitartean. Beste tortura batzuk ere jasan zituen, baina oin-zoletan emandako kolpeak izan ziren latzenak. Haien ondorioz, ia astebete egon zen ibili ezinik.

I.G.B. 1969ko urriaren 26an atxilotu zuten, 18 urte zituela. Batzordeari esan zion larruz estalitako metalezko borra batekin jo ziotela, oinutsik egonda. Oin-zoletan kolpe txikiak ematen zizkieten, baina etengabe. Hamabost egun igaro arte ezin izan zituen bere zenbakiko oinetakoak berriz jantzi, eta hala ere, ia ez zen ibiltzeko gauza, minagatik. Ez zuen inongo medikurik ikusi. Espetxetik, hiru hilabete geroago atera zen, fidantzapean. Gero, Ordena Publikoko Auzitegiak (TOP) epaitu zuen, eta lau hilabeteko espetxe-zigorra ezarri zioten.

Beste atxilotu batzuek antzeko tortura-formen berri eman zuten. 1975eko apirilaren 7an, L.M.A.I.ri oinetakoak kendu zizkieten eta oin-zoletan jo zuten usta batez. Kolpeen ondorioz, hantura handia izan zuen gorputz-adarretan eta ezin izan zituen oinetakoak jantzi. P.U.U. haren lagunak beste gela batzuetatik iristen ziren oinaze-garrasi ikaragarriak entzuten zituen. *“Ezin da hitzekin adierazi zer den senarrarekin batera atxilotuta egotea”* esan zuen.

J.F.A.k Batzordeari esan zion jasandako torturetako batean zigor baten moduko zerbaitekin jo ziotela, bizkarrean batik bat. *“Zezen-zakila”* esaten zioten objektu horri.

1970eko hamarkadan, Langile Komisionen barruan, langile-komiteen fenomenoak sortu zen, eta, halaber, akordioak egon ziren ETaren eta EGren artean. Kontzentrazio bat antolatu zen Gernikan, 1970eko apirilaren 26rako, eta egun horretan, Gernikara jende asko iritsiko ez zela pentsatuta, Langile Komisionetako kide batzuk gordean kontzentratu ziren Zornotzan. Oso gutxi ziren. Hala ere, aurrezki-kutxaren aurkako erasoak egitea erabaki zuten, Molotov koktelak eta harriak erabiliz. Horren ostean, Guardia Zibilak haietako hiru atxilotu zituen, S.S.J.Z. tartean. Tortura-teknika asko egin zizkietela esan zuen, eta haietako batean, oinutsik geratzera behartzen zuten eta *“zezen-zakila”* esaten zioten usta baten moduko batekin jotzen ziotela oin-zoletan.

## **Tortura eta tratu txarren teknika espezifikoaren erabilera**

Askotan, tortura-teknika sofistikatuagoak aplikatu zitzaizkien atxilotuei, asfixia eta berehalako heriotza-sentsazioak sortzeko diseinatutako tormentu-formak erabiliz. Bizirik atera zirenek deskribatutako sufrimendu handiaz gain, kontuan izan behar da azpiegiturak eta prestakuntza espezifikoak behar direla tortura-forma horiek gauzatzeko, eta horrek erakusten du apropos eta antolatuta egiten zirela.

1975eko apirilaren 25ean, salbuespen-egoeran, T.E.Z.A. elizgizonak tortura eta kolpe asko jasan zituen. Ondorio larriak geratu zitzaizkion eta hiltzeko zorian egon zen. Bitan, ur zikinez betetako bainuontzi bat zuen komun batera eraman zuten, eta han, burua bainuontzian sartzen zioten, ia ito arte. Beste batean, kokoriko jartzera behartu zuten, bi polizia-ilararen artean, eskuetan eskuburdinak jarrita zituela, zangoen atzetik. Poliziek ostikadak ematen zizkieten botekin, baloi bat balitz bezala. Torturek 24 ordu iraun zuten guztira. Horren guztiaren ondorioz, 29 egun egon zen Basurtoko Ospitaleko ZIUn, hil ala bizian, eta beste hiru hilabete eman zituen zentro horretan ospitaleratuta, eta urtebete laneko bajan. Bizitza osorako amesgaiztoak geratu zaizkio.

### Tortura zigor eredugarri gisa

1972an, San Lorenzoren erromeriaren ospakizunean, Gernikako jaien bezperetan, guardia zibil batek (mozkorra, antza) zenbait zuhaitz eta inguruan zuen oro metrailatu zituen, jendea bizi zen eremu batean. Ez zen zauriturik egon, baina F.J.G.Z.k, gertaeren lekuko batek, bala-zorroak jaso zituen eta salaketa jarri zuen Guardia Zibilaren kuartelean. Salaketa horren ondorioz, zenbait egun eduki zuten atxilotuta Guardia Zibilaren kuartelean, eta han zenbait eraso jasan zituen. 1974ko abuztuaren 11n berriz atxilotu zuten, eta Auzitegi Militarrak epaitu zuen, 114/74 sumarioan, agintaritzari jarkitu izanaz akusatuta. Hala ere, urte horretako urriaren 15ean kasua largetsi egin zuten, eta agintaritza militarren aurkako ofentsagatiko falta arina soilik egotzi zioten.

Guardia Zibilak bere kontrako jazarpena areagotu zuen, eta berriz atxilotu zuten 1976ko martxoaren 31n, Guardia Zibilaren aurkako ustezko kalumnia-delitua egotzita. Hartan, oso tortura larriak jasan zituen. Haietako batean, Gernikako kuarteleko garajea sartu zuten, eta eskuak Land Rover bati lotu zizkieten, eta oinak, berriz, beste auto bati. Ibilgailuetako bat martxan jarri zuten, F.J.G.Z.ren gorputza tenkatuz joan zen eta airean esekita geratu zen. Tiramenduak oso min handia eragin zion besoetan eta zangoetan, eta artikulazioek klaska ere egin zuten. Horrez gain, jipoi basati bat eman zioten agente batzuek: kolpeak eman zizkieten buruan, eta sudurreko eta belarrietako odoljario handia eragin zioten. Bi pertsona –bat, atxilotuaren anaia, eta bestea, gerora udalerriko alkate izango zena– Gernikako kuartelera joan ziren, F.J.G.Z.ren egoerari buruz galdetzeko, biktimak egiten zituen oinaze-garrasiak kanpotik entzuten baitziren, baina kuarteletik berehala aterarazi zituzten.

Gernikatik La Salveko kuartelera eraman zuten. Kuartel horretan tortura hauek egin zizkieten: “bainuontzia”, elektrizitatea gorputz osoan aplikatzea, “burtsa” eta barra baten bidez gorputza esekitzeko maniobrak. Kasu hori ere largetsi egin zuten, eta agintaritza militarren aurkako ofentsa-falta bat baino ez zioten ezarri. Urte horretako ekainaren 1ean, Bilboko espetxeratze-zentroan sartu zuten, hilabeteko zentzagarria betetzeko.

M.A.B. 1976ko apirilaren 11n atxilotu zuten, 19 urte zituela. Galdeketa egitera zihoazela, guardia batek itxaroteko agindu zion, geletako batetik beste atxilotu bat ateratzen zuten bitartean. Atxilotuak zenbait egun zeraman jada kuartelean, eta M.A.B.ren testigantzaren arabera, guztiz desitxuratuta zegoen. Atxilotu hori erakutsi ondoren, gelara eraman zuten. Han, Jesús Muñecas kapitainak, Guardia Zibileko Hidalgo kapitainaren aurrean, mehatxu egin zion: “*zure anaiak ez du ezer esan, baina zuk den-dena aitortuko duzu*”. Horren ondoren, torturak hasi ziren, eta Muñecas kapitaina bertan egon zen une oro, berak agintzen baitzuten. Besteak beste, *bainuontzia* egin zioten. Batzordearen aurrean deskribatu zuen nola egin zioten tortura-teknika hori: biluztu egin zuten eta gonbitoz betetako manta zikin bat jarri zioten gainean, soka batez lotu zioten manta, eta ohol baten gainean jarri zuten bainuontzi baten aurrean, eta burua uretan behin eta berriz sartu zioten. Burua murgildu egiten zioten, ura irensten hasi arte; orduan, atera egiten zuten, une batez arnasa hartzen uzten zioten, eta berriz sartzen zioten burua uretan, berak buruarekin bainuontziaren kontra kolpe handi bat eman zuen arte. M.A.B.ren esanetan, kolpe hori eman zuen tortura hura amaiarazteko. *Bainuontzia* egiten zioten bitartean, komandoa osatzen zuten pertsonen izenak galdetzen zizkieten, ea non zituzten armak, baina berak ez zekien ezer horri buruz.

Atxilotu askoren deskribapenek erakusten dute jardunbide horiek tortura-teknika espezifikoek parte zirela, galdeketez arduratzen ziren polizien eta guardia zibilen taldeak egiten zituztela, eta, oro har, hiriburuetako polizia-etxeetan eta kuarteletan egiten zirela.

*J.V.O.B. Polizia Armatuak atxilotu zuen eta Indautxuko polizia-etxera eraman zuten. Han, jotzen hasi zitzaizkion, kalabozora jaitsi zuten eta mahai batean etzan eta lotu zuten, gorputz-enborra bilutsik zuela, eta kolpeak eman zizkieten gorputz osoan. Kokoriko jarrita korrika egitera behartu zuten, eta erortzen zenean, borra batekin jotzen zioten, eta zenbait agentek inguratzen zuten eta jo egiten zioten, alde batetik bestera bultzatu bitartean. Eraso*



*fisikoez gain, bortxatzearekin mehatxatu zuten, eta hitzezko umiliazio ugari egin zizkieten. Halako batean, jotzen ari zitzaizkiola, pertsona bat sartu zen gelan, betaurrekoak eta traje beltz bat jantzita, eta ea nor ote zen bazekien galdetu zioten. Ezetz esan zuen, eta jipoi bat eman zioten pertsona hori ez ezagutzeagatik. Zertxobait geroago, berriz sartu zen, eta orduan baietz esan zuen, ezagutzen zuela, eta galdetu zioten ea hil nahi zuelako ezagutzen omen zuen, eta berriz jo zioten. Atxilotuta egon zen hiru egunetan, ez zioten lorik hartzen utzi. Irizpena.*

## **Gorputz-jarrera eta maniobra behartuak**

Akitze fisikoko formek eta gorputz-jarrera behartuek min handia eragiten diote atxilotuari, eta haren erresistentzia ahularazten dute, minaren iraunkortasunagatik eta gerorako uzten dituzten ondorioengatik.

J.F.A. 16 urte baino ez zituela atxilotu zuten, 1975eko irailaren 29an. Egun hartan, manifestazio bat izan zen Ondarroan, Txiki eta Otaegiren fusilamenduak salatzeke. Guardia Zibilaren Ondarroako kuartelera eraman zuten, eta han beste hamar bat pertsona zeuden atxilotuta. Denak paretaren kontra jarri zituzten, zangoak zabalik, eta eskuetako hatzak soilik uzten zieten hormaren tabikean bermatzen, gorputzaren pisu osoari eusteko, eta eskuak kentzen bazituzten edo keinu arraroren bat egiten bazuten, jo egiten zieten. Gauean, galdeketa egin ez zioten arren, J.F.A. jo eta umiliatzen jardun zuten.

J.R.G.U., berriz, bi egun izan zuten atxilotuta eta zenbait galdeketa egin zizkieten. Galdeketa, kokoriko jarrita izaten zuten, eskuburdinak atzetik sendo jarrita. Bultza egiten zioten, kolpeak ematen zizkieten, eta J.R. etengabe erortzen zen lurrera, eta une horretan, ostikadak ematen zizkieten. Batzordeari esan zion eskuburdinak hain estu lotuta izan zituela, non hilabete pasa baitzuen gero eskuetan inurridurak eta parestesiak pairatzen.

*J.M.B.B. Atzetik, belarrietan jotzen zioten, esku-ahur irekiekin. Horrela, odoljariora eragin zioten eskuineko belarrian, eta gero, entzumen-galera izan zuen. Paretaren kontra jartzera behartu zuten, gorputz osoaren pisua hatz erakusleetan bermatuta, eta erortzen zenean, jo egiten zuten. Mahaietan jartzen zuten, hankak altxatuta, eta oin-zoletan jotzen zioten mazo batekin, eremu hori guztia sorgor utzi arte. Polizia-etxean egon zen 72 orduetan, poliziaren txanda-aldaketetan, zelda batzuetara eramaten zuten, eta gero, berriz*

*eraman zuten galdeketa-gelara. Bestalde, ez zioten lorik hartzen utzi, eta ez zioten jatekorik edo edatekorik eman. J.M.B.B.ri buruzko irizpena.*

M.E. ETAko kidea zen 1966an. Garai hartan, ikurrinak leku publikoetan jartzen laguntzen ibili zen, eta ikurrinak goi-tentsioko kableetara eta beste leku batzuetara igotzeko tresnak egiten zituen. Egun batean, lantegitik irtetean, motorrean zenbait polea zeramatzala, atxilotu, eta Guardia Zibilaren Antiguako kuartelera eraman zuten, eta han torturatu egin zuten: kolpeak ematen zizkioten etengabe, berarekin nork eta nola jarduten zuen galdetzen zioten bitartean; flexioak eta beste ariketa-mota batzuk egitera behartu zuten, eta bitartean, kalez jantzitako zazpi edo zortzi guardia osatutako zirkulu batez inguratuta zuten, eta gelako alde batetik bestera bultzatzen zuten. Legez kanpoko propaganda eduki izanaz eta zilegi ez zen elkarte bateko kide izanaz akusatu zuten, eta Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen 1966an (63-66 sumarioa). Urtebeteko espetxe-zigorra eta 10.000 pezetatako isuna ezarri zizkioten, legez kanpoko propaganda izateagatik. Soldatutza Araka-Gamarrako (Gasteiz) kuartelean egitea tokatu zitzaion, eta Burgosera lekualdatu zuten. Han, baimen bat eman zioten, eta egun horietan norbaitek Burgosko katedralean ikurrina bat jarri zuenez, Tolosara eraman zuten atxilotuta, gertakari horri buruz galdetzeko.

### Oholtxo hatzen artean

Atxilotutako lau pertsonak gutxienez, esan zuten hatzen artean presioa eragiteko eta mina sorrarazteko jarritako tresna batekin torturatu zituztela. Horietako batzuek kuartel berean torturatu zituzten, atxiloaldi eta urte desberdinetan. 1969ko martxoaren 29an, Guardia Zibilak A.G.G.L. atxilotu zuen, etxetik irtetean. Autoz eraman zuten Guardia Zibilaren Gasteizko Gaztela kaleko komandantziara. A.ri kolpeak eman zizkioten eta bortxatzearekin mehatxatu zuten. Saio horietan, torlojudun oholtxo batzuek osatutako tresna batekin torturatu zuten. Eskuetako hatzetan jarri zioten tresna, eta estutu egiten zuten galderak egin bitartean. A.k konortea galdu zuen zenbait aldiz, hain min handia jasan ezin zuelako. Denbora horretan guztian, tratu txar fisikoak eta psikologikoak pairatu zituen, bai eta era guztietako umiliazioak ere. Hiru egun geroago, Gasteizko espetxera eraman zuten, egoera penagarrian.

## **Deklarazioak eta beren burua errudun adierazitako deklarazioak sinatzea**

Beren burua errudun adierazitako deklarazioak sinaraztea tratu txarren eta torturen helburuetako bat izan zen. Testuinguru horietan, beren erantzukizuna “onartzen” zuten akusatuak izatea zen askotan “proba” bakarra. Kasu honetan, 1978an, J.B.B.k 22 urte zituen, soldadutza amaitu berria zuen eta postari-lanetan jarduten zuen Gernikan. Bere baserrian atxilotu zuten, 1978ko azaroaren 11ko goizaldean. Bere etxean autoen matrikulen zerrendak aurkitu zituztenez, ordena publikoko indarrek Bizkaiko Foru Aldundiko A.U.ren hilketan nahasi nahi zuten. ETAk hil zuen A.U., baina hori gertatu zen unean, J.B.B. soldadutza egiten ari zen Kanarietan. Indautxun, galdeketetan, kolpeak eman zizkioten buruan eta belarrietan telefono-aurkibideekin, bai eta ukabilkadak eta kolpeak eskuekin ere, gorpuztean eta buruan. Gurasoak eta erregistroan aurkitu zutena ziurtatzeko agiria sinatzeari uko egin zion bizilaguna hiltzearekin mehatxatu zuten.

Garai hartan atxilotutako beste batzuek esan zuten ordena publikoko indarrek prestatutako deklarazioak sinatzera behartu zituztela, baina hala ere, ez zutela hori epailearen aurrean salatu, beldurragatik. B.I.M. 1975eko maiatzean atxilotu zuten, eta esan zuen bi guardia zibilek (*Cabito* esaten zioten haietako bati) idatzi zutela bere deklarazioa. Bilboko epaitegira eraman zuten furgoi batean, eta han aske utzi zuten. Ez zuen inoiz esan inoren aurrean atxiloaldian zer tratu txar jasan zituen, berriz atxilotuko zutelako beldur, aske utzi zutenean tortura-arrastoak oraindik nabarmenak ziren arren.

Biktimek kontatutako gehienetan, tortura beren burua errudun adieraztea lortzeko, beste pertsona batzuen izenak lortzeko edo gertakariak egozte lortzeko modu bat zen. Benetako aztarnak edo kasu-inguruabarrak alde batera utzita, kasu horietan, tortura informazioa lortzeko eta errudunak izateko baliatu zen. Zenbait kasutan, hala nola jarraian azaldutakoan, atxiloketak zenbait pertsonaren sarekadak izan ziren, aztarnaren bat lortzen saiatzeko.

*Galdeketetako galderak egun batzuk lehenago Orozkon izandako gertaera bati buruzkoak ziren. Gertaera horretan, antza, udalerrri honetako pertsona bat nahasita omen zegoen ETako kide batek burututako Monasterio Santos jauna taxistaren hilketan. Polizia gertakari horri buruzko informazio bila zebilen eta, horregatik, udalerrri honetako pertsona asko atxilotu zituen. F.M.*

### Apaizen aurkako torturak

Garai hartako apaiz askok lantegietan egiten zuten lan, langile gisa (“apaiz langile” esaten zieten). Hiru kasu aurkeztu ziren Batzordearen aurrean.

1972ko otsailean edo martxoan, Brigada Politiko Sozialekoak P.M.C.G. atxilotzera joan ziren haren lantokira, eta Indautxuko polizia-etxera eraman zuten. Han, bost egun egon zen atxilotuta. Egun horietan, kolpe, ostiko eta irain ugari jaso zituen. Apaizaren prozesamendua abiatzen saiatu ziren, eta, horretarako, Antonio Añoveros Bilboko apezpikuaren baimena behar zuten, baina ez zien eman, behar ziren berme judizialik gabe epaituko zutelakoan. Hilabete egon zen atxilotuta.

Hiru urte geroago, 1975ean, berriz atxilotu zuten, etxean. Hiru frantziskotarrekin partekatzen zuen etxea. Bigarren aldi horretan ere bost egun egon zen Indautxuko polizia-etxean, eta tratu txarrak jasan zituen: flexioak egitera behartu zuten eta beste tratu laidogarri batzuk ere pairatu zituen.

Geroago, Añoveros apezpikuak baimena emateari berriz uko egin zionean, berme faltagatik, Basauriko espetxera eraman zuten berriz. Basaurin beste lau apaizekin egon zen preso. Denak egoera berdinean zeuden. Hauek ziren lau apaiz haiek: Txomin Ibarretxe, Ibarruriko parrokoa; Olave, Busturiako edo Mundakako parrokoa; Amiano, Durangaldeako herri bateko parrokoa; eta Fernández, beste apaiz langile bat. Ez zituen inoiz gertakari horiek salatu edo zabaldu. Aitzitik, berriz atxilotua izateko beldur, Frantziara erbesteratu zen.

### Tortura eta tratu txar psikologikoak

Askotan, torturak eta galdeketa berrien berehalakotasunak eragindako beldurra eta oinazeaz gain, tortura psikologikoko beste forma batzuk baliatu ziren; esaterako, loa kentzea edo atxilotutako pertsona nahasteko maniobrak egitea.

Bizirik dirautenen kontakizunetako askotan egindako deskribapenetan, eragin psikologikoa tortura fisikoa bera baino estresagarria eta larrigarriagoa zela adierazten da, bata eta bestea esperientzia beraren parte izanda ere. Beste atxilotu batzuen garrasiak eta senideak torturatzeari buruzko mehatxuak entzuteak atxilotuengan izugarrizko beldurra sortzen zutelako diote.

*Hurrengo egunetan, zeldatik, tortura jasaten ari ziren beste pertsona batzuen garrasiak eta negarrak entzun zitzaizkien. J.rentzat, egun haietan, presio psikologikoa izan zen okerreana, bai egiten zizkioten mehatxuengatik, bai eta beldurra eta ziurgabetasuna zuelako berari eta familiari gerta zitzaiokeenagatik. Indautxuko polizia-etxean eman zituen 7 edo 8 egunetan ez zioten lorik hartzen utzi. J.*

F.G.Z. hamar egun egon zen Indautxuko polizia-etxean atxilotuta, eta denbora horretan, ez zioten apenas lo hartzen utzi, zeldako atea edozein unetan irekitzen zuten eta modu zakarrean sartzen ziren. Galdeketa egiten ziotenean, kolpeak jasotzeaz gain, bere egoera berean egon zitezkeen beste pertsona batzuen garrasiak entzuten zituen. Saio haietan, polizia desberdinak agertzen ziren, eta esaten zioten hurrengo galdeketa aurrekoa baino okerragoa izango zela, bere lagunek jada aitortu zutela eta bere aita eta ama atxilotu zituztela.

Azken egunetan, ama joan zitzaion ikustera, baina hain gaizki zegoen, non hasieran ez baitzen gai izan hura ezagutzeko. Azken egunean, paper bat eman zioten, eta sinatu egin zuen, handik lehenbailehen atera ahal izateko. Epailearen aurrean, polizia-etxean jasandako torturak salatu ondoren, epaileak ez zion jaramonik egin *“hori atxilotu guztiak esaten zuten zerbait zela argudiatuz”*.

## **Kolaboratzera behartzea**

Torturaren helburu nagusietako bat atxilotuaren erresistentzia haustea da, eta torturatzaileekin kolaboratzera behartzea. Atxilotua izenak ematera behartzea.

F.E.A. 1970ean eta 1975ean atxilotu zuten. Bost egun egon zen polizia-etxean eta tratu txarrak jasan zituen denbora horretan. Batez ere, kolpeak eta ukabillkadak eman zizkioten. Bere testigantza araberak, portaera desberdina zuten poliziak zeuden, eta *“polizia gaiztoaren eta polizia zintzoaren rola betetzen zuten”*, informazioa lortzeko eta, batik bat, eliza batean izandako gertakarietan parte hartu zuela aitortu zezan lortzeko. Azkenik, akituta eta klaustrofobiak jota, deklarazio bat sinatu zuen eta, hartan, manifestazioan parte hartu zuela onartzen zuen.

1975ean, lehen aldian ez bezala, informazioa eta zelula politikoetan parte hartzen zutenen izenak lortzeko itaundu zuten. Galdeketetan, lagun baten

izena eman behar izan zuen, eta, gero, hura behatxulo batetik ikustera behartu zuten, eta poliziaek iseka egin zioten arrazoi horregatik. Batzordearen aurrean esan zuen berarentzat atxiloaldiko okerrean lagunen izena emateagatik izan zuen ahulezia-sentipena izan zela, hori torturatuta egin bazuen ere.

Sentipen eta sufrimendu hori bera adierazi zuen L.Z.A.k Batzordearen aurrean bere esperientzia kontatzean: lagun baten izena eman zuen eta, hura atxilotu ondoren, nola torturatzen zuten ikusarazi zioten. L.Z. 1969an atxilotu zuten, 24 urte zituela, talde abertzale batzuekin kolaboratzen ari zela, Pirinioetatik propaganda pasatzen. Frantziako Jendarmeriako agenteek atxilotu zuten eta Guardia Zibilaren esku utzi zuten. Dantxarineara eraman zuten eta, handik, Iruñeko polizia-etxera. Han hasi ziren tratatu txarrak. Behin eta berriz jo zioten gorputz osoan, bai borra batekin, bai telefono-aurkibideekin. Kolpeen ondorioz, konortea galdu zuen eta, esnatzean, Iruñeko espetxean zegoen, baina bi egun geroago, polizia-etxera eraman zuten berriz. Torturapean, propaganda pasatzen jardun zuen lagunetako baten izena eman zuen, eta hura ere atxilotu egin zuten geroago. Oraindik ere min egiten dio gertaera horrek. L.Z.A.ren eta bere lagunaren deklarazioak bat ez zetozenez, Donostiako polizia-etxera eraman zuten, eta han berriro torturatu zuten, behin eta berriz, hilabetez. Gero, Martuteneko espetxera eraman zuten eta bederatziz hilabete eman zituen han. Espetxe horretatik, Burgosko espetxera eraman zuten gero.

Askotan, militante politiko eta sindikalek ekintza horiei aurre egin zieten beren uste sendoei edo erresistentzia-ahalmenari esker. Beste batzuetan, berriz, muturreko egoeran jarrita, atxilotuek hitz egin zuten edo datuak eman zituzten, egiazkoak edo ez, jasaten ari ziren tortura amaitzen saiatzeko. Sarritan, torturak berekin dakar biktimak dilema dramatiko honi aurre egin behar izatea: hitz egin, tormentua amaiarazten saiatzeko, edo hitzik ez esan, besteak edo bere burua babesteko.

*M.E. hiru egun egon zen atxilotuta. Tortura fisikoak atxilotetaren unetik hurrengo egunera arte izan ziren batik bat, egunez zein gauez. Torturen ondorioz, azkenean, izen bat eman zuen eta, hortik aurrera, kolpeak leunagoak izan ziren, baina izena eman izanak izan zuen, hain zuzen, eragin psikologikorik handiena. M.E.ri buruzko irizpena.*

### Mehatxuak eta atxilotetak afektuzko harremanengatik

Batzordeak jasotako kasu batzuk beren afektuzko harremanengatik atxilotutako emakumeei buruzkoak dira. Emakumeen aurkako indarkeria espezifikoaren adibide nabarmenak dira. Kasu horietan ere, mehatxuak, umiliazioak eta beste tortura-forma batzuk jasan zituzten. Komandanteak denak irteteko agindua eman zuen eta B. bakarrik utzi zuen. 15 minutu igaro ondoren, itzuli egin zen, eta B.k berriz esan zion ez zekiela non zegoen bere senargaia. Orduan, mehatxuka hasi zitzaion berriz komandantea, eta ez zela salbuespen-egoera osoan irtengo esan zion. Hurrengo egunetan ez zuen apenas lorik egin, tenienteak etengabe mehatxatzen zuen, arma bat buruan jartzen zion eta tiro egiten zuen, muniziorik gabe. Egun horietan, armak gordetzeko armairu bat zuen gelan egon zen, eta gauero sartzen zitzaizkion armak hartzera eta, gero, uztera.

Maiatzaren 8an, torturatzen ari ziren pertsona baten aieneak eta arrangurak entzun zituen egun osoan. Ziur asko, bera torturatu zuten artxibo berean ari ziren bestea ere torturatzen. B.k xaboa ere jan zuen zenbait aldiz, gaixotzeko, polizia-etxetik atera eta ospitalera eraman zatzaten. Batzordeari esan zion poliziei entzun ziela atxilotuak hiltzeari buruzko aipamenak. Galdeketaren bidez, bere senargaia non zegoen jakin nahi zuten, baina berak ezer kontatzen ez zuenez, ilea moztearekin mehatxatu zuten; saguak zeudela esan zioten, eta haien soinua ere imitatu zuten, neska gela batean ilunpetan itxi ondoren; familiari min egingo ziotela esan zioten, eta anai gaztea atxilotuko zutela eta jo egingo ziotela berak hitz egin arte; aita hartuko zutela (69 urte zituen) eta neska haren aurrean torturatuko zutela... Mehatxu horiek gauzatuko zituztela sinestera ere iritsi zen, eta horrek sekulako larritasuna eragiten zion.

Egun batzuk igaro ondoren, ahizpak joan zitzaizkion ikustera. Poliziak familiari ohartarazi zion ez zutela B. aske utziko, senargaia atxilotzen ez bazuten. Plan bat ere asmatu zuten: senargaia familiaren etxera joanez gero, familiak Guardia Zibilari abisatu behar zion, hura atxilotu ahal izateko. Familiak etxebizitzatik irtetea erabaki zuen eta Guardia Zibilarekin ez kolaboratzea.

### Zigorgabetasun-testuingurua

Tortura polizia-etxeetan edo kuarteletan egin zen, ordena publikoko indarrek kontrolpean zituzten atxilotuen gainean, baina beste mekanismo eta faktore batzuk ere izan ziren, torturarekin lotutako salaketek edo egin zitezkeen ikerketek

aurrera ez egiteko diktaduraren eta trantsizioko lehenbiziko urteen garaian, eta horren ondorioz, kasu horiek inolako zigorrrik jaso gabe geratu ziren.

Atxilotu askok ez zuten salaketarik jarri beldurragatik edo inolako bermerik ez zegoelako. Horrez gain, mehatxu zehatzak jaso zituzten atxilotu gehienek, jasandako torturak ez salatzeke. Baina tratu txar eta tortura horiek salatzeraz ausartuta ere, epaileen aurrera iristen zirenean, haiek deklarazio horiek baztertu egiten zituzten, ikertu gabe.

Kasu batzuetan, fiskal militarrek espetxera ere joan ziren, atxilotuek jasandako torturak salatzea eragozteko. Adibidez, L.I.C.M. 1973ko apirilaren 29an atxilotu zuten eta La Salveko kuartelera eraman zuten. Galdeketa-gelan, oinetakoak kendu zizkieten eta, metalezko hagatxo batzuk erabiliz, kolpeak ematen zizkieten orpoetan; “kiofanoa” izeneko tortura egin zioten: mahai batera lotu zuten gerritik behera, gorputz-enborra airean utzita, eta kolpeak ematen zizkieten gorputz osoan eta gora eta behera egitera behartzen zuten. Guztira, hiru egun iraun zuten galdeketek Guardia Zibilaren kuartelean, maiatzaren 2ra arte. Gero, Basauriko espetxera eraman zuten. Fiskal militarra espetxera joan zitzaion itauntzera, eta mehatxu egin zion, esanez kuartelera berriz bidaliko zutela galdeketa egitera, han egindako deklarazioak berresten ez bazituen. L.I.C.M.k dio izugarritzko beldurra zuela babesgabetasun-egoera hartan, “*erabat ahula sentitzen nintzen, nahi zutena egin zezaketen nirekin*”.

*J.V.O.B. Epaile militarren aurrera eraman behar zutenean, polizia-etxean bertan esan zioten galdeketak egiten jarraituko zutela, torturak salatzen bazituen. Eta aurpegia guztiz desitxuratuta bazuen ere, epaileak ez zuen ezer galdetu. Epailearen aurrean egon ondoren, galdeketa-geletara jaitsi zuten berriz, eta handik, Basauriko espetxera eraman zuten. Espetxean, aurpegia oso desitxuratuta zuenez, barruan zeuden preso asko ez ziren ohartu bera zela, ezagunak ziren arren. Hematomak eta bizkarreko arazoak izan zituen denbora luzez, torturen ondorioz. Urte askoan pairatu zituen min horiek.*

Kasu batzuetan, salaketa jartzera ausartu zirenei prozesu berriak ireki zizkieten eta zigorra handitu zieten. F.I.E. frantziskotarra lehen aldiz atxilotu zutenean, Zamorako espetxera eraman zuten egun batzuez. Handik irten ondoren, Brigada Sozialak berriz atxilotu zuen, eta Donostiako Gobernu Zibilera eraman zuten. Atxiloaldi berri horretan tortura basatiak jasan zituen. F.I.E.ren arrebak, I.k, salaketa jarri zuen eraso horiengatik, 1969ko maiatzaren



29an. Kausa horren sententzia 1969ko irailaren 27an eman zen, 343/1969 zenbakiko falta-epaiketari, eta F.I.E.ri eragindako lesioengatik inputatutako bi pertsonak absolbitu egin zituzten. Geroago, beste kausa bat (39/1969 kausa) instruitu zen F.I.E.ren aurka, Burgosen. 1969ko abuztuaren seian emandako sententzian, hamar urteko espetxe-zigorra ezarri zioten F.I.E.ri, errebelamendu militarren delitua egotzita. Zamorako espetxean bete zuen zigorra. Espetxe zorrotzetako bat zen Zamorakoa garai hartan, errepresio-neurri gogorrenak baliatzen zituen espetxeetako bat. Han egon zen hiru urte eta hogeita zortzi egun.

A.A. ORTko militantea zen eta, jasandako torturen ondorioz, ez zen gai izan bizitza osoan Guardia Zibilarekiko beldurra gainetik kentzeko. Bere senarrak eman zuen haren esperientziaren berri, hil egin baitzen Batzordearen aurrean testigantza eman baino lehen. Garai hartan, lan egiten zuen enpresaren bitartez, A.A.k gobernadore zibilak hartzea lortu zuen, eta hark agindu zion erantzuleak zigortuko zituztela. Hala ere, guztiz kontrakoa gertatu zen, eta torturatuzaileetako bat, Jesús Muñecas, lekualdatu egin zuten eta kapitain jarri zuten Valdemoroko I. Komandantzia Mugikorraren Eskuadroian.

S.A.B.k, berriz, Bandrés jaunak Justizia Militarreko Kontseilu Gorenean jarritako errekurtsioan jasotakoaren arabera, hau adierazi zion Gasteizko instrukzio-epaileari 1968ko martxoaren 13an: “...*polizia-etxean egin zituen adierazpenak baieztatu eta berresten dituela, baina, alde horretatik, argitu egin behar duela ez dela egia Aretxabaletako lapurretan parte hartu zuenik, eta hori adierazi bazuen ere, polizia-etxean jasandako tratu txarren ondorioz izan zela, eta egin zituen deklarazioetan adierazten den gainerako guztia egia dela...*”. Ez zen salaketa horiei buruzko ikerketarik egin.

J.G.G., beste lagun batzuekin batera, Guardia Zibilaren tratu txarrak eta torturak salatzeri ausartu zen, baina prozedura hori artxibatu egin zuten “frogarik ez zegoelako”. Batzordeak eskuratutako 1968ko abenduaren 20ko ikerketa-deklarazioan (VI. Erregio Militarreko Donostiako Kapitaintza Jeneralaren 26-68 prozedura sumarisimoa, Ordena Publikoko Epaitegi Militarra), jasotzen da J.G.k argudiatu zuela deklarazioa “torturen eta borren bidez moral eta fisikoki behartuta egin duela, eta burua uretan sartu ziotela, eta horren ondorioz, sendatzeko 15 egun behar izan zuten hematoma izan zituela...”.

Kasu horien guztien zigorgabetasunak areagotu egin zuen biktimen sufrimendua, haien egoera okerragotu zuen eta aitortzarik eza ekarri du gaur egun arte. Kapitulu

honetako deskribapenak mingarriak dira eta erakusten dute ordena publikoko indarren jokabidean atxilotutako pertsonen bizitzarekiko, sufrimenduarekiko eta duintasunarekiko mespretxuzko jarrera zela eredu. Batzordeak deskribapen horiek entzun eta aztertu zituen, eta bere aitortza- eta arreta-gomendioetan sartu zituen.

### Bi epaiketa eta torturak

Kasu batzuetan, Batzordeak jakin zuen bi epaiketa edo prozesu egin zirela pertsona beraren aurka, lehenbizi Ordena Publikoko Auzitegian, eta gero, jurisdikzio militarrean. Ondorio hori ateratzeko, garaiko dokumentazio ofiziala berrikusi zen. Prozesu horietan, tortura erabili zen bigarren atxiloaldian atxilotuak bere burua errudun aitortzeko deklarazioak lortzeko.

I.M.E. Ordena Publikoko Auzitegiak auzipetu zuen zilegi ez zen elkarte bateko kide izateagatik eta legez kanpoko propagandatik, eta 1969ko irailaren 23an, behin-behineko askatasuna eman zioten. Lau egun geroago, 1969ko irailaren 27an, Brigada Politiko Sozialak berriz atxilotu zuen, eta kasu horretan, Indautxuko polizia-etxera eraman zuten. Han tratu txarrak eta torturak jasan zituen hiru egunez. Irailaren 30ean, Basauriko espetxean sartu zen, Bilboko 3 zenbakiko Behin-behineko Auzitegi Militarren esku, 71/69 prozedura sumarisimoa irekita, bandidaje eta terrorismoko delituaz akusatuta.







### III. Eragina eta erreparazioa



## 1. Eraginak eta ondorioak biktimengan

Dokumentatutako giza eskubideen aurkako urraketen ondorioak biltzea eta aztertzea Batzordearen mandatuaren eta funtzionatzeko moduaren parte izan ziren. 107/2012 Dekretuak ahalmena eman zion Batzordeari erreparazio eta indemnizazio ekonomikoko neurriak proposatzeko, biktimek agertutako ondorioen mailaren arabera. Atal honetan, dokumentatutako gertaera-mota guztietako biktimek Batzordeak entzundakoan agertutako ondorioen tipologia laburpena egiten da.

Guztira, Batzordeak 239 eskaera jaso zituen, 107/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat zetozenak. 239 kasuetatik 52 (% 22) atzera bota ziren zenbait arrazoiengatik, edo biktima elkarrizketara agertu ez zelako edo behar zen informazioa osatu ez zelako. Beraz, 187 kasu onartu ziren, biktima izana aitortuta. Horietatik, ia % 75ari, eragindako kalteengatik Batzordeak kalte-ordaina gomendatu zuen.

### Kontakizunetik biktimen ondorioetara

Ondorioak biktimen edo senideen kontakizunetan zehaztu ziren, bai eta jasandakoaren eraginak gaur egun arte izandako bilakaeran edo emandako dokumentazio mediko edo psikologikoan ere. Biktima askok oraindik gordeta zituzten txosten medikoak eta, batzuetan, ospitaleetako artxibo klinikoak baliagarriak izan ziren kasuak dokumentatzeko. Beste kasu batzuetan, lehen aipatu bezala, artxibo horiek suntsituta zeuden. Lesioek zauriak eragindako kasuetan, ondorio fisikoak ikusteko moduko orbainak, deformazioak edo hausturak ziren.

Hala ere, gertaeraz geroztik eta gaur egun ere agertzen zituzten ondorioetako asko ondorio psikosozialak ziren. Eragin traumatikoa ebaluatzeko, ez dira su-armek eragindako orbainak, mugigarritasun-maila, alterazio estetikoak edo gorputz-adar baten funtzionaltasuna soilik kontuan hartu behar. Lege-markotik abiatuta, Batzordea biktimen esperientziaren ebaluazio osatuagoa izaten saiatu zen, eta horretarako, honako hauek bildu zituen: biktimen bizipenak, dolu-, estres- edo trauma-adierazpenak, haien bizimoduko aldaketak, senideen osasunean edo familiaren dinamikan izandako eraginak, gizartearen eta erakundearen erantzuna, eta justizia-bilaketaren eta gertaeren zigorgabetasunaren eraginak.

*Nerabea nintzen. Ondo nengoen. Zorionsua nintzen. Gero dena aldatu zen. Urte asko egon nintzen bizitzeko gogorik gabe (negar egiten du). Bizitza jada ez zen gauza bera. Den-dena aldatzen zaizu. Gaztaro osoa... ez nuen bizitzeko gogorik, horrekin dena esan dizut. Nire gurasoek asko sufritu zuten. Askok sufriarazi nien. Besoan, indar gutxiago daukat, zertxobait, baina nahiko ondo geratu zitzaidan. J.F.M.*

## **Mobilizazio emozionala**

Gertaeren kontakizunaren aurrean, zuzeneko biktimek edo senideek mobilizazio emozional handia izan zuten. Askorentzat, testigantza ematea egoera hura berriz bizitzea bezala izan zen, eta Batzordea, berriz, biktimak deskribatutako egoeran jarri ahal izan zen, eta haren kontakizunean lagun egin. Batzordearentzat, horrek biktimei denbora ematea eta haien aldeko testuingurua jartzea eskatzen zuen, baina baita errespetuzko eta entzutearen aldeko jarrera zuten langileak jartzea ere. Halaber, elkarrizketak eta testigantzak egituratzerakoan, gertaeren kontakizun ahalik argiena eta objektiboena lortzen saiatzeaz gain, kontuan hartu zen zer eragin zuen esperientzia horrek pertsonarengan.

*Autotik jaitsi zenean eta diru-zorroa ateratzen hasi zenean... tiroz josi zuten (negarra egiten du). M.A., J.B.ren emaztea.*

Mobilizazio emozionalaz gain, testigantzak hartzeak aukera eman zuen biktimarekin haren bizitzari buruz hitz egiteko, eta bizi-inguruabarrak partekatu ahal izan ziren. Hori lagungarria izan zen Batzordearentzat, kasuen ebaluazioa egiteko eta entzun eta ulertzeko espazio bat sortzeko, biktimizazioa eragin zuten gertaeretatik edo ondorioetatik harago.

## **Elkar lotzen diren oroitzapenak**

Biktima askorentzat, testigantzen bilketa erabakiak hartzeko prozesu oso bat izan zen, gainerako senideekin hitz egitea testigantza emateko aukerari buruz, beren historia jasotzearen zentzuari buruz, edo prozesu horrekin lotutako arriskuei eta beldurrari buruz. Kontuan izan behar da pertsona horiek, alde batetik, aurre egin behar ziotela esperientzia eta oroitzapen horiek beren bizitzatik urrun izateko ahaleginari, askotan gertaeren une beretik egindako ahalegin horri, eta aitortza



falta dela eta, ezkutuan gordetako esperientziak eta isiltasunak dira, orekari eusten edo aurrera egiten laguntzeko baliatu direnak.

Kasuak aurkezteak eta testigantzak jasotzeak oroitzapen horiek berraktibatu zituzten eta zentzuaren iturriak mobilizatu zituzten. Senide eta zuzeneko biktima batzuek jada gure artean ez dauden beste senide batzuei buruz hitz eginez aurkeztu zuten beren burua, eta aitortza hori izatea gogoko izango zutela esan zuten. Biktimen aitak edo amak ziren asko, eta haien sufrimendua larritasun handiz bizi zuten bizitza osoan. Batzordearen lanaren zati bat ondorioen eragina aztertzea zenez, galerek bizitzetan izandako ondorioei eta eraginari buruz galdetu zen.

Kasu batzuetan, hurbileko beste pertsona batzuekiko elkarriketa ere aktibatu zuen, testigantza ematearen zentzuaren inguruan, eta aurreko esperientziak eta une honetako aukerak ebaluatzeko: *“kasua duela urte batzuk aurkeztu genuen Eusko Legebiltzarreko batzorde baten aurrean, eta Memoria Historikoaren Legearen bulegoan ere aurkeztu genuen, baina ez zen inoiz ezer egin; dekretu hau ikusi genuenean eta deitu zigutenean, berdin gertatuko zela pentsatu genuen”*. Giza Eskubideen Zuzendaritzak egindako kontaktu pertsonala funtsezkoa izan zen interesa eta konpromisoa agertzeko eta behar zen konfiantza sortzeko.

Batzordearen lanak izandako testuinguruan, jendea hasia zen ahaztutako kasu eta biktima horiei buruz publikoki hitz egiten. Dekretua bera argitaratzeak eta gertaera horietako batzuei buruzko dokumentalak egiteak komunikazioa aktibatu zuten, bai familien barruan, bai bizilagun eta herrikoekin, bai gertaeren lekukoekin, gaiari buruz inoiz hitz egin ez zutenak. Adibidez, Boluetako (Bilbo) gasolindegian 1961ean kontrol batean gertatutako su-armen bidezko erasoaren kasuan –autoaren gidaria hil egin zen eta beste biktima bat tetraplegiko geratu zen–, ETBk kasuari buruz emandako dokumental baten ostean, errealizadorearen aitak, programa ikustean, gertaera horien lekuko izan zela esan zion alabari. Haren testigantza araberak, gertaerak baino bi ordu inguru lehenago, polizia eremuan barrena ibili zen, jendeari esaten pertsianak jaisteko eta argi guztiak itzaltzeko. Bi argi-foku muntatu zituzten alboetan, eta polizia armatu asko zeuden gasolindegia inguruan. Horrela, gertaeren lekuko izan zen aldetik, ordura arte ezagutzen ez ziren xehetasunak eman zituen. Gertaera horrek erakusten du historia asko daudela gizarte-ehunean gordeta, eta ez soilik biktimen inguruan, eta ekintza horiek aukera onak dira, gutxi ikertutako gertaerei buruzko informazioa izateko ez ezik, gizarte-ehuna eta memoria kolektiboa berreraikitzeko.

## **Kapsulatutako historiak**

Esperientzia, testigantza eta memoria horietako asko kapsulatuta edo ezkutatuta egon dira urte askoan. J.A.A.E. atxilotu eta torturatu zuten, baina zortea izan duela pentsatzen du, esaten baitu beste batzuk askoz okerrago egon zirela. Halaber, Batzordeari bizirik dirauten beste askok esan zioten gauza berdina esan zuen; hots, tortura garai hartako parte zela eta, urte haietan, militantziak ondorio jakin batzuk zituela. J.A.k asko hitz egin du gertatutakoaz bere lagunekin, urte haietako alderdi positiboak gogoratzen saiatzeko. Hala ere, etxean, ez du gai horri buruz hitz egin familiarekin, baina prest egongo litzateke bere semeari kontatzeko, zer gertatu zen galdetuko balio.

Biktima gehienek ez zuten geroztik beren seme-alabekin edo beste senide batzuekin hitz egin gertatutakoari buruz. Gehienen artean, distantzia jartzeko ahalegina zen nagusi, gertaerak mingarriegiak zirelako eta inolako aitortzarik izan ez zutelako. Horregatik, gertatutakoari buruz gertaeren ostean hitz egiteak memorian urrun zeuden leku askotara eta bizitako esperientzia askotara itzultzea izan zen.

Kasu honetan, adibidez, torturaren kontakizunak torturatu eta espetxeratu zuten gazte baten amaren kontakizuna ekarri zuen gero. L.Z.k, bere buruagatik ez ezik, atxilotetak bere amarengan zuen eraginagatik sufritu zuen. Ama alarguna zen eta beste bi seme-alaba zituen, L.Z. baino gazteagoak, eta L.Z.ren laguntza ekonomikorik gabe geratu zen. Bestalde, ez zekien gaztelaniaz hitz egiten, eta Burgosko espetxeko funtzionarioek euskaraz hitz egitea debekatu ziotenez, ezin zuen ia komunikaziorik izan harekin Burgosko espetxera ahalegin handia eginez bisitan joaten zenean. 1970eko urriaren 28ko gerra-kontseiluaren sententzia arretaz irakurriz gero, alderdi hori ere egiaztatzen da, bai eta euskaraz egiten zutenek bizi zuten errepresio etengabea ere. Sententziak euskaraz hitz egiten zuen akusatu baten mintzaldia jasotzen du eta “hizkuntza arrotz batean hitz egiten zuen”.

## **Beldurraren eragina**

Beldurrak erakusten du beste edozer baino hobeto Batzordearen aurrean testigantza eman zuten biktimek bizitako esperientzia. Gertaeren eraginagatik zein garai hartako egoera politikoaren giroagatik –diktadura eta trantsizio

politikoaren hasiera–, biktimek aurre egin behar izan zieten agintarien ezezko erantzunei eta salatzeo beldurrari. Kasu gehienetan, salaketa publikoak egin ziren eta hedabideen bidez ezagutarazi ziren, baina bertsio ofizialek gertatutakoa desitxuratu zuten, eta gertaerak minimizatu zituzten, inguruabarrei egotziz edo biktimak haien errudun bihurtuz.

*PCEko eta Euskadiko Langile Komisioetako militantea zen eta bitan atxilotu eta torturatu zuten. Lehen aldiz, 1966an, Trapagako Alemanen Meategian (Bizkaia) egin zen ezkutuko bilera handi batean, polizia haien bila joan zenean (“Alemanen Meategiko sarekada” esan zioten gertaera horri). Geroago, Guardia Zibilak atxilotu zuen, 1971n, Langile Komisioetako kide izanaz eta legez kanpoko propaganda edukitzeaz akusatuta. Atxiloaldi horretan ere torturatu egin zuten. Lehenbiziko urteetan, oso urduri egon zen eta gaizki pasatu zuen. Etxean, soka luze bat zuen, balkoitik jaisteko, bila joaten bazitzaizkion, baina urteen poderioz, egoera hori gaindituz joan zen. A.A.C.*

Askotan, biktimek eta senideek salaketak jarri zituzten, eta diktaduraren aurkako borrokan konprometitutako konfiantzazko abokatuen babesa bilatu zuten, baina kasuek ez zuten aurrera egin, zigorgabetasun-giroa baitzen nagusi, eta, bestalde, senide eta biktimak errepresalien beldur ziren, oso.

*Gertaerak salatzen saiatu ginen eta Juan Maria Bandrés abokatuarekin egon ginen, baina ezer ez egitea erabaki genuen, errepresalien beldur.*

*Nire anaia hil ostean, familiak ez zituen inoiz gertaerak salatu, ez genuen gertatutakoa argitzeko inolako itxaropenik.*

Beldurra ez zen izan bizitako indarkeriaren ondorioa soilik, gero ere izan baitziren gertatutakoa ez salatzeo mehatxuak, dokumentatutako tortura-kasuetako askotan batik bat.

## **Justizia bila**

Batzuetan, erasotzaileen aurkako justizia-neurriak eragin ordeztu, ikerketen emaitzak –auzitegi militarretan edo Ordena Publikoko Auzitegian, askotan– biktimen zigorra eragin zuten.

*Aipatutako gertaerengatik, tiro egitearen erantzuleen aurkako prozedura egin orde, J.M. epaitu zuten kontseilu-gerra batean –lehen unetik ukatu zituen J.M.k egozten zitzaizkion gertaerak–, ordena-publikoa asaldatzeaz eta indar publikoei irain egin izanaz akusatuta, eta sei hilabete eta egun bateko zigorra jarri zioten. Urte askoan, arazo handiak izan zituen gida-baimena eta arma-baimena lortzeko, ez baitzizkioten ematen portaera onaren ziurtagiria edo aurrekari penalen ziurtagiria. J.M.A.ri buruzko irizpena.*

Zauritutako pertsonen kasuan, dela manifestazio edo istiluetan zaurituak, dela torturen ondorioz zaurituak, ospitaleko egonaldian ere jazarpena eta mehatxuak pairatu zituzten sarritan, eta horregatik, salaketa jartzeari uko egin zioten askok. Aztertutako kasuetan, ordena publikoko indarren jardunbidea eta su-armen erabilera ez zen inoiz aztertu eta zigortu, eta horixe izan zen garaiko joera orokorra. Batzuetan, prozesu formalak abiatu ziren, eta eginbide batzuk egin ziren, hala nola biktimei deklarazioa hartzea zaintzen zituzten ospitaletan, baina ez zuten aurrera egin eta ez ziren benetako ikerketak egin, are gutxiago ekintza horiengatik inor kondenatu edo erantzule egin.

*Ez zegoen auzitegiko medikurik deklarazioa egiteko unean. Soldadu batek hartu zidan lehen deklarazioa Donostiako Egoitzan, magnetofono batekin, eta geroago, komandante batek hartu zidan, Loiolako kuartelean. Prozesuan, bala desagertu egin zen. A.C.M.*

*Nire aitak salaketa jarri zuen eta, gero, auzibide militarrean tramitatu zuten. Epailak ea nork egin zion tiro galdetu zion. Polizia-agenteetatik nork egin zion ez zekiela erantzun zionean, izapidea itxi egin zen eta ez zen gehiago ikertu. I.V.R., balaz zauritua martxoaren 3ko gertaeretan. I.V.R.*

Beste kasu batzuetan, ikerketak Amnistiaren Legearekin amaitu ziren. Lege hori gizartea diktadurako preso politikoentzat egiten ari zen amnistia-eskaerari erantzuteko eman zen. Horrela, ordena publikoko indarrek egindako giza eskubideen urraketekin lotutako ikerketak itxi ziren, eta biktimak, justizia lortzeko aukera galtzeaz gain, gertaerei buruzko egia argitzerik gabe ere geratu ziren. Adibidez, J.G.M.ren kasuan, balaz zauritu zuten Barakaldon, manifestazio batean, eta zailtasunak izan zituen abokatu bat lortzeko, errepresalien beldurragatik. Azkenean, bere kasua onartu zuen abokatu bat aurkitu zuen, baina ondare-errekamazio bat baino ez zuen jarri, eta hari uko egin zioten, J.G.M. bere borondatez arrisku-egoeran jarri zela ebatzi baitzuten. Bestalde, aurretiazko eginbideak ireki ziren (947 zenbakiko espediente) Bilboko 4 zenbakiko instrukzioko epaitegian, eta hura inhibititu egin zen, Bilboko 3 zenbakiko

behin-behineko epaitegi militarren alde (262/77 zenbakiko aurretiazko eginbideak). Espediente militar horretan jasotakoaren arabera, 262/77 zenbakiko aurretiazko eginbide horiek itxi egin ziren “erantzukizun kriminaleko, gobernu-erantzukizuneko edo diziplina-erantzukizuneko deklaraziorik gabe, 1977ko 46 zenbakiko Legearen, Amnistiaren Legearen, 2. artikuluko E letra aplikatuz”.

Franco hil osteko lehen urteetan, trantsizio politikoaren hasieraren testuinguruan, ikerketen emaitzak negatiboak izan ziren biktimen justizia-eskaerentzat. Gertaerak minimizatu egin ziren, haien erantzuleak ez ziren identifikatu edo, besterik gabe, ikertu gabe utzi ziren. Hala, delitu-kasu asko geratu ziren egilea identifikatu gabe. Kasu batean, neska batek zauri larriak izan zituen, Polizia Armatuak botatako pilotazko goma batek jotakoan, etxean manifestazio bat leihotik ikusten ari zela. Agintaritza militarrek aurretiazko eginbideak abiatu zituen (257/77 espedientea), eta VI. Erregio Militarreko kapitain jeneralaren dekretu bidez ebatzi ziren 1979ko urriaren 22an, erantzukizun-deklaraziorik gabe ixtea erabakita. T.A.B.ren kasuan –modu berean zauritu zuten Eibarren– gertaerei buruzko aurretiazko eginbideak abiatu ziren Bergarako Epaitegian (482/77 espedientea), baina behin-behineko amaiera eta largespena eman zieten 1977ko urriaren 15ean, argudiatuz ez zegoela nahikoa froga inor gertaeren egile, konplize edo estaltzaile izanaz akusatzeko.

## **Ondorioen sarritasuna**

Ebatzitako 187 kasuetatik % 80tan esan zuten gertaeren unean izan zituztela lesioak, eta kasuen ia erdian (78 kasu, kasu guztien % 43,8) gaur egun arte iraun duten ondorio fisikoak dituzte edo, hildako pertsonen kasuan, heriotzaren unera arte iraun zuten.

Lesio fisiko iraunkorrak izan zituzten pertsonetatik (79 kasu) % 27k (21 kasu) begi bat galdu zuten, alterazio handiak izan zituzten ikusmenean edo entzumenean, lesio garrantzitsuak izan zituzten gorputz-adar batean, edo sentibiltate-galera handia izan zuten gorputz-atalen batean. Lesioak izan zituzten 142 kasuetan, pertsona horien % 13,4k (19 kasu) zaurien eta/edo lesioen ondorioz egin zaizkien ebakuntza kirurgikoen orbainak dituzte. Halaber, 45 kasuetan (% 31,7), ez zituzten ondorio fisiko iraunkorrik edo orbainik izan, erasoak jasan arren edo behin edo gehiagotan atxilotuak izan eta tratu txarrak eta/edo torturak jasan arren.

Kolpeen, tiroen edo leherketen ondorioz lesioak izan dituzten 79 kasuetatik % 55,5ek (45 kasu) ondorio psikologikoak izan zituztela adierazi zuten. Ondorio

## Ahantzuratik ateratzen

fisikoak izan dituzten pertsonen % 28,4k (23 kasu) ondorio ekonomikoak edo laneko ondorioak izan zituztela adierazi zuten, eta ondorio horiek eragin handia izan zutela beren bizitzetan. Kasuen % 28,4tan (23 kasu) biktimek ondorio sozialak izan zituztela adierazi zuten. Ondorio horiek, besteak beste, isolamendu eta ostrazismo soziala izan ziren.

*I.G.A., bizitakoaren ondorioz, ez zen kapaz izan egin zizkioten torturei eta espetxean bizitakoari buruz hitz egiteko, hamar urte igaro arte. Batzuetan, gaur egun ere, amesgaiztoak izaten ditu eta espetxean dagoela pentsatuz esnatzen da. Espetxean sartu zenean, familiaren negozioaren jarraitutasuna amaitu zen; izan ere, haren mende zegoen neurri batean. Halaber, eragina izan zuen bere afektuzko harremanetan: neska batekin ateratzen hasi berria zen, eta hori ere amaitu egin zen. I.G.A.ri buruzko irizpena.*

% 12,3k (10 kasu) familia-ondorio garrantzitsuak izan zituzten. Ondorio horiek ez dira beste edozeinen baztertzailleak, eta kasu batzuetan, bat baino gehiago egon daitezke.

Guztira, atxilotutako 72 pertsonatatik 70ek zauri fisikoak izan zituzten gertaeretan. Atxilotutako 72 pertsonatatik % 32,8k (21kasu) ondorio fisikoak izan zituztela adierazi zuten; % 56,3k (36 kasu), nolabaiteko ondorio psikologikoak izan zituztela; % 21,8k (14 kasu), ondorio sozialak edo laneko ondorioak izan zituztela; eta % 9,4k (6 kasu), familia-ondorioak izan zituztela. Beste behin, ondorioak ez dira beste edozein ondorioren baztertzailleak.

Hona hemen ondorio horien adibide batzuk: antsietatea, babesgabetasuna, beldurra, errua, mesfidantza, depresioa, loaren alterazioa, gizarteratzeko zailtasunak, lana utzi behar izatea de lana galtzea, bizi-proiektuak galtzea, eta larritasuna, beldurra eta depresioa senideengan.

Kasu batzuetan, biktimek neskatoak edo mutikoak ziren, eta oso ondorio larriak pairatu zituzten beren bizi-proiektuetarako. Biktima batzuen kasuetan, manifestazioetan zauritutakoak batik bat, gomazko piloten kolpeek ekarritako ondorio fisikoek eragin handia izan dute beren bizitzetan. Kasu batean, adibidez, 12 urteko neskato batek bizitza osorako ondorioak izan zituen horrelako pilotakada baten ondorioz. Etxeko leiho batetik manifestazio bat ikusten ari zela jaso zuen pilotakada, bere aita non zebilen begira. Bilboko Poliziako Goi Burutzak emandako txostenean, jaso zen A.L.B.L. neskatoa Polizia Armatuak erabiltzen zituen gomazko pilotetako baten kolpea jaso zuela etxeko leiho batean zegoela, eta kolpe horrek lesioak eragin zizkiola ezkerreko begiaren kristalinoan.

*Gaur egun, A.L.B.L.k afakia, exotropia, ezkerreko begiaren atrofia makularra eta anbiopia ditu. Hori guztia dela eta, ez du ezkerreko begitik ikusten, eta hori konponezina da. Indar handia du, bai eta zailtasun horietara guztietara egokitze gaitasun handia ere, baina % 46ko desgaitasun-maila du, eta horrek mugatu egiten du eguneroko bizitzako jardueretarako. Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasun hori aitortu zion 1989ko otsailaren 14an. Psikologikoki, A.L.B.L.ren gaztaroa zapuztuta geratu zen. Neskari gertatutakoak, haurtzaroen egonik, zailtasun handiak eragin zituen beste haur eta gazteekin harremanak izateko gaitasunean, ondorio fisikoengatik. Ez zuen inoiz lagun-koadrilarik izan. 20 urte bete arte ez zen irteten eta gaztaroaz apur bat gozatzen hasi. Urte asko pasa ditu bakardadean, eragin psikologiko handia jasan du eta gorroto handiz bizi izan da. Denboraren poderioz eta ahalegin handia eginez, gorroto hori gainditzeko gai izan da. Horregatik guztiagatik, pentsatzen du laguntza psikologikoa eman beharko ziotela gertaerak gertatutakoan. Geroago, 1998an, psikologoaren kontsultara joaten hasi zen, eta 2006ko abendutik, tratamendu psikiatrikoa jasotzen ari da, depresioagatik eta trauma osteko estresaren nahasmenduaren ondorioengatik. A.L.B.L.ri buruzko irizpena.*

### **Torturaren eta beste indarkeria- eta beldur-forma batzuen ondorioak**

Batzordean jasotako kasu batzuetan, torturaren ondorioak areagotu egin ziren arrazoi politikoek eragindako indarkeriazko edo ostrazismo sozialeko beste gertaera traumatiko batzuen bidez. Hala, Batzordeak biktimen ibilbideak aztertu zituen, eta egiaztatu zuen garai batean ETAko kide izanaz akusatuta atxilotuak izan ziren pertsona batzuek gero ostrazismoa pairatu zutela beren gizarte-ingurunean, beren ideia politikoengatik, edo erakunde horren mehatxuak ere jaso zituztela. Ibilbide pertsonal horiek jasandako indarkeriaren zeharkakotasuna erakusten dute, eta zalantzan jartzen dituzte militantzia-maila handiko tortura-biktimei buruz pentsatzean erabiltzen diren ohiko estereotipoak. Kasu horietan, Batzordeak beste mota batzuetako gertaeren eragina ere ebaluatu behar izan zuen, aurretik jasandako gertaeren ondorioak areagotzen baitituzte, kasu honetan ikus daitekeen moduan.

Guardia Zibilak I.P.B. atxilotu zuen 1975eko azaroan, eta Donostian torturatu egin zuten, atxiloaldiak iraun zuen 9-10 egunetan. Geroago, 1976an, berriz atxilotu eta torturatu zuten. Zenbait hilabetez bajaran egon zen, atxiloaldiek eragindako trauma psikologikoagatik. Lehen atxiloaldiak eragin ziola gehien dio: "pistola buruan, zerraren soinua, kolpeak biluzik nengoela agenteen zirkuluaren barruan".

Baina I.P.ren bizitzan, badaude eragin eta sintoma sakoneko trauma osteko estresaren koadro klinikoa eragin duten beste gertaera batzuk. Besteak beste, indarkeria-esperientzia hauek jasan ditu: familia-eremuan berak eta bere amak jasandako indarkeria; 1975eko eta 1976ko atxiloaldietan Guardia Zibilen eskuetan jasandako tortura fisiko eta psikologikoak, eta zigor-zeldetako isolamendua; eta, geroago, ETArengatik ingurune mehatxuak eta jazarpena, PSE-EEko zinegotzi izateagatik, eskolta ere eraman behar izan baitzuen 10 urtez. Bestalde, alderdikide batzuen hilketa bizi zuen, eta bereziki zirrargarria izan zitzaion alderdi horretako Arrasateko zinegotzi Isaiás Carrascoren hilketa, hura hiltzen ikusi baitzuen.

Testigantza araberak, trauma osteko estreseko arazoa 1975eko eta 1976ko atxiloaldien ondoren hasi zen, eta geroagoko mehatxuek areagotu egin zuten.

## **Ordena publikoko indarrek hildako pertsonak**

Batzordeak ordena publikoko indarrek eragindako indarkeria-gertaeren ondorioz hildako pertsonen 34 kasu dokumentatu zituen. Kasu horietatik lau adingabeak ziren (14, 15, 16 eta 17 urte), eta beste bi, berriz, adineko pertsonak (67 eta 78 urte).

Kasu denak kontuan hartuta, heriotzak testuinguru hauetan gertatu ziren:

- Bi kasutan, pertsonen heriotza-zigorra ezarri zitzaientz, eta exekutatu egin zituzten erregimen frankistaren azken egunetan, 1975eko irailean, behar bezalako defentsa-bermerik gabeko gerra-kontseilua egin ondoren. Batzordeak kasu horiek onartu egin zituen biktimek behar bezalako defentsa-bermerik ez zutelako izan, prozesua ez zelako behar bezalakoa izan, egoerak salbuespenezkoak izan zirelako, eta sufrimenduak bidegabeak izan zirelako, estatuko polizia-indarren edo -agenteen ekintza normalaz bestelakoak.
- 15 kasutan, Guardia Zibila edo Polizia Armatuak manifestazioren bat desegiteko esku-hartzearen eta erabilitako baliabideen eraginez hil ziren pertsonak. Kasu gehienetan, su-armen eraginez hil ziren, eta zenbait kasutan, gomazko piloten eraginez; nolana ere, indarraren gehiegizko erabileraren eta bizitzaren aurkako mehatxu larrien testuinguruan gertatu



ziren heriotza guztiak, ordena publikoko indarren ekintza zela eta. Kasu askotan, hildakoak manifestazioren batean ari ziren parte hartzen, baina beste kasu askotan, ordea, pertsona horiek manifestazioa egiten ari zen tokian zeuden, besterik gabe, mobilizazio horietan parte hartu gabe.

- Hiru kasutan, pertsonak Guardia Zibilak errepidean edo antzeko lekuren batean jarritako polizia-kontrol batean egindako tiroen ondorioz hil ziren.
- Lau kasutan, eztabaida partikular edo gatazka-egoeraren batean Guardia Zibileko agenteek egindako tiroengatik hil ziren pertsonak, betiere botere-abusuaren testuinguru batean, eta agintaritzek ez zituzten jazoerak ikertu, ezta jazoera horien egileak zigortu ere.
- Bost kasutan, eguneroko bizitzako jardueraren bat egiten ari zirela Guardia Zibilaren tiro bereizi gabeengatik hil ziren pertsonak, edota estatuko segurtasun-indarrak susmagarritzat jotako egoeraren batean zeudela.
- Hiru kasutan, ETAko edo Komando Autonomo Antikapitalistetako kideen kontrako jazarpenetan harrapatuta geratuta hil ziren pertsonak, su-armen tiroengatik. Su-arma horiek Guardia Zibilak erabili zituen, zuzeneko enfrentamendurik gabe, eta jendea bizi zen tokietan, biktimak eguneroko jardueraren bat egiten ari zirela.
- Kasu batean, 14 urteko haur bat polizia-jazarpen baten ondoren hil zen, bihotz-krisi batek jota.
- Beste kasu batean, manifestazio batean jo egin zuten, egun batzuk geroago, kalez jantzitako polizia-agente batzuek koñak eta errizino-olio asko edatera behartu zuten, eta, horren ondorioz, hil egin zen handik egun batzuetara.

Senideen kasuan, ia senide guztiek eta familiak berak eragin psikosozial handia jasan zuten heriotzek eragindako galera eta dolu traumatikoaren ondorioz. J.G.R. 1975ean hil zuten.

*Oso momentu latzak izan ziren, ez baitzioten familiako inori uzten hilerrian sartzen. Bi ordu eduki zituzten zain, eta azkenean, hilotza ikustera sartu ahal ziren. Gorputza bi poliziak zaintzen zuten, metrailetez armatuta. Amari, P.R.ri, soilik utzi zitoten hilotzarekin geratzen, eta gainerako senideak irtetera behartu zituzten. Bi autopsia egin zizkieten (bat mediku militar batek egin zuen). Gero,*

## Ahantzuratik ateratzen

*P.R.k berak garbitu behar izan zuen hilotza, eta familiak etxetik ekarritako maindireekin bildu. Hiletan eta ehorzketan polizia asko egon ziren, senideak eta lagunak uzkurraziz. Familia lur jota geratu zen gertaera horiengatik eta galeraren eraginagatik, eta urte hauetan guztietan, mina barneratu egin dute, gertatutakoari buruz inoiz hitz egin gabe. J.G.R.ri buruzko irizpena.*

Kontuan izan behar da heriotza horiek indarkeriaz gertatu zirela, bat-batekoak eta traumatikoak izan zirela, eta kontuan hartu behar da, halaber, gertaera horien zentzugabekeria eta izan zuten erabateko zigorgabetasuna.

*Gurasoekin bizitzera joan nintzen eta familiakook geure bizimodua berrantolatu behar izan genuen. Urte batzuk egon nintzen irten gabe, ez nuen semea kalera ateratzen, eta ezagunik ikusten banuen, korrika egiten nuen ihes. Ezin nuen. Bizitza hondatu zidaten. M.V.G.*

Ondorio horiez gain, kasu batzuetan, beste mota batzuetako ondorioak eta eraginak adierazi ziren; esaterako, mehatxuak, hertsapenak eta isekak (heriotza-mehatxuak, edo atxiloketak eta torturak ere bai).

Familia-erantzukizunak zituzten pertsonen kasuan, ondorio ekonomikoak latzak izan ziren. Ondorio horiek orokortuak izan ziren pertsonak familia-kargarik zuenean edo familian egiten zuen ekarpen ekonomikoa erabakigarria zenean, baina sei kasutan, kalte ekonomiko horiek larriak izan ziren, eta kasu batzuetan, hildakoen alargunak adin txikiko seme-alabak oso egoera prekarioan atera behar izan zituzten aurrera.

*Ez galdetzea, senideen erantzuna "ez hitz egin" zelako, mingarria zelako. Baina txikitatik ikasi nuen. Ez nuen nire amarekin hartaz hitz egiten, baina gauza asko nekizkien nire jakin nituen bidez.*

Semeak galtzeak eragindako sufrimenduaren ondorioz, Batzordean aurkeztutako bi kasutan amek depresioa izan zuten gero urte askoz, eta tratamendu psikiatrikoa behar izan zuten.

*Polizia Armatuak tiroz hil zuen, Germán Rodríguezen heriotzaren aurkako protesta egiteko manifestazio batean, eta bere familia lur jota geratu zen gertaera horiengatik eta galeraren eraginagatik. J.B.U.ren heriotzaren gaia tabu bihurtu zen eta ez dute inoiz berriz hitz egin argi eta garbi gertatutakoari*

*buruz. Familiakoen erreakzioa inhibizio pertsonal eta familiar handia izan zen: mina barneratu, eta min horrekin bizitzen ikasi zuten. J.B.U.*

Kasu gehienetan, familiak jasandako traumarekin lotutako arazoak, lo-arazoak eta bizi-proiektuetako aldaketak izan zituen.

*Familia lur jota geratu zen gertatutakoagatik, galeraren eraginagatik eta gertakari horien zentzugabekeriagatik. Gurasoek ez zuten gertatutakoa inoiz gaintitu, eta gertaerak oso ondorio dramatikoak izan zituen amarentzat; familiakoek diotenez, ez zen inoiz gai izan galera hori gaintitzeko. Ez dute gertatutakoagatik laguntza psikologikorik jaso, baina luzaroan haren beharra izan zutela diote. Ez dute erakundeen inolako laguntzarik jaso. Familia eta lagunak izan dira haien babes bakarra. Gertaeren ikerketan, aurretiazko eginbideak baino ez zituzten egin, eta ez zen inor erantzule deklaratu, eta ez zen ikerketarik egin gertatutakoari buruz. P.J.T.G.*

Muturreko kasu batzuetan, familiak etxebizitzaz aldatu behar izan zuen edo, kasu batean, abizena aldatu ere, mehatxuak jaso ondoren.

*2000. urtean, I.N. Bizkaiko Gobernu Zibilera joan zen, 1999an onetsitako terrorismoaren biktimei buruzko legearen eraginpean hartua izateko eskaera egiteko eredu bat eskatzera. Egunean bertan, ezezagun batek heriotza-mehatxuak egin zizkien telefonoz I.N.ri eta bere amari. Iragana gogora ekartzek haientzat ondorio larriak izan zitzaizkela ohartu zien, non bizi ziren bazekiela esan zien, eta eraikinen ezaugarriak ere esan zizkien. Hori gertatu ondoren, familia beldurrak jota geratu zen urte askoz, eta I.N.k abizena aldatu zuen, etxebizitza berrian lokalizatzea zailago izateko. I.N.*

Mina, sumina, beldurra eta larritasuna senide guztiek pairatutako ondorioak dira.

*Amorrua eta ezintasuna gertatutakoarengatik. Nire anaietako beste bat oso lur jota egon zen ia bi urtez, oso gaizki zegoen psikologikoki; ni bera baino zaharragoa nintzen. Nik ere tratamendu psikologikoa jaso nuen gertaeretatik hilabete batzuetara. Gauza arraroak pentsatzen hasi nintzen... eta "erne ibili!" esan nion nire buruari... Metraileta bat ere eskaini zidaten... Edozein gertakarik hura gogorarazten zidan. Anai zaharrena nintzen, besteek baino erantzukizun handiagoa duzula pentsatzen duzu beti. J.E.ren anaia.*

Kasu askotan, herrikoek eta ezagunek gertaerekiko elkertasuna eta haserrea adierazi bazuten ere, gertaeren osteko unean bertan izan zen hori, erakundeen babesa inoiz izan gabe.

*Haren heriotzak gizarte-mugimendu handia eragin zuen, familiak Elizaren babesa ere izan zuen, eta apezpikuak homilia bat egin zuen J.M.Z.ren arimarengatik. Telegramak eta babes-adierazpenak iritsi zitzaizkien leku guztietatik. J.M.Z.ri buruzko irizpena.*

*Ez genuen erakundeen inolako babesik edo laguntzarik izan. Ez zuen inork ezer galdetu. Nire etxetik pasa ziren bakarrak Behobiako arma-lantegi bateko langileak izan ziren. Lantegian egindako diru-bilketa batean jaso zituzten 2.000 pezeta eman zizkidaten, zauritu ninduen kartutxoan lantegian egiten zituztenen modukoa zelako berria zabaldu baitzen. Horrez gain, Beraun auzoko 60-80 pertsona inguru une hartan behar nuen odola ematera joan ziren. C.P.F.*

Beste kasu askotan, biktimak estigmatizatu ziren, heriotzak justifikatuz, ETako kide izanaren susmagarriak zirelakoan. Kasu horietako batzuetan, gertaerek eragina izan zuten beste eskualde batzuetan, biktimen eta gurasoen jatorriko eskualdeetan, alegia. “Herrira itzultzean”, dela oporraldietan, dela bisitan, familia horietako batzuek aurre egin behar izan zioten susmo horren hedapenari, hitz egiteko eta babesa izateko ezintasunari, eta gizarte-isolamenduari.

Halaber, ordena publikoko indarrek hildako pertsonen senide batzuk, soldadutza egin behar izan zutenean, ETarekin identifikatu zituzten bidegabe, nahiz eta haiak, hildakoek eta gertaerek erakunde horrekin loturarik ez zuten.

*Soldadutza ETaren ustezko jarraitzailetzat ninduten. J.E.F.P.ren anaia.*

## **Lesioak eragin zituzten erasoak, manifestazioetan**

Aurkeztutako kasu guztietako 16tan, Polizia Armatuko edo Guardia Zibileko agenteek larriki eraso zieten biktimei, borrak, ke-potoak edo gomazko pilotak erabilia, eta eraso horiek ondorio larriak eragin zizkieten biktimei. Jazoerak gertatu zirenean, bi biktimak 14 urte zituzten, beste batek 16, eta beste batek 17. Kasu askotan, erasoak jasan zuten pertsonak manifestazioetan parte hartzen ari ziren, eta beste batzuetan, ordea, halabeharrez zeuden biktimak bertan.

Eraso horiek minimizatzeko joera dagoen arren, eragindako ondorioetako asko larriak, iraunkorrak eta ezgaitzaileak izan dira, eta biktimen bizitza erabat baldintzatu dute. 12 kasutan, erasoak zuzeneko kolpeen bitartez gauzatu ziren, borra, su-armaren kulata edo antzeko objektu bat erabilia. Pertsona horiek guztiek ondorio iraunkorrak dituzte gaur egun. Hiru kasutan orbainak soilik geratu bazaizkie ere, gainerako 9 kasuetan ondorioak larriak izan dira: batzuetan, kirurgia berreraikitzaileko ondoz ondoko zenbait ebakuntza egin behar izan dizkiete, aurpegi hausturak izan zituztenei batez ere, eta ikusmen-arazoak ere izan dituzte, biktimen bizimoduan oso eragin negatiboa izan dutenak ordutik aurrera. Beste batzuetan, hausturen ondorioz, gorputz-adarretako alterazioak geratu zaizkie; esaterako, luzera-aldaketak, sentsibilitate- edo mugikortasun-galera, eta mugak zenbait lan egiteko edo eguneroko bizitzako zenbait jardura egiteko.

Beste kasu batzuetan (4), ke-potoen ondorioz izan ziren kolpeak, eta ondorio iraunkorrak eragin zituzten, hala nola arnas gutxiegitasuna eta osasun-arazo larriak.

Zuzeneko erasoen kasuetatik % 60tan (9), biktimek ondorio psikologiko larriak izan zituzten. Gehienetan, ondorio hauek zituzten, besteak beste: segurtasun-kontrolen beldurra; pertsona uniformedunen edo agintaritzarekiko kontaktuaren beldurra; fobiak, manifestazioak edo jende-pilaketak egotean; mesfidantza; eta estres-erreakzioak zenbait estimuluren aurrean. Hau da, jasandako indarkeriarekin lotutako gaiak gogorazten dituzten egoeretan, denboran irauten duten trauma osteko erreakzioak izatea. Oro har, egoera horiek berriz gertatzen direnean soilik dute eragina eguneroko bizitzan, baina bizitako sufrimendua berriro aktibatzen dute. Bi kasutan, ondorioek diraute, trauma osteko estres kronikoa baitute, eta horrek oso eragin handia du bizirik dirautenen bizitzan.

*Urte horietako guztietako eragin psikologikoak gaur egun arte iraun du, eta kalteberatasun- eta beldur-sentsazio iraunkorra du estatuko segurtasun-indarren aurrean, eta larritasuna eragiten dio Guardia Zibilaren kontrol batetik igaro behararen aukeran pentsatze hutsak. A.T.M.*

*Entzumena galtzean, ez nion irakasleari entzuten, 17 urteko mutil baten bizimodua egiteari utzi egin nion, itxiago bihurtu nintzen, lagunekin irteteari eta dantzara joateri utzi nion, barregarri geratzeko beldurrez, erritmoari jarraitzeko ezinari beldur niolako... Neska bat gustatzen zitzaidan, baina... Gaur egun, nolabaiteko beldurra diot etxetik irteteari, estutu egiten naiz. Trauma eta uniformearen beldurra ez dira desagertu. J.M.B.S.*

## Ahanturatik ateratzen

Kasu horietatik % 40tan (6 kasu), ondorio fisikoek eta/edo gertaerak berak eragin zuzena izan zuten lan-bizitzan eta/edo ikasketetan. Pertsonak lana utzi behar izan zuten edo zenbait lan hautatzeko aukera murriztu egin zitzaizkien, kaltetutako egoera fisikoaren ondorioz.

*Zure bizitza eta zure jendearen bizitza baldintzatzen dizkizu. Etxerako egiten zenuen ekarpen ekonomikoa kolokan geratzen da. A.T.D.*

Halaber, kasu batzuetan, agintariak biktimak estigmatizatu zituzten, edo estigmatizatuta geratu ziren gertakarien berri zuzenean ez zutenen aurrean.

*Bere senargaiak gertakari haien ondorioak ere pairatu zituen. Soldadutza egiten ari zen une haietan, Loilako kuartelean, eta, albistearen berri izan zutenean, hilabete egon zen atxilotuta kalabozoan, eta mespretxuzko esamesak eta isekak jasan behar izan zituen; esaterako, 'B.ren andregaiak ETAKoa da'. A.I.B.G.ri buruzko irizpena.*

*Telebistan zabalduzako bertsioak gatazka bat sortu zigun hemendik kanpo bizi ziren senideekin. Esan genien autoaren gidaria funtzionarioa zela, ez zela ETAKoa. Baina zalantzan jartzen zuten. 'Hori erdi euskalduna zarelako diozue zuk, erdi ETAKoa zarelako' ere esaten ziguten. M. eta I., F.A.ren alabak.*

## **Balaz eta gomazko piloten zauritutako pertsonak**

Batzordean aurkeztutako kasu guztietatik 66 espediente balaz zauritutako pertsonen buruzkoak ziren, dela su-armen balekin zaurituak (horietako batzuk lehergarriak izanik), dela gomazko pilotekin zaurituak.

66 kasu horietatik gehien-gehienak (% 83,3; 55 pertsona) balaz zauritu zituzten. Balaz zauritutako pertsona guztiek dituzte ondorioak, hala nola orbainak, baina pertsona horietatik % 69k (38) ondorio fisiko garrantzitsuak dituzte jasandako zaurien ondorioz.

*Gaur egun, ondorio fisiko hauek ditu: bi orbain, indar-galera txikia besoan, eta minak eguraldi-aldaketetan. Halaber, ondorio psikologikoak ditu, shock traumatikoak eraginda: beldur kontrolaezina polizien aurrean. M.R.A.ri buruzko irizpena.*

Zauritutako pertsona guztietatik 16 kasutan, gertaeren gaur egungo ondorioak zaurien orbainak dira, sendatzeko aste batzuk behar izan zituztenak eta askotan murrizketa funtzionalak eragin zituztenak.

Balaz edo leherketen ondorioz zauritutako gehienak ez dira lesio iraunkorrak dituzten bakarrak, gomazko pilotez zauritutakoen kasuetan sarritan izan baitziren hausturak (7 kasu).

*Jasandako erasoaren ondorioak oso sakonak izan dira. Familian babestu zen eta oraindik ere gurasoekin bizi da. Haren bizitza profesionalean ere izan du eragina, ondorio estetiko eta funtzionalengatik. Askok kostatu zitzaion ikusmena moldatzea. Hasieran, ezin zituen distantziak kalkulatu eta ikusmen monokular horrek eragotzi egin dio igeltsero- eta soldatzaile-lanpostuak lortzea. Bestalde, gertatutakoaren eragin psikologikoak loa normal hartzea galarazi zion denbora luzez. I.S.P.ri buruzko irizpena.*

Halaber, kasu guztietatik 12tan, neska-mutil adingabeak ziren: 12 urteko 1, 14 urteko 2, 16 urteko 1, eta 17 urteko 8. Datu horiek agerian uzten dute horrelako erasoak oso zabaldua zeudela eta herritarren aurka bereizi gabe erabili ohi zela indarra kontrolatan, manifestazioetan edo eguneroko bizitzako bestelako egoeretan, baita su-armak erabili ere.

*Guardia Zibileko agenteek tiro eman zioten M.J.ri zango batean, Azkoitian manifestazio baten ondoren portal batean babesten saiatzen ari zenean. Ospitalean hamar egun egon ondoren, osatu zen, baina erasan psikologiko larria izan zuen, nozitutako erasoaren ondorioz. Hilabete askoz, gaua heltzean urduri jartzen zen eta antsietate-krisiak izan zituen, eta ezin zuen lo ondo egin. Beste biktima askok bezala, Batzordeari esan zion tratamendu psikologikoa jaso beharko zuela, urte haietan izandako erasan handiaren ondorioz. Beste asko bezala, gertatutakoaz ez hitz egiten saiatu zen, jasandako eragina minimizatzeke ahaleginean. Baina biktima askori gertatu zaien bezala, gaia saihesteko erabaki hori bere bizitzako eta harremanetako esparru askotan sartu zen, eta gaia tabu bihurtu zen, hari buruz inoiz hitz egin gabe. Ondorio horiek irauten dute, hala nola izterreko eta belauneko orbainak, eta gaur egun ere, antsietate-krisi txikiak izaten ditu gertakariez gogoratzen denean edo haiei buruz hitz egiten duenean. M.J.G.A.ri buruzko irizpena.*

Lesionatutako pertsonetatik 38 manifestazio, bilera edo grebaren batean parte hartzen ari ziren, eta beste 14, berriz, manifestazio, bilera edo grebaren bat egiten ari zen tokian zeuden, baina haietan parte hartu gabe. Batzuek eta besteek dituzten lesio iraunkorren maila antzekoa da.

Sei kasutan, tiroak Polizia Armatuak edo Guardia Zibilak errepideetan jarritako kontroletan edo iragazkietan izan ziren, eta ondorio larriak izan zituzten tiroen ondorioz, nahiz eta haien erdiak soilik dituzte gaur egun dirauten ondorio fisiko larriak. Beste zortzi kasutan, biktimak bestelako egoeretan zeuden (hala nola bilereetan, beren etheen inguruan edota pintadak egiten).

*Tiroaren ondorioz, zenbait ondorio geratu zaizkio; esaterako, birika-edukieraren murrizketa (disnea eragiten dio horrek, ahalegin txikiak egin orduko) eta sentsibilitate-galera tiroa hartutako lekuan. C.P.F.*

*Gertatutakoak erabat baldintzatu du M.L.Y.ren bizitza, zauritutako beste adingabea: I. mailako arnas gutxiegitasuna du, gehieneko arnas edukiera % 25 murriztu baitzitzaion. Arnas funtzionaltasunean horrelako galera izatearen ondorioz, erabat aldatu zitzaizkion bai bizimodua, bai esfortzuak egiteko gaitasuna, eta M.L.Y.k praktikatzen zuen kirola egiteari utzi behar egin zion eta mugatuta geratu zen beste jarduera batzuetarako. M.L.Y.*

Giza eskubideen urraketen ondorioak biktimen edo haien senideen bizitzako zenbait arlotara hedatzen dira, eta, kasu batzuetan, lana egiteko gaitasunak eta bizi-proiektuak baldintzatzen dituzte epe luzera.

*Barakaldoko herritarra. Besoko lesioak erabat baldintzatu du bere bizitza. Zenbait lanpostu izan zituen eta errendimendu txikiagatik galdu zituen. Geroago, zeladore-lanpostu baterako probak gainditu zituen Osakidetzan eta urte batzuk egin zituen lan han, nahiz eta baja-aldi asko izan zituen. 1984an, bi urte iraun zituen baja haietako baten ostean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Probintziako Zuzendaritzak lan-mota orotarako ezintasun iraunkor absolutua aitortu zion. Izaten duen oinaze handiak bere bizitza baldintzatu du beti. Psikologikoki, oso gogorra egin zaio oinaze horrekin bizitzea. J.G.*

Balaz zauritutako 66 pertsonatetik % 24,2k (16) esan zioten Batzordeari ondorio ekonomiko oso garrantzitsuak izan zituztela, hala nola lana galtzea, edo, ondoren fisikoen ondorioz, zenbait lan egin ezinik edo ikasketekin jarraitu ezinik geratu zirela, eta ikasturteak galdu zituztela.

*Banakako eraginak familia-testuinguruan ere bizitzen dira. Oso une latzak izan ziren. T.A.B.ren emaztea zuela gutxi erditua zen, bere semeak apenas zuen hilabete bat, eta senarraren osasunari buruzko ziurgabetasuna zuten. Gertatutakoak eragin handia izan zuen bere lan-bizitzan ere. Erasoak jasan aurretik, matizegilearen kategoria zuen. Gero, nahasmenduen ondorioz,*



*kategoria jaitsi zioten, eta beheragoko maila bateko lan errazak egiten jardun behar izan zuen. T.A.B.*

Gizarte-ondorioei dagokienez, bizitakoak oso eragin handia izan zuen beren bizi-proiektuetan, biktima adingabe batzuen kasuan batik bat. Halaber, adingabe edo pertsona gazte horien kasuetan, tiroen ondorioek zenbait jarduera fisiko egiteko ezintasuna eragin zuten, hala nola kirolak. Kasu batean, zauritutako pertsona beste herrialde batera joan zen gertaeren ondoren, babes gisa. Beste kasu askotan, ondorio fisikoek beste osasun-arazo batzuk eragin dituzte, konplikazioen ondorioz edo epe luzera agertzen diren beste alterazio batzuen ondorioz.

*Poliziak E.P. balaz zauritu zuen zango batean Barakaldon, 1976ko irailaren 13an, Sefanitroren aurkako manifestatzaileen jazarpenean. Sei hilabete geroago, 1977ko otsailan, berriz ospitaleratu zuten, metalezko kanpo-euskailua ateratzeko. Zangoa osatzeko prozesua geldoa izan zen, eta irmotasun eta adore handiz jardun behar izan zuen. Urtebete egon zen bajaran, lan egin ezinik eta diru-sarrerarik gabe. Horrenbestez, bere egoera ekonomikoa kezagarria zen; izan ere, ezkontuta zegoen, alaba txiki bat zuen eta bere emaztea beren bigarren alabaren haurdun zegoen. Hauek dira geratu zaizkion ondorio fisiko nagusiak: bi zangoen arteko dismetria txiki bat eta zirkulazio-arazoak eskuineko zangoan. Hori dela eta, iaz, izan zituen tronbo batzuen ondorioz, safena bena kendu behar izan zioten (bena horrek zangoaren odol-itzulera zirkulazioaren zati handi bat hartzen du). E.P.*

Tiroz zauritutako biktimen ondorio psikologikoei dagokienez, 66 kasutatik % 53k (35) ondorio psikologiko garrantzitsuak izan dituztela esan zioten Batzordeari. Hiru kasutan, pertsonak beldur handia edo fobiak izaten dituzte poliziaren kontroleran edo poliziak dauden lekuetan. Kasuen % 26an (16) hauek izan ziren ondorio psikologiko sarrienak: beldura, larritasuna, antsietatea eta/edo frustrazioa. Denbora luzez iraun zuten ondorio horiek, eta kasu batzuetan, gaur egun ere diraute. Kasu larriago batzuetan (10 pertsona) biktimek gizarte-isolamenduaren eragina jasan dute, bai eta lo-arazoak edo depresio-nahasmenduak ere, erdiak neskato-mutilak baitziren gertaeren unean. Tiroz zauritutakoetatik bizirik atera ziren lau pertsonetatik batek (16 pertsona) esan zuen nahasmendu psikologiko larriak zituela, hala nola nahasmendu obsesibo-konpulsiboa edo trauma osteko sindromea.

Testigantza eman zuten biktimen talde txiki baten egoera psikologikoak osasun mentaleko arazo larriak dituztela erakusten du. Jasandako indarkeria arazo

horietako asko sortzeko zuzeneko kausa izan zela frogatu ezin bada ere, faktore horren eragina ere gehitu behar da kasu horietan.

*T.A.ren kasuan, traumatismo torako-abdominal bat jasan zuen gomazko pilotakada batek jota, eta hark eragindako ondorio fisikoengatik, zenbait aldiz ospitaleratu behar izan zuten, ebakuntza kirurgiko batzuk egin zizkioten, eta iraupen luzeko ezintasuna izan zuen. Psikologikoki, halaber, gertatutakoak zirrara handia eta inhibizio emozionala eragin zizkion. Askok kostatu zaio, beti, jasandako erasoari buruz hitz egitea eta zenbait nerbio-krisialdi izan ditu. Duela hiru urte ospitale psikiatrikoan ingesatu zuten, eta 2010ean, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Zerbitzuak nahasmendu bipolarra depresio-gertakari larriarekin diagnostikatu zion. Nahasmendu psikiatriko hori 1977an gertatuko jazoerekin lotu ahal izatea zaila den arren, eraso hark izandako eragin handiak gaur egun dituen pairamen psikiatrikoak larriagotu ahal izan ditu. T.A.*

## Historia desitxuratzen

Zigorgabetasuna eta jurisdikzio militarreko kasuetan ikerketarik ez egitea izan ziren joera orokorrak. M.J.G.A.ren aurkako tiroaren kasuan, eginbideak abiatu ziren, baina lesioak eragin zituzten Guardia Zibileko kideen erantzukizun-deklaraziorik gabe itxi ziren, Amnistiaren Legea aplikatu baitzitzairen. Horrek, kasu honetan eta beste askotan justizia egitea eragozteaz gain, biktimak egia jakiteko duen eskubidea ere eragotzi zuen. Izan ere, biktimek ez dute inolako aitortzarik jaso erakundeetatik edo erantzuleengandik.

Bestalde, prozedura judizialean eta garaiko prentsan, bertsio ofizial hau jaso zen: M.J.G.A.k babesa hartu zuela portalean, manifestatzaile-talde handi bat zegoela, eta Guardia Zibileko kapitaina han sartu zenean, talde hori eskaileretatik samaldan jaisten hasi zela, eta horregatik, tiro bat airera egin behar izan zuela kapitainak, manifestatzaileak beldurtzeko. Bertsio hori ez dator batere bat biktimak Batzordearen aurrean esandakoarekin. Ez zen portala miatu eta ez zen ikerketa kriminologikorik egin bertsio hori defendatu ahal izateko edo gertaerak ikertzeko.

Gertaeren bertsio desitxuratu horiek direla eta, biktima askok ez dute urte askoan izan bizi zutenaren aitortza, eta eraso haiek minimizatu egin dira; izan ere, bertsio horien bidez, nahita eta berezi gabe egindako erasoak ezusteko eta ustekabeko eraso bihurtzen dira.

## **Atxilotutako pertsonak eta tortura-kasuak**

Batzordean onartutako kasu guztietatik 72 atxilotutako pertsonen buruzkoak dira. Zehazki, 51 kasutan, pertsona behin bakarrik atxilotu zuten (14ri lesio fisiko iraunkorrak eragin zizkieten, eta bi 17 eta 16 urteko adingabeak ziren), eta lau pertsonatatik bat (13 pertsona), behin baino gehiagotan atxilotu zuten.

*1972tik 1979ra, Guardia Zibilak F.J.G.A. sarritan atxilotu, jazarri eta jipoitu zuen. Eskuin-muturreko taldeen mehatxuak ere izan zituen, etengabe. Jasotako kolpeen ondorioz, haustura izan zuen burezurreko eskuineko hezur tenporalean, eta horrek kiste araknoideo bat sortzea eragin zion. Kiste horrek, gaur egun, krisi epileptikoak (erorketekin) eragiten dizkio, bai eta akufeno iraunkorrak ere belarrietan. Halaber, hortzak galdu zituen eta hortz-hausturak izan zituen, eta artikulazioko oinazeak sarritan, egin zizkieten muturreko tenkatze-maniobren eta behartutako esekitze-maniobren ondorioz. F.J.G.A.ri buruzko irizpena.*

Aipatu behar da behin baino gehiagotan atxilotutakoen multzo horretako pertsonen kasu batzuetan, zehazki, ondorio fisiko larriak dituztela, eta horrek erakusten du tratu txar larriagoak jasan zituztela behin eta berriz atxilotutakoak (5ek lesio fisiko iraunkorrak dituzte).

*E.G. 1972an atxilotu zuten. 1973tik 1975era parte-hartze handiagoa izan zuen ETA-pm erakundean, eta 1975ean, Guardia Zibilak berriz atxilotu zuen, Lugon. Bost egunez, kalez jantzitako zenbait agentek galdeketa egin zioten eta torturatu egin zuten. Burua ur zikinez betetako bainuontzi batean sartzen zioten, ia ito arte. Agenteez listua botatzen zuten bainuontzira, eta han txiza ere egiten zuten. Kolpeak, ukabillkadak eta ostikadak eman zizkieten gorputz osoan, eta aurpegian ere bai. Hitz egiten ez bazuen hil egingo zutela esaten zioten. Bere familiak ez zekien atxilotuta zegoenik. Bost egun igaro ondoren, epailearen esku utzi zuten, eta Coruñaako espetxean sartu zuten. Han preso zegoenean, espetxetik atera egin zuten egun batez, legearen guztiz kontra, polizia-etxera berriz eramateko eta beste galdeketa batzuk egiteko. Orduaz geroztik, beldurra dio Guardia Zibilari eta oso urduri jartzen da kontrol bat edo patruila bat ikusten duen bakoitzean. Denboraldi batzuetan, loaren nahasmenduak ditu oraindik ere, eta atsedean hartzea kostatu egiten zaio. Ez da inoiz gai izan familiarekin gertatutakoari buruz hitz egiteko. Beldurra dio gertatutakoa etxean kontatzeari. Orduaz geroztik, ez zen berriz izan talde edo alderdi politiko baten kide. E.G.B.ri buruzko irizpena.*

72 atxilotuetatik, 10 pertsonatatik ia 9 (57) tratu txarren eta torturen biktima izan ziren. Horrek erakusten du garai hartako tratu txar orokortua. Testigantza

emateko unean, lautatik batek lesio fisiko garrantzitsuak eta iraunkorrak zituen oraindik, torturen ondorioz.

*C.M.B.k jasandako torturan, zintzilikatze- eta esekitze-maniobrak egin zizkioten, eta horrek oinaze handiak eragin zizkion. Gertaera horien ondoren, karpoko kanalaren ebakuntza egin behar izan zioten, eta uste du torturetako gorputz-jarrera behartuen ondorioz izan zuela kalte hori. Aurkeztutako dokumentazio medikoan jasotzen da sorbaldako lesio batengatik ebakuntza egin ziotela 2012an, sindrome subakromiala zuelako. Lesio horrek lotura izan dezake torturan egin zizkioten zintzilikatze-maniobreakin. Oraindik ere, jasandako torturez gogoratzen da noizean behin, eta horrek larritasuna eragiten dio. Atxiloaldiaren eta espetxeko egonaldiaren ostean, "izaera asko aldatu zitzaidan, askoz errazago asaldatzen naiz". C.rentzat, gai hori zerbait oso zaila izan da beti, eta ez du inoiz horri buruz hitz egin, bere lagun onenetako batzuekin izan ezik. C.M.B.ri buruzko irizpena.*

### Tortura eta bizi-arriskua

Egun batzuez tortura basatiak jasan ondoren, T.E.A. ospitaleratu egin zuten 1975eko maiatzaren 9an. Ospitalean, "zapaltze-sindromea" diagnostikatu zioten, gorputzeko zenbait organo kaltetuta baitzuten, eman zizkioten jipoi basatien ondorioz. 29 egun egon zen ZIUn, eta medikuek hil egingo zela ere iragarri zuten zenbait aldiz. Bigarren edo hirugarren egunean, giltzurrun-gutxiegitasuna izan zuen. 19 dialisi-saio egin behar izan zizkioten guztira, giltzurrunek funtzionatzen ez zutelako. Gero, plantara eraman zuten, eta han egon zen uztailearen 28ra arte. Guztira, 81 egun eman zituen ospitaleratuta.

Laburbilduz, medikuen txostenen arabera, T.E.k honako hauek zituen: 1) hematoma asko, gorputz osoan, burutik zangoen behealdera arte, eta urradurak, torturaren ondorioz, 2) estupore-egoera (kontzientziaren alterazioa, koma-egoeratik gertukoa), 3) bihotzeko eta zirkulazioko kolapsoa, sudurreko odoljariora eta ondesteko odoljariora, 4) giltzurrun-gutxiegitasun akutua anuriarekin (txizarik eza), giltzurrun-traumatismoaren ondorioz, 5) tronbopenia-sindromea (plaketa falta), gibelaren disfuntzioagatik.

Torturen eragin-maila hori ikaragarria da, hiltzeko zorian egon baitzen. 15 egun igaro ondoren, hematomen % 40k oraindik irauten zuten. Bi hilabete eta erdi geroagoko txostenek erakusten dute osatze-prozesuan zegoela une hartan, baina giltzurrun-alterazio handiarekin, eta kontrol medikoak egiten, ospitaleko kanpo-kontsultetan.

Kasu batzuetan, ondorio sentsorialak ziren, entzumen-arazoak batik bat, garezur-garunetako traumatismoen ondorioz.

*E.B. 1965eko irailean atxilotu zuten, panfletoak bota eta pintada bat egin ondoren. Mahaian eserita zegoela eta eskuburdinak jarrita zituela, bizkarrean jo zioten borrekin. Halaber, bi esku-ahurrekin jo zioten belarrietan. Belarrietan jasotako kolpeen ondorioz, oinazeak eta burrunbak izan zituen denboraldi batean. Espetxean ez zuen mediku-arretarik izan. Gaur egun, arazoak ditu belarrietan, baina ezinezkoa izan da haiek baloratzea, eskatutako txosten medikoak ez daudelako E.B.*

*1972an, Brigada Politiko Sozialak G.L. atxilotu zuen Bilboko alde zaharrean, EGIren propaganda banatzen ari zenean. Bere testigantza arabera, "kolpeka jarduteko atxiloketa izan zen, ez zen tortura sistematikoak egiteko atxiloketa". Bere kontaktuak nor ziren eta norekin erlazionatzen zen jakin nahi zuten polizia. Belarrietan jasotako kolpeen ondorioz, G.L.k entzumena galdu zuen aldi batean, eta esan du harrezkero arazoak dituela ezkerreko belarrian G.L.*

Ondorio fisikoek, oinaze- edo ezintasun-maila handiak dituztenean, ondorio psikologiko larriak ere eragiten dituzte.

*Poliziak P.A. 1974an atxilotu zuen, eta tortura ugari jasan zituen Indautxuko polizia-etxean. Kolpeak eman zizkioten buruan, objektuekin eta telefono-aurkibideekin. Horren guztiaren ondorioz, akufenoak eta entzumen-arazoak izan zituen, eta larriagoak izan ziren denborak aurrera egin ahala. Geroago, 2002an, ebakuntza kirurgiko bat egin zioten, eta akustikoaren neurinoma bat kendu zioten. Hori dela eta, kirurgia osteko ondorio hauek izan ditu: belarri batetik gor geratu zen, eta nolabaiteko oreka-galera, bertigoak eta ezegonkortasuna ditu, bai eta aurpegiaren paresia ere. Geroago, antsietate-eta depresio-nahasmendua izan du, eta gizarteratzeko zailtasunak izan ditu, bai eta lan berean jarraitzeko ezintasuna ere, lanaren arrisku-mailaren eta lanarekin lotutako zarata-mailaren ondorioz P.A.*

Batzuetan, ondorio psikologikoek faktore anitzeko jatorria izaten dute, eta tortura faktore abiarazlea izan da. N.S.ren kasuan, deskribatutako torturak eta gertaeren ostean izan zuten eragina bat datoz jasandako espetxeratzeak eta torturak ikusteak sor ditzaketen ondorioekin, bai eta lanerako eta gizarteratzeko izan ditzaketen ondorio negatiboekin ere, baina pertsona horrek, oinarrian, nortasun obsesiboa du.

*Atxilotuta egon zenean, A.M.k etengabeko tentsio- eta larritasun-egoera jasan zuen, ezin zuen lorik hartu, ezta lasaitu ere. Gero, aske utzi zutenean, etengabeko izu-egoeran zegoen, ez zen irakurtzeko gai, ezta kontzentratzeko ere, eta ikasketei utzi egin zien. Hendaiara joan zen bizitzera, lasaiago egoteko, eta han jaio zen bere alaba. Geroago, bere senarra hiltzean, M.A. berriz atxilotu zuten, eta oso lur jota geratu zen, antsietate handiarekin eta bizitzaren perspektiba galduta. Hori dela eta, bere alaba amonarekin utzi zuten, eta familiarengandik bananduta bizi zen A.M.*

### Atxiloaldiaren osteko mehatxuak

F.M. Bi egun igaro ondoren, Basauriko espetxera eraman zuten, eta handik, Burgosko presondegira. Han zegoen hilabete batzuk geroago, 30/69 prozedura summarisimoko epaiketa egin ziotenean. 8 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten, legez kanpoko propaganda edukitzeagatik eta estaltze-delituagatik. Epaikearen ondoren, Teruelgo espetxera eraman zuten, 21 urtetik beherakoentzako espetxeratze-zentro espezifikoa baitzen. Han 2 urte egon zen preso, eta 21 urte betetzean, Jaénera eraman zuten. Hiru urte eman zituen Jaénen, eta azkenik, Palentziako espetxera eraman zuten eta han amaitu zuen zigorra. Espetxetik irten ondoren, zenbait aldiz deitu zuten Guardia Zibilaren Laudioko kuartelera, eta han, kapitainak presioa eta mehatxuak egiten zizkion, F.M.k langile-mobilizazioak gelditu zitzaizkion. “Kargu-hartze” edo mehatxu horiek ez ziren berez atxilotetak, baizik eta mehatxuetan oinarritutako kontrol-mekanismoak, langile-mobilizazioetan edo alderdi politikoetan parte hartzearen susmagarri ziren pertsonen gainean zegoen kontrol-maila agerian jartzeko. F.M.

Erregistratutako tortura-kasu guztietatik, atxilotutako hamar pertsonetatik lauk (27 pertsona) esan zuten antsietatea, babesgabetasuna, beldurra, errua, nerbio-krisialdiak, mesfidantza eta/edo depresioa pairatzen zutela.

*1971n atxilotu zuten. Espetxetik irtetean, aske eta kargurik gabe, bere arazo psikologikoak ez ziren amaitu, eta beldur menderaezina zuen ea berriro atxilotuko zuten, izenak ematera behartzeko. Egoera horretan, zenbait psikologoren eta psikiatraren kontsultetara joan zen. Urte hauetan guztietan nahasmendu obsesibo-kompulsiboa izan du, depresioarekin eta antsietate-krisi sarriekin. Antidepresiboen eta antsiolitikoen bidezko tratamendu jarraitua izan du arazo horietarako, azken 30 urteetan. Arazoak kroniko bilakatu dira. J.D.J.C.*

Datu horiek agerian uzten dute torturaren eragin psikologiko izugarriak gaur egunera arte iraun duela kasu askotan.

*1970eko uztailaren 16an irten zen Basauriko espetxetik, eta beldurrak eta larritasunak hartuta bizi zen aste batzuetan. Batzuetan, polizia etxetik gertu edo etxeko eskaileretan ere ikusi zituen, eta horrek ziurgabetasun eta beldur handia eragin zizkion, edozein unetan berriz atxilotuko zutela pentsatu baitzuen. Martínek bere bizitza berregitea lortu zuen, baina ondorio hau geratu zaio: nolabaiteko ikaraldia duenean, larritasun handia sentitzen du, erabat desegonkortzeko modukoa, eta aldarte- eta izaera-aldaketak eragiten dizkio. M.A.N.*

Biktimitako batzuk tratamendu psikiatrikoan zeuden, edo depresio-gertakariak, izaera-aldaketak edo ideia suizidak ere izan zituzten.

*Ospitaletik irten zenean oso lur jota zegoen psikologikoki, beldur handia zuen, apetitua galdu zuen, eta oso deprimituta zegoen, bizitzen jarraitzeko gogorik ez zuela sentitzen zuen. Ospitaleko alta jaso ondoren, denboraldi luzea eman zuen osatzen, azterketa medikoa zuen astero, eta gero, hilero, eta urtebetearen buruan, sendagaiak hartzeari utzi ahal izan zion eta behin betiko alta eman zioten. 16 hilabete egon zen laneko bajaran, 1976ko irailera arte, eta orduan ere, jende askok esaten zion ez zela pertsona bera, bere adorea eta bizitasuna galdu zituela. Urteen poderioz, berezko bizitasun hori berreskuratuz joan zen apurka-apurka, osatze-prozesu luze batean. Gaur egun ere, zenbait une eta egoeratan, torturari buruz hitz egiten entzuten duenean, oso ukituta geratzen da, eta batzuetan, amesgaiztoak izaten ditu berriz. T.E.*

Bost biktimatatik ia batek dio loaren alterazioko arazoak izan dituela; esaterako, insomnioa edo bizitakoari buruzko amesgaiztoak.

*Torturen ondorioz, M.A.A. oso lur jota geratu zen psikologikoki. Amesgaiztoak eta lo egiteko arazoak izan zituen urte askoan, atxilotekin edo torturekin lotutako albisteren edo kasuren baten berri izaten zuenean. Horrelakoetan, gauean asaldatuta esnatzen zen, baina denboraren poderioz hori gainditu ahal izan du. Zortzi anai-arrebetatik sei atxilotu eta torturatu zituzten. Kasu ezagunena M.A.A.ren kasua izan zen, "Itziarren semea" abestiaren protagonistarena. A. 1968an atxilotu zuten, eta haren gurasoek ez zuten jakin non zegoen zazpi egun pasa arte. M.A.A.k dio Jesús Muñecas kapitainak hura ikustera eraman zituela, non zegoen jakin zutenean: A. odolduta zegoen,*

## Ahazturatik ateratzen

*aurpegia desitxuratu zuen, eta arropa puskatuta, atxiloaldian jasan zituen torturen ondorioz. M.A.A.*

Ondorio sozialei dagokienez, atxilotutako pertsona guztietatik % 15ek atxiloaldiaren ostean gizarteratzeko arazoak izan zituztela esan zuten, bai eta gizarte-harremanen alterazioa ere. Jarraian ageri diren bi adibideetan erakusten da torturak aldaketak eragiten dituela gizarte-harremanetan eta biktimak ingurunearekiko duen integrazioan. Ondorio horiek, sarritan, ikusezin bihurtzen dira.

*Espetxetik irtetean, aldaketa handia somatu zuen, lagun gutxi geratzen zitzaizkion eta, gainera, haiek beldur handia zuten, frankismoak ezarritako errepresio-egoera hartan. J.R.G.U.ri buruzko irizpena.*

*Atxiloaldiaren, tratu txarren eta espetxealdiaren ondorioz, izaera asko aldatu zitzaion, ez zen lehen bezain jendekoa. Alderdi psikologikoari dagokionez, berriz, hauxe dio: "preso bat naizela sentitzen jarraitzen dut, eta edozein unetan atxilotu nazaketela pentsatzen jarraitzen dut". Lagunekin ere aldaketak somatu zituen, eta distantzia sozial handiagoa. Irtetean, espetxean ezagutu zituenekin zuen harreman handiena, haiekin egoten baitzen erosoan. J.V.O.ri buruzko irizpena.*

Kasu batzuetan, biktimak erbestera joan ziren, edo herrialdeko beste leku batera joan ziren, berriz atxilotuko zituztelako beldurrak jota.

*A.F.L. 1976an torturatu zuten. Epaitegitik Basauriko espetxera eraman zuten, eta han egon zen abenduaren 11ra arte. Data horretan, Ordena Publikoko Auzitegiak absolbitu egin zuen, fiskaltzak akusazioa kendu ondoren. Denboraldi batean, arrapak izan zituen oinetan eta eskuetan, oin-zoletan jasandako torturen eta gorputz-jarrera behartuetan eskuburdinak jarrita egotearen ondorioz. Halaber, loaren alterazioak izan zituen, beti sufritutakoan pentsatuz. 1977an, Euskaditik joan zen, berriz atxilotua izateari zion beldurragatik. A.F.L.ri buruzko irizpena.*

Atxiloketa bidegabeak jasan zituzten hamar pertsonatetik batek ethez aldatu edo familia-ingurunea aldatu behar izan zuen.

*M.T.I. lau aldiz atxilotu zuten, den-denak kargurik gabe, eta horietako batzuetan, torturatu egin zuten. Geroago, atxiloketak izan ziren berriz Bakion, eta hain*



*beldur handia zion berriz atxilotua izateari, non bere etxetik lagun batzuen etxera joan behar izan baitzuen. Beldur horrekin bizi zen urte batzuetan: 1983an, oraindik bere etxetik kanpo egiten zuen lo, inguruan atxilotetaren bat gertatzean.*

### Lo-arazoak torturen ondorioz

*Bi egunez ez zioten lorik hartzen utzi, eta jatekorik eman nahi izan zioten arren, ez zuen jan. Handik, Basauriko espetxera eraman zuten. Lauzpabost egun behar izan zituen oinetan eman zizkieten kolpeetatik osatzeko, baina oinazea izaten jarraitu zuen beste hamabost egunez edo. Hala eta guztiz ere, ez zuen inongo medikurik ikusi. Epailera ikustera joan zitzaion Basaurin zegoenean, baina ez zen ausartu hari tratu txarrei buruz hitz egiten, berriro atxilotuko zutelako beldur. 1974ko urrian askatu zuten, eta polizia segika zuelako sentsazioa gainetik kentzea izan zen gehien kostatu zitzaion gauzetako bat. Urte asko pasa ziren hori lortu arte; ez zen lasai bizitzen. Oraindik ere, hunkitu egiten da gertatutakoa gogoratzean. J.M.E.M.*

*R.M. sindikalista zen eta 19 urte zituela atxilotu zuten. Lehenbiziko atxiloalditik, amesgaiztoak izan ditu beti, eta gauaren erdian esnarazten dute, asaldatuta. Askotan izaten duen amesgaizto batean, zelda gero eta txikiago batean sartzen dute, eta bera ito egiten da.*

Ondorio ekonomikoek dagokienez, kasu guztietatik 12 pertsonak beren lanak edo ikasketak utzi behar izan zituzten torturen ondorio fisioengatik.

*1966an atxilotu zuten, Larrearen Ama Birjinaren koroaren lapurretatetik, eta sei egun atxilotuta egon ondoren, aske utzi zuten, kargurik gabe. Atxiloteta horrek eragin handia izan zuen bere bizitzan. Zinpeko jagolearen lanak egiten zituen Bilboko Aurrezki Kutxa eta Bahietxean eta, 1975ean, kaleratzen zutela jakinarazi zioten, "ez zituelako betetzen kargu horretan jarduteko baldintzak, probintziako gobernadore zibilaren idazkiaren arabera, Seguritasuneko Zuzendaritza Nagusiko Ordena Publikoko Komisaria Nagusiaren aginduz". Geroago, Franco hil ondoren, lanpostuan berriro hartu zuten. Atxilotetaren osteko lehenbiziko urteetan, L.L.L.k berriz atxilotuko zutelako beldur zen, eta "etengabe jazartzen zutelako sentsazioa" zuen. L.L.L.*

Azkenik, atxilotutako hamar pertsonatatik batek esan zuen senideek larritasuna, beldurra eta/edo depresioa pairatu zutela. Kasu horietan, torturaren ondorioek eta berriro atxilotuak izateko probabilitateak familia osora hedatu zituzten ondorio psikologikoak.

*Zenbait aldiz atxilotu zuten. Pertsona urduria izan da beti, baina atxiloketen ostean, arazo hori larriagotu egin zen. Atxiloketak goizaldean izateak eta zenbait aldiz gertatzeak eragin zioten gehien. 4 edo 5 urte igarota ere, aitzak zein amak gauaren erdian jaikitzen jarraitzen zuten, pentsatuta norbaitek txirrina jo zuela eta beren semearen bila zetozela. Egoera horren ondorioz, laguntza psikologikoaren beharra izan zuen urte batzuez. Oraindik ere asaldatu egiten da Guardia Zibila ikusten badu. Gertakarien ostean, ez zen ezertan kontzentratzeko gauza, eta psikologo batek denboraldi batean lanik ez egiteko gomendatu zion, lan egiteko moduan ez zegoelako. Oraindik arazoak ditu lo egiteko, suminkortasuna ere bai, edozein arazori aurre egitea kostatzen zaio, eta kontzentratzeko ezintasuna du. Tratamendu psikologikoan egon zen bi urtez. F.G.*

### Eragina familian atxiloaldiaren/torturen/espetxealdiaren ondorioz

J.M.A. hiru anai-arrebatatik zaharrena zen, eta haren atxiloketak eragin negatiboa izan zuen familian. Izan ere, bere gurasoek atxiloketaren ondoren zer egoeratan zegoen ez ikusteko, egin behar zioten lehen bisitan haiek ez ikusteko moldatu zen, eta beti zuen arropa garbia ikustera joaten zitzaizkion egunetarako. Torturez gain, atxiloketak familian izan zituen ondorioek eragin zioten gehien eta eragiten diote oraindik ere. Familiakoak ere biktimak izan zirela uste du. Bestalde, espetxean egotean, soldata bat gutxiago sartzen zen etxean. Bazekien unerren batean atxilotuko zutela, eta hori janda zuen, baina ez zen ohartzen horrek familian sor zezakeen ondoezaz.

Atxiloaldi horietako torturen ostean, loa hartzea kostatu zitzaion urte askoan. Gauean, zarata txikiena entzutean ere, alerta-egoeran jartzen zen eta ezin zuen lo egin. Semeak ere arazoak izan zituen lo egiteko, denbora luzez. Aitaren bi atxiloketaren lekuko izan zen, oso txikia zela, eta lotan zegoenean argia piztea nahikoa zen asaldatuta esnatzeko. Emaztea ere atxilotu zuten, eta, azkenean, umea galdu egin zuen. Gaur egun, ez du hartaz hitz egin nahi, eragiten dion minagatik.

## **Bortxaketa eta indarkeria sexuala**

Batzordeak gizonen aurkako indarkeria sexualeko zenbait kontakizun jaso zituen (horietatik gehienetan, biluztera behartu zituzten eta kolpeak eta umiliazio sexualak jasan zituzten), bai eta emakumeen aurkako indarkeria sexualeko kasu batzuk ere. Bi kasu bereziki larri izan ziren: bat kuartel batean, atxiloaldi batean, eta bestea, berriz, etxe-miaketa batean.

Indarkeria sexualaren ondorioak, sarritan, ikusezin bihurtarazten dira. Batzordearen aurrean aipatutako ondorioen artean, oroitzapen traumatikoak daude, gaur egun ere eragin handia dutenak.

*Haien aginduak etortzen zaizkit burura oraindik ere: Nik lagunduko dizut. Kendu alkandora. Egin gimnasia... Nola begiratzen zuen. Eskukak pubisean. Epaila militarren aurrera eraman nindutenean, kontatu egin nion, eta hauxe esan zidan: 'Ba al duzu lekukorik?'. 'Bai', erantzun nion, 'hori egin zidana da lekuko'. Nola esan zerbait?, ez ginen ausartzen. Oraindik ere, izua sentitzen dut guardia zibil bat ikustean.*

Antzeko beste kasu batzuetan, ez dute lortzen erabateko askatasunez hitz egiten:

*Beldurra sentitzen dut, buelta ematen diodan arte. Ez dut horri buruz hitz egin nire beste ahizpekin, nahiz eta hitz egiteak jada minik egiten ez didan.*

*Berriro atxilotua izateko beldurra. Nire alabei gauza bera gertatzeko beldurra.*

Etxe-miaketan gertatutako bortxaketa-kasu batean, ondorio hauek egon ziren: ondorio psikologiko (tratamendu psikiatrikoa), sozial (beldurra, larritasuna) eta familiar larriak. Biktimak ez zuen horri buruz hitz egin zenbait hamarkadatan, eta gertaerak eragina izan zuen bere bizitza sexualean.

*Hil egin nahi nuen, nonahi negar egiten nuen, nire buruaz beste egitea ere pentsatu nuen, sufrimendua arinduko zidalakoan, baina nire ume txikian pentsatzeak indar handiagoa izan zuen.*

Bestalde, bortxaketaren ondorioz haurdun geratu zen, eta abortatu egin zuen. Gertaerak ondorio izugarriak izan zituen osasunean eta bikote-harremanetan, eta

biktimak isolamendu emozionala pairatu zuen, biktimak isiltasun- eta ezkutatze-testuinguru batean berregin behar izan baitzuen bere bizitza, bortxaketa jasan eta hurrengo lau hamarkadatan baino denbora luzeagoan.

## **Martxoaren 3ko gertaeren ondorioak**

Martxoaren 3ko gertaeren biktima hauek agertu ziren Batzordearen aurrean: bizirik dirauten zaurituetako batzuk batik bat, zaurituetako batzuen senideak (senideak jada hilda egonik), eta gertaeretan hildako batzuen senideak. Zauritutako gehienak su-armekin zauritu zituzten, eta oso ondorio larriak nozitu zituzten. Bizirik atera zirenak eta senideak urte askoan egindako borrokaren ondorioz, Martxoaren 3ko Elkarteak sortu zen. Elkarte horren inguruan bildu dira biktimek egia argitzeko eta justizia eta erreparazioa izateko eskubideen alde egindako ahaleginak.

Eskaera horiei erantzuteko, Eusko Legebiltzarreko batzorde bat abiatu zen, bai eta Arabako Foru Aldundiaren dekretu bat aldarrikatu ere, kalteen baloraziorako eta erreparaziorako. Hala ere, biktimek errekurritu egin zuten, Foru Aldundiaren bidez emandako kalte-ordainak batik bat. Hildakoen senideak kalte-ordainak lortu ahal izan zituzten Memoria Historikoaren Legearen bidez, baina zaurituek ez.

Balorazio Batzordeak kasu horiek hartu zituen, alderdi indibidualak zein kolektiboa kontuan hartuta, denek partekatutako historia baita txosten honetan egindako gertaeren berritzea. Bestalde, Batzordeak berrebaluatu egin zituen zenbait instantziak 107/2012 Dekretuan jasotako irizpideen arabera lehen emandako kalte-ordainen zenbatekoak, bai eta jada onetsitako kalte-ordain ekonomikoen aurrekariak ere.

Gertaeren ondorioei dagokienez, oso erabakigarriak izan dira biktimetako bakoitzaren bizitzan, ikuspegi fisikotik zein ikuspegi psikosozialetik.

- *Eragin psikologikoa bizirik atera ziren pertsonengan*

Bizirik atera zirenetako askok ondorio psikologiko handiak pairatu dituzte, eta ondorio horiek haien bizitza baldintzatu dute. Adibidez, gertaeren ondoren, L.L.k denbora luzea eman zuen gaizki psikologikoki, etorkizunari buruzko segurtasunik

eza handiarekin; izan ere, bere lesioetatik osatuko zen eta zer-nolako bilakaera kroniko izan zitzaketen batere argi ez zegoenez, ez zekien berriz lan egiteko gai izango zen. Aldarte-aldaketak izaten zituen sarritan, eta amorruzko eta asaldura emozionaleko erreakzioak, martxoaren 3ko gertaerei buruz hitz egiten zenean. Ez zuen ulertzen, eta oraindik ez du ulertzen, zergatik erabili zen hain polizia-indarkeria bortitza lan- eta soldata-baldintza hobekak soilik aldarrikatzen zituzten langile babesgabe batzuen aurka.

L.M.S., berriz, balaz zauritu zuten eta oso lur jota egon zen psikologikoki. Ezin zuen lorik egin eta pentsamendu obsesiboak eta errepikakorrak izaten zituen martxoaren 3ko gertaeren inguruan. Horrez gain, 45 egun egon zen igeltsua jarrita, eta dezente kostatu zitzaion berriz ibiltzea lortzea. Jasotako tiroaren ondorioek erabat baldintzatu diote bizitza, psikologikoki batik bat. Oraindik ere, ondorio psikologiko nabarmenak ditu 1976ko martxoaren 3an bizitako shock emozionalarekin eta traumatikoarekin lotuta.

N.M.D.ren lesioak eskuineko besoan jasotako tiro baten ondorioak dira, baina zirrara oso handia eragin zion bere lankidea martxoaren 3ko gertaeretan hildakoetako baten aita izatea. Halaber, trauma osteko estres kronikoa du, gertaeren unean tratamendu psikologikoa jaso ez izanak larriagotua.

I.B.F. gomazko pilota batek zauritu zuen, eta Batzordeari esan zion laguntza psikologikoa beharko zuela une hartan, baina ez zuela inoiz jaso. Gaur egun, ikaragarritzko beldurra dio poliziari, eta saiheste-sintomak erakusten ditu, ez da manifestazioetara joaten, ezta jende asko egoten den lekuetara ere.

Ondorio psikologikoak nabarmenagoak izan dira desgaitasun-maila handia geratu zaizkien pertsonetan. Oinaze kronikoa, alterazio funtzionala eta sufritutakoaren oroitza iraunkorra dira eragin handiena duten faktoreetako batzuk. Adibidez, J.J.R.G.k dio psikologikoki hondatuta dagoela, eta gertatutakoarengatik negar egiten zuela eta negar egiten duela oraindik ere. Beti pentsatzen zuen "gertatu zitzaiona oso zigor larria zela, eta oker egonda ere, berak ez zuela hori merezi". Tratamendu psikologikoa jaso zuen eta nahasmendu neurotikoa bat diagnostikatu zioten. Jasotako tiroen ondorioek erabat baldintzatu dute bere bizitza: muga funtzionala du beheko bi gorputz-adarretan (artrosiarekin eta dismetriarekin); oinazea, ezkerreko orkatilan eta zangoan; gerri pelbikoaren dismetria (bizkarrezur lunbarraren eskoliosia eragiten dio); haustura osteko alterazioa, bizkarrezurraren estatikan; bost orbain (hiru ezkerreko zangoan, eta bi eskuinekoan); eta nahasmendu neurotikoa.

Beste kasu batzuetan, jasandako indarkeriaren estigmarekin bizi behar izan dute bizirik atera zirenek eta hildako pertsonen senideek. Alde horretatik, martxoaren 3ko gertaerek eragin familiar handia ere izan zuten. Adibidez, kasuetako batean, Errioxatik etorritako senideek ikusi zuten Santiagoko Ospitalea zauritutako pertsonaz beteta zegoela eta nolabaiteko kaosa zegoela, eta horrek zirrara eragin zien. Zenbait denbora igaro ondoren, beren jatorriko herrian biktima errudun egiten zuten aipamenak entzuten jarraitu zuten: *“pilotakada jo badiote, zerbait egingo zuen”*. Susmo horrek estres- eta tentsio-iturri berriak sorrarazi ditu zenbait familiatan, eta Batzordeari esan zioten zer-nolako eragina izaten zuten biktimei buruz gaizkileak balira bezala hitz egiten zela entzuteak.

Aipatzekoa da biktima asko gazteak zirela eta pairatutako ondorioen larritasunak aldaketa sakona eragin zuela beren bizi-proiektuetan. Adibidez, M.A.O.U.ri urtaroko herrentasunak eta oinazeak geratu zaizkio, bai eta orbain bat ere zangoan. Baina, psikologikoki, oso lur jota sentitzen da oraindik ere. Kirolari bikaina zen, eta kirola egiteari utzi behar izan zion, eta beldurra izaten hasi zen, etxetik irteteko beldurra ere. Halaber, aldaketa handia somatu zuen bere izaeran: erasokorragoa bihurtu zen, sentitzen zuen frustrazioa eta beldurra adierazteko modu gisa. Ez zuen inoiz hitz egiten gertatutakoari buruz, eta ez zitzaion gustatzen bere aitak kontatzea ere.

#### • Ondorio fisikoak

Batzordearen aurrean martxoaren 3ko gertaerekin lotuta aurkeztutako kasu guztietan, ondorio fisiko garrantzitsuak dokumentatu zituzten, larritasun-maila desberdinetakoak, bizi-organoetan izandako eraginaren arabera eta lesioek edo ondorio sentsorialek eragindako suntsitze-mailaren arabera. Pertsona gehienak zenbait hilabete egon ziren lanerako ezintasun-egoeran, eta kasu batzuetan, ezin izan zuten lehen egiten zuten lana egiten jarraitu. Adibidez, L.L.P. tiroak eragindako lesioetarako errehabilitazio-tratamendua egiten hasi zen 1976ko abuztuan, eta lanerako ezintasun iragankorreko egoeran egon zen 1977ko ekainera arte. Data horretan, lanera itzuli zen apurka-apurka, baina une hartan zituen muga funtzionaletara egokitutako lanpostu batean: ezin zituen denbora luzez zutik egotea eskatzen zuten lanak egin, ezta gorputz-adarren mugimendu zabalak eta bizkorrak egitea eskatzen zutenak ere.

J.L.B.Z. zortzi hilabete egon zen lanerako ezintasun iragankorreko egoeran, eta gero, enpresara itzuli zen. Ezin izan zuten ijele-lanak egiten jarraitu, zauriek eta ondorioek eragindako muga fisikoengatik, eta gruiста-lanak egiten jardun zuten.

Beheragoko kategoriako lana zen gruiastarena, baina erosoagoa. J.L.B.Z.ren izaera asko aldatu zen, gizon haserrekor bihurtu zen eta aldarte-aldaketa handiak izaten zituen, beti zegoen erdi triste erdi haserre. Etxean, oso gutxi hitz egin zuten martxoren 3an gertatutakoari buruz, berari ez baitzitzaion gustatzen gaiari buruz hitz egitea. Gaur egun, J.L. hilda egon arren, emazteari eta seme-alabei oso mingarria egiten zaie gaiari buruz hitz egitea.

C.T.G. mugikortasun-mugekin geratu diren pertsonetako bat da. Hauek dira hartu zuen tiroaren ondorioak: bi orbain eskuineko zangoan, ondoeza ibiltzean beheko gorputz-adarrean, eta eskuineko bikien funtzio motorraren galera arina. Beste kasu batzuetan, hala nola M.S.B.ren kasuan, ondorioek bizimodua erabat baldintzatu dute: enpresan, bere lanpostutik kendu behar izan zuten, eskuan indar asko galdu zuelako, eta zenbait zaletasun praktikatzeari utzi egin behar izan zion, hala nola pilotan jokatzeari. Halaber, I.V.R.ren kasuan, ondorio hauek izan zituen: oinaze kronikoa ezkerreko eskumuturrean, eta 20º-ko galera hedapen-ahalmenean, eta pronazioa, indar-galerarekin eta 10º-ko mugikortasun-galerarekin. Horrez gain, zenbait alterazio psikologiko ditu; arinak dira, baina mesfidantza- eta suminkortasun-erreakzioak izatea eragiten dizkiote.

Beste kasu batzuetan, hala nola aurpegiko hezurren haustura-kasu batean, espedientean dagoen mediku-txostenaren arabera, hauek izan ziren tiroak eragindako ondorio fisikoak eta psikologikoak: infekzio errepikariak, ahots-korden hipersentsibilitatea hotzarekiko, afonia ugariak, sudur-trenkadaren haustura, bi orbain eskuineko masailalbo-hezurrean eta ezkerreko beheko masailazurreko goranzko adarraren eta adar horizontalaren arteko angeluan, orbaina mihian, eta, une hartan oso gaztea zenez, sufrimendua eta ondorio fisikoak asimilatzeko zailtasunak. Hori dela eta, egoera depresibo-erreaktiboa izan du urte askoan, eta oraindik ere ez du gainditu.

A.T.ren kasuan, gertaeren ondoren ia itsu geratu zen, eta egoera horrek infekzio eta arazo asko eragin zizkion. Ikusmena galdutako begiaren eremuan ebakuntza ugari egin zizkieten, eta muga eta oinaze ugari izan zituen. Izan ere, 1998ko abenduan, eskuineko begiaren infekzio baten ondoren, begiko inplantea bat-batean kanporatu zuen 1999ko azaroan. 2001eko uztailean, beste ebakuntza bat egin zioten, begiko zakuaren hondoa berreraikitzeke, infekzio errepikariaren ondorioz. Gaur egun, begiko protesi estetiko bat erabiltzen du, eta lau urtean behin aldatu behar du. Halaber, protesia sarri esterilizatu eta leundu behar da, infekzio larriak eragin ditzaketan konjuntibitis errepikariak eragozteko.

Bestalde, beste ondorio batzuk elizan irentsitako gasen keek eragindakoak izan ziren. Esaterako, S.D.F.ren kasuan, elizan botatako potoen keak irensteak kalte handia eragin zion biriketan. Ondorio horien bilakaera ez da positiboa izan eta, urteen joanean, jaitsiera izan du biriken karbono monoxidoaren transferentzia-ahalmenean. Txosten medikoaren arabera, “tarteko mailako aireztapen-sindrome murriztailetzat definitu daiteke, gas negar-eragileak irensteak eragindako kalte toxikoarekin lotura izan dezakeena”. 1982tik, S.D.F.k % 35eko desgaitasun globala du, neumopatia interstizialagatik, tarteko mailako aireztapen-alterazio murriztailearekin.

Zenbait kasutan, biktimak jada hilda zeuden, geroago sortutako beste kausa batzuen ondorioz, eta senideek eman zuten testigantza Batzordearen aurrean, eta kontatu zuten nola baldintzatu zuten tiroaren ondorioek familia guztiaren bizimodua. Gertakarien osteko lehenbiziko urteetan, presio psikologiko handia izan zuten, beldurrez bizi ziren eta beti gertatutakoa gogoratzen, baina hari buruz hitz egin gabe. Ahaztu nahi zuten. Bestalde, gurasoak, J.M.O.G.k, balak eragindako bi orbain zituen zangoan, eta muskulu-masaren galera, eguneroko bizitzan gehiegi eragiten ez ziona. 1986ko martxoan hil zen, martxoaren 3ko gertaerekin loturarik ez zuten kausen ondorioz, eta ordutik aurrera, bere seme-alabek hartu dute bere aldarrikapenen lekukoa.

Tiroek eragindako ondorioek beste familia askoren bizimodua baldintzatu zuten. E.H.k, J.A.M.H.ren amak, dio bere semearen bizi-proiektua erabat aldatu zela une horretatik aurrera: ikasketak utzi zituen eta lanean hasi zen. Osasun makala zuen, eta horrek baldintzatu egiten zuen lana bilatzeko orduan, ezin baitzituen ahalegin fisiko handiak egin. Halaber, psikologikoki, J.A.ren bizitza dezente konplikatu zen, beldurra eta larritasuna baitzituen.

### • *Ondorio sexualak*

Su-armen, gomazko piloten edo ke-potoen tiroetatik bizirik atera ziren beste pertsona batzuek ondorioak izan zituzten aparatu genitalean hartutako kolpeen ondorioz, eta horrek eragin handia izan zuen beren sexu-harremanetan. Erreferentzia espezifikoak anonimatuan gorde dira. Kaltetuetatik, gutxienez hiruk gizarte- edo familia-isolamenduko denboraldiak izan zituzten, bai eta beren bizitza intimoaren eta sexualitatearen alterazioa ere. Gertaera horiek oso mingarriak dira, eta nahiago dute pribatutasunez jardun haiei buruz. Psikologikoki, esperientzia basati horren ostean, laguntza psikologikoa beharko zutela esaten dute, baina biktima gehienei gertatu bezala, laguntzarik gabe gainditu behar izan zuten



egoera. Kasuetako beste batean, “erabat lur jota” geratu zen, eta zailtasunak izan zituen bizitza sozialean. Bestalde, kasu horietan, depresio-arazoan eta lesioen gertakari larriak izan dira, eta arazoak sortzen dituzte oraindik ere.

## 2. Aitortzari eta erreparazioari buruzko pertzepzioak

*Erakundeek eta Estatuko segurtasun-indarrek gertaeretan izandako erantzukizunaren aitortzarik eza beren oinazearen eta sufrimenduaren marjinaziotzat bizi dute familiek; beraz, aitortza hori oso garrantzitsua da oraindik ere. S. familia.*

### Egiaren garrantzia

Ordena publikoko indarrek 1960-1978 aldian egindako giza eskubideen urraketen biktima ugariren kasuak aurkeztu dira Batzordearen aurrean, eta horien guztien eskaera orokorra da gertatutakoaren egia aitortzea. Kasu horietan, zentzu hau du egiak: bizitako esperientziaren balidazioa izatea, eta gizartearen esparruan sufrimendu, galera eta oinazeak aitortzea, hamarkadatan ezkutatu direnak, edota arazo txikitat jo direnak indarkeria soziopolitikoaren testuinguruan, garai frankistatik trantsiziora eta gaur egunera arte.

Erakundeen erantzunik eza horrek biktimaren eskubideak ukatzea ekarri du behin eta berriz, eta horrek sufrimendua areagotu egin du urte horietan guztietan. Halaber, sinesgarritasun-galera ekarri du, eta eskubideen urraketa egon delako sentimendu sakona, bai memoriarako eskubidearena, bai giza eskubideen urraketan biktima izatearen aitortzarako eskubidearena.

*Familiak ez zuen erakundeen inolako babesik izan. Aitzitik, agintariek biktima estigmatizatu egin zuten. Iruñeko gobernadore zibilak J.L.C.P. akusatu zuen hirira beste manifestatzaile batzuekin batera joan izanaz, “borroka-jardunaldian xaxatzeko”. A.C.P.k, bere anaiak, azalpen-gutun bat idatzi behar izan zuen, 1977ko maiatzaren 17an La Voz de España egunkarian*

*argiratu zena. Gutunean, A.k azaldu zuen J.L.C.P. Etxeberria jaun-andrearen etxean zegoela, oporretan, maiatzaren 4tik; beraz, Iruñeko gobernadore zibilaren adierazpenak guztiz desitxuratuak eta bidegabeak zirela. Jurisdikzio arrunta inhibititu egin zen kasu horretan, jurisdikzio militarren alde. J.L.C.P. hil zuen tiroa bota zuen polizia homizidio-delituagatik prozesatu zuten, baina absolutitu egin zuten, 46/76 Amnistiaren Legea aplikatuz. J.L.C.P.ri buruzko irizpena.*

Une oro, Batzordea saiatu egin da biktimen eta senideen balioaren aitortza egiten, bai eta haien testigantzak Euskadiko memoria kolektiboa lantzeko duen zentzuaren balioaren aitortza egiten ere. Halaber, kasu bakoitzean egindako irizpenetan, 107/2012 dekretuaren aplikazioaz erreparazio material eta sinbolikorako gomendatutako akordioekin batera, Batzordeak bere pertzepzio, balorazio eta eskaerak adierazi zituen. Irizpenetan, Batzordeak jasotako gertaeren historia sartu zen, eta aitortza orokor bat ere. Aitortza horren bidez, Batzordeak, memoriaren eginbeharra betetzeko, hau nahi du: irizpena hartzea erasoaren inguruabarren egiaztapentzat eta biktimak eta haren familiak pairatutako sufrimenduaren aitortzatzat.

*Hori dela eta, bisita eta joan-etorri asko egon dira. 2004an bidali genuen gutun ziurtatuaren arrastoa Madrilan galtzen da. Zailtasunak, izapideak, hainbat urteren buruan lortzeko zailak diren datuak. Gauzak edozein moduz egin behar izan ditugu. C.G.R.*

Biktimek eta haien ahaide biziek neurri horiek oso berandu iritsi direla esan diote Batzordeari. Aitortza hori duela urte asko egin behar zela, eta bigarren mailako biktimatzat tratatu dituztela sentitzen dutela. Batzordeak mota askotako biktimen kontakizunak entzun ahal izan zituen, eta, oro har, erakundeen, hedabideen eta gizartearen aurrean duintasunez tratatuak izateko eskatzen zuten.

Alde horretatik, Batzordeak, elkarrizketen amaieran, biktimei galdetu zien ea zer zen haientzat erreparazioa, ea aitortza-ekitaldiek zentzurik zuten, eta, kasuan kasu, zer oroitzapen-formatan sentituko zuten aitorpena egiten zitzaiela.

*Iragana joan da. Baina hor dago. Iragana da gutxien inporta duena, baina oroitzapen-ekitaldi oro ongietorria da. Horraino. F.J.B.*

## Aitortzaren balioa

Biktimen eta senideen jarreran, gehienak erakundeek aitortza-forma horiek egitearen alde zeuden, eta Estatuko segurtasun-indarren jardunaren biktimek beste biktimen eskubide berdinak eta gizarte-aitortza berdina izatearen alde.

Halaber, biktima gehienek adierazi zuten ez zirela gorrotoak edo amorruek bultzatuta jarduten ari, baizik eta gizarterako eta beren buruarentzako eskaera konstruktibo eta osasungarri batek bultzatuta.

*Ni ohartu nintzen gertatutakoak etengabe eragingo zidala, hori egin zidatenei nire barruan barkatzen ez banien. Lasai geratu behar nuen, pertsona horiei barkatu nien: amorru hori eta gorroto horiek alde batera utzi. Min egiten dizutenean... ez nuen nahi horrekin etengabe bizi. Oinazea hor dago, baina desberdina da. Baina hori norberaren kontua da. J.F.M.*

Hala ere, gehienak erakunde publikoek aitortza publikoak egiteko eskatu arren, aldeak daude biktimen artean, ekitaldi horietan parte hartzeari dagokionez. Biktima batzuek ez zuten parte hartu nahi izan. Aitortzaren aldeko gehiengoaren joera horrez gain, eskaera espezifikoak zeuden aitortza nork egin behar zuen harira. Oro har, eskaera hori egin zuten biktimek adierazi zuten garrantzitsua zela Espainiako agintariek eta Guardia Zibileko eta Poliziako segurtasun-indarrek egitea aitortza hori.

Kasu batzuetan, biktima horiekin lotutako estigma dela eta, hildako pertsonen kasuetan batik bat, senideek edo zuzeneko biktimek esan zuten garrantzitsua zela *“biktima errugabea izan zela”* adieraztea.

Biktimen multzo handi batek irainduta sentitu zirela esan zion Batzordeari, biktima batzuei aitortza egin zaielako eta erakundeen babesa izan dutelako, baina beren kasuan, bizitakoa *“ez zen kategoria horretara iristen”*. Adibidez, horrela adierazi zuen bere aitaren heriotzaren ostean jaiotako neska batek, gertaeren zentzugabekeria erakutsiz.

*Horrenbeste denboraren ondoren, nire aita zergatik hil zuten jakin nahi dut. Herrian omenaldi edo aitortza-ekitaldi publiko bat egitea nahiko nuke, han asko maite baitzuten.*

Batzordearen aurrean testigantza eman zuten biktimetako askok adierazi zuten aitortzak garrantzi handia izango zuela haientzat. A.L.B.L. neskato zela larriki zauritu zuten: etxean zegoela, gomazko pilota batek jo zion eta hausturak eragin zizkion aurpegian. Uste du aitortza egin behar zaiela politikan zerikusirik izan gabe giza eskubideen urraketen biktima izan diren pertsona guztiei. Biktima horiek isilik eta erakundeen babesik gabe sufritu dutena ezagutaraztea nahi du. A.L. bizitza osoan egon da norbaitek barkamena eskatzeko eta “sentitzen dut egin zizutena” esateko zain.

Era berean, beste biktima eta senide batzuek Batzordeari esan zioten garrantzitsua zela aitortza-ekitaldiak egitea edo memoriaren guneak sortzea tokiko esparruan, aitorpena egiteko eta nork bere esperientziak gehitzeko.

*Gertaeretatik 37 urte igaro diren une honetan, nahiko nuke gertatutakoaren egiazko kontakizuna egitea, bidezko kontakizun demokratiko eta beldurrik gabea. Halaber, nahiko nuke aitortza publikoko ekitaldi bat egitea. Errenterian, ETAren biktimei soilik aitortza egiteko monolito bat dago, eta nahiko nuke aitortza hori polizia-indarkeriaren biktimei ere zabaltzea. J.C.B.*

## **Kalte-ordainetarako neurriak**

Ez dago inolako baremo ekonomikorik minak edo galerak kuantifikatzeko edo berdintzeko, baina biktima batzuentzat, kalte-ordain ekonomikoa garrantzitsua da. Batetik, erantzukizunaren materialtasuna sinbolizatzen du, jasandako ondorioen eragina eta jasandako galerak edo izandako gastuak ahal den neurrian konpentsatzeko. Bestetik, biktima askoren egoera ekonomiko zailerako babesa da, 107/2012 Dekretuko irizpideen aplikazioaren bidez. Eta justizia-ekintza da hamarkada askotako oroitezaren eta marjinazioaren aurrean.

*Kalte-ordain ekonomikoekiko jarrera: Hori ordaintzerik ez dago. Dirua ematen badidate, hartu egingo dut, behar dugulako. Baina gauza horietan, diruak ez dizu oinazea kentzen. Konpentsatzeko modu bat da, agian. J.F.M.*

107/2012 Dekretuaren mugak direla eta, eta erreparazioa osatzeko, kasu horiei ere Dekretua aplikatzearen aurkako errekurtsioa jarrita dagoenez, Batzordeak, azken lan-denboraldian, ezin izan zuen aurrera egin kalte-ordainen neurriak zituzten tortura-kasuetako askotan. Kalte-ordainetarako neurri horiek etorkizuneko legerian eta erakundeen aitortza-jardunbideetan ezarri beharko dira.

## **Belaunaldi berrientzako balioa**

Memoriaren balioa aitortza-modu gisa adierazten dute, bai eta belaunaldi berrientzako balio gisa: “garai hartako testigantzak eta gertaerak jaso daitezela, kontakizuna osatu ahal izateko eta gaur egungo gazteek historia horren berri izateko”. Iritzi hau ere adierazten da: “kasu horiek eskolara ere eraman beharko lirateke, ikasleek haien berri izateko”.

Halaber, parte-hartze politiko handiagoa zuten biktimenzat, aitortza horretan, borrokaren eta sufrimenduaren balidazioa dago: “gaur egun ditugun gauzetako asko lortzeko konprometitu zen jende asko egon zen”, “jakin dadila zenbat sufritu zen diktaduraren aurka eta ideal batzuen alde borroka egiteagatik”.

## **Torturari buruzko egia**

Torturaren biktimen kasuan, ia biktima guztiek esan zioten Batzordeari oso garrantzitsua iruditzen zaiela “torturei buruzko egia” jakinaraztea, eta “jakinaraztea torturak jasandako pertsona askok hainbat ondoriorekin geratu zirela, eta batzuetan, nahasmendu psikologiekkin”, eta jakinaraztea, halaber “egia eta Euskadik pairatutako errepresioa”, eta “gertaera horiek bai Gobernuak bai gizarteak aitortzea”. Torturaren praktika aitortzeko eskaera esplizitu horrek erakusten du zenbateraino bihurtu den ikusezin eta zenbateraino jarri den zalantzan biktima horiek pairatutakoaren egiazkotasuna: “jakin dezatela denek torturari buruzko egia”.

Halaber, biktima askok adierazi zuten garrantzitsua dela gertaerak epaitzea eta erantzuleen izenak jakitea. Alde horretatik, biktima batzuek frankismoaren krimenezat justizia eskatzen dabilzan erakundeetan parte hartzen dute, ez iraganari begira, baizik eta justizia hori etorkizunerako bermea izan dadin: “kasuen judizializazioa, gertatu dena jakin eta zigor dadin, berriz ez gertatzeko”.

*“Garrantzitsua da Euskadiren historiako testuinguru guztietan, Francoren aurretik eta ondoren, eragindako minari buruzko autokritika egitea. Hori da gatazka guztiak konpontzeko bide bakarra”. I.G.A.*

## **Torturaren prebentzioa eta biktimen arreta**

Beste biktima batzuek torturaren mina eta jardunbide horien jarraitutasuna adierazten dute prebentzioaren ikuspegitik, oraindik ere:

*Tortura desagertu dadila, eta hori gertatzeko, erakundeek aitortu behar dute tortura dagoela, eta lan egin behar dute hori prebenitzeko. Nire ustez, garrantzitsua da etorkizunerako konpromisoak egotea eta bizikidetzaren, justizia eta berdintasunerako oinarriak sortzeko lan egitea. T.A.*

Bestalde, uste dute komenigarria izango litzatekela arrazoi politikoengatik biktimei laguntza psikologikoa ematea, haien torturen ondoren izan duten sufrimenduaren esperientzia erakutsiz.

## **Egileak nor izan diren jakitea, justizia egitea eta haiei kritika morala egitea**

Biktimen multzo handi batentzat, Batzorde honek aztertzen dituen gertaeren egileak epaitu beharko lirateke, eta igarotako denbora dela-eta hori egitea ezinezkoa bada, haien izenen eta ekintzen berri eman beharko litzateke, zigor moral gisa. Biktima horientzat garrantzitsua da gertatutakoa jasota geratzea.

*Urte askoan erakundeengandik alde batera utzita sentitu naiz eta beldur handia izan dut. Erakundeek kasuak banan-banan ikertzea gustatuko litzaidake, eta zer gertatu zen eta horrelakorik gertatu beharko ez zuela esatea. J.M.B.S.*

J.M.B.S.ren hitzetan, ez da soilik zer sufritu duen biktima batek, baizik eta "horrenbeste jenderek izan duten portaera eta egin diren basakeriak, hori beti isilarazten baita". Biktima horrek uste du, biktimen aitortza egin beharrean, egileen izenak eta zer egin zuten argitaratu beharko litzatekela. Bere ustez, egia jakiteak balio du.

### Memoria inklusibo bat eraikitzea

Batzordeak, bere lanean, bizi-, politika- eta sindikatu-ibilbide oso desberdinak dituzten kasuak aurkitu ditu. Pertsona batzuek, diktaduraren garaian, indarkeria modu batean edo bestean erabili zuten erakundeetan parte hartu zuten, eta, gerora, erakunde horri kritika edo uko egin zioten, eta afiliatu egin ziren borroka-metodo horiek erabat arbuiatzen zituzten antolakunde politiko demokratikoetan. Zenbait biktimak giza eskubideen urraketak pairatu zituzten ordena publikoko indarren eskuetan, edo atxilotu egin zituzten ETArekin kolaboratzeagatik, eta gerora, mehatxuak jaso zituzten erakunde horretatik eta haren ingurune politikotik, pintaden, paskinen edo estortsio-gutunenean bidez. Horregatik guztiagatik, pertsona horiek nahiko lukete jazotako tortura-gertakariak aitortzea, tortura horiek medio hainbat pertsonak “beren burua errudun adierazi behar izan zutelako edo beste pertsona batzuei errua egotzi behar izan zitelako”. Halaber, nahiko lukete aitortzea zenbait biktimak indarkeria-mota ugari jasan dituztela.

### **Martxoaren 3ko gertaerako biktimen eta haien ahaide biziaren eskaerak**

Martxoaren 3ko gertaerako biktimak eta haien ahaide biziak antolatu egin ziren biktimen eskubideak eta gertatutakoari buruzko aitortza eta justizia sustatzen saiatu den elkarte batean. A.T.k eta biktimen beste ahaide bizi batzuek Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean martxoaren 3ko gertaerei buruzko batzorde txostengile bat sortzea sustatu zuten. Une horretan, 1999an, abiatu zen Martxoaren 3ko Elkartearen ibilbidea. GGeroago, terrorismoaren biktimekiko elkartasunerako urriaren 8ko 32/1999 Legea jo zuten, eta hura haiei ere aplikatzeko eskatu zuten, eta desengainu handia hartu zuten ezezko erantzuna jasotzean. Gai horren inguruan, errekurtsioa jarrita dute Estrasburgoko Auzitegian, 2004tik, eta oraindik auzitegiaren ebazpenaren zain daude.

Lan horretarako lehen urratsak biktimei lehen eskaeretan lagundu zien abokatu baten eskutik eman zituzten. Letraduaren laguntzarekin, erantzukizun subsidiarioagatik erreklamazio bat aurkeztu zuten, bai eta une hartan planteatu ziren beste 25 erreklamazio ere. Erreklamazio horiek guztiak largetsi egin zituzten. Hala ere, biktimek eskaerak antolatuta planteatzen jarraitu zuten, eta hori lagungarria izan da martxoaren 3ko biktimen oroitzapenerako eta aitortzarako.

Alde horretatik, Batzordearen aurrean beren kasuak aurkeztu zituzten biktimenzat behintzat, orokorra da egia aitortzeko eta justizia edo, gutxienez, egileen aurkako zigor morala lortzeko eskaera.

Eskaera horrek berekin dakar langile-borrokaren aitortza egiteko eskaera inplizitua. Hala adierazi zuen ahaide bizietako batek bere testigantza ematean: *“hau jasota geratzea nahi dut: lan- eta soldata-baldintza hobek aldarrikatzen ari ziren langileak zirela, eta poliziaren gehiegizko errepresio-ekintza neurrigabea egin zela langile horien kontra”*.

Egia jakiteko eta justizia lortzeko eskaera horietako asko jada beste kausa batzuen ondorioz hil diren biktimen seme-alabek egiten dituzte. Adibidez, J.M.O.G.ren seme-alabek egia eta justizia eskatzen dute. Gertaerak aitortzea nahi dute, eta zigorrik gabe ez geratzea. Uste dute eraso haien eragileek zigorra merezi zutela. Halaber, pentsatzen dute barkamena eskatu beharko zutela gertatutakoagatik.

Biktimenzat eta biktimen ahaide bizientzat, kasu masibo horrek zalantzan jartzen ditu justizia lortzeko aukerak, eta zigorgabetasunaren eraginari aurre egin behar diote. Halaber, uste dute garrantzitsua dela aitortzea biktimak langileak zirela, eta lan-baldintza hobek aldarrikatu baino ez zutela egin, eta haien aldarrikapenen eta haiek jasandako errepresioaren oinarrian lan-arloko kontuak zeudela.

Hildako pertsonen senideetako eta bizirik atera zirenetako batzuek justizia modu aktiboan eskatzen dute, eta horregatik, 4591/2010 kereilari babesa adierazi diote. Frankismoaren biktimek aurkeztu dute kereila hori, Gai Kriminal eta Korrekzionaletarako Buenos Airesko 1 zenbakiko Epaitegi Federal Nazionallean. María Servini de Cubría da epaitegi horren titularra.

### Senideen memoria

J.L.B. hil zenetik, haren emazteak eta seme-alabek hartu dute bere aldarrikapenen lekukoa eta, une honetan, gertaeretatik hogeita hamazortzi urte igarota, egia eta justizia eskatzen dute. Nahi dute esatea gertatutakoa apropos egindako sarraskia izan zela, Arabako hiriburuan egiten ari ziren grebak amaiarazteko, eta martxoaren 3ko gertaeren erantzuleak epaitzea, nahiz eta baten bat jada hil den.



Halaber, aitortza publiko bat egitearen aldekoak dira, behin eta betirako argi geratu dadin biktimak izan zirela eta ez gaizkileak, eta justizia ere eskatzen dute.

F.A.G.k konpromiso-maila handia izan zuen Martxoaren 3ko Elkartearen, eta jada oso gaixorik zegoenean ere, bere seme-alabak bileretara joaten jarraitzea nahi zuen. Martxoaren 3ko Elkartearen bidez, beti nahi izan zuen gertaera haiei buruzko egia jakinaraztea, poliziaren ekintza basatia eta neurrigabea izan zela, lan-eta soldata-baldintza hobek eskatzen zituzten langile babesgabe batzuen aurka. Halaber, norbaitek gertatutakoagatik barkamena eskatzea nahi zuen.

F.A.G.ren familiak, gertaeretatik hogeita hamazortzi urte igaro direla, aitaren aldarrikapenak egiten jarraitu nahi du, nolabait aitortzearen dadin martxoaren 3ko gertaeretan Polizia Armatuaren neurriz kanpoko esku-hartze basatia egon zela, manifestazio baketsu baten kontra. Halaber, aitortza publiko bat egitea ere nahiko lukete, baina hura politizatu gabe. F.A.G. nahi zuen bezalaxe, familiak ere ez du nahi ekintza publikoak eta mobilizazioak politizatzea edo haien benetako funtsetik aldentzea.

Kasu horretako biktimetako eta biktimen ahaide bizietako batzuek uste dute arreta berezia eman behar zaiela martxoaren 3ko biktimen ondorio psikologikoei, ez baitzuten inolako laguntza psikologikorik jaso gertaeren garaian, eta haietako askok nahasmendu-motaren bat dute gertatutakoaren ondorioz. Biktimetako eta biktimen ahaide bizietako beste batzuek, berriz, hau nahi dute: “martxoaren 3ko gertaerek eragindako guztiak biktimatzen aitortzea eta gainerako biktimekin parekatzea”.

Bizirik atera zirenetako eta biktimen senideetako askok Batzordeari esan zioten garrantzitsua zela martxoaren 3ko gertaeren erantzuleek gertatutakoa aitortzea, barkamena eskatzea eta biktimei damua adieraztea. Gertaerak argitzea eta egia jakinaraztea da, agian, eskaera orokortuena. Denboraren poderioz eta egindako ikerketen esker, gehiago jakin da gertaerei buruz, baina biktimentzat, oraindik badaude argitu gabeko alderdiak. Kasu hori Gasteiz hiriko gertaera kolektiboa denez, biktimetako eta biktimen ahaide bizietako beste batzuek diote garrantzitsua dela gertaera horiek eskola-eremuan jakinaraztea: “Tristeia da Gasteizen gazte askok ez jakitea zer gertatu zen 1976ko martxoaren 3an”. Halaber, beste batzuek diote, gertatutakoaren transzendentzia eta nahitasuna aitortu behar direla; hau da, hitzez hitz esanda: “*gertaera horiek estatu-terrorismozat aitortu behar dira*”.





## IV. Batzordean aurkeztutako kasuen laburpena



**E 001**

**A.O.E.**

Heriotzara kondenatu zuten gerra-kontseilu batean, behar bezalako defentsabermerik gabe eta agintari politikoek urte haietan inposatzen zituzten zapaltze-politiken mende, eta 1975eko irailaren 27an hil zuten. Heriotza-zigor hori exekutatzea bizitzeko eskubidearen urraketa izan zen.

**E 002**

**J.P.M.**

Heriotzara kondenatu zuten gerra-kontseilu sumarisimo batean, inolako berme prozesalik gabe eta agintari politikoek urte haietan inposatzen zituzten zapaltze-politiken mende, eta 1975eko irailaren 27an hil zuten. Heriotza-zigor hori exekutatzea bizitzeko eskubidearen urraketa izan zen.

**E 003**

**A.F.E.**

Polizia Armatuaren ekintza basati, neurrigabe eta bereizi gabe egindako baten ondorioz hil zen. Erandion gertatu zen, 1969ko urriaren 28an, ingurumen-kutsaduraren aurkako manifestazio bat desegiten ari zirela. Azaroaren 12an hil zen. Familiak jazarpen poliziala, doluaren inpaktu traumatikoa eta ekintzen zentzugabekeria nozitu behar izan zituen, bai eta ondorio ekonomikoak eta bizi-proiektuen galera ere. Familiak auzi-eske ugari aurkeztu zituen A biktima zela aitoren zezaten eta ekintzen memoria errespetatu zezaten, eta horrek higatu egin zuen.

**E 004**

**F.J.N.F.**

Eraso polizial baten biktima izan zen 1977ko maiatzaren 15ean. Polizia armatu batzuek basatik jipoitu zuten batere motiborik gabe. Handik bi egunera, kalez jantzitako pertsona batzuek bigarren eraso bat egin eta hil egin zuten. F.J.N.F.ri botila bat pattrar eta litro bat errizino-olio edanarazi zizkieten eta horrek eragin zion heriotza. Horretaz gainera, ospitalean eman zuten denboran miaketaren manipulazioa izan zuen, eta poliziaren zaintzapean egon zen. Hiletan ere hala izan zen, eta haren familiako batzuei mehatxu egin zieten. F.J.N. ez zen hil bere gaixotasunaren bilakaeraren ondorioz, erasoen eta osasun-arazoak konplikatzearen ondorioz baizik, haren osasun-egoera egonkorra baitzen ordura arte. Jasan zituen erasoek eta mehatxuek poliziak garai hartan maiz agertzen zuten *modus operandi* erakusten dute. Onartezinak dira guztiz, era berean, 2000. urtean izandako mehatxuak, Estatuko agenteren batek parte hartu zuela pentsarazten dutenak.

**E 005**

**A.T.M.**

Guardia Zibilaren erasoaren biktima izan zen, bai eta indarraren erabilera neurrigabearena ere, 1977ko otsailaren 27an Lekeitioko Santa Maria Elizan frankismoaren preso politikoen amnistiaren eta askatasun demokratikoen aldeko itxialdi batean parte hartzen ari zela. A. aurpegian kolpekatu zuten, babesgabe zegoela. Zauri larri ugari egin zizkioten eta burezurra eta aurpegiko hezurak hautsi zizkioten. Ondorio kroniko asko izan zituen, berreraikitzeke ebakuntza kirurgiko asko egin behar izan zizkioten, eta garrantzizko ondorio txarrak izan zituen osasunean eta bizi-kalitatean, bai eta lana normaltasunez egin ahal izateko ere.

Erasoak eragindako ondorio larriek 12 urtean berreraikitzeke ebakuntza ugari egin beharra ekarri zuten, zaurietako batzuk osatu nahian, eta, beraz, haren sufrimendua luze zabaldu da denboran. Ondorio horietako batzuek badiraute oraindik, arazo oftalmologikoek, esaterako, eta beste batzuk larriagotu egin dira (arazo traumatologikoak) edo, egokitze-gaitasun handia izan arren, oraindik eragiten diote, erasoaren, inpunitatearen eta jazarpenaren inpaktu psikologikoak, adibidez. ordena publikoko indarrek egindako jazarpenak erakusten du beldurra eragin nahi ziotela, suspertzen ari zela, auzi-eskea saihesteko.

**E 006**

**S.U.P.**

Ordena publikoko indarretako kide baten ekintza basati eta neurrigabe baten hildako biktima izan zen. ETArean aurkako operazio batean, polizia-agente batek tiro egin zion, Urabaingo elizako kanpandorrean zegoela, 1969ko maiatzaren 15ean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan behar izan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, frogaturik gelditu zenean biktimak ez zuela zerikusirik ekintzeekin, eta ondorio ekonomikoei eta bizi-proiektuen aldaketa zorrotzari aurre egin behar izan zieten.

**E 007**

**F.J.B.E.**

Poliziako eta Guardia Zibileko hainbat kidek egindako ekintza kriminal baten hildako biktima izan zen, hura eta beste bi lagun armak zeramatzan talde batekin nahastu zituztelako Bilbora sartzeko errepide batean, 1961eko martxoaren 13an. Haren alargunak, M.A.G.O.k, eta haren semeak, F.J.B.G.k, inpunitatearen ondorioak jasan zituzten. Gertaera haiengatik, Brigada Politiko Sozialeko lau inspektore eta bi inspektoreorde, Polizia Armatuko bi kide eta Guardia Zibileko beste bi kide auzipetu zituen auzitegi militar batek. Hala ere,

auzitegia aldentu egin zen ohiko justiziaren alde. 1963ko martxoaren 27an, Bilboko Epaitegiak polizia-agente guztiak absolbitu zituen. Ministerio fiskalak epaiaren aurrean helegitea jarri zuen Auzitegi Nagusian, Guardia Zibileko agente bakarra akusatuz, baina Auzitegi honek epaia berretsi egin zuen 1965eko ekainean.

**E 008**

**A.S.M.**

Luis Carpintero Guardia Zibileko agenteak 1976ko ekainaren 11n Eibarren eztabaida partikular batean egindako ekintza basati eta kriminal baten hildako biktima izan zen. Alargunak, M.G.M.k, senarraren galera arbitrario eta zentzugabearen inpaktu larria jasan behar izan zuen, eta hiru ume txiki aurrera atera behar izan zituen, aita ezagutzeko aukerarik gabe. Era berean, familiaren ekonomiak kolpe latza hartu zuen, une hartan familiaren bizibidea ateratzen zuena galduta.

**E 009**

**J.O.G.**

Polizia-agenteek 1969ko martxoaren 12an egindako erasoaren biktima izan zen eta erasoak arrastoa utzi zion. Polizia Armatuak J.O.ri tiro egin zion motiborik gabe, atxilotuko zutelakoan ihes egiten saiatu zenean, une hartan indarrean zegoen salbuespen-egoeran atxilotua izatearen ondorioen beldurrez. Ez zen ez kargurik ez inputaziorik frogatu J.O.ren aurka.

Tiroa gorputzaren erdialdera bota zioten (eskua eta ipurmasailaren goiko alde), eta horrek adierazten du polizia-agenteek ETAKoa zelakoan atxilotu nahi zuten pertsonaren bizitza nabarmen mespretxatzen zutela. Erasoak utzitako arrastoak eskuz egin beharreko jardueretan lan egitea ez ezik, eguneroko bizimodua eta bizitza afektiboa normaltasunez egitea ere eragotzi dio.

**E 010**

**I.E.O.**

1975eko irailaren 5ean, gaueko hamaikak inguruan, identifikatu gabeko hiru lagun armaturik sartu ziren I.ren jatetxean Kanpazar gainean (Elorrio, Bizkaia), non bizi baitzen bere emazte eta hiru seme-alabarekin. Hiru lagunek metrailetaz tiro egin zioten I.ri eta ihesari eman zioten segituan. I. bertan hil zen. Erakunde parapolizialek hainbat eraso egin zizkion familiari. Erail baino hilabete batzuk lehenago ere eraso egin zioten familiaren jatetxeari. Haren anaia, J.J.E., ETAKo buru izandakoa zen, eta I.ren hilketaren ondoren atentatu bat egin zioten Frantzian eta haren emaztea hil. Ez zen argitu nork egin zuen atentatua eta, antzeko beste kasu batzuetan bezala, "kontrolrik gabeko" talde bati leporatu zioten.

**E 011**

**F.A.M.**

Getxoko udaltzain baten ekintza basati kriminalaren hildako biktima izan zen 1969ko abuztuaren 2an, Erromo auzoan, Areetan (Getxo). F.A.M.ren familiak galera arbitrario eta zentzugabearen inpaktu larria jasan behar izan zuen, eta, horretaz gainera, ez zuten inolako laguntzarik izan, ekintza polizial kriminal baten biktima izanik merezi zuten arren. Haren gurasoek eta anai-arrebek inpunitatearen ondorioak jasan zituzten, bai eta ikerketa egokia egin ez izanak eta egilea behar bezala epaitu ez izanak eragindakoak ere.

**E 012**

**M.S.U.**

Guardia Zibileko kideek bereizketarik egin gabe 1974ko abenduaren 17tik 18rako gauean errepide-kontrol batean egindako tiroen hildako biktima izan zen. Gainera, bere lagunak ospitalera zeramatenean, ibilgailua geldiarazi zuten Polizia Armatuaren kontrol batean, eta zauritu bati eman beharreko laguntza ukatu zioten. Haren amak eta arrebek M.ren galera basatia pairatu zuten. M.L.U.E.k eta haren alabek, I.k, N.k eta M.k, inpunitatearen ondorioak jasan zituzten, bai eta ikerketa egokia egin ez izanak eta egileak behar bezala epaitu ez izanak eragindakoak ere. Egileek, gainera, auzi-iheslari deklaratu zuten beren burua eta Guardia Zibileko 551 Komandantziak M. non zegoen ezkutatu zien familiakoei.

**E 013**

**J.E.I.**

Polizia Armatuko kideek 1977ko maiatzaren 16an Bilbon egindako eraso basati zentzugabearen biktima izan zen. Amnistiaren aldeko bigarren astea zen eta istiluen aurkako indarrek errepresio-ekintza ugari egin zituzten. Erasoak arrasto fisiko zein psikologiko handiak utzi zizkion. Arrasto horiek lana egiteko gaitasuna urritu zioten betiko.

**E 014**

**J.M.B.S.**

Guardia Zibilak 1977ko urtarrilaren 8an Portugaleteko Pinillos tabernan indarra neurrigabe erabiliz egindako erasoaren biktima izan zen. Gazte batzuk ondo pasatzen ari ziren taberna barruan, kanpoan zer gertatzen ari zen jakin gabe. Guardia Zibilaren esku-hartzea eta tabernatik irtenaraztea motiborik gabekoa eta neurritz kanpokoa izan ziren. J.M.k bi kolpe latz hartu zituen aurpegian, babesgabe zegoela eta guztiz ezustean harrapatuta, eta horrek zauri oso larriak eragin zizkion buruan, aurpegian eta ahoan. Arrasto ugari izan zituen: ezkerreko belarriko entzumena galdu zuen, bai eta bi hortz ere. Arrasto horiek jarraitzen dute; ezkerreko belarriko entzumenaren galera



larriagotu zaio denborarekin eta gaur egun eskuineko belarrikoa ere galtzen ari da. Psikologikoki egokitzeko gaitasun handia izan arren, eraso haren inpaktua jasaten ari da oraindik.

**E 015**

**J.M.S.**

Guardia Zibilak 1977ko maiatzaren 12an Errenterian egindako eraso baten biktima izan zen. Greba-eguna zen eta borroka handiak izan ziren manifestazio batean. Guardia Zibila manifestazioan zeudenen kontra oldartu zen; hasieran, gomazko pilotak bota zituzten, eta, gero, balaz egin zuten tiro. J. eskuineko hankan zauritu zuten eta zauriak arrastoa utzi dio.

**E 016. Denbora-eremutik kanpo**

**J.C.G.M.**

Bere osotasunaren aurkako indarkeriaren biktima izan zen, 1979ko urtarrilaren 20an ordena publikoko indarretako kide batek botatako gomazko pilota baten inpaktuaren ondorioz, eta lesio larriak izan zituen eta gaitasunak urritu zitzaizkion.

**E 017**

**A.C.M.**

Guardia Zibilak erabilitako indarkeriaren biktima izan zen 1976ko irailaren 5ean, Donostiako kaleetan amnistiaren alde egin zen manifestazio batean. A.ri bala-tiro bat bota zioten eta horrek zauri oso larriak eragin zizkion eskuineko hankan. Arrasto handia utzi zion horrek: eskuineko hanka motzagoa eta ahulagoa dauka. Tiroaren arrastoak jarraitzen du eta larriagotzen ari da denborarekin; belaunean eta aldakan ere alterazioak sortzen dizkio. Ondorio horiek guztiek eragin nabarmena dute haren bizi-kalitatean.

**E 018. Kalteak ondasunetan**

**P.B.A.**

Eremutik kanpo.

**E 019**

**P.A.A.**

Atxilotu eta torturatu egin zuten 1974ko apirilaren 7an. Aurrerago, 1979an (denbora-eremutik kanpo), atxilotu eta torturatu egin zuten berriz. Lehen aldiz atxilotu zutenean, tratu txarrak eta isekak egin zizkieten, eta, horren ondorioz, belarrietako batean entzumena galdu zuen eta nolabaiteko oreka-galdera ere izan zuen. Gero, operatu egin behar izan zuten entzumen-nerbioan neurinoma bat zuelako, eta horrek arrasto gehiago utzi zizkion: ezegonkortasun iraunkorra, bertigoa, aurpegiko faresia, nahasmendu antsioso-depresiboa, gizarteratzeko zailtasunak eta lanean jarraitzeko ezintasuna, haren osasunerako arriskutsua eta oso zaratatsua zelako.

**E 020**

**A.M.**

Bi guardia zibilek bortxatu zuten bere etxean 1968ko apirilean. Haurdun gelditu zen bortxaketaren ondorioz, eta abortatu egin zuen ezkutuan. A.M. etxean zegoen bakarrik, babesik gabe, eta etxea miaztera joandako bi guardia zibilek, garai hartan nagusi zen beldurraz aprobeixturik, erabateko inpunitatez bortxatu zuten, autoritate-gehiegikeriaz, eta betiko arrastoa utzi zioten.

**E 021**

**A.B.F.**

Ezker abertzaleak 1978ko urriaren 28an Bilboko alde zaharrean deitutako manifestazio batean izandako eraso baten biktima izan zen. Orduan, 14 urte besterik ez zituela, Polizia Armatuaren ekintza neurrigabe baten biktima izan zen eta zauri larriak izan zituen buruan: garezur-garunetako traumatismoa izan zuen, garuneko kommozioarekin. Lesio hori behar bezala sendatu zen. Denbora luzea pasatu da, eta gaur egun orbainak baizik ez zaizkio gelditzen buruan eta aurpegiari.

**E 022 eta 023 Dekretuaren eremutik kanpo**

**C.A.E.**

ETA erakunde terroristak bere gain hartutako atentatu batean hil zuten 1975eko uztailaren 5ean.

**E 024**

**J.L.A.A.L.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen, Donostian 1977ko martxoaren 12an izan zen manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, 103/77 aurretiko eginbideak erantzukizun-deklaraziorik gabe nola bukatzen ziren ikusita.

**E 025**

**P.M.C.G.**

Bi aldiz atxilotu zuten, tratu txarrak eman zizkieten eta askatasuna kendu zioten hainbat hilabetez, baina ez zuten epaitu eta ez zioten inolako azalpenik eman. Gertakari horiek ez zioten utzi arrasto fisiko zein psikiko nabarmenik.

**E 026**

**K.S.R.**

Donostian egindako manifestazio batean zauritu zuten 1976ko irailaren 17an, Polizia Armatuko kide batek bere etxetik loreontzi bat bota zuelako. Gero, mehatxuak egin zizkieten telefonoz eta ekintza horiek inpunitatean geratu ziren, ez baitzen ikerketa judizialik egin. Haren arrastoak jarraitzen du, buruko orbaina,

esaterako. Gero egin zizkieten heriotza-mehatxuek larriagotu egin zioten jasandako eraso.

**E 027**

**F.J.G.A.**

Guardia Zibilak maiz atxilotu zuen 1972-1978 bitartean, eta torturak, tratu txarrak eta isekak sarritan pairatu behar izan zituen. Horrek osasun-arazo eta ondorio asko sortarazi dizkio gaur arte; kiste araknoideo bat agertu zaio, eta horregatik epilepsia dauka eta maiz erortzen da. Giltzaduretako alterazioak eta oinazeak ere baditu, luzatzera eta zintzilik egotera behartu baitzuten, bai eta mugitzeko arazoak ere. Hogei bat ebakuntza kirurgiko egin dizkiote, giltzadurak eta garezurreko kiste araknoidea direla eta.

**E 028**

**M.L.A.S.**

Polizia Armatuaren eraso baten biktima izan zen 1978ko ekainaren 11n, Tolosan. L. lagun batekin etxera itzultzen ari zela, Polizia Armatuko kideek haien autoa geldiarazi eta eraso egin zieten. Jipoitu egin zituzten eta polizietako batek bizkarretik tiro egin zion L.A.S.i eta errepidean botea utzi. Eraso hori haren biziaren kontrako atentatua izan zen; psikean eragin zion gerora, eta arazo larriak ekarri zizkion, hala nola muturreko gizarte-isolamendua, ondorioak nerabegaroko garapenean, lo egiteko arazoak, gastralgiak, izuaren eta jazarpen-sentimenduaren bizipen gogorrak, ideia obsesiboak eta dardarak urduri dagoenean. Erasoaren arrastoak berean jarraitzen du: nortasun-aldaketa iraunkorreko nahasmendua agertzen du, gertaera traumatikoen eragindakoa, bai eta trauma ondoko estresaren saiheste-sintomak eta ernetasun-sintomak ere, gaur egun ere ongizatea eta egokitzapen soziala nabarmen baldintzatzen dizkietenak.

**E 029**

**A.G.E.**

Atxilotu egin zuten Donostian 1968ko uztailean, tratu txarrak jasan zituen, baina ez zioten ezer ere leporatu. Gertakari horrek ez zion utzi arrasto fisiko zein psikiko nabarmenik.

A.G.E.k alegatutako eta dokumentatutako bigarren eraso 1985ean gertatu zen, eta ez da Dekretuaren denbora-eremuaren barrukoa.

**E 030**

**J.G.M.**

Polizia Armatuaren eraso baten biktima izan zen 1977ko maiatzaren 15ean, Barakaldon, manifestazio batean. Borroka handiak izan ziren manifestazio hartan. Polizia Armatua manifestarien kontra oldartu zen, gomazko pilotak boteaz eta tiroka.

Gainera, orain arte ez da egin inolako aitortzarik gertaera haien bidegabekeriari buruz, ezta J.G.M.k jasandako erasoari eta haren arrasto larriei buruz ere.

**E 031 Denbora-eremutik kanpo**

**E.G.A.**

Eraso baten biktima izan zen 1979ko urtarrilaren 19an, tiro egin baitzioten Intxaurrendoko taberna batean zegoela.

**E 032**

**J.D.J.C.**

Atxilotu eta tratu txar fisikoak eta psikologikoak pairatu zituen 1971ko martxotik ekainera bitartean. Haren arrastoak berean jarraitzen du: nahasmendu obsesibo-kompulsiboa du, depresioarekin, eta antsietate-krisiak izaten ditu maiz. Antidepressiboak eta antsiolitikoak hartu ditu azken 30 urtean eta nahasmenduak kronikotasunerantz egin du gogor. Arrasto horiek eragin handia izan dute haren lan egiteko gaitasunean, haren gizarte-harremanen aldaketan eta haren eguneroko bizimoduan.

**E 033**

**R.G.J.**

Guardia Zibilak egindako tiro baten hildako biktima izan zen 1977ko maiatzaren 12an, amnistiaren aldeko bigarren astean Erreterian izandako liskarraldietan. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, Burgosko Auzitegi Militarrek kasua erantzukizun-deklaraziorik gabe nola artxibatzen zuen ikusita.

**E 034**

**A.I.B.G.**

Polizia Armatuaren eraso baten biktima izan zen 1976ko abenduaren 26an, Donostiako Boulevardean zegoela, Polizia Armatuaren eta manifestarien arteko liskar batean. Istilu haietan, Polizia Armatuak han zeuden guztien kontra eraso egin zuen, gomazko pilotak eta ke-potoak erabilita. A.I. autobusaren zain zegoen geralekuan; ke-poto batek orkatilan jo eta tibia eta peroneko haustura irekia eragin zion. Zauri hark arrastoa utzi dio: dismetria du zangoetan, eta artrosi aurreratua, giltzaduran. Artrosiak oinazea eta hantura sortzen dizkio, bai eta blokeoak ere, noizbehinka.

**E 035 107/2012 Dekretuaren araudi-esparruarekin bateraezina**

**J.R.M.A.**

1975eko irailaren 18an, goizeko bostetan, Polizia J.R.ren etxera joan zen, hura atxilotzera, ETApm-koa zelakoan. Poliziaren txostenaren arabera, J.R.k kontra

egin zuen, ez zien agenteei etxean sartzen utzi eta erasoari aurre egin zion. Era berean, txostenean jartzen du poliziak bainuontzian aurkitu zuela hilik, bala-tiro bat buruan.

Gorpuaren autopsia egin zuten 1975eko irailaren 19an. Tiroaren ezaugarriak adierazten dute bere buruaz beste egin zuela ondoriozta daitekeela. Gertatutakoa argitu eta egindako balorazioa kontrastatu nahian, Francisco Etxeberria Gabilondok txostenak aztertu zituen eta hauxe ondorioztatu zuen 2015eko martxoaren 3an: *“kontuan hartuta sarrera-zauriaren kokalekua, tiroa egiteko distantzia, jaurtigaiak buru barruan egindako bidea eta non jo zuen pareta, arrazoizkoa da pentsatzea bere buruaz beste egin zuela”*.

**E 036**

**M.I.G.C.**

Atxilotu egin zuten 1974ko irailaren 11n, Bilbon, eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen. Tortura haiengatik eta atxilotuta zegoela hari sendabide egokia ez emategatik, entzumena galdu zuen guztiz eskuineko belarrian.

**E 037**

**M.S.O.**

1974ko urritik 1976ra bitartean atxilotu zuten Donostian eta bi aldiz umiliazioak eta torturak jasanarazi zizkion Guardia Zibilak. Atxiloketetan, kolpeak, irainak eta umiliazioak jasan zituen, bai eta lesio fisiko larriak ere: giltzurrunetako kontusio bat izan zuen eta ospitalera eraman behar izan zuten. Gainera, hilabetetan loaren asaldurak, sukar-ametsak eta amets txarrak izan zituen eta horrek inpaktu handia eragin zion osasunean, orain lesio gehienetatik sendatuta badago ere.

**E 038**

**M.M.L.Y.**

Guardia Zibilak 1978ko maiatzaren 13an Beasainen tiro eginez egin zion erasoaren biktima izan zen. Eraso horrek arrastoa utzi zion: lehen mailako arnas gutxiegitasuna du, gehieneko arnas edukiera % 25 murriztuta dauka eta horrek disnea sortzen dio, ahalegin ertainak egitean.

**E 039**

**C.P.F.**

Guardia Zibilak 1977ko maiatzaren 12an Erreterian egindako eraso baten biktima izan zen. Guardia Zibila manifestazioan zeudenen kontra oldartu zen; hasieran, gomazko pilotak bota zituzten, eta, gero, balaz egin zuten tiro. Su-armen tiro haietako batek zauritu zuen C.. Haren arrastoak ez dira desagertu:

birika-edukiera gutxitu zaio birikako eta pleurako lesioengatik eta saihets-hausturengatik, eta horrek disnea sortzen dio ahalegin txikiak egitean, bai eta edukiera bitalaren murrizketa ere. Horretaz gainera, sentsibiltatea aldatu zaio balaren sarrerako eta irteerako zuloen orbainetan.

**E 040**

**J.E.F.P.**

Guardia Zibilaren ekintza basati baten hildako biktima izan zen 1978ko ekainaren 24an, Apatamonasterion, Guardia Zibilak pertsona errugabez betetako automobil bat metrailatu zuenean C-6322 eskualde-errepidean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusi zutenean Burgosko Auzitegi Militarrek emandako epaia akatsez beteta zegoela eta ordena publikoko indarrek ekintza hartan zuten erantzukizuna diluitu egiten zela.

**E 041**

**E.A.E.**

Guardia Zibileko kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen Donostian, 1970eko ekainaren 15ean, zirkulazio-istripu baten ondorengo eztabaida batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik, urteak joan arren, inork ere ez duela bere gain hartu heriotza haren erantzukizuna.

**E 042**

**L.Z.A.**

Atxilotu egin zuten 1969ko otsailean, mugatik propaganda pasatzeagatik eta, Iruñeko eta Donostiako komisarietan jasandako tortura eta tratu txarregatik, entzumena galdu zuen ezkerreko belarrian, bai eta zango baten funtzionaltasuna ere. Beste alde batetik, polizia jazarpena egin zion gero ere, eta jazarpenak eta hark sortutako beldurrak Euskal Herritik kanpora bizitzera behartu zuten. Arrastoek beren horretan jarraitzen dute: ez du berreskuratu ezkerreko belarriaren entzumena eta meniskoaren hausturak zangoaren funtzionaltasuna mugatu dio, nahiz eta lehen batean meniskoa erazi eta gero protesi bat jarri.

**E 043**

**G.G.P.**

Polizia Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokiari langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestariaren kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Guillermok bala-tiro bat hartu zuen bular aldean. Zauri handiak eragin zizkion horrek eta

arrasto larriak utzi dizkio gaur arte: I motako arnas-gutxiegitasun murriztailea, eskuineko lobektomia apikala, bizkarreko hondar-mina (saihets-haustura ondo batu ez zelako), 24 cm-ko luzerako eta 2 cm-ko zabalerako orbaina, eta trauma ondoko nahasmendu psikologikoa (loaren nahasmendua, izaera-aldaketak eta gaitzespen sozialeko sentimendua).

**E 044**

**I.S.P.**

Poliziaren eraso baten biktima izan zen. Poliziak botatako gomazko pilota batek jo zuen, Portugaleteko Labe Garaietako langileen manifestazio bat modu basatian sakabanatzen ari zirela. Erasoak eragindako ondorio larriek zenbait ebakuntza egin beharra ekarri zuten, ondorioetako batzuk osatu nahian, eta, beraz, luzaroan zabaldu zen haren sufrimendua. Zaurien arrasto batzuek irauten dute: begiaren eta ikusmenaren galera, hortz-haginen galera, buruko minak eta zorabioak (ahaleginen bat eginda areagotzen zaizkionak) eta ondorio psikologikoak, inhibizio emozional handia eta isolatze soziala eragiten dizkietenak. Gainera, lan-bizitzan zailtasunak izan ditu modu etengabea lanean jarduteko.

**E 045**

**J.M.G.G.**

Vanguardia Obrera Juvenileko kidea zen eta 1968ko abuztuan bere etxean atxilotu, Donostiako Antiguu auzoko komisariara eraman eta han torturatu egin zuten eta tratu txarrak eman zenbait alditan, salbuespen-egoerako aldi batean. Torturek eta tratu txarrek lesio handiak eragin zizkieten: aldebiko hipoakusia neurosensoriala izan zuen bi belarrietan, % 51,1eko entzumen-eragozpen sozial biauural batekin, sendabide medikurik zein kirurgikorik ez duena; eskuineko saihets-haustura izan zuen, eta eskuineko sorbaldako ezegonkortasuna, 1986an ebakuntza kirurgikoa egin beharra eragin ziona; haren asma-krisiek eboluzio kronikoa izan zuten, biziagotu egin zitzaizen sendabiderik ezaren inpaktuaz gain, eta horrek haren aurretiko patologia asmatikoa okerrera eraman zuen. Arrastoek irauten dute: oraindik ere badu aldebiko hipoakusia neurosensoriala, bai eta giltzadura-arazoaren bigarren mailako mugapen funtzionala ere, torturek eta eskuineko sorbaldaren ebakuntzak eragindakoa, baina bronkioetako asmak sortutako ahalmen-urritasuna ez dago lotuta, Batzorde honen iritziz, torturaren ondorioekin, nahiz eta kontuan hartu den haren lan-eritasuna zehazteko.

**E 046**

**J.M.Z.E.**

Ordena publikoko indarren ekintza basati baten hildako biktima izan zen, Hondarribian 1976ko irailaren 8an izandako manifestazio batean su-arma baten tiroa bizkarrean bota ziotenean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan

zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik hilketa egin zuen guardia zibilaria amnistia eman zitzaiola 46/1977 Legean oinarri hartuz.

**E 047**

**B.S.A.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza neurrigabe baten hildako biktima izan zen Gernikan 1975eko maiatzaren 14an izan zen gertaera batean. Nahiz eta ekintza hori gertatu ETAko bi kide zeuden etxearen aurka egindako erasoan eta ihesi zihoazela izan zen borrokan, B eta haren senarraren aurkako ekintza hori bi pertsona armagabe eta babesgabereren aurkakoa izan zen. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik kasua zigorrik gabe gelditu zela, eta, gainera, ETAko kide izatea leporatzearen estigma ere jasan behar izan zuten, bertako bizilagunak, erlijio-sentimendu handikoak eta pentsamolde tradizionalistakoak izan arren.

**E 048**

**D.V.G.**

Eraso baten biktima izan zen 1969ko urriaren 28an Erandion, herrian zeuden ingurune-arazoen aurkako manifestazio batean. Polizia Armatuak botatako bala batek jo zuen eta gaur egun bala haren inpaktuaren orbaina dauka. Zer gertatu zen ez zen behar bezala ikertu, eta hura egin zutenak ez ziren identifikatu.

**E 049**

**R.B.C.**

Eraso baten biktima izan zen 1969ko urriaren 28an, Erandion, herrian zeuden ingurune-arazoen aurkako manifestazio batean. Polizia Armatuak botatako bala batek jo zuen eta gaur egun bala haren inpaktuaren orbaina dauka. Zer gertatu zen ez zen behar bezala ikertu, eta hura egin zutenak ez ziren identifikatu.

**E 050**

**M.C.P.**

Eraso baten biktima izan zen 1969ko urriaren 28an, Erandion, herrian zeuden ingurune-arazoen aurkako manifestazio batean. Polizia Armatuak botatako bala batek jo zuen eta gaur egun bala haren inpaktuaren orbaina dauka. Zer gertatu zen ez zen behar bezala ikertu, eta hura egin zutenak ez ziren identifikatu.

**E 051 Denbora-eremutik kanpo**

**M.C.P.**

Bere osotasun fisikoaren aurkako indarkeriaren biktima izan zen 1992ko otsailaren 3an.



**E 052**

**J.G.R.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen Donostian 1975ko abuztuaren 31n Garmendia eta Otaegiren epaiketen aurka izan zen manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela, erantzukizun-deklaraziorik gabe.

**E 053**

**E.L.S.A.**

Ordena publikoko indarretako kideen ekintza basati baten hildako biktima izan zen Arrasaten 1978ko azaroaren 15ean Guardia Zibileko bi talderen artean izandako tiroketa batean, talde haietako bat Komando Autonomoetako komando baten atzetik zebilela, Aretxabaletako kuartel-etxeari eraso egin berri baitzion. Bi guardia zibil taldeek, bat kaleko jantzian eta bestea uniformearekin, elkar ezagutu ez, tiroka hasi eta E.L.ren heriotza eragin zuten, bai eta hainbat zauritu ere. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela.

**E 054**

**R.A.B.**

Bi guardia zibilen eraso baten biktima izan zen 1975eko abenduaren 8an, Beasainen. Auto baten barruan P.J.T.G.rekin zegoela, bi guardia zibil hurreratu, arma haiengana zuzendu eta, aurretik inolako identifikazio-saiorik egin gabe, tiro egiten zieten. P.J. hil zuten eta R.ri zauria egin zioten beso batean. Gainera, ekintza horiek inpunitatean geratu ziren, ez baitzen haiei buruzko ikerketa judizialik egin. R.k gaur egun ondorio fisiko hauek ditu: bi orbain, indar-galera txikia besoan eta erreuma-minak eguraldi-aldaketetan. Ondorio psikologikoak ere baditu, shock traumatikoak eraginda: beldur kontrolaezina poliziarren aurrean. Inpaktu psikologikoa larria izan zen bereziki, bala-tiroa hartzeaz gain, bere laguna hil baitzioten une berean.

**E 055**

**I.S.A.**

Polizia Armatuko istiluen aurkako indarrek bortxakeriaz egindako ekintza baten hildako biktima izan zen 1977ko martxoaren 12an, manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela.

**E 056**

**J.M.T.D.**

Sestaoko udaltzain baten eraso baten biktima izan zen 1976ko apirilaren 14an, herri horretan bertan, neurrigabeko ekintza batean. Gazte batzuk pintada bat egiten ari ziren pareta batean eta poliziako agente batek tiro egin zuen eta J.M. larriki zauritu. Zauri horrek ondorio handiak utzi zizkion: lesio neurogeno bat muskulu kuadrizepsetan, tibia-muskuluan eta kanpoko gihar bikian, eta lesio apur bat txikiagoa barruko gihar bikian, zeinak ez baitu muskulujarduerarik, fibrosia dela eta. Ezkerreko kanpo-nerbio ziatiko popliteoaren motor-eroapenaren abiadura normala da, bai eta bi nerbio suralen eroapen sentitiboaren abiadura ere; baina ezkerreko nerbio suralaren zabalatasuna murrizten ari da modu nabarmenean. Hori guztia bateragarria da enbor lunbosakroaren lesio baten ondorio batekin, eta horri gihar bikien fibrosi bat gehitu behar, barruko bikian batez ere, orkatilaren giltzadura-mugimendua mugatzen diona flexio dortsalean.

**E 057**

**L.J.L.G.O.A.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen Beasainen 1975eko abenduaren 2an, Matxinbenta auzoko Endrio baserrian. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza hura zigortu gabe gelditzen zela.

**E 058**

**E.F.R.**

Brigada Politiko Sozialak 1975eko abuztuaren 28an Donostian egindako eraso baten biktima izan zen. Zerbitzuan zeuden agente batzuek botatako bala batek jo zuen E.; agenteak kale-jantzian zeuden. Ekintza hura inpunitatean geratu zen, ikerketa judizialik egin ez zelako eta biktimaren aitortpena manipulatu zelako. Ondorioek badiraute: orbaina du bizkarrean eta antsietate-krisia izaten du noiz behinka, lehen baino gutxiagotan izan arren.

**E 059**

**J.G.A.**

Poliziaren eraso baten biktima izan zen 1976ko irailaren 13an, Tolosan. Poliziak botatako gomazko pilota batek jo zuen J., Tolosan egiten ari ziren elkarretaratze baketsu bat modu basatian sakabanatzen ari zirela. Erasoak sortutako ondorio larriek eragina dute haren bizitzan oraindik ere, ezkerreko begiaren ikusmena galtzen ari baita makulopatia larri batengatik Horretaz gainera, arrasto psikologikoa ere utzi dio erasoak, eta gero eta larriagoa da, mendekotasuna handitu ahala; frustrazio handia sortzen dio horrek.

**E 060**

**F.L.M.**

Poliziako eta Guardia Zibileko hainbat kidek egindako ekintza neurrigabe baten biktima izan zen, hura eta harekin zeudenak armadun talde batekin nahastu zituztelako. Familiaren bizimodua guztiz aldatu zen: beldurrez eta isilean eman zituzten hainbat urte, F.ren kontra errepresaliak har zituzten saihesteko. Gertaera haiengatik, Brigada Politiko Sozialeko lau inspektore eta bi inspektoreorde, Polizia Armatuko bi kide eta Guardia Zibileko beste bi kide auzipetu zituen auzitegi militar batek. Hala ere, auzitegia aldendu egin zen ohiko justiziaren alde. 1963ko martxoaren 27an, Bilboko Epaitegiak polizia-agente guztiak absolbitu zituen. Ministerio fiskalak epaiaren aurrean helegitea jarri zuen Auzitegi Nagusian, Guardia Zibileko agente bakarra akusatuz, baina Auzitegi honek epaia berretsi egin zuen 1965eko ekainean. Biktimak ez zuen ondorio fisikorik izan eta, hil denez gero, Batzordeak ezin du balioetsi norainokoak izan ziren ondorio psikologikoak.

**E 061**

**J.C.E.A.**

16 urte zituela atxilotu zuten, 1976ko urriaren 15ean, eta tratu txarrak jasanaerazi zizkieten atxiloaldiaren denboran Zornotzako poliziaren egoitzan. Gertakari horiek ez zioten utzi inolako arrasto fisiko zein psikorik.

**E 062**

**M.F.M.**

32 urte zituen, eta Langile Komisioetako oso kide aktiboa zen. 1977ko maiatzean amnistiaren alde antolatutako bigarren astean, bere lagunekin agur-afari batetik irtetea, Guardia Zibilaren bi jeep haien atzetik joan ziren, tiroka hasi zitzaizkien eta bertan hil zuten M. tiro batez. Gertaerak ez ziren sekula salatu, anaietako batek eta aitak mehatxuak jaso zituztelako: salaketa aurkezten bazuten, M.F.M. bezala bukatuko zutela esan zieten. Horrenbestez, ez salatzea erabaki zuten.

**E 063**

**C.V.G.**

Guardia Zibilak 1978ko azaroaren 15ean Arrasaten egindako eraso baten biktima izan zen. Bala batek jo zuen C. ezkerreko izterraren barruko 1/3 aldean eta ezkerreko izterraren goiko 1/3 aldetik irten zitzaion. Tiroak arrastoa utzi zion: badu orbain erretraktil bat, 2x1 cm-koa ezkerreko izterraren atzealdean eta 5 bat cm-ko beste bat, ezkerreko izterraren barrualdean. Muskulu-hausturak eragindako koskor bat badu atzeko zuloaren behealdean, sakatuz gero min ematen diona, bai eta parestesiak ere, maila horretan. Odol-zirkulazioko arazoak ditu ezkerreko zangoan, barizeak eta ultzerak eragiten dizkietenak.

**E 064**

**I.G.L.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza neurrigabe baten hildako biktima izan zen Gernikan 1975eko maiatzaren 14an. Nahiz eta ekintza hori gertatu ETAko bi kide zeuden etxearen aurka egindako erasoan eta ihesi zihoazela izan zen borrokan, B eta haren senarraren aurkako ekintza bi pertsona armagabe eta babesgaberaren aurkako izan zen. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik kasua zigorrik gabe gelditu zela, eta, gainera, ETAko kide izatea leporatzearen estigma ere jasan behar izan zuten, bertako bizilagunak, sentimendu erlijioso handikoak eta pentsamolde tradizionalistakoak izan arren.

**E 065**

**P.J.T.G.**

Guardia Zibileko kideek 1975eko abenduaren 8an Beasainen egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena eta erasoaren egileen inpunitatearena ere, ikusirik aurretiko eginbideak erantzukizun-deklaraziorik gabe nola bukatu ziren.

**E 066**

**A.L.B.L.**

12 urte zituela, eraso baten biktima izan zen 1977ko maiatzaren 13an, Basaurin, manifestazio baten inguruan izandako istiluen ondorioz. Polizia Armatuak botatako gomazko pilota batek jo zuen, etxeko leihoan zegoela, eta lesio larriak eragin zizkion ezkerreko begian. Ondorio asko izan ditu: ikusmena galdu zuen ezkerreko begian, depresioa izan du, bai eta trauma osteko estresa ere. Egokitze-gaitasun handia izan arren, jasandako erasoaren eragin psikologikoa pairatzen du oraindik: krisi antsioso-depresiboak izaten ditu eta trauma ondoko estresak arrastoa utzi dio.

**E 067**

**A.E.M.**

Atxilotu egin zuten 1970eko otsailean eta tratu txarren eta tortura psikologikoen biktima izan zen, behar bezalako epaiketarik ez zioten egin, sei hilabetez egon zen atxilotuta eta, 1970eko uztailean epaiketa sumarisimoa egin ondoren, absolbitu egin zuten eta aske utzi. Gertaerak oso larriak izan arren, ez zioten utzi arrasto fisiko zein psikiko nabarmenik.

**E 068**

**R.P.J.**

R.P.J., PC(i)ko kidea, ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen, Eibarren 1970eko abenduaren

4an Burgosko epaiaketaren kontra egin zen manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta egileen inpunitatea ere, inolako erantzukizun-deklaraziorik ez baitzen egin.

**E 069**

**J.M.A.E.**

Eraso baten biktima izan zen 1970eko abenduaren 5ean, Hernanin. J.M.k Burgosko gerra-kontseiluaren kontrako manifestazio batean parte hartu zuen eta Guardia Zibileko kide batek egindako tiro batek jo zuen. Hiltzeko arrisku handia izan zuen. Ekintza haren ondorio izan ziren bizkarrezurraren mugikortasunaren barru-biraketaren mugapena, lepoaren atzealdeko toles anormal bat, eskuineko sorbaldaren eta muskulu supraespinosoaren atrofia eta sorbalda igotzeko halako mugapen bat. Ekintza haren arrastoa ez zaio desagertu: garondo aldeko bizkarrezurraren mugikortasuna mugatuta dauka eta orbain bat du lepoaren eskuinaldean. Horrek oinazea sorrarazten dio etengabe eta masajeak eta analgesikoak hartu ohi ditu oinazea arintzeko.

**E 070**

**F.A.O.**

Zauritua izan zen Guardia Zibilak bere ibilgailua modu indiskriminatuan metrailatu zuenean 6017 eskualde-errepidean, Zarautzen, Zestoako noranzkoan, 1976ko apirilaren 10ean. Erasotako hori haren biziaren kontrako atentatua izan zen, eta lesio zikatrizialak utzi zituzten tiroak jotako besoan, bai eta erasan psikologiko handia eta saiheste-jokaerak ere (uko egiten zion gai horri buruz hitz egiteari eta isilpean utzi zuen urteetan). Ekintza berean hil zen F.S.D., harekin ibilgailuan zegoen laguna. F.k bizi guztian jasan zituen ondorioak, hil zen arte. Lesio zikatrizialak izan zituen, eta sintoma psikologikoak suspertzen zitzaizkionean, ez zuen hartaz hitz egin nahi izaten.

**E 071**

**J.C.B.F.**

Larri zauritu zuten 1977ko maiatzaren 16an, Errenterian, 1977an amnistiaren alde egin zen II. astearen ekitaldietan. Egun hartan, J.C. J.L.C.-ren hiletara joan zen. Hileta amaitu zenean, manifestazio bat egin zuten. Polizia Armatua ke-potoak botatzen hasi zen. Ke-poto batek J.C. jo zuen sudurrean. Ondorioek irauten dute: diplopia eta trauma osteko tatuajea, kolpearen lekuan (kirurgia behar izan zuen). Urteetan, J.C.k arnas-afekzio ugari jasan ditu ke-potoak sudurrean emandako kolpearen ondorioz eta horregatik hirugarren ebakuntza egin behar izan zioten 2005ean. Zauriaren ondorioen artean aipatzekoa da gaztaroan jasan behar izan zuen alterazio estetiko handia ere.

**E 072**

**E.P.B.**

Polizia Armatuaren eraso baten biktima izan zen 1976ko irailaren 16an, Barakaldon. Su-arma batez botatako bala batek jo zuen E. eta tibia eta peronearen haustura irekia eragin zion eskuineko zangoan. Zauri horrek arrasto handiak utzi dizkio: beheko gorputz-adarren arteko dismetria eta zirkulazio-arazoak eskuineko zangoan.

**E 073**

**J.M.I.G.**

Guardia zibil batek 1974ko abenduaren 11n egindako eraso baten biktima izan zen Hernanin, greba orokorreko deialdi batean. J.M. su-armaz egindako bi tirok jo zuten, etxera zihoala. Zauri horiek arrasto handiak utzi zizkieten, hainbat ebakuntza egin arren: eskuineko eskumuturraren giltzadura finkatuta dauka, bai eta haren funtzionamendua eta mugikortasuna mugatuta ere, eta oinaze iraunkorrek eta artrosi erradiokarpianoa ditu. Horrek ondorioak izan zituen haren lan-baldintzetan, eta lanbide-kategoria galdu zuen. Zaurien arrastoak ez zaizkio desagertu: oinazea izaten du maiz eta mugatuta dauka eskuineko eskumuturraren mugikortasuna. Horrek kalte handiak ekarri dizkio, baita lan-alorrean ere.

**E 074**

**J.M.A.S.M.**

Guardia Zibilak 1977ko maiatzaren 12an Erreterian egindako eraso baten biktima izan zen greba-egun bateko manifestazio batean gertatu ziren borroka handietan. Guardia Zibila manifestarien aurka oldartu zen eta bala batek J.M. zauritu zuen. Zauriaren ondorioek hilabeteak behar izan zituzten sendatzeko eta gerora ere iraun dute J.M.ren bizitzan: hiru zentimetroko lesio zikatrizialak ditu ezker-zangoan, plano sakonei atxikiak, eta, haren mugikortasuna normala bada ere, eguraldi-aldaketekin mina izaten du zaurian.

**E 075 107/2012 Dekretuaren araudi-esparruarekin bateraezina**

**R.J.M.V.**

Segada baten hildako biktima izan zen 1974ko maiatzaren 20an, Asturiagako hondartzan (Hondarribia), bahiketa bat egitera zihoala. Batzordearen ustean, ez dago argi gertaera hartan ontzian zeudenek tiroka erantzun zutenik. Kasuaren inguruabarrek ikerketa handiagoa eskatzen bazuten ere, Batzordeak, bere eskumenen esparruan, kasu honetan aitorpenik egin ezin zuela adierazi zuen, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren araudi-esparrua dela eta, honela baitio dekretu horrek: "Inola ere ez dira kontuan hartuko eragindakoa indarkeriako

jarduerak burutzen ari zeneko kasuak, nahiz eta heriotza edo lesioak indarkeria-ekintza hori saihestera edo horren aurka egitera zuzentzen ziren ekintzek eragin bazituzten ere”.

**E 076**

**F.J.O.S.**

Polizia Armatuaren eraso baten biktima izan zen 1977ko maiatzaren 15ean, Deustun, manifestazio batean. Gomazko pilota batek jo zuen eta traumatismoa eragin: hezur zigomatikoko konplexua zati anitzetan hautsion eta begi-globoa galdu zuen. Ondorioak luzeak izan ziren eta garapen pertsonalean zein gizarteratze-prozesuan eragin diote 19 urte zituenetik; hau da, haren gaztaro eta helduaro guztian. Galera izan du dastamenean zein usaimenean, begi bat galdu du modu traumatikoan, infekzio ugari izan ditu malko-aparatuaren alterazioarengatik eta larrialdietako zerbitzuetara jo behar izan du maiz. Ikusmen monokularrak ikusmen-eremua mugatzen dio eta eguneroko jarduerak zein zehaztasun espaziala eskatzen dutenak egitea galarazten dio. Zenbait ebakuntza kirurgiko egin dizkiote fisionomia eta itxura estetikoaren oneratzeko eta masailalboaren egitura eta funtzionaltasuna berreskuratzeko. Ondorioak errepikatu egin zaizkio eta nabarmen eragin diote osasunean zein bizi-kalitatean, lana aurkitzeko aukeretan eta gizarteratze-prozesuan. Horrek estres eta krisi nerbioak sortarazi dizkio zenbait unetan eta ebakuntza gehiago egin beharra ekarri dio, ondorio horiek eta maiz izaten dituen infekzioak konpontzen saiatzeko edo arintzeko behinik behin (begi-protesia erabiltzen ikastea, esaterako).

**E 077**

**J.F.M.M.**

Guardia Zibilaren eraso baten biktima izan zen 1978ko ekainaren 23an, 16 urte zituela, ibilgailu bat modu indiskriminatuan metrailatu zutenean C-6322 eskualde-errepidean, Apatamonasterion, Elorrioko noranzkoan. Eraso hori haren biziaren kontrako atentatua izan zen; lesio zikatrizialak utzi zizkion tiroa jaso zuen besoan eta gerora haren psikeari eragin eta nahasmendu larriak izan zituen. Gertaeren unean zuen adina zaurgarritasun psikologikoko faktore bat da. Tiroen eraso zuzenaz gain, kontuan hartu behar da haren laguna besoetan hil zitzaiola eta horrek gertaeraren eragin psikologikoa handiagotu zuela, galera traumatikoari gertaeren lekukoa eta hura ere erasoaren biktima izatea gehitu behar baitzaio. Gaur egun duen egoerak adierazten du trauma osteko estres kronikoa duela, depresio-sintomekin, 16 urte zituela jasandako indarkeriazko ekintza haien oroitzapen traumatikoari loturik.

**E 078**

**T.A.B.**

Eraso baten biktima izan zen 1977ko maiatzaren 12an. Greba orokorreko egun bat zen eta, kalean barrena zebilela, manifestazio batekin topo egin zuen. Gomazko pilota batek jo zuen hemitoraxean eta horrek behazun-bideen buxadura eragin zion, bai eta hematoma bat gibel-parenkiman ere (bi ebakuntza egin zizkioten). 1978ko otsailaren 23an senda-agiria eman ziotenean, anemia bortitza izan zuen eta digestio-arazo handiak, hiato-hernia eta ultzera batekin lotuta. Nahasmendu psikiatrikoa diagnostikatu zioten aurrerago, eta hala jarraitzen du gaur egun ere. Gertaeren zirrara bizia jasan zuen, eta horrek nahasmendu psikiatriko hori larriagotuko zion beharbada. Erasoaren arrastoak ez dira desagertu: digestio-arazo handiak eta gastralgia ditu oraindik ere, hiato-hernia eta ultzera batekin lotuta, eta pairamen psikiatrikoa larriagotu zaio.

**E 079 Ez da egiaztatu 107/2012 dekretuaren 2. artikuluko eskakizunak  
betetzen direla**

**R.C.B.**

Zirkulazio-istripu baten hildako biktima izan zen 1963ko urtarrilaren 26an, moto batek harrapatu zuenean. Ez dugu froga dokumental gehiagorik, informazio hori osatzeko.

**E 080 Ez da egiaztatu 107/2012 dekretuaren 2. artikuluko eskakizunak  
betetzen direla**

**N.C.B.**

Hildako biktima izan zen 1966ko abuztuaren 19an, bere etxean, Durangon, izan zuen bihotzeko geldialdi baten ondorioz.

**E 081**

**G.J.M.**

LSB sindikatuko kidea zen eta Brigada Politiko Sozialak atxilotu zuen 1967ko apirilaren 14an. Polizien tratu txarren eta mehatxuen biktima izan zen. Atxiloaldian jasandako tratu txarrak larriak izan arren, biktimak berak identifikatutako ondorioak kartzelako egonaldiaren kondizioetatik eta protestan egin zituen ekintzetatik datoz.

**E 082**

**A.SS. Z.**

Guardia Zibileko agente batek kale-jantzian 1975eko ekainaren 15ean Mungian eztabaida partikular batean egindako ekintza basati eta kriminal baten hildako biktima izan zen. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta



ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela eta A.ri ez zitzaiola aitortzen biktima-izaera, ez eta haren eskubideak ere.

**E 083**

**P.M.O.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen Gasteizko Zaramagako auzoan San Frantziskoren parrokian 1976ko martxoaren 3an izan zen manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela eta inolako erantzukizun-deklaraziorik ez zela egin Arabako milaka herritarren kontra tiro egiteko agindu zutenei buruz.

**E 084**

**F.A.C.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen Gasteizko Zaramagako auzoan San Frantziskoren parrokian 1976ko martxoaren 3an izan zen manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela eta inolako erantzukizun-deklaraziorik ez zela egin Arabako milaka herritarren kontra tiro egiteko agindu zutenei buruz.

**E 085**

**R.B.Ch.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen Gasteizko Zaramagako auzoan San Frantziskoren parrokian 1976ko martxoaren 3an izan zen manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela eta inolako erantzukizun-deklaraziorik ez zela egin Arabako milaka herritarren kontra tiro egiteko agindu zutenei buruz.

**E 086**

**J.S.U.**

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu zen eta errepresio bortitza izan zen. J. ez zen parte hartzen ari, baina bi bala-tirok jo zuten, batek zangoan eta besteak besoan. Zauri larriak izan zituen, eta gaur egun ere jasaten du haien arrastoa: hausturaren kailu mingarria peronean, arazoak sudur-trenkadan eta zefaleak maiz.

**E 087**

**P.M.O.B.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Ke-poto batek jo zuen P. izterrean eta eskrotoan, eta, aurkeztutako mediku-txostenetan egiaztatzen denez, honako ondorioak izan zituen. Kolpea hartutako barrabila bestea baino txikiagoa da nabarmen (2,5 cm-ko diametroa du gutxi gorabehera, eta besteak, berriz, 4,5 cm-ko diametroa du).

**E 088**

**T.V.L.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen. Langileen aldarrikapen-eguna izan zen eta errepresio bortitza izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu zen. T. begian jo zuten, eta kolpearen ondorio hauek ditu gaur egun: midriasi ertaina du eskuineko begian; iridodialisia, edo pupila bat baino gehiago sortzen dizkion iris-zatiketa akzidentala; anisokoria, traumatismoarekiko kontsekutiboa; konjuntiba-kongestioa; min arina eskuineko begian eta garezurraren eskuinaldean, lo suspergarria egiten uzten ez diona; begi-zolitasunaren galera; fobiak (heterofobia edo bi begien ikuspen-ardatzen arteko paralelismo-falta).

**E 089**

**M.A.L.U.L.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen. Langileen aldarrikapen-eguna izan zen eta errepresio bortitza izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu zen. Tiro batek jo zuen M. eskuineko izterrean; horrek arriskuan jarri zuen haren bizia. Gaur egun bi orbain ditu, bata jaurtigaiaren sarrerako zuloan eta bestea irteerakoan. Era berean, psikologikoki frustrazio handia sentitzen du, instituzioen inolako laguntasunik jaso ez duelako eta gaur egun biktima guztien parekatzerik egin ez delako.

**E 090**

**I.B.F.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen. Manifestazio batean zegoela, I. gomazko pilota batek jo zuen garondoan, konortea galdu zuen eta astebete eman zuen Santiago Ospitalean. Horren ondorioz, bihurritua izan zuen lepoan eta gerora bizkarrezurraren arazoak larriagotu zitzaizkion. Erasoren arrastoak ez zaizkio igaro: bizkarreko eta bizkarrezurreko arazoak izaten ditu, poliziaren beldur da, manifestazioetara joateko beldur da, larritasun-sentimendua du eta jende askoko lekuak saihesten ditu.

**E 091**

**F.Y.P.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an eta 4an, Gasteizen. Langileen aldarrikapen-egunak izan ziren eta borroka latzak gertatu ziren. Polizia manifestarien kontra oldartu zen. Poliziak F. jipoitu zuen eta, haren ondorioz, buruko minak, mareoak eta trauma osteko estresak eragindako nahasmendua izan ditu, eta baditu oraindik.

**E 092**

**L.M.S.I.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen. Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokiaren langile-batzar baketsu bat egiten ari ziren. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Bala batek jo zuen L.M. ezkerreko belaunean, eta eragindako ondorioek irauten dute gaur egun ere: koadro neurotiko-obsesiboa du, shock traumatiko eta emozional batekin lotua, 2 orbain eukromiko eta eutrofiko ditu ezkerreko belaunaren albo-barrualdean eta aurreko aldean maila supra-errotulianoan, eta belaunaren koadro kliniko mingarria agertzen du, giltzadura gogortuta eta zurrunduta baitauka.

**E 093**

**N.M.D.**

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokiaren langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Bala batek jo zuen N. eskuineko besoaren erdiko herenean, eta sartu eta irten egin zitzaion. Arrisku handian egon zen haren bizia. Ondorioek irauten dute: bi orbain eutrofiko eta eukromiko ditu, 1 cm-koa eta 1,5 cm-koa, bai eta trauma osteko estres handia ere.

**E 094**

**A.P.F.**

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokiaren langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. A. jipoitu egin zuten. Gorputza mailatuta utzi zioten, barrabilak barne, traumatismo bat izan zuen eskuineko orbitan eta begi-globoan, konjuntibako odoljarioarekin, eta sudur-trenkada hautsi zioten. Horrek ondorio psikologikoak eragin dizkio, eta beldurrak berritzen zaizkio noizbehinka.

**E 095**

**J.M.F.LI.**

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J.M. bala batek jo zuen; bala eskuineko hemitoraxaren klabikularren behealdean sartu zitzaion eta eskuineko tiroidearen alboko aldetik irten. Tiroak arrastoa utzi dio gaur arte: bi orbain eutrofiko eta eukromiko ditu, mina izaten du aurreko flexio klabikularrean, erretrobertsioa du omoplatoan eta besoaren abdukzio aktiboaren % 20 galdu du. Psikologikoki, erdi-mailako nahasmendu neurotikoa ditu, beldurrak berritzen zaizkio eta beldur horiek haren osotasun fisikoa mehatxatzen dute.

**E 096**

**F.G.M.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen, langileriaren aldarrikapen-egun batean. Borroka latzak izan ziren, poliziaren ekintzen eraginez, manifestarien kontra oldartu baitzen. F. bala batek jo zuen; eskuineko lepauztai-aldean sartu zitzaion, eskuineko albotik irten, eskuineko basoaren biceps-aldean berriz sartu eta eskuineko ukondotik irten. Arrisku handian egon zen haren bizia. Haren ondorioz, lau orbain ditu; hiru, 3 cm-koak eta bat, 1 cm-koa. Orbain eukromiko eta eutrofikoak sarrerako eta irteerako zuloen aldeetan eta parestesiak, zauritutako besoan.

**E 097**

**J.M.O.A.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen, langileriaren aldarrikapen-egun batean. Borroka latzak izan ziren, poliziaren ekintzen eraginez, manifestarien kontra oldartu baitzen. Tiro bat bota zioten J.M.ri; eskuinaldeko masailalboan jo, sudur-trenkada zeharkatu eta, beheherantz eginda, eskuineko amigdalari jo eta hantxe gelditu zen bala. Haren bizia arrisku handian egon zen, eta ondorio hauek ditu oraindik ere: katarroak eta hotzeria izaten ditu maiz, ahots-kordek hipersentiberatasuna dute hotzarekiko eta mintzatzean (afonia izaten du maiz), sudur-trenkada hautsia du, bi orbain ditu eskuineko masailalboan (goranzko adarra, bata; eta ezkerreko behe-masailezurraren adar horizontala, bestea) eta angelu bat osatzen dute, mihiaren nahasmendu zikatriziala du eta, psikologikoki oso gaztea izanik, ez zuen sufrimendua bereganatu eta depresio-egoera erreaktiboa agertzen du (ez du oraindik ere gainditu).

**E 098**

**J.O.D.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen, langileriaren aldarrikapen-egun batean. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J. osasun-egoitzan ospitaleratu zuten, hainbat zauri zituelako: ezkerreko trokanter artekoaren haustura partziala, pronostiko larrikoa, bala batek egindako zauria ezkerreko izterrean, sarrera eta irteerako zuloekin eta bi zentimetroko ibilbidearekin, eta su-armaz egindako zauri bat trokante aldean (jaurtigaia femurrean gelditu zitzaion), pronostiko larrikoa. Lesio horiek guztiek arrisku handian jarri zuten haren bizia. Gaur egun, honako arrasto hauek ditu zauri haiengatik: 7x9 cm-ko gurutze itxurako orbaina, mina ezkerreko aldakan, balak jo zuen lekuan, parestesia ezkerreko izterrearen kanpoaldean eta trauma osteko estresa.

**E 099**

**C.T.G.**

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. C. bala batek jo zuen eskuineko zangoan; erdiko herenean sartu zitzaion eta atzeko aldean du irteerako zuloa. 2. mailako erredura ere izan zuen eskuineko eskuko lehen, hirugarren eta laugarren hatzetan. Zauri haien ondorioz, gaur egun bi orbain eutrofikoa eta hipokroma ditu eskuineko zangoan eta min arina beheko gorputz-adarrean ibiltzean, funtzio motorra apur bat galdu du eskuineko bikietan eta afektazio psikologiko arina agertzen du.

**E 100**

**G.C.M.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen, langileriaren aldarrikapen-egun batean. Borroka latzak izan ziren, poliziaren ekintzen eraginez, manifestarien kontra oldartu baitzen. G.ri jipoi basatia eman zioten eta gaur egun parestesiak ditu gorputz-adarretan: ez du sentiberatasunik eskuko hiru hatzetan eta hiru orbain ditu besaurreko aurrealdean, 7 cm, 5,5 cm eta 8 cm-koak.

**E 101**

**A.T.D.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 4an, Gasteizen, langileriaren aldarrikapen-egun batean. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. A.ri jipoi handia eman zioten eta ikusmena galdu zuen eskuineko begian. A.k, gainera, lesio bat zeukan txikitatik ezkerreko begian

harrikada batengatik (haren berri eman zien agenteei). Jipoi haren arrastoak irauten du eta bizia guztiz baldintzatzen dio.

**E 102**

**S.D.F.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an eta hurrengo egunetan, Gasteizen, langileriaren aldarrikapenen aldeko mobilizazioetan. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. A.ri pneumonia diagnostikatu zioten, eliza barruan gas negar-eragileak arnastu zituelako. Pneumoniak bilakaera izan zuen eta biriketako sindrome murriztailea sortu zion. Sindromearen ondorioek bizia baldintzatzen diote oraindik ere, pneumopatia interstiziala baitu arnas-alterazio murriztaile moderatuarekin.

**E 103**

**J.I.I.F.T.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen, langileriaren aldarrikapenen aldeko mobilizazioetan. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J.I. Polizia Armatuko kideek emandako jipoi baten biktima izan zen eta orbain bat du garondo aldean haren ondorioz.

**E 104**

**J.I.B.U.**

Polizia Armatuko kideen ekintza basati baten hildako biktima izan zen, 1978ko uztailaren 11n Donostian izan zen manifestazio batean. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik kasua artxibatzeko autoa eman zela tiroak nork egin zituen jakin ezinean, ebidentziak bazeuden ere.

**E 105**

**J.L.C.P.**

Donostiakoa izatez, Iruñean zegoen, kontu familiarrengatik. Eta han Polizia Armatuko kide baten eraso neurrigabe baten hildako biktima izan zen, amnistiaren alde egiten ari zen II. astearen inguruan. Kide horrek bala-tiro bat bota zion bertatik bertara, 1977ko maiatzaren 13an, manifestazio batean, zenbait lekukoren aurrean. J.L. taberna batetik irten zenean, polizia bat jotzen hasi zitzaion bere armarekin buruan eta tiro bat bota zion garondoan. Lekukoen arabera, poliziek, lagundu beharrean, J.L. jotzen jarraitu zuten. Une hartan, Antsoaingo alkateak esku hartu zuen, han baitzegoen, poliziek J.L. jotzeari utzi ziezaioten. J.L. , ordea, bertan hil zen. Gero, beilatokira eraman zuten, eta hara agertu zen haren adopziozko familia identifikazioa egitera.

**E 106**

**J.J.R.G.**

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J.J.ri bi bala-tiro bota zizkieten, beheko gorputz-adar bakoitzean bat. Horrek zauri larriak eragin zizkion, eta gaur oraindik ere pairatzen ditu haien ondorio larriak: funtzionaltasuna mugatua du beheko bi gorputz-adarretan, artrosi eta dismetriarekin, mina izaten du ezkerreko orkatilan eta zangoan, gerri pelbikoaren dismetriak bizkarrezur lunbarraren eskoliosi estatikoa eragiten dio, haustura osteko orno-estatika aldatua du, bost orbain ditu, hiru ezkerreko zangoan eta bi eskuinekoan, bai eta nahasmendu neurotikoa ere.

**E 107**

**M.J.G.A.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko irailaren 27an, Azkoitian. Manifestazio baten ondoren sortutako istiluetatik babestu zen atalondo batean eta Guardia Zibileko kapitain batek tiro egin zion ezkerreko izterrean. Tiroaren ibilbidea parez parekoa eta goitik beherakoa izan zen eta ez dagokio gora botatako tiro bati. Ondorioek irauten dute: orbaina du izterrean eta belauanean, eta gaur egun ere, antsietate-krisi txikiak izaten ditu gertakariez gogoratzen denean edo haiei buruz hitz egiten duenean.

**E 108 Dekretuaren eremutik kanpo**

**J.M.D.O.**

Zauritua izan zen leherketa batean 14 urte zituela Jaizkibel mendian lagunekin zebilenean maniobra militarrik egiten ziren leku batean, zeina, dirudienez, ez baitzegoen behar bezala hesituta eta seinaleztatuta. Lehergailu bat aurkitu zuten (obusa edo morteroa) eta, mugitu zutenean, eztanda egin zuen. Deflagrazioaren ondorioz, J.M. zauritu zen eta ikusmena galdu zuen bi begietan. Une hartan harekin zeuden bi lagun bertan hil ziren eztrandaren eraginez.

Kasu honetan ez da giza eskubiderik urratu motibazio politikoarengatik eta, beraz, 107/2012 Dekretuaren aplikazio objektiboaren eremutik kanpo gelditzen da.

**E 109 Dekretuaren 2. 1 artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo**

**J.C.I.**

“Inkontrolatuak” deitutako taldeetako baten eraso baten biktima izan zen 1977ko maiatzaren 19an, Donostiako Gros auzoan. Tiro egin zioten M.O.C.

polizia armatuaren oroitzapenetan egindako hiletaren ondoren. J.ren bala-tiroak eskuineko ipurmasailean du sarrerako zuloa, eta bala eskuinaldeko pala iliakoan txertatuta geratu zitzaion. Larrialdiko ebakuntza egin zioten, bala kendu zioten eta Redon drainatze bat jarri.

Ekintza hori ez da sartzen ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren 2.1 artikuluan ezarritako esparru objektiboaren barruko kasuetan.

### **E 110 Dekretuaren 2. 1 artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo**

**G.S.A.**

Eraso baten biktima izan zen 1977ko maiatzaren 19an M.O.C. poliziaren hileta eta lurperatzean. Istiluak izan ziren, talde "inkontrolatuek" eragindakoak. Talde horiek su-armak, kateak eta min emateko moduko tresnak zeramatzaten aldean. Istiluen ondorioz, Donostiako kaleetan zebiltzan zenbait lagunek zauriak izan zituzten, handiak zein txikiak. G.S.A.ri tiro bat bota zioten bularraldean, sorbaldatik hurbil. 2003-2007 urteen artean, Oviedon bizi zela, G.S.A. pertsona edo talde ezezagun batek egindako zenbait mehatxuren biktima izan zen, arestian aipatutako gertaerekin batere zerikusirik ez zuten kontu batzuegatik. Ekintza hori ez da sartzen ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren 2.1 artikuluan ezarritako esparru objektiboaren barruko kasuetan.

### **E 111**

**A.E.B.**

Guardia Zibileko agente batek 1975eko azaroaren 25ean Legution egindako ekintza neurrigabe baten hildako biktima izan zen. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik gertatutakoa zigorrik gabe gelditzen zela, maite zuten hari ez zitzaizkiola aitortzen ez biktima-izaera ez bere eskubideak eta, gainera, gaizkiletzat hartzen zutela.

### **E 112 Kasua bi aldiz agertzen da: E 165**

### **E 113 Denbora-eremutik kanpo**

**J.G.G.**

1980ko biktima.

### **E 114 Dekretuaren 2. 1 artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo**

**J.M.L.I.**

Kalez jantzitako bi gazteren erasoaren biktima izan zen 1978ko maiatzaren 23an, Madrilen. Gazteek ¡viva Cristo Rey! oihukatu eta tiro egin zioten modu indiskriminatuan. Zangoan zauritu zituzten bai J.M., bai haren lagun bat, su-



armaz. Balorazio Batzordeak, gestio batzuk egin ondoren, ez du informazio gehiago lortu ekintza terroristar horri buruz, garai hartako komunikabideetan agertutakoaz gain. Gómez Ulla Defentsaren Ospitale Zentraleko historia klinikoa ere ezin izan du lortu, Itsas Poliklinikako historia medikoak hara eraman bazituzten ere (Itsas Poliklinikan egon zen ospitaleratuta J.M. hilabetez).

Balorazio Batzordeak J.M. terrorismoaren biktimatzat jotzen du eta, hala izanik, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko 29/2011 Legeak aitortpen hori eman behar zion (eta ez zion eman).

**E 115**

**L.L.P.**

Eraso baten biktima izan zen 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen. L., langile-manifestazio batean parte hartu ondoren, Badaia kalean zegoen, San Mateo elizatik hurbil. Polizia Armatuko kide batek su-armaz tiro bat egin zuen eta L. jo zuen eskuineko zangoan. Tiroak eskuineko femurraren kondilo gainaren haustura eta eskuineko kanpo-nerbio ziatiko popliteoaren axonotmesia eragin zizkion. L.ri ezintasun iraunkor osoa eman diote bere lesio eta ondorioengatik.

**E 116**

**J.H.C.**

Eraso baten biktima izan zen 1978ko uztailaren 12an, Errenterian. J.k 17 urte zituen eta, lagun batzuekin paseoa zebilela, istilu batzuen erdian gertatu eta bala batek jo zuen ezkerreko besaurrean. Tiroaren ondorioek irauten dute: “ezkerreko besaurrea motzagoa da eskuinekoa baino, hiru hartz-hezurreko hatzak ezin ditu ondo hedatu, ezkerreko erpuruaren oposizioa egiteko zailtasunak ditu eta ezkerreko besaurrearen pronosupinazioaren mugapen larria du, 20º-ko mugimendu-arku baten neurrikoa gutxi gorabehera”.

**E 117**

**B.I.M.**

1975eko apirilaren 28an atxilotu zuten, salbuespen-egoera bat dekretatu baino hiru egun lehenago; poliziaren mehatxu eta tratu txarren biktima izan zen eta atxilotuta izan zuten maiatzaren 13ra arte Salbeko komisarian, auzipetu eta epaitu gabe eta inolako azalpenik jaso gabe. Ekintzak larriak izan arren, B.k adierazi duenez, ez zioten arrasto fisiko zein psikiko handirik utzi.

**E 118**

**J.A.C.A.**

J.A.G. EAJko kidea zen, 1975ean atxilotu zutenean. Tratu txarrak jasan zituen eta gerora kartzelatu eta Ordena Publikoko Auzitegiak kondenatu zuen legez

kontrako propaganda banatzeagatik; hiru urteko atxiloaldi txikia eta 50.000 pezetako isuna izan zen kondena. Biktima, haren alargunak kontatzen duenez, apur bat herren ibili zen, Akilesen orpoan ebakuntza kirurgiko bat egin ondoren, komisarian izandako tratu txarren ondorioz. Baina haren heriotzak (ETAk hil zuen 1993an) eta herrentasun horri buruzko mediku-dokumentazioa ez aurkezteak eragozten du Batzordeak tratu txarren arrastoaren norainokoa balioestea.

**E 119**

**M.A.L.A.**

Polizia Armatuak 1978ko uztailaren 9an Iruñeko alde zaharrean egindako eraso baten biktima izan zen. Istilu larriak izan ziren. M.A. Iruñera joan zen lagun batzuekin sanferminetara. Istiluak sumatu eta handik ihes egin nahi izan zuen, baina Polizia Armatuak dena inguratzen zuen eta ez zegoen modurik segada hartatik irteteko. M.A. gomazko pilota batek jo zuen eskuineko begian Udaletxearen plazan eta gero poliziak jipoia eman zion. Begiaren ikusmena galdu zuen horregatik. Arrastoak irauten du: “afakia kirurgikoa du, ulcus rodens kornearen pareta argalduta. Kanpimetrian, anputazio tenporala du, eta eskotoma zentrala. Makulako lesio traumatikoa du begi-hondoan eta haren ikuspen-zolitasuna 1/20koa da zuzenketa egokiarekin”.

**E 120 Eskabidea ez da onartu eremu objektiboa betetzen ez duelako**

**A.E.C.**

5 urte zituen, haren ama hilabetez preso izan zutenean, 1969an.

**E 121 Aplikazio objektiboaren eremutik kanpo**

**D.C.V.**

Atxilotu egin zuten 1967an hilabete batez, isun bat ordaintzeari uko egin ziolako. 1967ko urriaren 1ean Elgoibarren autobusak antolatu ziren Urbiara joateko, “Euskal Eguna” ospatzera, baina, aurreko egunean Gobernu Zibilak jaia debekatu baitzuen, Bermeora joatea erabaki zuten. Etxera itzultzeko autobusera igo zirenean, Guardia Zibileko zenbait kidek inguratu eta datuak hartu zizkieten. Urriaren 23an etxera gutun bat iritsi zitzaion 25.000 pezetako isun batekin, Bermeoko jaialdian egon zelako. Autobusean zeuden beste pertsona batzuei ere jarri zieten isuna, eta, hori dela eta, bilera bat antolatu eta isuna ez ordaintzea erabaki zuten. Ordaintzeari uko eginda, Martuteneko espetxera eraman zuten, 30 eguneko kondena bat betetzera. Kondena hori bete ondoren, ez zuten berriz molestatu. M.A.rentzat garrantzizkoa da Euskadin izan diren indarkeria-mota guztien biktimek aitorpen bera izatea.

**E 122**

**F.E.L.**

Bi aldiz atxilotu zuten 1970eko abenduan, eta poliziaren torturen, tratu txarren eta mehatxuen biktima izan zen Guardia Zibilaren Elgoibarko kuartelean. Gertaerak larriak izan arren, F.k adierazi duenez, jasandako torturek eta giza eskubideen urraketek ez zioten utzi arrasto fisiko handirik edo bestelakorik, gertaeren ondorengo susperraldiaz gainera.

**E 123**

**F.I.E.**

Zenbait alditan atxilotu zuten 1971ko martxoaren eta ekainaren artean, eta tratu txarrak jasan zituen. Familiak salaketa egin zuen. Tratu txar horiek izan zirela jaso zen epai batean, baina salaketa hori zegokien pertsonak errugabetu zituzten. Biktimak ez zuen ondorio fisikorik izan eta zaila da jakitea zein den ondorio psikologikoaren zenbaterainokoa gertaeretatik berrogeita lau urte igaro ondoren; beraz, ez da inolako kalte-ordainik finkatu beharrik.

**E 124 Aplikazio objektiboaren eremutik kanpo**

**T.H.M.**

Isun bat jarri zioten. 1975eko martxoan, T.k Donostiako Jazzaldiaren agertokia diseinatu eta egin zuen. Donostiako Poliziaren komisariak salaketa aurkeztu zuen Gobernu Zibilean, dekoratuan igitaia eta mailua agertzen zirelakoan; hau da, Alderdi Komunistaren ikurra. T.k erantzun zuen salaketak faltsuak zirela, agertokiko marrazkia abstraktu samarra zelako eta ezin zelako erraz identifikatu igitaiarekin eta mailuarekin. Dekretu bidez, 100.000 pezetako gobernu-isuna jarri zioten. 1975eko uztailaren 29an, T.k erregu-errekurtsua aurkeztu zuen administrazio-zehapen horren kontra, baina ezetsi egin zuten.

**E 125 107/2012 Dekretuaren araudi-esparruarekin bateraezina**

**J.M.I.G.**

J.M. Komando Autonomo Antikapitalistetako baten kidea zen eta 1978ko azaroaren 15ean Aretxabaletako Guardia Zibilaren kuartelari eraso egin zion, R.A.rekin batera. Guardia Zibilaren kideek kaleko jantzian haien atzetik joan ziren eta komandoaren autoa tirokatu zuten Arrasaten. Horren ondorioz, J.M.I. eta R.A. hil egin ziren eta K.Z.k zauri larriak izan zituen. Tiroketatik hiru minutura, beste ibilgailu bat agertu zen. Arrasateko Guardia Zibilarena zen, agenteak jaitsi eta, jende armatua ikusita (lehengo guardia zibilak ziren, kaleko jantzian), tiroka hasi ziren. Arrasateko emakume bat hil zuten, Komando Autonomoen taldearekin zerikusirik ez zuena eta banku batean eserita zegoena handik 150 metrora, eta beste hiru lagun zauritu zituzten balaz.

Gertaerak larriak izanik, Eusko Kontseilu Nagusiaren Barne Kontseilaritzako Giza Eskubideen Saileko zuzendaria, Jose Ramon Rekalde, Arrasatera joan zen eta lekukotasunak jaso zituen, zer gertatu zen berreraikitzeko eta txosten bat egiteko. Batzordeko kide batek jasotako lekukotasun baten arabera, bizirik atera zenak adierazi zuen ez zietela agindu gelditzeko eta ez zutela egin inolako erresistentziarik. Txosten hori eta lekukoak gorabehera, kasua zigortu gabe gelditu zen. Batzordeak dio ezin duela balioetsi giza eskubiderik urratu zen ala ez (indarra gehiegikeriaz erabili zen ala ez, esaterako), gertaerak ez baitziren behar bezala ikertu.

Kasu honen inguruabarrek gehiago ikertzea eskatzen bazuten ere, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren araudi-esparruak garbi azaltzen du 2.5 artikuluan: “Inola ere ez dira kontuan hartuko eragindakoa indarkeriako jarduerak burutzen ari zeneko kasuak, nahiz eta heriotza edo lesioak indarkeria-ekintza hori saihestera edo horren aurka egitera zuzentzen ziren ekintzek eragin bazituzten ere”.

#### **E 126**

**M.A.M.N.**

Zenbait alditan atxilotu zuten. 1976ko apirilean tratu txarren eta tortura sexualaren biktima izan zen Donostiako Antigua auzoko Guardia Zibilaren Komandantzian; atxilotu egin zuten, baina kasua artxibatu zuten gerora. Jazoera horiek inpaktu handia izan zuten haren bizitza pertsonal zein familiarrean, eta horrek eragina izan zuen, bai bere osasun-egoeran, bai bere alabarengan ere, amaren arreta gabe gelditu baitzen.

#### **E 127**

**M.L.C.M.**

Guardia Zibilaren eraso baten biktima izan zen C-6322 eskualde-errepidean, Apatamonasterion, Elorrioko noranzkoan, 1978ko ekainaren 24an; haren ibilgailua metrailatu zuten modu indiskriminatuan, eta adingabe bat hil eta beste bi pertsona zauritu zituzten larriki. Eraso hori haren biziaren kontrako atentatua izan zen. Lesio larriak eragin zizkion eskuineko zangoan: “substanzia-galera izan zuen eskuineko zangoaren goialdean, eta horrek erasan zion bai larruazalpeko ehun zelularrari, bai bikien masari”; makilarekin lagunduta ibili behar zuen horregatik. Era berean, afektazio psikologiko handi samarra zuen eta haren nortasuna aldatu zen gertaera traumatikoaren ondoren. Lesioek arrastoa utzi zioten M.L.C.M.ri 1987an hil zen arte, balaren zauriak haustura ugari eragin baitzizkion eta makilaz lagunduta ibili behar izan zuen bizi guztian. Era berean, afektazio psikologiko handia izan zuen bere ibilgailuan adingabe bat hil eta beste adingabe bat zauritu zutelako.

**E 128**

**J.O.L.R.**

Guardia Zibilak atxilotu zuen 1978ko otsailaren 28an, horma-pintada bat Lamiakoko fabrika batean egitegatik (Leioa, Bizkaia). Atxiloaldian eta espetxean emandako urte eta erdian, antsietate-egoerak bizitu zituen espetxe-giroaren ondorioz. Gaur egun, nahasmendu obsesibo-konpultsibo larria du; haren sintomatologia haurtzaroan hasi zen eta denbora aurrera joan ahala larriagotu zitzaion, baina 2007ra arte ez zioten diagnostikatu gaixotasuna eta sendabidean hasi. Ezin da zehaztu atxiloaldiak eta espetxean egindako egonaldiak gaixotasunaren eragileak izan ziren edo ez, baina egoera larriagotu zuten. Atxiloaldian eta espetxealdian jasandako presioak eta hainbat presondegitan egon beharrak sakon eragin zioten. Inguruabar horiek guztiek bizi-proiektua baldintzatu zioten, ikasketak ezin bukatzeraino, eta inpaktu handia izan zuten familian. Poliziak atxiloaldian jasanarazitako tratu txarrak larriak izan arren, biktimak berak identifikatutako ondorioak kartzelako egonaldiaren kondizioetatik datoz.

**E 129**

**A.B.H.**

Guardia Zibileko kideek 1978ko azaroaren 15ean Arrasaten egindako eraso baten biktima izan zen. A. barruan zegoela tiro egin zioten haren autoari. Bi bala-tiro hartzeak bizi-arrisku handia ekarri zion, aste batzuk eman zituen ospitaleratuta eta zenbait hilabete laneko bajaran, eta, horretaz gainera, ondorio psikologikoak izan zituen luzaro eta beste batzuek badiraute oraindik: bi orbain antiestetiko ditu, keloideo motakoak, bata 5 x 2,5 cm-koa, ezkerreko giltzadura akromioklabikularraren mailan, eta bestea 4,5 x 2 cm-koa, sorbaldaren aurrealdean. Halaber, parestesiak eta mina izaten ditu zauritutako lekuetan, eta handiagotu egiten zaizkio eguraldi-aldaketetan.

**E 130**

**T.E.A.**

Atxilotu egin zuten 1975eko maiatzaren 8an eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen Indautxuko Komisarian. Hiltzeko zorian egon zen, eta ez zen hil azkar ospitaleratu eta luzaro sendabidean egon zelako, lehenbizi hilabete batean ZIUn eta guztira 80 egunez, jasandako ondorio larriengatik. Horretaz gainera, depresio-aldi luzea izan zuen. Horrek lesio guztiz larriak eragin zizkion eta hiltzeko zorian egon zen atxilotuta eduki zuten 24 orduan jasan behar izan zituen torturengatik. Hiltzeko zorian egon arren eta sufrimendu handia jasan arren, gaur egun, adierazten duenez, ez zaio arrasto fisiko zein psikiko handirik gelditzen. Ebidentziak bazeuden eta eragiletako bat behintzat identifikatu zuten, baina ez zen inolako epaiketarik egin eta ez ziren epaitu torturen erantzuleak.

**E 131**

**B.P.M.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktima izan zen Gasteizko Zaramagako auzoan, 1976ko martxoaren 3an. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela, erantzukizun-deklaraziorik gabe.

**E 132 Kasua bi aldiz agertzen da: E 73.**

**E 133**

**V.A.F.**

Langile gazte bat zen, lan-eskubideen eta demokratizazioaren oso aldarrikatzailea, eta Gasteizen M3an gertatutakoaren kontrako manifestazio batean parte hartu zuen Basaurin, 1976ko martxoaren 8an. Guardia Zibileko agenteek benetako suaz tiro egin zuten manifestazioaren kontra. V.ri zazpi metrotik baino hurbilagoetik, lekukoen arabera, tiro egin zioten eta buruan jo zuen balak. Berehala eraman zuten Bilboko Ospitale Zibilera, baina han hila zegoela baino ezin izan zuten egiaztatu. V.ren gurasoak eta anai-arrebak Montamartan (Zamoran) bizi ziren eta heriotzaren berria hara iritsi zenean, nahasmen handia izan zen gertatutakori buruz. Gorpua handik bi egunera eraman zuten herrira. Basauriko Udalak V.A.F. izena jarri zion gaztea hil zen kaleari, plaka bat jarri zuten haren oroitzapenetan eta urtero San Fausto jaia hasi aurretik omenaldi txiki bat egiten zaio.

**E 134**

**I.M.Z.**

1969ko martxoaren bukaeran atxilotu zuten eta Gaztela kaleko kuartelera eraman (Gasteiz). Han galdeketa egin zioten Mario Onaindia eta "hirurko"ei buruz, eta jo egin zuten modu indiskriminatuan. Ohol txiki batzuk jarri zizkieten eskuetako hatzetan eta tximeleta-azkoin batzuekin estutu, gehiago ezin aguantatu eta konortegabetzeraino. Bigarren gauean, Urrunagako urtegiara eraman zuten eta fusilatze-simulakroa egin zioten. Galdeketa amaitutakoan, aurpegia desitxuratua zuen eta lesio bat masailazurrean, kolpeen ondorioz. Urte batzuetan amesgaiztoak izan zituen fusilatze-simulakroarekin. 1969ko irailaren 27an, Brigada Politiko Sozialak atxilotu zuen, Bilboko Auzitegi Militarraren aginduz, Ordena Publikoko Auzitegian hura auzipetzeko zeuden kausa berberengatik, eta tratu txarrak jasan zituen berriro. 1976ko martxoaren 3aren ordezkartza-batzordeetako kide gisa atxilotu zuten berriz ere, jipoitu egin zuten eta Nancloresen sartu sedizioa zela eta (270/76 sumarioa).

**E 135**

**A.A.S.**

ORTko militantea zen eta 1976ko apirilaren 21ean atxilotu zuten. Tortura eta umiliazio oso larrien biktima izan zen Tolosako Guardia Zibilaren kuartelean. Haien berri jendaurrean zabaldu zen eta urte haietako torturaren muturreko ikur bihurtu zen. Biktima jasandako lesio fisikoetatik oneratu zen, baina ez horrenbeste ondorio psikologikoetatik. Baina, hil denez gero, Batzordeak ezin du balioetsi norainokoak izan ziren ondorio psikologikoak. Medikuek ebidentziak egon arren, ez zen inolako epaiketarik egin eta ez ziren epaitu torturen erantzuleak.

**E 136**

**J.L.B.Z.**

Atxilotu egin zuten 1968ko abenduaren 9an. Atxiloketa arbitrario baten biktima izan zen, bai eta poliziaren tratu txarrean ere. Gertaerak larriak izan arren, J.L.k adierazi duenez, ez zioten arrasto fisiko zein psikiko handirik utzi, baina inpaktu psikologiko handia eragin zion, haren emazteari bereziki, handik denbora asko pasatu ondoren ere.

**E 137**

**J.Z.Z.**

Polizia Armatuko agente baten erasoaren biktima izan zen 1976ko azaroaren 11n. J.Z.k ez zekien Donostiako parte zaharrean manifestazio bat egiten ari zirela eta Polizia Armatuko agente batek botatako gomazko pilota batek jo zuen ahoan. Gaur egun oraindik ere masailazurra desitxuratua du, hortz-hersketa desegokia eta okerra gelditu zaio eta nahasmendu estetiko handia agertzen du, ezpainean zenbait orbain baititu eta masailazurra desitxuratua.

**E 138 Ezarritako kasuetatik kanpo**

**T.R.V.**

ETAm-ko kidea zen eta GALEk Biarritzen 1984ko ekainaren 15ean egindako atentatu baten biktima izan zen, Ramon Orberekin batera. Biak zauritu zituzten. Erreduren eta izandako bestelako zaurien ondorioz, T. hil zen handik hilabete batera.

**E 139 Ezarritako kasuetatik kanpo**

**H.P.C.**

15 hilabete zituela Triple Aren eraso baten biktima izan zen, haren aita, T.P.R., hil nahi zutenean. 1976ko martxoaren 21ean, H. bere gurasoekin zebilen familiaren autoan Donibane Lohizuneko Urdazuri auzoan eta lau lagunek metrailatu zituzten beste ibilgailu batetik. H.k zauri arinak izan zituen buruan hautsitako kristalengatik eta ama larriki zauritu zuten.

**E 140 Ezarritako kasuetatik kanpo**

**F.C.A.**

Triple A-ren atentatu baten biktima izan zen (talde horrek erreibindikatu zuen). 1976ko martxoaren 21ean, F. bere senar T.R.R. eta bere seme H.P.C.rekin zebilen autoan Donibane Lohizuneko Urdazuri auzoan eta lau lagunek metrailatu zituzten beste ibilgailu batetik. Sei tiro jo zuten F. eta lesio larriak izan zituen. T.k eta H.K, haren semeek, zauri arinak izan zituzten. Atentatu haren ondorioak jasaten ari da F. oraindik ere: kalte estetiko handia (13 orbain ditu), ezkerreko besoaren % 50eko funtzionaltasun-galera eta trauma osteko estresaren sindromea.

**E 141**

**M.L.O.U.**

1972ko abuztuaren 29an atxilotu zuten eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen Indautxuko Poliziaren Komisarian. Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu eta hiru urteko espetxe-zigorra ezarri zion zilegi ez zen elkarte bateko kide izateagatik. Gertaerak larriak izan arren eta kalte fisiko zein psikiko handiak eragin bazizkioten ere, M.L.k dio denborarekin eta aurre egiteko bere gaitasunarekin gainditu egin dituela eta gaur egun ez zaiola ondorio handirik geratzen.

**E 142 Eskabidea osatugabea da**

**J.M.O.**

Aurkeztu den eskabidea osatugabea da eta kasuari buruzko irizpena emateko behar diren zenbait datu falta zaizkio. Balorazio Batzordeak J.M.O.ren lekukotasuna eskatu zuen, baina elkarrizketa ezin izan zen egin gaixo zegoelako. Familiak lasai uzteko eskatu zuen, aztora zitekeelako.

**E 143**

**F.G.Z.**

Zenbait alditan atxilotu zuten 1972-1975 urteen artean, eta atxiloaldietan, bai Bilboko komisarian bai Gernika eta Durangoko kuartelean, tratu txarrak —gizagabeak eta iraingarriak— eta umiliazioak jasanarazi zizkioten. Tratu txarrak salatu zituen epaitegietan, baina ez zituzten ikertu. Gertaera horiek guztiek eragin nabarmena izan dute haren bizian. Haren jokaera fisiologikoan ondorio markatuak gelditu zitzaizkion, nerbio-sistemaren aktibatze handiarekin (haserrekortasuna, loezina, kontzentratzeko zailtasunak), baina, espedientean jasotako mediku-txostenaren arabera, “gaur egun, haren bizitzaren garapena guztiz normala da”. Gertaera horiek eragin handia izan zuten haren bizitza pertsonal eta familiarrean, eta horrek ondorioak izan zituen haren osasunean.



**E 144**

**A.F.L.**

1975eko irailaren 27an atxilotu zuten eta tratu txarren, torturen eta mota guztiko umiliazioen biktima izan zen Gernikako kuartelean. Gero, 1976ko abenduaren 11ra arteespeteratu zuten, eta egun horretan errugabetu zuen Ordena Publikoko Auzitegiak. Ez zuten ikertu epaileari aurkeztutako tortura-salaketa. Gaur egun, A.ren osasuna ahula da eta kolitis ultzeraduna du, baina ezinezkoa da zehaztea ea arestian aipatutako torturek eta tratu txarrek zerikusirik duten gaixotasunarekin eta laguntza psikosozialik beharko lukeen.

**E 145**

**J.M.O.G.**

Fue víctima de agresión por parte de la Policía el 3 de marzo de 1976 en ViPoliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J.M. bala-tiro batek jo zuen zangoan. Bi orbain eta muskulu-galera izan zuen horregatik, bai eta trauma osteko nahasmendu psikologikoak ere, bai hark, bai haren familia osoak ere, une haietan presio psikologiko handia eta beldurra eraman behar izan zituztelako.

**E 146**

**M.S.B.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Bala batek M. jo zuen eskuineko eskuan. Horrek zauri larriak eragin zizkion, eta gaur egun haren ondorio larriak jasaten ditu: orbainak ditu, bat balaren zauriarengatik (2 cm) eta bi ebakuntzarengatik —flexio dortsalean (3 cm) eta eminentzia tenarrean (5 cm)—, eta funtzionaltasuna, mugikortasuna eta indarra galdu ditu 4. eta 5. hatzak hedatzeko eta 5. metakarpio-hezurraren abdukzioa egiteko.

**E 147**

**D.A.P.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta borroka latzak izan ziren. D. balak batek jo zuen ezkerreko izterrean. Ebakuntza batean kendu zioten jaurtigaia, baina zauria ez zen hobetu eta beste ebakuntza bat egin behar izan zioten, zauria garbitzeko eta larruazala txertatzeko. Hamar-hamabost egun eman zituen ospitalean eta hilabete bat bajan gutxi gorabehera. Balak orbain handi bat utzi zion eta mina izaten du eguraldi-aldaketekin.

**E 148**

**I.V.R.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Kaos-egoera horretan, Polizia Armatuko kide batek zango traba egin zion I.ri, erori egin zen eta kubitua eta erradioa hautsi zituen ezkerreko eskumuturrean. Susperraldi luzea behar izan zuen eta kolpeak ondorio handiak utzi zizkion esku horren mugikortasunean eta indarrean. Arrastoek irauten dute: mina izaten du ezkerreko eskumuturrean, funtzionaltasuna mugatua du hedatzean (20º-ko murrizketa, normalean 70º-koa izanik) eta indarra eta mugikortasuna gutxitu zaizkio 10º-an pronazioa egitean (normalean 90º-koa izanik). Era berean, alterazio psikologiko arinak ditu eta horrek mesfidantza eta narritadura sortzen dizkio.

**E 149**

**J.L.B.Z.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J.L. bala-tiro batek jo zuen eta birika zeharkatu zion. Atzetik atera zioten jaurtigaia, eskuineko eskapulatik. J.L.k birika-edukiera murriztua izan du orduz geroztik eta horrek lana aldarazi zion eta modu nabarmenean eragin eguneroko bizimoduan. Bizi guztian jasan zituen ondorioak, hil zen arte. Lesio zikatrizialak izan zituen, biriki-edukiera mugatua, bai eta trauma osteko nahasmendu psikologikoak ere, bai hark eta bai haren familiak. Horren ondorioz, lanbide-kategorietan behera egin zuen, gainera.

**E 150**

**A.G.P.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. A. bala batek jo zuen eskuineko sorbaldan eta horrek bi orbain utzi dizkio 1,5 cm-koak, diametro hipotrofikoa eta eukromikokoak, eskuineko deltoidearen kanpoaldean.

**E 151**

**J.A.M.H.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen, 14 urte zituela. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J.A. bala-tiro batek jo zuen ezkerreko hemitoraxaren oinaldean, eta horrek pneumotoraxa, diafragmaren zulaketa eta gibelaren haustura traumatikoa eragin

zizkion. Bizi guztian jasan zituen ondorioak, hil zen arte. Lesio zikatrizialak izan zituen giblean, bai eta trauma osteko nahasmendu psikologikoak ere —ez zituen sekula gainditu.

**E 152**

**M.A.O.U.B.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. M.A. bala-tiro batek jo zuen ezkerreko zangoan, eta arrasto fisikoa utzi zion zango horretan: mina, urtaroen araberako herrentasuna eta orbain bat. Horretaz gain, afektazio psikologiko handia agertzen du oraindik ere.

**E 153**

**A.L.A.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. A. bi bala-tirok jo zuten zangoan eta ipurmasailean. Zauri larriak eragin zizkieten eta zenbait hilabete behar izan zituen sendatu eta mugikortasuna berreskuratzeko. Haien arrastoek irauten dute gaur egun ere: orbain eukromikoak eta apur bat hipokromikoak ditu eskuineko zangoan, barize-nahasmendu handiagoa du eskuineko izterrean ezkerrekoan baino eta min arina izaten du eskuineko zangoan noizbehinka.

**E 154**

**J.M.G.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J. tiro batek jo zuen ezkerreko masailean eta bala lepoan gelditu zitzaion. Arrasto fisikoak utzi zizkion horrek: masailaren ezkeraldea laburragoa du horregatik, eta ezin du ahoa erabat ireki; listu gutxiago du ezkerreko parotidan; tik txiki bat dauka aurpegian; izerdia ateratzen zaio aurpegiaren ezkeraldean (jatean gehiago ateratzen zaio), eta hortzen arteko artikulazioa galdu du.

**E 155**

**S.A.B.**

Zenbait alditan atxilotu zuten eta 1968koan tortura eta tratu txar fisiko zein psikologikoak jasanarazi zizkieten Gasteizko Poliziaren Komisarian. Haren osasunaren egoera makala zen guztiz, 1964an tuberkulosia izan baitzuen, eta larriagotu egin zitzaion presondegian emandako bederatzi urtean, tratu

txarregatik eta mediku-arreta eman ez ziotelako. S.k, horren ondorioz, lesioak izan zituen hatzetan, azkazaletan eta eskumuturretan, eta hilabeteak behar izan zituen sendatzeko. Tuberkulosiaren erasanak osasunean eta birika-funtzioan izan zuen eragina eta % 44ko elbarritasuna ekarri zion S.ri, aurkeztutako historial medikuan agertzen denez.

**E 156**

**S.T.M.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. S. balak batek jo zuen. Lesioek ondorioak eragin zizkieten: zauri ebakidunak orbain bat utzi zion izterondo aldean, % 75eko afektazioarekin. Psikologikoki ere eragin zion; gaur egun, kommozio osteko sindrome bat agertzen du eta maiz ondoeza eta beheraldiak izaten ditu horregatik.

**E 157**

**J.R.P.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Justino bala batek jo zuen sabelaldean, zaurituetako bat artatzera zihoanean. Bala ezkerreko hutsunean sartu zitzaion eta ezkerreko gerrialdetik irten. Horren ondorioz, bi orbain hipokromiko eta eutrofiko gelditu zaizkio, 4 cm eta 3 cm-koak, gerri eta sabelaldean, hantura eta tentsioa izaten ditu zauritutako aldeetan eta alterazio psikologiko bat du, beldurra biziartzten diona, baita gaur egun ere.

**E 158**

**J.C.C.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J. bala-tiro batek jo zuen eskuineko zangoan. Balak hezurrean eragin zion eta tratamendu kirurgikoa behar izan zuen. Orbaina gelditu zitzaion horregatik.

**E 159**

**A.O.A.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. A. bala batek jo zuen gerrialdean, eta honako arrasto hauek utzi zizkion: 2 orbain eukromiko eta eutrofiko, 2,5 eta 3 cm-koak, gerrialdearen ezker aldean, 2. eta 3. gerri-

ornoen mailan, hernia diskal bat 2. gerri-ornoaren sustraian eta trauma osteko algia ugari eta errepikatuak, sustrai-erasanarekin.

**E 160**

**F.A.G.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. F. bala-tiro batek jo zuen zangoan. Hilabeteak behar izan zituen sendatzeko eta herrentasun arin kronikoa gelditu zaio, tarteka areagotzen zaiona. Bizi guztian jasan zituen ondorioak, hil zen arte. Lesio zikatrizialak izan zituen, herrentasun arina, bai eta trauma osteko nahasmendu psikologikoak ere, bai hark eta bai haren familiak.

**E 161**

**J.I.P.S.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. J.L. tiro batek jo zuen sabelaldean. Haren bizia arrisku handian egon zen, eta gaur egun hiru orbain ditu. Orbainetako bat sabelaldean du; 13 cm-koa da, hipokroma eta hiperkromika, muskulu-herniarekin. Bigarrena ondeste-aldean dago, eta haren neurria sabelaldekoaren antzekoa da. Hirugarren orbaina giltzurrun-hobian dago; 4 cm luze da, angelu-forma du (alde bakoitza 2 cm-koa) eta egin zioten drainatzearen ondorioa da. Eragin psikologikoa ere jasaten ari da: nahasmendu neurotikoa ditu, ezezagunaren beldurrak eta errepresaliak hartzeko beldurrak piztuta. Beti ditu gogoan gertatutako ekintza haiek, ez du inoiz lortu ahaztea.

**E 162**

**F.J.M.B.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. F.J. bala-tiro batek jo zuen eskrotoan eta gaur egun oraindik ere badu bala hori atzeko perineoan txertatuta, ezkerreko iskion-gandorraren azpian. Bi orbain ditu eskroto-zakuan. Depresio-nahasmendu erreaktiboa ere badu modu nabarmenean.

**E 163**

**F.A.H.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. F. bala-tiro

batek jo zuen gerrialdean eta gaur egun hiru orbain lineal ditu, bat gerrialdean, beste bat saihets-sabelaldean eta hirugarrena, 1,5 cm-koa, besaurrearen barnealdean, non gelditu baitzen bala txertatuta sabelaldetik irteteen. Denak dira eutrofikoak eta hiperkromikoak.

**E 164**

**A.B.D.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. A. bala-tiro batek jo zuen eskuineko oinean eta honako arrasto hauek utzi zizkion behin betiko: "2 cm-ko orbaina eskuineko oinazpian, trauma osteko hezur-deformazioa balak jo zuen lekuan eta gertatutako ekintza haien oroitzapen jarraikia, egonkortasun emozionala aldatzen ez badio ere".

**E 165**

**C.L.F.**

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokian langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. C. etxe-zerbitzari Txile kaleko etxebizitza baten barruan lanean ari zela, bala batek jo zuen sorbaldan. Haren ondorioek irauten dute: sorbaldako min jarraikia, orbain hipotrofiko eta eukromikoa eskuineko deltoidearen kanpoaldean (13 cm luze eta 2,5 cm zabal), indarraren eta muskulu-masaren galera eskuineko bizepsean eta haren diametroa 29 cm-koa izatea, ezkerrekoa 32 cm-koa izanda, eta eskuineko eskumuturra 12 cm-ko diametrokoa izatea, ezkerrekoa 13 cm-koa izanda.

**E 166**

**L.L.L.**

Atxilotu egin zuten 1968ko abenduaren 11n Zornotzan, tratu txarren eta torturen biktima izan zen eta gerora aske utzi zuten kargurik gabe. Ekintzak larriak izan arren eta gertatu ziren uneen —hark berak kontatu duenez— kalte fisiko zein psikiko handiak eragin bazizkieten ere, gairitu egin ditu denborarekin, aurre egiteko bere gaitasunari esker, eta gaur egun ez zaio gelditzen jasandako tratu txar haien ondorioirik.

**E 167**

**C.M.B.**

Atxilotu egin zuten 1975eko irailaren 29an eta poliziaren torturen, tratu iraingarrien eta mehatxuen biktima izan zen Gernikako kuartelean. Gertaerak oso larriak izan arren, C.M.k adierazi duenez, jasandako torturek eta giza eskubideen urraketek

ez diote utzi arrasto fisiko zein psikiko handirik, baina izaera aldatu zitzaion bizitutako gertaera traumatikoen ondorioz, eta sorbalda batean izandako lesioen motiboa torturretan zintzilik edukitzea izan daiteke, besteak beste.

**E 168**

**J.A.L.**

Bi aldiz atxilotu zuten, 1970ean eta 1972an, eta tratu txarren biktima izan zen eta askatasunik gabe egon zen hamalau hilabetean. Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen eta urtebeteko espetxe-zigorra ezarri zioten zilegi ez zen elkarte bateko kide izateagatik eta legez kanpoko propaganda egiteagatik. Ekintzak larriak izan arren eta gertatu ziren unean —hark berak kontatu duenez— kalte fisiko zein psikiko handiak eragin bazizkioten ere, gairitu egin ditu denborarekin, aurre egiteko bere gaitasunari esker, eta gaur egun ez zaio gelditzen ondorio handirik.

**E 169**

**J.A.A.E.**

Atxilotu egin zuten 1974ko irailaren 13an, tratu txarren eta torturen biktima izan zen Bilboko La Salve kuartelean eta askatasunik gabe eduki zuten 1976ra arte epaiketarik egin gabe. Ekintzak larriak izan ziren eta eragin handia jasan behar izan zuen, baina, hala ere, J.A.k adierazten du ez duela haien arrasto fisiko zein psikiko handirik gaur egun.

**E 170**

**E.G.B.**

Bi aldiz atxilotu zuten, 1972an eta 1975ean, eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen bi atxiloaldietan. Ekintzak larriak izan ziren eta eragin handia jasan behar izan zuen, baina, hala ere, E.k adierazten du ez duela haien arrasto fisiko zein psikiko handirik gaur egun.

**E 171**

**J.I.O.**

26 urte zituela, Brigada Politiko Sozialeko agenteek atxilotu zuten 1968ko abenduaren 3an eta Donostiako Gobernu Zibilera eraman. Eskuburdinekin mahaiari lotuta eduki zuten gau guztian, argia piztuta, eta joka aritu zitzaizkion etengabe aurpegian, belarrietan eta bularraldean. Une hartan, ETA inguruko talde armatu batekin lotuta zegoen, “los cabras” izenekoarekin. Egun haietan, galdeketa egitera igo zuten zenbaitetan. Beti indarkeriaz egin zuten. Martuteneko presondegira eraman zuten, eta gerora Iruñekora, non bi urte eman zituen eta ospitalera eraman behar izan zuten giltzurrunetako eta bihotzeko gutxiegitasunak jota. Zortzi urte pasata askatu zuten, amnistia eman baitzioten 1976ko irailaren 10eko Dekretuaren bidez.

**E 172**

**A.G.L.**

A.G.L. Guardia Zibilak atxilotu zuen 1974ko irailaren 16an, 23 urte zituela, eta Zornotzako kuartelera eraman zuten. Hiru egun eman zituen atxilotuta, adierazten duenez, eta tratu txarren biktima izan zen hainbat alditan. Durangoko epaitegira eraman zuten eta tratu txarrak salatu zituen epaileari egindako deklarazioan. Basauriko espetxera eraman zuten eta handik hiru egunera askatu zuten. Espetxeko atean berriz atxilotu eta Salbeko kuartelera eraman zuten. Hiru egunez torturatu zuten, oinazpian zigor batekin joka, mugimendu behartuekin, atsedean hartzen utzi gabe, maiz kolpeak emanez eta mehatxu eginez haren familiaren kontra errepresaliak hartuko zituela eta. Basaurin eta Carabanchelen egon zen preso, 22 hilabetean, Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen arte. Aske geratu zen 1977ko amnistiarekin.

**E 173**

**J.M.E.M.**

Zornotzan atxilotu zuten 1972ko irailaren 5ean, eta tratu txarren biktima izan zen Bilboko La Salve kuartelean. Gerora, Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen eta urtebeteko espetxealdi txikia ezarri zioten zilegi ez zen elkarte bateko kide izateagatik, azkenean bi hilabete gehiago egin bazituen ere. Aipatutako gertaerak ez zion arrasto handirik utzi, ez fisikorik ez psikikorik, nahiz eta gaur egun oraindik ere hunkitzen den hartaz mintzatu eta oroitzen denean. Horrek, ordea, ez du minimizatzen torturaren larritasuna.

**E 174**

**J.M.G.M.**

Atxilotu egin zuten 1974ko azaroan eta tratu txarren biktima izan zen Lasarte-Oriako kuartelean. Horrek ez zion utzi arrasto fisiko zein psikiko handirik. Hori horrela izateak, ordea, ez du minimizatzen torturaren larritasuna.

**E 175**

**P.S.R.**

Poliziak Gasteizen 1976ko martxoaren 3an Zaramagako Asisko San Frantziskoren parrokiaren langile-batzar baketsu batean egindako erasoaren biktima izan zen. Polizia manifestarien kontra oldartu eta errepresio bortitza izan zen. Polizia batek jo zuen P. borrharekin eskuineko begian eta honako arrasto hauek ditu gaur egun ekintza hargatik: eskuineko begiaren ikusmena gutxituta dauka makulako lesio zikatrizial baten ondorioz, hobetzeko aukerarik gabe, trauma osteko iris-alterazioak eta parestesiak ditu, bai eta trauma osteko estresaren nahasmendu kroniko moderatua ere.



**E 176**

**I.P.B.**

18 urte zituela, *Txiki* eta *Otaegi* eta FRAPeko hiru kideren fusilamenduengatik heriotza-zigorren kontra antolatutako manifestazio batean parte hartu zuen. Atxilotu zuten eta Aretxabaletako kuartelera eraman zuten, eta gero Antiguokora. Behin eta berriz torturatu zuten. Ziega batean sartu zuten. Argia piztu eta itzali aritzen ziren eta beste batzuen oihuak eta auhenak entzuten zituen. Biluzarazi zuten, kokoriko jarri eta guardiek jo egiten zuten. Beste tortura-modu batzuk ere jasan behar izan zituen: bainuontziarena egin zioten bi aldiz eta exekuzio-itxura egin zioten behin baino gehiagotan. Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen eta hiru urte eta egun bateko zigorra ezarri zioten legez kanpoko propaganda banatzeagatik eta zilegi ez zen elkarte bateko kide izateagatik (ETA). 1975eko azaroaren 29an indultua eman zioten. Berriz atxilotu eta torturatu zuten 1976. urtearen amaieran, ElAko kidea zela. Handik urte batzuetara, ETArengatik ingurunearen mehatxuak eta jazarpena jasan zituen, PSE-EEren zinegotzia zelako, eta eskoltarekin ibili behar izan zuen 10 urtean. Bestalde, alderdikide batzuen hilketak bizi izan zuen, eta bereziki zirrargarria izan zitzaion alderdi horretako Arrasateko zinegotzi Isaias Carrascoren hilketak, hura hiltzen ikusi baitzuen.

**E 177**

**E.B.A.**

Atxilotu egin zuten 1965eko otsailean eta tratu txarren biktimak izan zen La Salveko Guardia Zibilaren kuartelean. Biktimak oneratu egin zen, lesio fisiko zein psikikoak jasan ondoren. Batzordeak ezin izan du eskuratu E.B.k kontatutako entzumen-ondorioak balioesteko behar den dokumentazioa.

**E 178**

**J.C.G.**

Ordena publikoko indarretako kide batek egindako ekintza basati baten hildako biktimak izan zen Gasteizko Zaramagako auzoan 1976ko martxoaren 3an izan ziren gertaeretan. Familiak doluaren inpaktu traumatikoa jasan zuen, bai eta ekintzen zentzugabekeriarena ere, ikusirik ekintza haiek zigortu gabe gelditzen zirela, erantzukizun-deklaraziorik gabe.

**E 179**

**M.T.I.Z.**

Atxilotu egin zuten zenbait alditan, 1972., 1975. eta 1976. urteetan, eta ordena publikoko indarretako hainbat agentek jasanarazitako tratu txarren eta torturen biktimak izan zen (bainuontziarena egin zioten, besteak beste) Bermeoko kuartelean. Gertaera horiek urarekiko halako fobia bat utzi zioten eta horrek interferentzia handiak ekarri dizkio eguneroko bizimoduan, jasandako torturaren arrasto psikologiko gisa.

**E 180 Ezarritako kasuetatik kanpo**

**E.G.S.**

GALek Iparraldeko Idauze-Mendi herrian 1984ko otsailaren 25ean egindako atentatu baten hildako biktima izan zen.

**E 181**

**M.A.A.B.**

Atxilotu egin zuten 1976ko apirilean eta torturen eta tratu txarren biktima izan zen Donostiako Antigua auzoko Guardia Zibilaren kuartelean. Gertaera horiek nahasmendu psikologikoak eragin zizkion: amets txarrak eta lo egiteko arazoak. Baina gainditu egin ditu denborarekin. Jasandako tratu txarrak eta *kirofanoa* deitutako tortura-saioetan eragindako lesioak larriak izan arren, gaur egun, dioenez, ez zaio gelditzen arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 182**

**A.A.E.**

Atxilotu egin zuten 1975ean, eta gerora 1976an ere bai, eta tortura eta tratu txar fisiko zein psikologikoak pairarazi zizkioten. Torturek inpaktu psikologiko handia eragin zioten eta trauma osteko estresaren sintomak izan zituen. Kontatutako gertaerek eragin handia izan zuten haren bizitza pertsonal eta familiarrean, eta haren osasun-egoeran ere eragin zion. Batzorde honek ez dauka A.A.k urteetan jasan zituen ondorio fisiko eta psikikoak frogatzeko behar diren elementuak, baina horrek ez du inola ere esan nahi jasanarazi zizkioten torturen larritasuna minimizatzen denik. A.A., gainera, adingabea zen garai hartan.

**E 183**

**G.U.I.**

Zenbait alditan atxilotu zuten 1964an eta atxiloketa arbitrarioaren, torturen eta tratu txarren biktima izan zen Indautxuko Poliziaren komisarian eta Ondarroako Guardia Zibilaren kuartelean. Gaur egun ez dauka gertaera haien arrasto fisiko zein psikiko handirik, nahiz eta lo egiteko arazoak eta beldurra izaten jarraitzen duen tarteka haien ondorioz.

**E 184**

**J.M.O.E.**

Atxilotu egin zuten 1973ko abenduaren 12an eta tratu txarren, torturen eta atxiloketa arbitrarioaren biktima izan zen 9 hilabetez Bilboko La Salve kuartelean. Biktima oneratu zen jasandako lesio fisiko haietatik. Biktima hil izanak eragozten dio Batzordeari jasan zituen eta familiakoek azaldu zituzten ondorio psikologikoen norainokoa balioesten.

**E 185**

**J.M.A.E.**

Askotan atxilotu zuten 1964 eta 1976 urteen artean eta tratu txar fisikoak eta presio psikologiko handiaren biktima izan zen. Kontuan izan behar da J.M.A.k bizitutako trauma errepikakorra izan zela eta gertaera haiek ondorio psikologikoak izan zituztela, bai harentzat, bai haren familiarentzat, espero zuten umea galtzerainokoak. Kontatutako gertaerek eragin handia izan zuten haren bizitza pertsonal eta familiarrean, eta haren osasun-egoeran ere eragin zion. Batzorde honek ez dauzka A.A.k urteetan jasan zituen ondorio fisiko eta psikikoak frogatzeko behar diren elementuak, baina horrek ez du inola ere esan nahi jasanarazi zizkioten torturen larritasuna minimizatzen denik.

**E 186 eta 187**

**P.U.U. L.M.A.I.**

Bilbon atxilotu zituzten 1975eko apirilaren 7an, tratu txarren eta torturen biktimak izan ziren eta askatasunik gabe eduki zituzten. Bizitutakoak gogor eragin zien, eta, haren ondorioz, aurrerago haien semea atxilotu zutenean, aita ez zen gauza izan espetxera bisitan joateko. Ekintza larriak izan arren, gertaera haiek ez zieten utzi arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 188**

**J.I.A.E.**

Zenbaitetan atxilotu zuten 1969ko urriaren 24tik aurrera eta polizien torturen eta gehiegikerien biktima izan zen. Adierazi zuenez, 1977an beste behin atxilotu zuten eta atxiloketaren benetako data egun batez faltsutu zuten. Ondarroako, La Salveko eta Gernika kuarteletan tratu txarrak eta torturak jasan zituen. Gertaera horiek eragin handia izan zuten haren bizitza pertsonal eta familiarrean, baina gaur egun ez zaio gelditzen haien arrasto fisiko zein psikiko handirik. Kontuan izan behar da lehenengo gertaerak 14 urte besterik ez zituenean izan zirela.

**E 189**

**J.F.A.**

1975ean atxilotu zuten, eta tratu txar eta torturen biktima izan zen Ondarroako kuartelean. Askatasunik gabe eduki zuten, Franco hil ondoren amnistia eman zioten arte. Gaur egun ez zaio gelditzen gertaera horren arrasto fisiko zein psikiko handirik, baina inpaktu handia eragin zion une hartan.

**E 190**

**I.G.B.**

Atxilotu egin zuten 1969ko urriaren 26an, tratu txarren eta torturen biktima izan zen Ondarroako kuartelean eta askatasunik gabe eduki zuten hiru hilabetean. Gerora, Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen, manifestazio batean parte

hartu zuelako. Gertaera horiek ez zioten utzi arrasto fisiko zein psikiko handirik, urteetan iraun duenik.

**E 191**

**J.M.A.E.**

1965ean 22 urte zituen eta, lagun batzuekin Markinan “Gora ETA” zioen pintada bat eta zenbait propaganda-ekintza egin ondoren, Guardia Zibilak atxilotu zuen eta Bilboko Salbeko kuartelera eraman. Jo egin zuten eta mehatxu egin zioten haren ama ere atxilotuko zutela. 1967ko salbuespen-egoeran berriz atxilotu zuten, Polizia Armadak oraingo honetan, eta Indautxuko komisariara eraman zuten. Ez zuten jo, baina torturatzen ari zirenen oihuak entzuten zituen eta beldurrez zegoen bere txanda noiz izango ote zen. Legez kontrako propaganda egiteagatik kondenatu zuten.

**E 192**

**I.G.A.**

Fue detenido en el *Aberri Eguna* de 1967, cuando apenas tenía 16 años, tras 1967ko Aberri Egunean atxilotu zuten, 16 urte besterik ez zituenean, Iruñean izandako manifestazio batean, eta 12.000 pezetako gobernu-isuna ordainduta askatu zuten. 1969ko Aberri Egunean ere atxilotu zuen Guardia Zibilak, Ondarroan zenbait kalte eragin zituen lehergailu baten eztanda zela eta. Guardia Zibilaren kuartelean jo eta torturatu egin zuten, baina ez zioten galdeketa egin. Hurrengo egunean, gau guztia lo egin gabe pasatu ondoren, Bilboko Salbeko kuartelera eraman zuten, eta berriz torturatu zuten. Tortura haien aztarnek hamar urte baino gehiago iraun zuten, bereziki amets txarrak eta gauza bera berriz gertatzeko beldurra. Basauri eta Ocañako espetxetan egon zen, non umiliazio eta tratu iraingarriak jasan baitzituen ugari. Handik Segoviako espetxera eraman zuten eta han Segoviako ihes famatuan parte hartu zuen 1976ko apirilean. Berriz atxilotu zutenean, Cadizera eraman zuten zigor gisa, Puerto de Santa Maria presondegira. Azkenean absolbitu egin zuten 1977ko amnistiarekin.

**E 193**

**P.A.E.**

Zenbaitetan atxilotu zuten 1964 eta 1973 urteen artean eta tortura eta tratu txar fisiko zein psikologikoen biktima izan zen aldi guztietan, hiru aldiz La Salveko kuartelean eta beste bitan Poliziaren Indautxuko bulego nagusian. Kontatutako gertaerek eragin handia izan zuten haren bizitza pertsonal eta familiarrean, eta horrek ondorio txarrak ekarri zizkion haren osasun-egoerari. Batzorde honek ez dauzka P.k urteetan jasan zituen ondorio fisiko eta psikikoak frogatzeko behar diren elementuak.

**E 194**

**R.M.B.**

Atxilotu egin zuten 1975ean, tratu txarren eta torturen biktima izan zen eta askatasunik gabe eduki zuten bi hilabetean, Francoren heriotzatik lau egunera askatu zuten arte. Gertaera horiek beldurra eta lo egiteko arazoak sortu zizkieten urteetan, baina gaur egun ez zaio gelditzen haien arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 195**

**J.M.I.S.**

Hildako biktima izan zen ordena publikoko indarrek Sestaon 1977ko urtarrilaren 9an amnistiaren alde antolatu zen manifestazio batean egindako ekintzen ondorioz. Familiak semearen galera traumatikoa, dolua eta ekintzen zentzugabekeria jasan zituen, ikusirik nola inork ere ez zuen bere gain hartzen gertatutakoaren erantzukizuna.

**E 196 Eskabidea ez da onartu**

**J.S.M.**

Elektrokutatuta hil zen, Nazioarteko Alderdi Komunistaren ikurra zuen bandera bat zintzilikatzen ari zela. 1970eko apirilaren 27an, gaueko hamabiak inguruan, J.k Sestaoko ur-depositu aldera jo zuen, goi-tentsioko linea elektriko baten dorrearen goialdean bandera bat jartzeko asmotan. J. dorrera igo zen eta orduan deskarga elektriko batek jo eta lurrera bota zuen. Gaua euritsua zen eta horrek ere eragingo zuen deskargan. Kolpea izugarria izan zen eta J. bertan hil zen.

**E 197**

**S.S.J.Z.**

Zornotzan atxilotu zuten 1970eko apirilaren 24an, tratu txarren eta torturen biktima izan zen La Salveko kuartelean eta askatasunik gabe eduki zuten bi urtean. Gero, Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen zilegi ez den elkarteko kide izateagatik, desordena publikoengatik eta kalteengatik. Gertaera haiek ez zioten utzi arrasto fisiko zein psikiko handirik, baina eskumuturretan izan zituen zauriek torturatu zutela erakusten dute.

**E 198**

**F.E.A.**

Bi aldiz atxilotu zuten, 1972an eta 1975ean, PC(i)ko kide izatea leporatuta eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen Poliziaren Indautxuko Komisarian. Bi atxiloketek eta batez ere bigarren atxiloketan jasandako tortura fisiko eta psikologikoek inpaktu emozional handia eragin zioten eta hari aurre egin behar izan zion urteetan: gaur egun, ordea, ez du haren arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 199**

**M.A.N.E.**

PC(i)ko kidea zen eta 1970eko maiatzaren 2an atxilotu zuten. Tratu txarren eta torturen biktima izan zen Indautxuko Komisarian. Sufrimendua jasan behar izan bazuen ere, aipatutako gertaerak ez zion utzi arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 200**

**A.A.C.**

A.A.C., PCE eta CCOOko kidea, zenbaitetan atxilotu zuten 1966 eta 1974 urteen artean eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen. Askatasunik gabe eduki zuten eta gero Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen zenbait aldiz. Sufrimendua jasan zuen eta gertaera haien ondorioek urteetan iraun zuten, baina gaur egun ez zaio gelditzen haren arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 201**

**N.S.M.**

Atxilotu egin zuten, eta tortura eta tratu txar fisiko zein psikologikoak pairarazi zizkioten. Horrek arrastoa utzi zion biktimari, psikologikoa bereziki. Ezin da esan haren egoera psikologikoa torturaren ondorioa denik, baina, denbora luzea joan ondoren, ezin uka zenbait gertaerak biktimak dituen arazo psikologikoekin zerikusia dutela: ekintza haien ondorioek irautea, haren nortasuna eta jasandako errepresioarekin lotutako bizi-proiektuaren galera. Anaiaren galera traumatikoa eta 17 urte besterik ez zituela atxilotuta izatea eta torturak jasatea N.ren kasua larriagotzen duten ondorioak dira (kontuan hartu behar da adin horretan pertsona bereziki zaugarria dela, torturen biktima izanez gero). Batzorde honek ez dauzka N.k urteetan jasan zituen ondorio fisiko eta psikikoak frogatzeko behar diren elementuak.

**E 202**

**L.I.C.M.**

Atxilotu egin zuten 1973ko apirilean eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen Bilboko La Salveko Guardia Zibilaren kuartelean. Ekintzak larriak izan ziren eta eragin handia jasan behar izan zuen, baina, hala ere, L.I.k adierazten du ez duela haien arrasto fisiko zein psikiko handirik gaur egun.

**E 203**

**G.L.L.**

Bi aldiz atxilotu zuten, 1972an eta 1975ean, eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen Bilboko Indautxuko Komisarian. G.L. oneratu egin da gertaera horiek eragindako ondorio gehienetatik. Hala ere, adierazten duenez, ezkerreko belarrian entzumena galdu zuen torturaren ondorioz. Lesio hori ezin izan da

balioetsi, ez baita azterketa medikurik ebaluazio honetan gehitzeko modukorik, eskatu zaizkion arren.

**E 204**

**A.G.G.L.**

Atxilotu egin zuten 1969an, tratu txarren eta torturen biktima izan zen Gasteizko Guardia Zibilaren Komandantzia eta askatasunik gabe eduki zuten. Sufrimendua jasan zuen eta gertaera haien ondorioek urteetan iraun zuten, baina gaur egun ez zaio gelditzen haren arrasto fisiko zein psikiko handirik. Gainera, emakumea izatea eta bortxaketa-mehatxuak erabili zituzten kasu honetan, tortura areagotzeko.

**E 205**

**P.G.G.L.**

1969ko apirilaren 1ean atxilotu zuen Poliziak bere etxean. Une hartan, haren ahizpa ere atxilotuta zegoen. P.k euskal folkloreko talde batzuetan parte hartzen zuen eta jaialdietara joaten ziren. Folklore tradizionalako talde berritzaile bat sortzen saiatu ziren: "Esnatu". Atxilotuta zegoenean, zirkuluerdi batean jarri zuten, polizia-agentez inguratuta, eta galderak egin zizkieten bere familiari buruz, bere lagunei buruz, egiten zituen ekintzei buruz, folklore-taldeetako kideei buruz, bai eta mendira berarekin joaten ziren lagunei buruz ere. Bi orduz izan zuten, eta tratu txar fisikorik eman ez bazioten ere, mehatxu egin zioten etengabe haren familiari okerrik egingo ziotela. Beldurra eta ziurgabetasuna izan zituen zer gertatuko ote zitzaion, bai eta inpotentzia eta etsipena ere. Deklaratu gabe askatu zuten eta urteetan beldurra izan zuen, edozein unetan berriz atxilotuko zutela pentsatzen baitzuen.

**E 206 Eskabidea ez da onartu**

**M.G.G.L.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 207**

**J.M.B.B.**

Atxilotu egin zuten 1967ko abenduaren 6an, eta tortura eta tratu txar fisiko zein psikologikoak pairarazi zizkieten Indautxuko Komisarian. J.M.k adierazi du belarri baten entzumena galdu zuela jasandako torturen zuzeneko ondorio gisa eta lesio hori iraunkorra dela, eta horrela jasotzen da aurkeztu den audiometrian, aldebiko presbiakusi arazo bat agertzen bada ere, arazo hori eskuinaldean handiagoa delako (eta torturarengatik alde horretan izan zuen entzumen-galera).

**E 208**

**J.M.Z.A.**

Atxilotu egin zuten 1968ko ekainean, tratu txar eta torturen biktima izan zen Eibarko Guardia Zibilaren kuartelean eta askatasunik gabe eduki zuten. Gerora, epaiketa sumarisimoa egin zioten, 1970eko urtarrilaren 21ean, eta lau hilabeteko atzipenaldi handira kondenatu zuten desordena publikoen delituarengatik, eta erresistentzia-delituengatik eta indar armatuei hitzez iraintzeagatik, berriz, errugabetu egin zuten. Ekintzak larriak izan ziren eta eragin handia jasan behar izan zuen, baina, hala ere, J.M.k adierazten du ez duela haien arrasto fisiko zein psikiko handirik gaur egun.

**E 209**

**J.V.O.B.**

Atxilotu egin zuten 1969an, eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen Poliziaren Indautxuko Komisarian. Giza eskubideen urraketa haiek eragin pertsonal zein familiar handia izan zuten, baina gaur egun ez du arrasto fisiko zein psikiko garrantzitsurik, aipatutako kaltea izan ezik.

**E 210**

**M.A.A.C.**

Atxilotu egin zuten 1968ko ekainean, 1971ko martxoan eta 1972an, bai eta Linaresen (Jaén) 1981ean, baina azken hori 107/2012 Dekretuaren artikuluetan aurreikusitako denbora-eremutik kanpo gelditzen da. Atxiloketa haietan tratu txarren eta atxiloketa arbitrarioen biktima izan zen, eta askatasunik gabe eduki zuten bost hilabetean. Gerora, Ordena Publikoko auzitegiak errugabetu egin zuen. Gaur egun ez zaio gelditzen haien arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 211**

**J.B.B.**

Atxilotu egin zuten 1978ko otsailan, tratu txarren eta mehatxuen biktima izan zen Poliziaren Indautxuko Komisarian eta askatasunik gabe eduki zuten 1976ko iraila arte. Orduan askatu zuten fidantzapean, epaiketa egin arte, eta epaiketan errugabetu zuten. Ekintzak larriak izan ziren eta eragin handia jasan behar izan zuen urteetan, baina ez du haien arrasto fisiko zein psikiko handirik gaur egun. 1979ko irailean gertatutakoak direla eta, adierazi behar da 107/2012 Dekretuaren denbora-eremutik kanpo daudela.

**E 212**

**J.A.A.B.**

Atxilotu egin zuten 1969ko otsailan, 19 urte besterik ez zituela, eta tratu txarren biktima izan zen. Gertaera horiek ez zioten utzi arrasto fisiko zein psikiko handirik.



**E 213**

**M.E.I.**

Bi aldiz atxilotu zuten 1966an, tratu txarren eta torturen biktima izan zen eta askatasunik gabe egon zen hiru hilabetean. Aurrerago, Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zuen legez kanpoko propaganda banatzeagatik. Gertaera horiek inpaktu fisiko zein psikologikoa eragin zioten, baina gaur egun ez zaio gelditzen haien arrasto fisiko zein psikiko handirik.

**E 214**

**J.R.G.U.**

Atxilotu egin zuten 1969an, eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen. Ekintzak larriak izan ziren eta eragin handia jasan behar izan zuen urteetan, baina J.R.k ez du haien arrasto fisiko zein psikiko handirik gaur egun.

**E 215**

**F.M.M.**

Atxilotu egin zuten 1969an, eta tratu txarren eta torturen biktima izan zen. Ekintzak larriak izan ziren eta eragin handia jasan behar izan zuen urteetan, baina F.k ez du haien arrasto fisiko zein psikiko handirik gaur egun.

**E 216 Eskabidea ez da onartu**

**L.M.O.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 217**

**J.P.B.P.**

Atxilotu egin zuten 1968an, nerabe adingabea zela, eta atxiloketa arbitrarioaren, tratu txarren eta torturen biktima izan zen Ondarroako eta La Salveko Guardia Zibilaren kuarteletan, eta baita Poliziaren Indautxuko Komisarian ere. Gertaera horiek markatu zuten psikologikoki urteetan, eta familiak kanpora bidali zuen, Venezuelara, gertaera horiek sortu zioten beldurrarengatik. Gaur egun, dioenez, ez zaio gelditzen arrasto handirik, baina fobia batzuk baditu.

**E 218 Eskabidea ez da onartu**

**A.V.N.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 219 Eskabidea ez da onartu**

**L.S.U.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 220 Eskabidea ez da onartu**

**J.M.Z.B.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 221 Eskabidea ez da onartu** **M.C.U.E.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 222 Eskabidea ez da onartu** **I.O.A.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 223 Eskabidea ez da onartu** **E.A.A.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 224 Eskabidea ez da onartu** **I.A.E.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 225 Eskabidea ez da onartu** **J.A.C.A.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 226 Eskabidea ez da onartu** **J.E.G.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 227 Eskabidea ez da onartu** **T.A.P.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 228 Eskabidea ez da onartu** **M.A.C.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 229 Eskabidea ez da onartu** **J.A.N.G.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 230 Eskabidea ez da onartu** **A.E.A.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 231 Eskabidea ez da onartu** **J.G.L.E.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 232 Eskabidea ez da onartu** **M.A.P.M.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 233 Eskabidea ez da onartu** **R.S.E.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 234 Eskabidea ez da onartu** **J.E.O.A.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 235 Eskabidea ez da onartu** **I.M.C.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 236 Eskabidea ez da onartu** **F.J.G.P.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 237 Eskabidea ez da onartu** **R.Z.Z.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 238 Eskabidea ez da onartu** **A.I.R.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 239 Eskabidea ez da onartu** **G.R.E.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 240 Eskabidea ez da onartua** **Z.R.I.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.

**E 241 Eskabidea ez da onartu** **R.M.I.V.**

Eskabidea 107/2012 Dekretuak finkatutako epetik kanpo aurkeztu zen.



2011ko martxoaren 31n, 61/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak. Eskakizun hori betearazte aldera, Jaurilaritzak ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua onartu zuen, *Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa*. Dekretuan Balorazio Batzorde bat eratzea xedatzen zen, eta aurkeztutako kasu guztiei erantzuteko zeregina ematen zitzaion Batzorde horri. Batzordearen jarduera hiru urte eta erdiko denboraldian egin zen (tarte horretan, EAEn bi gobernu egon ziren). Txosten honek prozesu horren eta lanaren emaitzen berri ematen du. Ahanzuratik ateratzen den historiaren zati bat ere bada.

Txosten honetan, Balorazio Batzordeari, 1960-1978 aldiarekin lotuta, aurkeztutako kasuetan jasotako istorioen, partekatutako oinazeen, aurkeztutako dokumentazioaren eta egindako azterketen berri ematen da. Lehen zatian, Batzordearen lanaren ikuspegi orokor bat agertzen da. Horren ondoren, kasuak aztertzen dira, gertakari-motaren arabera multzokatuta: hau da, diktaduraren garai horretako eta trantsizioko lehen urteetako manifestazioak, errepede-kontrolak, polizia-operazioak, liskarrak, Martxoaren 3ko gertaerak, bidezko prozesua errespetatu gabe egindako fusilamenduak, sexu-indarkeria, tratu txarrak eta torturak. Pertsona horien istorioen bitartez, esperientzia komunak berri eta testuinguruan ipin daitezke eta izan zuten eragina uler dezakegu, biktimei eta haien ahaideei balioa emateaz gain. Aitorpenari eta erreparazioari buruzko ondorioen eta ikuspegien azterketa bat ere egiten da, biktimen eta ahaideen kontakizunetan oinarrituta.

# ahantzuratik ateratzen

*ETBk Dekretuaren berri eman zuen; entzun nuenean, hau esan nion neure buruari: nik argitu egin behar dut hau. Kostatu egin zitzaidan, baina egiteko erabakia hartu nuen azkenean. Aurrera egingo dut, J.E.k hau argitzea merezi du-eta, pentsatu nuen. Argitu dadila kasua, behintzat. Eta hemen nago (...)  
Pauso positiboren bat egiten ez bada, mintu egiten zaitu, eta gainerakoei ere min ematen die. J.F.M.*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**LEHENDAKARITZA**

Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lankidetzaren Itazkaritza Nagusia  
Bikimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

**PRESIDENCIA**

Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos